


SENEZ

2004

ITZULPEN ALDIZKARIA

27 ZBK



SENEZ

ITZULPEN ALDIZKARIA

Zuzendaria:
Gotzon Egia

Aholku taldea:
Lurdes Auzmendi
Koldo Biguri
Karlos del Olmo
Juan Garzia
Fernando Rey

Helbidea:
Zurriola hiribidea, 14
20002 DONOSTIA

Tel.: 943 27 71 11
Fax: 943 27 72 88

senez@eizie.org
<http://www.eizie.org>

EIZIE



Urruneko intxaurrak	7
SENEZek 20 urte bete ditu. Zenaz eta denaz hizketan orain arteko hiru zuzendariekin	
FERNANDO REY	23
On Pedro Berrondo, apaiz itzultzailea	
GOTZON EGIA	33
Zuzenketaren gaineko jardunaldiak	
Laburpen gisara	
MAITE IMAZ	41
IZOko zuzenketa-prozesua. Lehenengo zuzenketa. Zuzenketa- mailak	
KAXILDO ALKORTA, JOSEBA URKIA, ANTON BURGOA	47
Testu zuzenketa Bizkaiko Foru Aldundian	
JOSEBA URZELAI	63
EIMArek nondik norakoak	
ANDRES ALBERDI	75
Zuzentzaile euskaldun / Euskal zuzentzaile baten memoriak	
LOREA ARRIETA	95
Zuzenketa lana eguneroko prentsan: azken 13 urteotako esperientzia	
IRENE ARRARATS	105
Zuzenketa literarioaz	
XABIER MENDIGUREN ELIZEGI	113
EHUko zuzenketak: mailak eta motak	
IÑAKI UGARTEBURU GASTAÑARES	117
Aldizkari zientifiko baten zuzentzailea: ergatibotik ortotipografiara, zientziaren bideetatik	
GIDOR BILBAO TELLETXEA	135
Hizkuntzalariak telebistagintzan	
ASIER LARRINAGA	145
Zuzenketa elkarlanean	
BEATRIZ ZABALONDO	153
Zuzenketen Kudeaketa eta Hizkuntz Zerbitzuak	
A. GURRUTXAGA, S. JAUREGI, A. MUJICA	163
X-Flow: Webgune cleanitz batean itzulpenak eta zuzenketak kudeatzeko workflow bat	
L. FERNANDEZ, F. QUINTANA	191
Zuzenketa automatizatzea	
KARLOS DEL OLMO	201

Ospakizun baten bozkarioz datorkizu, irakurle, Senez aldizkariaren zenbaki hau: 1984ko urtean kaleratu zuen Martuteneko Itzultzaile Eskolaren inguruan bildutako itzultzaile talde aitzindariak aldizkari honen lehen zenbakia, geroago EIZIEk bere esku hartuko zuena. Hogei urte luze beteak ditugu, beraz. Ospakizunak izango du berariazko atal bat, aldizkariaren ale guztiz berezi baten bitartez, baina eskuartean duzun honek jaso nahi izan du, baita ere, urteotan egindako urrats esanguratsuenen azalpenik.

Poesiaren itzulpenak zabaltzen du, berriro eta azken urteotako bideari jarraiki, aldizkaria. Itzultzaile mordoxka baten lanak dira, debozioz baino gehiago, amodioz egindakoak, euskaratutako poesiaren webgune bat noizbait osatzeko xedez egindakoak, proiektu guztiz komunitario baten barne. Anton Garikano bazkideak lagundu digu, proiektu horretako euskarrietako bat den heinean, poemok biltzen, hautatzen eta argitaratzeko prestatzen. Berari bezainbatean lore-sorta hori ederreztatu duen itzultzaile bakoitzari eman behar dizkiogu eskerrak, noski.

Aldizkariaren oroimena berreskuratu nahi izan dugu elkarriketaren atalean, orain arteko 20 urteren ibilbidean Senezek izan dituen zuzendariak solasera elkarretaraturik. Fernando Rey bazkideak egin du, ez dugu esango *moderatzaille* zeregina oraingoan, alderantzizkoa baizik, *harrotzaille* eginkizuna esan behar genuke, elkarriketaren hezurra eta mamia ongi taxutzeko lana ederki kostata hartu baitu bere gain.

Ondoren, gure ohorezko bazkide Pedro Berrondoren *Don Kixote Mantxa'ko* lanaren iruzkin bat eman

dugu argitara, hura hil zela urtea betetzen zenean Oiarz-
tzungo herriak antolatutako omenalditxoaren harira.

Zenbaki honi muin berezia ematen dion atala dator azkenik: EIZIEk 2004ko maiatzaren 5etik 7ra, HAAE-ko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren (<http://www.ivap.org/eusk/izo/karatula.htm>) laguntzaz, Donostian egindako zuzenketen gaineko jardunaldietan entzun ziren mintzaldiak. Lehenengo aldiz heldu zion gure elkarteak zuzenketaren gaia modu zabal eta sakonean aztertzeari, eta garbi baino garbiago azaldu zen itzultzaileengan (baita editoreengan eta beste askorengan) jakin-min ikaragarria pizten duela. Horregatik erabaki dugu han emandako mintzaldiak orriotara ekartzea, jardunaldietan izandakoentzat oroigarri, eta beste guztiontzat jakingarri.

Horrela osatu dugu, beraz, aldizkariaren 20. urteurreneko zenbaki hau. Orain arteko ibilbidean, aise esan genezake *Senez* aldizkaria euskal itzulpengintzaren aitzindaritzan izan dela beti, hain zuzen ere itzulpengintzak eta itzultzaileek garabide galanta izan duten urteotan. Iraganaren ondareari etorkizunean eusteko adorea, horixe besterik ezin diogu opa elkarteari eta aldizkariari!

Gotzon Egia

Urruneko intxaurrak

HAINBAT AUTORE

Hona hemen poema sorta bat, itzultzaile literaturzale talde batek euskaraz emanak, poesiarren webgune berri bat sortzeko proiektuaren barruan. Jende anitz eta askotarikoa ari da proiektu horretan, eta orain arte egindakoaren erakusle, bilduma hau ematen dugu argitara, egileen baimenaz eta oniritziaz. Hautapen lanetan Anton Garikanok lagundu digu.

Louis Aragon (Paris, 1897-1982)

JE REVOIS LA CHAMBRE UNE CHAMBRE N'IMPORTE QUELLE
CHAMBRE PAS

N'importe quelle mais celle-
Ci je ne sais où je ne sais quand mais
Celle-ci dans un hôpital sombre à la campagne où les arbres
Aveuglent la fenêtre verts et noirs une
Chambre où tout est poussière passé nuit rien
Ne tient sur ses pieds les chaises ni
La table de toilette un guéridon le tapis de travers
Et le haut lit d'édredons passés avec la couverture blanche
Sa frange aux pompons arrachés

Comme nous l'avons du moins je l'ai cette chambre
Aimée

Quand donc quel siècle quelle année
Tout comme une horloge immobile on peut en dire l'heure et
la minute mais
Quel siècle quelle saison
Sait-on bien

Tes chaussures près d'un fauteuil inquiètes
Le linge à terre glissé
Tout n'est plus qu'un murmure énorme à la limite d'être
Une fatigue folle et douce au bord de dormir
Quelqu'un parle au dehors et c'est là le silence

Peut-être un jour peut-être j'ai pensé peut-être
Nous nous ressouviendrons de cette chambre ailleurs
N'importe où mon amour hors du monde

J'ai pensé nous nous ressouviendrons Dans une ville de
clameurs Au bord d'une plage où la mer lentement meurt
Dans un pays de violent soleil sur des carreaux rouges
Quelque part en Allemagne ou dans ce pays de statues
A la limite des forêts J'ai pensé
Et voilà qu'aujourd'hui je sens à nouveau cette chute
Au profond du lit ancien d'une pierre et très loin

Le cri

Louis Aragon (Paris, 1897-1982)

Itzulpena: Xabier Galarreta

*GELA GOGORA DATORKIT GELA BAT BERDIN DA ZEIN
GELA EZ*

*Ez du axola zeinek baina honako
Hau ez dakit non ez dakit noiz baina
Honako hau ospitale ilun batean mendian non zuhaitzek
Berde eta beltz leihoa estaltzen duten
Gela bat non den-dena baita iragandako hautsa deusik
Ez da zutik gelditzen ez aulkiak
Ez apaintze-mahaia mahaitxo bat tapiza trabeska
Eta ohe altua edredoi higatuduna estalki zuriarekin
Bere borlarik gabeko mendelarekin*

*Nolatan maite dugun maite dudan nik behintzat
Gela hau.*

*Noiz bada zein mendetan zein urtetan
Mugitzen ez den erlojuaren antzera esan daiteke zein ordu eta
zein minutu den baina
Zein mende zein urtaro den
Ba ote dago jakiterik*

*Zure zapatak besaulki baten ondoan artega
Arropa lurrean erorita
Den-dena da zurrumurru ikaragarria izanaren mugan
Neke zoro eta gozoa loaren bazterrean
Kanpoan norbaitek hizketan dihardu eta hori da isiltasuna*

*Agian egunen batean agian pentsatu nuen agian
Gela honetaz gogoratuko gara beste nonbait
Ez du axola non ene maitea mundutik kanpo*

*Pentsatu nuen berriro gogoratuko gara Aldarri-hiri
batean Hondartza baten ertzean non itsasoa poliki hiltzen den
Izpi gorriko eguzki bortitzeko herrialde batean
Alemaniako lekuren batean edo estatua-herri horretan
Basoetako mugan Pentsatu nuen
Eta horra gaur berriz sentitu dut erorketa hau
Harri baten ohantze zaharraren hondoan eta oso urrun*

Oihua

Bertold Brecht (Augsburg, 1898 – Berlin, 1956)

Itzulpena: Xabier Montoia

Meine Einzige,
In deinem letzten Briefe
Sagst du:
"Mein Kopf tut weh,
mein Herz war rebellisch
Wenn sie dich hängen,
Wenn ich dich verliere
Kann ich nicht leben."
Du wirst leben, Liebe.
Die Erinnerung an mich wird schwinden
Wie im Wind der schwarze Rauch
Du wirst leben, rothaarige Schwester meines Herzens
Trauer um die Toten
Dauert im 20. Jahrhundert
Ein Jahr.
Tod...
Ein Leichman, schwingend
Am End eines Stricks.
Doch sei versichert, Geliebte:
Wenn die haarige Hand des Henkers
Den Strick um meinen Hals legt
Vergebens
Werden sie suchen in den blauen Augen Nazims
Furcht.

*Ene kuttuna,
hire azken gutunean
dion:
«Buruko minak nagok,
bihotza matxinatu zitzaidaan.
Urkatzen bahaute,
galtzen bahaut
ezin biziko nauk.»
Biziko haiz, maitea.
Nire oroimena aienatuko dun
ke beltza haizean bezala.
Biziko haiz, nire bihotzeko arreba ilegorria,
hildakoen aldeko dolua
urte betekoa dun
hogeigarren mendean.
Heriotza...
hilotz bat dilindan
soka baten muturretik.
Baina izan ziur, laztana:
borreroaren esku bilotsuak
nire lepo inguruan soka ezartzean
alferrik
bilatuko ditin Nazimen begi urdinetan
beldurra.*

Du Fu (c.712 - c.770)


Itzulpena: Rafa Egiguren

月圓

滿扉定依靜
樓夜不逾山
當動金綺空
月江波席缺
孤寒委照未
高故萬

ilargi betea

ene baita ganean ilargi
ezin egon ibaia ganean
uhin alfer, urre-dardarizo
ur-azala zeta bezain dirdai
izekirik, izarrak barreiu
atsedenik hutsena mendian
inguruko kanaletan lore
oro garden distiren sarean



Paul Celan (Czernowitz, 1920 - Paris, 1970)

Todesfuge

Schwarze Milch der Frühe wir trinken sie abends
wir trinken sie mittags und morgens wir trinken sie nachts
wir trinken und trinken
wir schaufeln ein Grab in den Lüften da liegt man nicht eng
Ein Mann wohnt im Haus der spielt mit den Schlangen der schreibt
der schreibt wenn es dunkelt nach Deutschland dein goldenes Haar Margarete
er schreibt es und tritt vor das Haus und es blitzen die Sterne er pfeift seine Rüden herbei
er pfeift seine Juden hervor läßt schaufeln ein Grab in der Erde
er befiehlt uns spielt auf nun zum Tanz

Schwarze Milch der Frühe wir trinken dich nachts
wir trinken dich morgens und mittags wir trinken dich abends
wir trinken und trinken
Ein Mann wohnt im Haus der spielt mit den Schlangen der schreibt
der schreibt wenn es dunkelt nach Deutschland dein goldenes Haar Margarete
Dein aschenes Haar Sulamith wir schaufeln ein Grab in den Lüften da liegt man nicht eng

Er ruft stecht tiefer ins Erdreich ihr einen ihr andern singet und spielt
er greift nach dem Eisen im Gurt er schwingts seine Augen sind blau
stecht tiefer die Spaten ihr einen ihr andern spielt weiter zum Tanz auf

Schwarze Milch der Frühe wir trinken dich nachts
wir trinken dich mittags und morgens wir trinken dich abends
wir trinken und trinken
ein Mann wohnt im Haus dein goldenes Haar Margarete
dein aschenes Haar Sulamith er spielt mit den Schlangen
Er ruft spielt süßer den Tod der Tod ist ein Meister aus Deutschland
er ruft streicht dunkler die Geigen dann steigt ihr als Rauch in die Luft
dann habt ihr ein Grab in den Wolken da liegt man nicht eng

Schwarze Milch der Frühe wir trinken dich nachts
wir trinken dich mittags der Tod ist ein Meister aus Deutschland
wir trinken dich abends und morgens wir trinken und trinken
der Tod ist ein Meister aus Deutschland sein Auge ist blau
er trifft dich mit bleierner Kugel er trifft dich genau
ein Mann wohnt im Haus dein goldenes Haar Margarete
er hetzt seine Rüden auf uns er schenkt uns ein Grab in der Luft
er spielt mit den Schlangen und träumet der Tod ist ein Meister aus Deutschland

dein goldenes Haar Margarete
dein aschenes Haar Sulamith

Paul Celan (Czernowitz, 1920 - Paris, 1970)

Itzulpena: Koldo Izagirre

Heriofuga

Egusentiko esne beltza arratsean irensten digu
goizean eta eguerdian irensten gauean irensten digu
irentsi eta irentsi
hilobia zulatzen digu haizean han ez gaude estu
gizon bat bizi da etxean sugeekin jolasten da idatzi egiten du
Alemanian eguna ubeltzen denean idazten du zure urre-ilea Margarita
hitzok idazten ditu atarian ageri da eta izarrek dirdira egiten dute ziztu egiten die bere zakur handiei
ziztu egiten du irtenarazten ditu bere juduak hilobia zulatzen jartzen ditu
tira, jo ezazue dantza egiteko agintzen digu

Egusentiko esne beltza arratsean irensten zaitugu
goizean eta eguerdian irensten gauean irensten zaitugu
irentsi eta irentsi
gizon bat bizi da etxean sugeekin jolasten da idatzi egiten du
Alemanian eguna ubeltzen denean idazten du zure urre-ilea Margarita
zure errauts-ilea Sulamita hilobia zulatzen digu haizean han ez gaude estu

Oihu egiten digu sar itzazue palak barnago lurlean eta zuek kanta ezazue jo ezazue
gerriko burdina hartzen du mehatxuka jasotzen begi urdinak ditu
oihu egiten digu sar itzazue palak barnago lurlean eta zuek jo ezazue dantza egiteko

Egusentiko esne beltza arratsean irensten zaitugu
goizean eta eguerdian irensten gauean irensten zaitugu
irentsi eta irentsi
gizon bat bizi da etxean zure urre-ilea Margarita
zure errauts-ilea Sulamita sugeekin jolasten da
Oihu egiten digu jo ezazue lasaiago heriotza Alemaniatic etorritako maisua da
oihu egiten digu jo ezazue tristeago biolina eta zuen kea zerurantz doa
zuen hilobia edukiko duzue hodeietan han ez da estu egoten

Egusentiko esne beltza arratsean irensten zaitugu
Eguerdian irensten zaitugu heriotza Alemaniatic etorritako maisua da
goizean eta eguerdian irensten gauean irensten zaitugu irentsi eta irentsi
heriotza Alemaniatic etorritako maisua da begi urdinak ditu
berunezko bala jaurtitzen dizu ez du huts egiten
gizon bat bizi da etxean zure urre-ilea Margarita
bere zakur handiak xaxatzen dizkigu hilobi bat eskaintzen digu zeruan
sugeekin jolasten da eta amets egiten du Alemaniatic etorritako maisua da heriotza
zure urre-ilea Margarita
zure errauts-ilea Sulamita

Susan Griffin (Los Angeles, 1943)

Three poems for women

1

This is a poem for a woman doing dishes.
This is a poem for a woman doing dishes.
It must be repeated.
It must be repeated,
again and again,
again and again,
because the woman doing dishes
because the woman doing dishes
has trouble hearing
has trouble hearing.

2

And this is another poem for a woman
cleaning the floor
who cannot hear at all.
Let us have a moment of silence
for the woman who cleans the floor.

3

And here is one more poem
for the woman at home
with children.
You never see her at night.
Stare at an empty space and imagine her there,
the woman with children
because she cannot be here to speak
for herself,
and listen
to what you think
she might say.

Susan Griffin (Los Angeles, 1943)

Itzulpena: Karlos del Olmo

Hiru poema emakumeentzat

1

*Hau harrikoan diharduen emakume batentzako poema da.
Hau harrikoan diharduen emakume batentzako poema da.
Errepikatu beharrekoa da.
Errepikatu behar da
behin eta berriro,
behin eta berriro,
harrikoa egiten diharduen emakumeak
harrikoa egiten diharduen emakumeak
ezin duelako ondo entzun
ezin duelako ondo entzun.*

2

*Beste poema hau emakume batentzat da,
behegaina garbitzen ari dela
ezin duelako ezertxo ere entzun.
Egin dezagun minutu bete isilaldi
behegaina garbitzen diharduen emakumearen alde.*

3

*Eta hona hemen beste poema bat
etxean umeekin
dagoen emakumearentzat.
Inoiz ez duzu gauean ikusiko.
Gera zaitez gune hustu bati begira
eta irudika ezazu han
emakumea umeekin,
ezin delako hemen egon berberak
berba egiteko,
eta adi ezazu
zeure iritziz
berak esango lukeena.*

Jose Antonio Labordeta (Zaragoza, 1935)

PRIMER RECUERDO
de mi padre

Hoy marzo y siete. ¿Recuerdas? Yo recuerdo.
Soy vivo y te recuerdo: Íntegramente puro,
siempre igual. Diste la mano a quien te dio la mano
y arrancaste el odio a quien te odió de espaldas.

¿Recuerdas? Ya casi primavera, olor a campo,
en las viejas ventanas del colegio –alguien dijo
que tu labor no fue importante.

¡Hay cosas, padre, que son mejor
guardarlas en silencio! –Alumnos con charangas
saludaban tu paso. También tu muerte –fuimos todos
contigo al cementerio– y veían tu pureza total
y sentían tu voz contra sus frentes.

Hoy ya marzo, otra vez, tanto tiempo te has ido
que recuerdo el dolor que te produjo
amar la libertad como la amaste.

Jose Antonio Labordeta (Zaragoza, 1935)

Itzulpena: Felipe Juaristi

LEHEN OROITZAPENA

(nire aitarena)

Gaur martxoak eta zazpi. Gogoan duzu? Nik gogoan dut.
Bizirik naiz eta gogoan zaitut: guztiz garbia,
beti bat. Eskua eman zenion eskua eskaini zizunari
eta gorrotoa kendu zenion atzetik gorrotatu zintuenari.

Gogoan duzu? Udaberria ia, mendi usaina,
ikastetxeko leiho zaharretan –zure lana
funtsik gabea izan zela esan zuen norbaitek.

Gauza batzuk, aita, hobe
Isilean gorde! –Ikasleek txarangekin
agurtzen zintuzten. Zure heriotzean ere bai
–denok joan ginen hilerrira– eta zure garbitasun guztia
ikusten zuten eta zure ahotsa aditzen beren bekokiaren aurka.

Gaur, martxoa, berriro, hainbeste denbora joan zarela
gogoan dut oraindik zuk askatasuna maite zenuen bezala
maitatzeak egindako mina.

Nathalie Stephens (Montreal, 1970)

The body is small and familiar.
It is a small body and it is familiar (to me).

I sit near the body with my hands placed on the small chest and the small back. I warm the cold legs. I stroke the small head. The eyes are wide with fear. The eyes are wide with fear.

With fear.

In your language, to attach a word to a thing is to resist the thing.

Instead I touch it with my hands until my hands become thick with touching and the colour is gone from the eyes and the head twitches and my hands are noise and trembling until the wind pushes the door and the wood marks bruises on my wrists and the bones in my wrists snap and my fingers come to rest against the inside of my arm and my knees burrow into concrete and the small body becomes heavy and the lungs expel water and the heaving moves from the body into the room and the window on the door shatters and the heart hooks into the ribs and the blood drains from the face and the clay runs down the wall and the house hunches against the earth and the jaw cracks and the animals are silent and the air twitches and a dog refuses food and a man bakes bread and a machine whirs and a river overflows and the thing catches me not sleeping.

Nathalie Stephens (Montreal, 1970)

Itzulpena: Antton Garikano

*Gorputza txikia da eta ezaguna.
Gorputz txikia da eta ezaguna zait.*

*Gorputzaren ondoan nago eserita nire eskuak bular txikian eta bizkar txikian.
Berotzen ditut hanka hotzak. Igurzten dut buru txikia. Begiak zabalik daude beldurrez. Begiak zabalik daude beldurrez.*

Beldurrez.

Zure hizkuntzan, gauza bati hitz bat eranstea gauzari gogor egitea da.

Aldiz nire eskuekin ukitzen dut harik eta nire eskuak loditu arte ukitzeaz eta kolorea joan da begietatik eta buruak ziztatzan du eta nire eskuak zarata dira eta dardara harik eta haizeak atea bultzatzen duen arte eta egurrak ubelduak egiten dizkit eskuturretan eta hausten zaizkit eskuturretako hezurak eta nire hatzek atsedean hartzen dute nire besoaren baitan eta nire belaunek habia egiten dute hormigoian eta gorputz txikia astuna egiten da eta birikei ura darie eta balantzak gorputzetik gelaren barrura eta ateko leihoa zartatzen da eta bihotza kakotzen da saihetsetan eta odola husten da aurpegitik eta buztina doa horman behera eta etxea konkortzen da lurraren aurka eta masailezurra pitzatzen da eta animaliak isiltzen dira eta aireak ziztatzan du eta zakur batek baztertzen du janaria eta gizon batek erretzen du ogia eta makina batek txistu egiten du eta ibai batek gainez eta gauzak lo ez nagoela harrapatzen nau.

Philip Larkin (Coventry, 1922 – Hull, 1985)

Itzulpena: Juanjo Olasagarre

The Winter Palace

Most people know more as they get older:
I give all that the could shoulder.

I spent my second quarter-century
Losing what I had learnt at university

And refusing to take in what had happened since.
Now I know none of the names in the public prints,

And am starting to give offence by forgetting faces
And swearing I've never been in certain places.

It will be worth it, if in the end I manage
To blank out whatever it is that is doing the damage.

Then there will be nothing I know.
My mind will fold into itself, like fields, like snow.

Neguko Jauregia

*Jende gehiena zenbat eta zaharrago jakintsuago:
Nik bizkarra ematen diot horri denari.*

*Azkeneko hogeita bost urteak pasatu ditut
Unibertsitatean ikasitakoa galtzen*

*Eta ordutik hona gertatutakoa ezin ulertuz.
Jada ez ditut paperetako izenak ezagutzen,*

*Eta aurpegiak ahanzten ditudanez hasia naiz jendea iraintzen
Eta zenbait tokitan izan ez naizela zin egiten.*

*Gaitzerdi, azkenera, kalte egilea
Zernahi dela, suntsitzearen truke balitz.*

*Orduan ez dut jadanik ezer jakinen
Nire gogoia bere baitara bilduko da, soroak, elurra bezala.*

Miguel Torga (S. Martinho de Anta, 1907 – Coimbra, 1995)


Itzulpena: Fernando Gomez


Regresso

Quanto mais longe vou, mais perto fico
De ti, berço infeliz onde nasci.
Tudo o que tenho, o tenho aqui
Plantado.
O coração e os pés, e as horas que vivi,
Ainda não sei se livre ou condenado.

Itzulera

*Urruntzen naizen neurrian hurreago geratzen naiz zugandik
Sortu nintzen sehaska alaiari
Dudan guzia, hemen daukat
Landatua
Oinak eta bihotzak, eta bizi izan nituen orduak,
Libro ala gatibu, oraindik, ez dakit.*





Senez-ek 20 urte bete ditu.

Zenaz eta denaz hizketan orain arteko hiru zuzendariekin

FERNANDO REY

Senez aldizkariak 20 urte egin ditu. 1984an ilusioz eta gogoz, itzultzaileen eta itzulpengintzaren premiez ohartuta, aldizkari hau sortzeko lehenbiziko pausoak eman zituztenek nekez imajinatuko zuten, segur aski, oraingo une hau. Bizitzan eta lanean ona da noizcan behin geldialdi bat egin eta atzera begiratzea. Gazigozoak ditu egindako lanak. Komenigarria da, beraz, egunean eguneko, zenbakian zenbakiko neke eta zailtasunak ahantzita, begiratu lasai bat ematea egindako bideari, une zailtako gaziek gain har ez diezaguten, une errazetako gozoek lasaikeriara eraman ez gaitzaten.

Elkarrizketa honetan, bada, aldizkariaren beraren historiari egin diogu lekua, emandako pausoei erreparatuta, orduko egoera eta helburuak gogoan, aldizkariak aurrera segi dezan itzultzaileen eta itzulpengintzaren mesedetan.

Josu Zabaleta, Koldo Biguri eta Gotzon Egia iruditu zaizkigu egokienak gogota-lan honetarako, haiek izan baitira *Senez*-ek orain arte izan dituen zuzendaria. Haiek izan dute, arduraz gain, lan karga nagusia. Zein egokiago, beraz, ibilbideaz hitz egiteko?

Senez: *Hogei urte joan dira sortu zenetik. Senez sortu zenean, nik dakidala, honako helburuok ezarri zizkion bere buruari: lehenik, itzulpen lanetan ari direnentzako gogoeta eta erreflexioa eskaintzea; bigarrenik, itzulpengintzaren eta terminologiaren arloan ari direnen problemak eta kezak plazaratzeko eta elkarren berri izateko gunea izatea; hirugarrenik, kanpoko teorizazioetatik baliagarri izan daitekeen guztia-
ren berri ematea. Ona izanen litzateke agian gogoraraztea nola sortu zen aldizkaria, nolakoa zen orduko egoera, zer izan gogo zuen Senez-ek.*

Gotzon Egia: Aldizkariaren sorreran egon zirenek dakite hobekien nola eta zertarako sortu zen. Josuk asko esan diezaguke, baina nik dakidanaren neurrian esango dut hastapeneko urte haietan aldizkaria itzulpengintzaren «abangoardian» zegoela; niri, behintzat, hala iruditu izan zait beti, baina indar bereziz hasierako urteetan.

Gogoan dut 1984an edo 1985ean—ez naiz oso ongi oroitzen— Koldo Mitxelena zenari hitzaldi bat entzun niola aurrezki kutxaren

aretoan, euskararen egoerari buruz. Garai hartan, bizi-bizirik zegoen UZEIren hiztegi-gintzaren inguruko eztabaida, eta Mitxelenak berak kritika zorrotzak plazaratuak zituen hiztegi-gintza molde jakin baten aurka, gauza gogorak esanez gainera. Hitzaldi hartan kezka bat azaldu zuen: hizkuntza bat ez daiteke «normala» izan bere testu ekoizpenaren hirutik bi itzulpen bidez egina baldin bada. Arrazoa izango zuen, noski, errenteriar maisuak, batez ere lexikografiaren nazioarteko arauz gaindi eginak ziren hiztegi baldarrak orpo orpo sinestea dogmatzat hartua zeukatzen itzulpeni eta itzultzailei buruz.

Hogei urte igaro dira eztabaida haietatik, bide luzea egin du euskarak modernizazioaren bidean, eta euskal itzulpengintzak, berriaz, jauzi ikaragarria egin du alderdi guztietan. Ez dut uste, inolaz ere, gaur euskarazko letretan hirutik bi itzulpen bidez eginak direnik, ez gara halako mailara iritsiko ziurrenik, baina hala izango balitz ere, ez zait iruditzen Mitxelenak orain dela hogei urteko iritzi bera izango zuenik. Gure garaiotan, hiztegi-gintza asko hobetu den arren, gutxi izango dira hiztegien esanak besterik gabe jarraitzeko prest diren itzultzaileak. Prestakuntzan aurrerapen izugarria egin dugu, eta iruditzen zait *Senez* aldizkariak, eta EIZIEren jardunak oro har, guztizko eragina izan dutela itzultzaileon aitzinamendua eta lanbidearen estimua hobetzeko. *Senez* tresna aitzindari bat izan da beti, nik hala ikusi izan dut behintzat, euskal itzultzaileon lanbidearen etorkizuneko bidea markatu izan duena.

Josu Zabaleta: Helburuak horiek ziren, bai, zuk galderan aipatu dituzunak. Dena dela, iruditzen zait garai hartako testuinguru eta beste zenbat datu xeheago ezagutzeak pixka bat lagunduko digula ulertzen *Senez*

aldizkariaren lehen garaia egiaz zer izan zen eta aldizkari honen sorrerak zer ekarri zuen.

Aldizkaria sortzeko erabakia eta ekimena Martuteneko Itzultzaile Eskolak hartu zuen bere gain. Martuteneko Itzultzaile Eskola 1980an sortu zen, Euskaltzaindiak, Joan San Martin jagon-sailburuaren bitartez, emandako bultzadaz, *Senez* aldizkaria sortu baino lau urte lehenago. Ikastaro normalez eta ikastaro laburrez gainera, Martuteneko Itzultzaile Eskolak bideratu zuen ekimen nagusietako bat izan zen beraz. Lau urte horietan, egia da, Martuteneko Itzultzaile Eskola euskal itzultzaileen erreferentziarik garrantzitsuenetako bat bilakatua zen. Eskolak ez zuen, ordea, “bere” aldizkari bat sortu nahi, Eskola bera euskal itzultzaileen elkargune bihurtu nahi zuen bezala, aldizkaria ere euskal itzultzaileen elkargune izateko asmoz sortu nahi izan zuen, bere kabuz ibili eta biziko zen elkargune bezala hain zuzen.

Horregatik, hain zuzen, lehen ekimena Martuteneko Itzultzaile Eskolarena izan bazen ere, *Senez* aldizkariaren lehen alearen lehenengo orrialdean berean ikus daitekeenez, Martuteneko Itzultzaile Eskolarekin batera, UZEI eta Elhuyar elkarteak ere partaide izan ziren aldizkari honen sorkuntzan. Une hartan, Itzultzaile Eskolarekin batera elkarte horiek, itzulpengintzan eta batez ere terminologiari zegokionean, nahitaezko erreferentziak baitziren. Hala, bilera batzuk egin ziren elkarte horietako arduradunekin, eta *Senez* aldizkaria sortzea, haren izena, formatua eta erredakzio taldea erabaki ziren. Niri eman zidaten zuzendaritzaren ardura; Itzultzaile Eskolaren izenean ordezkaria neu izan nintzelako eta lehendik eta orduan ere argitalpenen munduan (Hordago argitaletxean) ari nintzelako inondik ere.

Senez: *Eta aldizkaria sortzeko zer ereduri jarraitu zenioten? Zein ziren zuen erreferentziak?*

Josu Zabaleta: Aldizkariaren eredia une horretan Bartzelonako Unibertsitate Autonomoak argitaratzen zuen *Quaderns de Traducció i Interpretació* aldizkaria izan zen. Hori egiaztatzeko ikusi besterik ez dago orrialdeen formatua bera, adibidez; haren kopia agerigerikoa da. Azala, berriz, Laura Esteve donostiar margolari eta disceinatzaile ezagunak egina izan zen.

Lehenengo zenbaki hori aurkezpen zenbakia izan zen batez ere: aldizkaria argitaratzeko ekimena hartu zuten elkartearen aurkezpena, euskal itzulpenak hartzen zituen eremuan aurkezpena, eta aldizkariak gerora hartuko zuen tajuaren erakusgarria.

Senez: *Baina oker ez banago, berehalaxe gertatu ziren lehenbiziko aldaketak, ez da hala?*

Josu Zabaleta: Bai. Bigarren alerako, UZEI elkarteak alde egin zuen aldizkariaren bultzatzaile taldeetik, eta hala egiazta daiteke bigarren ale horren lehen orrialdean. Erabaki horren berri ematean garai hartako UZEI elkartearen gerenteak adierazi zidanez, elkarte horretako zuzendaritza batzordeko zenbait kide ez bide ziren oso-oso ados elkarte horrek aldizkari honetan maila horretan parte hartzearekin. Hala ere elkarte horretako zenbait kidek, norik bere izenean, *Senez*-en parte hartzen jarraitu zuten. Une horretatik aurrera, beraz, Martuteneko Itzultzaile Eskola agertu zen aldizkari honen arduradun bakarizat, beste elkarte batzuetako kideen partaidetzarekin.

Egia esan, *Senez* aldizkaria argitaratzea pertsona bakar baten ekimena izan da ia beti, zuzendariarena. Horretan badu antza zenbait

eskoletan izan ohi diren aldizkariekin: zuzendari "factotum" baten fruitua izaten dira; hark hartu behar izaten du ia guztiaren karga: artikulua eskatu, eginarazi, telefonoz deitu, eta gainerako guztiak. Lehenengo garai horretan, hala ere, antolamendu lan gehiena pertsona bakarraren gainean egonagatik, haren atzean Martuteneko Itzultzaile Eskola, eta UZEI eta Elhuyar elkarteetako kideak eta beste zenbait pertsona egon izan ez balira, ez dut uste *Senez* aldizkariak izan zuen maila eta maiztasuna izan ahal izango zituenik; ezinezkoa izango zen. Haici esker argitaratu zen aldizkaria, eta geroago, EIZIE sortu zenean, garbi ikusi zen EIZIE zela *Senez* aldizkariari bere izatez zegokion lekua.

Senez: *Elkarte bat sortzen denean, maiz bere aldizkaria argitaratzeko premia ikusten du. Baina gure kasuan, harrigarria, alderantzizkoa izan zen prozesua, beraz.*

Josu Zabaleta: Bai, gogoratzekoa da EIZIE bera sortzeko ekimena ere *Senez* aldizkari honetan egindako proposamen baten inguruan mamitu zela. 1986ko apirilko zenbakian euskal itzultzaileen artean egindako inkesta baten emaitza jakingarriak argitaratu ziren, eta horrekin batera gure inguruan ziren beste zenbait itzultzaile-elkarteren berri eskaini zen, gure artean horrelakoxe elkarte bat sortzeko gonbita garbia eginez. Hartutako erantzuna kontuan hartuta, itzultzaile zirela frogatzeko inoren bermerik behar ez zuten 25 itzultzaile bildu ziren, eta haiek osatu zuten EIZIEko lehenengo kide taldea.

Inkesta hori egin zen unerako *Senez* aldizkari honek euskal itzultzaileen artean zer leku betetzen zuen ezagutzeko, aski da gogoratzeko inkestari erantzun ziotenek itzulpe-

nari buruz aipatzen zuten bibliografian lehenengo lekuan ageri zela, alde handiarekin.

Senez: *Nolako balorazioa, nolako oroitzapenak dituzu, Josu, lehenbiziko etapa hartaz?*

Josu Zabaleta: Nire iritzian, oso denbora laburrean euskal itzultzaileen erreferentzia bihurtu izanak, haiei itzulpenari buruzko gogoetarako bideak zabaldu izanak (bertan pentsatutako artikuluen bidez, itzulpenen bidez eta beste liburu eta aldizkarien aurkezpenak eginez) eta euskal itzultzaileak elkarre batean antolatzen lagundu izanak nahikoa eta gehiago justifikatzen dute aldizkari honek egindako lana, zein gizatalde urrian sortzen zen kontuan hartuta batez ere.

Aldizkariak kanpora begira izan zezakeen irudiaz zerbait esateko, kontuan hartu behar da itzultzaileen munduaren antolamendua oso urria zela zentzu guztietan gure inguruan, Espainian batez ere. Baziren itzultzaile elkarre batzuk: APETI, galegoen elkarte, Kataluniako itzultzaileen elkarte bat, gero desagertu zena; oso unibertsitate gutxitan irakasten zen itzulpena; orduantxe hasi zen irakaskuntza hori zabaltzen, neurritz goitik zabaldu ere, agian. Testuinguru horretan oso harreman gutxi zegoen hizkuntza bateko eta besteko, edo alde bateko eta besteko itzultzaileen artean, eta *Senez* aldizkaria kanpora ere bidaltzen bazen ere, ez zen askorik ezagutzen; eza-gutzen zutenak, ordea, txunditurik zeuden. Pasadizo batek argitu dezake zenbateraino: Valentziako unibertsitatean kongresu bat egin zen itzulpenaz, haiek ere tentatuta baitzeuden filologian itzulpen adar bat zabaltzeko. *Senez* aldizkariaren bilduma bat eraman genien; bildumaren tamaina ikusi zuten arte ez ziguten kasurik egin, baina kasu, egiaz kasu, kongresura itzulpenaren "guru" bezala

gonbitatua zuten Julio Cesar Santoyo jaunak, gu ezagutzear, bere aurkezpenean *Senez*-ekoei buruz *"no sabemos qué dicen, porque escriben solamente en euskara, pero son los que más publican sobre traducción en España; su revista es la revista de traducción más gruesa del mundo"* esan zuenean egin ziguten.

Gure inbidia *Traduire, Babel, Meta, Contrastes* aldizkariak eta horrelako beste batzuk ziren. Haien mailara ez ginen iristen, bistan da, baina haiek genituen beti begien aurrean. Garai hori, gurean ez ezik, mundu osoan zen, itzulpenaren munduan, gogoeta garaia. Itzulpenaren irakaskuntza sistematizatu ia hasi berria zen munduan, esateko; ez gure artean bakarrik. Sobiet Batasuneko eta haren inguruko herrialdeetan aurretatuxearagoa zegoen itzulpenaren irakaskuntza, eta harekin batera itzulpenari buruzko gogoeta; baina handik kanpora oso gauza gutxi aurki zitekeen; Espainian, adibidez, García Yebraeren eta Vázquez Ayoraren liburuez aparte, ezer gutxi. Aldizkari horiek ziren, beraz, itzulpenari buruzko gogoeta mamitzen ari zen gunea, eta benetan itzultzailearen begiak bere lanbidearen eremu askotarako zabaltzen zituzten gogoetak eskaintzen zituzten. Gure inguruan ere itzulpenari buruzko gogoetak eta intuizioak formulatzen eta sistematizatzen ari ziren unea zen.

Gure kasuan oraindik ere nabarmenagoa zen, beharbada, prozesu hori. Egia esan, kasu berezia ere bazen. Beste pasadizo batek argitu lezake ongi ikuspegi hau: oraindik ere gogoan dut itzulpenari buruzko nazioarteko bilera edo topaketa batean —ez naiz gogoratzen zeinetan— Jean-René Ladmiralet edo Henri Besse frantses teorialarietakoren batekin —bietakoren batekin— hizketan, euskal itzultzaileon egoera, gure langintza eta euskara-

ren normalizazio prozesuan genuen pisua azaltzean, harrituta eta ia inbidiaz begiratzen ziguten: “*mais vous vivez dans un laboratoire!*”. Eta ez zen gezurra, esaten ari zirena. Gogoe-taren begiak zabalik eta pentsamenduan behar beste dioptria zituen edonork begien aurre-aurrean zuen, gure artean, itzulpenaren eragina nabarmen-nabarmen erakusten ari zen esperimntua: itzulpenak lehen mailako protagonismoa zuen hizkuntz normalizazio prozesu bat, oso egitura desberdineko bi hizkuntza –bi batez ere, une hartan: gaztelania eta euskara; oraindik ere halaxe jarraitzen du; baina esan beharra dago zenbait alorretan, literaturan eta abar, bitasun hori asko zabaldu dela geroztik–, bi hizkuntza kateatzen zituen itzulpengintza batek gogoeta asko eskatzen zuen baina inprobisatzen ari ginen itzultzaileak urratzen ari ginen lanbide bat –bazirudien hizkuntza normalizatu batean prestamen normala zuen itzultzaile batek eman zezakeen kalitate maila bera emateko, berebiziko artista izan behar zela gure artean–. Pauso guztiak ez ziren zuzen emanak izango, jakina; baina ongi emanak gehiago izan ziren gaizki emanak baino, antza denez, zeren nork egiten du dudarik gaur egun gure itzulpenaren egoera, oro har, nahikoz hobeto dagoela orain orduan baino.

Senez: Aldizkariak zure ardurapean egin du denbora gehiena. Zuk ere, Koldo, asko duzu esateko, noski.

Koldo Biguri: Nik 1989an hartu nuen nire esku, eta 1998ra arte iraun zuzendari-tzan; bederatzik urtez, 8. aletik 20.era, biak barne. Denbora gehiena, beraz, nire esku pasatu du. Tarte horretan, gainera, itxuraberritu ere egin zen.

Hasieran, bazegoen erredakzio batzorde bat, noizean behin bildu eta gaiak proposatzen zituen; baina gero zuzendariak behar zituen martxan jarri: artikulugileari deitu, konbentzitu (ez beti gauza erraza) zerbait idazteko; ondoren, jaso, zuzendu, txukundu eta argitaratzeko moldean jarri. Zuzendaria beti izan da “factotum” bat *Senez*-en; eta hori arazo handi bat da, jendea nekatu egiten duelako; gainera, ez da hain erraza artikulugileak aurkitzea: jende gehiena EIZIE barruko kide eta itzultzaileak izanik, gutxik dute euren lanari buruzko gogoeta idatzirik egiteko kemena; askok uste dute beraiek ez direla nor, edo ez dutela ezer interesgarririk edo maila egokia duenik esateko.

Gauza bitxia da *Senez*: itzultzaileek berek egindako gogoeta-gune bat, baina ez, beste aldizkari asko diren bezala, traduktologoek egindakoa; eta desberdina da itzultzaile izan edo traduktologo izan. Gaur egun, honelako aldizkarietan artikulua idazten dituzten gehienak horixe dira, traduktologoak. *Vasos Comunicantes* aldizkaria bakarrik izango da gurearen modukoa. Eta era honetako aldizkariak denbora eskatzen diote ateratzen dituenari: errazago da hori Unibertsitatean aurkitzea (traduktulogoen artean, alegia), geure etxean baino.

Senez: Hasieran, behinik behin, erredakzio talde baten sostengua bilatzen zen, ezta? Ez du funtzionatu egitura horrek?

Koldo Biguri: Antolamenduari eta egiturari dagokionez gauza bat aitortu behar dugu: erredakzio talde bat zegoen, baina kontuan izan denbora dexentean “erredakzio talde” birtual samarra izan zela. Zuzendaria aritzen zen bakarrik lanean.

Aurrekoarekin lotuaz, arazo larriena zen halako jarraitasun edo programazio bat egitea: hasieran, halako "gai nagusi" bat egon zen, eta baten batzuk animatzen ziren horren inguruan idaztera. Baina denborarekin, oso zaila bihurtu zen, eta artikulu solteak edo elkarrekin zerikusirik gabekoak argitaratzen ziren, zer etorri, huraxe jasotzen baitzen, bestela ez baitzen ezer aterako.

Bestetik, aprobetxatzen hasi ginen, baita ere, antolatzen genituen ekitaldietan aurkeztu ziren materialak (adibidez, EHUren Udako Ikastaroetan aurkeztu zirenak, euskaraz ez ezik, beste hizkuntzetan ere bazirenak; ale berezi bezala atera genituen).

Senez: *Zu zara, Gotzon, oraingo zuzendaria. Zu arduradun egon zaren denboran zer balorazio egiten duzu? Zein dira zure agintaldiko datu esanguratsuenak?*

Gotzon Egia: Nik aldizkariaren zuzendaritza hartu nuenean, 1999an, *Senez*-en 20 zenbaki kaleratuak ziren harrez gero; beraz, ongi finkatua zegoen. Aurreko zuzendaritza taldeek lan bikaina eginga zuten, batez ere hasitapeneko garaietan, askoz ere egoera zailagoan. Euskal itzulpengintzaren esparruan dena egiteko zegoen garaian, iruditzen zait EIZIEko aitzindariak lan handia egin zutela, lehenik gure itzulpengintzaren historiaren irakasbideak azaltzeko, eta bestetik euskal itzultzaileei prestakuntza profesionalerako tresnak eskaintzeko. Garai biziak izan ziren, adiskide arteko langintzaren bitartez elkarrekin, aldizkaria eta Martuteneko Itzultzaile Eskola aitzinera eramateko adorea izan zuten EIZIEren sortzaileek.

Eta hasierako etapa goraiatu behar den bezala, iruditzen zait bigarren aro bat zabaldu

zela 1992an, aldizkaria urtekari bihurtzea erabaki zuenean EIZIEk. Koldo Bigurik eta bere taldeak bederatzi urtez egindako lanari esker, euskal itzultzaileon lanbidearen muinean ongi errotutako aldizkari profesional sendoa bihurtu zen *Senez*.

Beraz, gauzak errazago izan dira atzetik etorri garenontzat; zailena aurreko mailari eustea dela iruditzen zait, kale ez egitea, *Senez*-ek lortua duen esparrua behar den bezala lantzen jarraitzea.

Garaian garaikoak, iruditzen zait teknologiak itzulpengintzara, bizitzaren beste alderdi gehienetara bezala, ekarri dituen aldakuntza sakonei adi egon beharra daukagula, ikerketaren eta prestakuntzaren gaiak atzera utzi gabe, noski.

Senez: *Urtean hiru-lau aldizkari ateratzetik urtekaria izatera pasatzea, ez duzu gauza txarizat hartzen?*

Gotzon Egia: Urtekaria da orain *Senez*, eta uste dut hori dela bere pausaera naturala, hori dela EIZIEren antolamenduak eta jardunbideak eman dezakeen neurria. Hortik gora joaten saiatuko bagina, ziurrenik ez genuke aldizkariaren mailari eusterik izango.

Orain urtean 120 bat orri argitaratzen ditugu, eta ez da gutxi! Batez beste, 6-8 artikulu izaten dira, horietatik «finkotzat» jotzen ditugun hasitapeneko poema itzuliena eta amaierako elkarrizketa. Aldizkaria uda aurretik ateratzeko ahaleginetan saiatzen gara urtero, biziki saiatu ere, baina nik 21. zenbakian zuzendaritza hartu nuenez geroztik, ez dugu inoiz lortu. Beraz, esan daiteke ekainerrako asmoz azaroan kaleratzen den urtekaria dela *Senez*.

Aspaldiko ohitura bat ere berreskuratu dugu joan den bi urte hauetan: erredakzio

batzorde batek eztabaidatzen ditu aldizkarian argitaratu beharreko gaiak eta artikulua; no-labait ere, urteko zenbakiaren norabidea erabakitzen du batzordeak. Iruditzen zait formula osasungarria dela, aldizkariaren leihoak zabaltzeko modu bat baita, eta artikuluen edukia hobeki aztertze bidea.

Ale berezi bat kaleratu genuen 2002an, ingelesez eta frantsesez, euskararik ez dakienari, eta geure kultur esparrua hurbiletik ezagutzen ez duenari, euskal itzulpen gintza zertan den aditzera eman nahirik. Europako Literatur Itzultzaileen Elkartearen Kontseiluak (CEATL, <http://www.ceatl.org>) urteko batzar nagusia Donostian 2002ko urriaren 2tik 5era bitartean egitearekin bat argitaratu genuen ale berezia, eta uste dut oso harrera ona izan duela. Azken urteotan *Senez*-en argitaratutako artikuluen bilduma bat jasotzen du ale berezi horrek, frantsesez eta ingelesez emana.

Argitalpen elektronikoari 1999an ekin genion. Aurreko urtean, 1998ko udazkenean, zabaldu genuen lehenengoz gure webgunea, eta hurrengo zenbakitik aurrera paperezko edizioarekin batera sareko argitalpena egiten dugu. Aldizkariaren eduki osoa jartzen dugu sarean, testu gisa eta, hala behar den guztietan, irudi gisa. Tamalez, paperezko edizioaren aldean, ez dugu Juan Azpeitiaren lan bikaina jasotzen edizio elektronikoan, gure orriei zama kentzearen. Aldiz, argitalpen elektronikoak alde on asko ditu, besteak beste, aldizkariaren edukietan bilatzeko aukera. Gainera, sareko argitalpena ez dugu zenbaki berrietara bakarrik mugatu; atzera ere egin dugu, zenbaki zaharretan barna, eta lerro hauek idazterakoan 10. zenbakitik aurrera (1990az hona) zenbaki guztiak sarean dira. Hortik atzera ere egingo dugu laster, eta gau-

zak ongi direla, lehen zenbakiraino helduko gara 2005. urtearen erdirako.

Senez-en beste alderdi bat nabarmendu nahi dut: aldizkariaren grafismoa. Juan Azpeitia marrazkilariak egundoko lan bikaina egiten du guretzat. Aldizkari gutxi izango dira, gure inguruan, halako maila grafikoa dutenak; zer esanik ez, begiratu besterik ez dago Europan eta munduan barrena diren itzulpen aldizkariak. Iruditzen zait «ohitu» egin garela, normaltzat hartzen dugula zenbaki bakoitzean halako kalitatezko portada eta irudiak izatea, baina gure gisako aldizkariekin alderatzen baditugu, ohartuko gara zer eratako pribilegioa daukagun.

Senez: *20 urteotako historiari eta ibilbideari begiratuta, balorazio orokor bat egin beharko bazenute, zer esanzen zenukete? Egin behar du Senez-ek aldaketa kualitatibo edo kuantitatiborik?*

Josu Zabaleta: *Senez* zabalkunde txikiko aldizkari handi bat izan da, da eta izan daiteke aurrerantzean ere; horretarako gaia, pertsonak eta kemena badu. Hitz gutxitan esanda, nik hala ikusten dut.

Gotzon Egia: Bai, hala da. *Senez* ez da inoiz aldizkari «handi» bat izango; ez zen horretarako jai, eta iruditzen zait bere eragimena ez dela bakar-bakarrik banatutako ale kopuruetan neurtu behar. Euskal itzultzaileen mundua ez da, kopurutan begiratuta, oso mundu zabala, EIZIEko kideak asko ez diren bezala.

Hala ere, *Senez*-ek zalantzarik gabe lortu du bere esparru naturalean onarpena eta eragina izatea, itzultzaile profesionalen artean, alegia. Aldizkari profesional on bat dela uste dut, behar den eremu guztietara (itzultzaileak, esparru akademikoak, liburutegiak...)

ongi heltzen dena. Alde horretatik uste dut gauzak ongi daudela.

Ez zait iruditzen *Senex*-ek ahalegindu behar duenik harpidedun edo irakurle kopurua handitzen kostatuta ahala kostatuta. Eginkizunak alderdi kualitatiboetan ditugula uste dut: euskararen munduan lan egiten duten itzultzaile profesionalen beharren arabera jokatzea, bide-urratzaile izatea, euskal itzulpen-gintza hobetzeko aitzindari, ikerle eta sustatzaile izatea, horra nola ikusten dudana datozen urteetako langintza.

Zorionez, EIZI Eren barnean talde ona daukagu, lantegi horretan saiatzeko borondatea adina prestakuntza baduena. Beraz, urte urte aldizkaria hobetzeko aukera profintatu behar genuke.

Koldo Biguri: Lehenago esan dudana bezala, itxura zientifikoa duen aldizkari amateurra izan da, eta da, neurri handi batean; horrek ez du esan nahi, ordea, ona ez denik. Alderantziz, nire ustez, dagoen onenatarikoa da. Hainbat itzultzaile jarri ditu pentsatzen beraien lanaz, euskal itzulpenari buruzko lehen lan teorikoak argitaratuz: eta lan horiek itzultzaileek berek eginak dira, ez Unibertsitateko zientzialari, hizkuntzalari edo traduktologo esperientziagabeak. Baina, horrek badu berekin ifrentzia: lanean diharduen itzultzaileak asti gutxi izaten du, bai eta prestakuntza teoriko doi-doi. Beraz, traduktologoak ere behar dira euskaraz, eta horretarako Unibertsitatea dago. Gaur egun, badago lizentziatura bat, eta espero izatekoa da hortik itzultzaile ondo prestatuak ez ezik, euskal traduktologo onak ere irtengo direla. Itzulpen praktikak badu teoriaren beharrik ere, eta horretarako prestakuntza berezia behar da; eta gutako askok ez daukagu. Hortik ikus-

ten diot etorkizuna, baina hori bai: horretara soilik mugatu gabe.

Senex, produktu bezala, oso ona iruditzen zait, baita alderdi estetiko ere. Baina, nolabait “profesionalizatu” beharko litzateke, iraungo badu; ezin du jarraitu borondate oneko “amateurren” esku soilik. Maila zientifikoa ere segurtatu behar zaio, orain arteko ibilbideari eusteaz gainera.

Horretarako, Itzulpen karrerako ikasle eta irakasleen laguntza eta ekarpena beharko da; nik hortik ikusten diot etorkizuna. Baina horretarako, Unibertsitatean dihardugun irakasleok ere behar dugu partaide sentitu; edo sentiarazi: badaudelako “pentsatzeko astia” (zientzia egiteko astia, alegia) duten irakasleak, eta beste batzuk, aldiz, ez daukagu horrelakorik, ezta orain ere: irakasle lanaz gain, jarraitzen baitugu itzultzaile lanarekin. *Troppo lavoro!*

Harrera aldetik, esango nuke mugatu samarra izan dela beti: itzultzaileak, batez ere bazkideak gainera... Oraingo ikasleen artean ere esango nuke asko ez dela zabaltzen ari. Ahalegintxoren bat egin beharko litzateke zentzu horretan.

Antolamenduari dagokionez –hirurok esan dugu nik ustez–, zuzendari kementsu bati esker ateratzen da, ia bakarlanean; eta horrek asko nekatzen du. Nire ustez, Unibertsitatearekiko inplikazioa bilatu beharko genuke, baina alderdi zientifikoaz arduratuko den ondo prestatutako irakasleren batekin edo batzuekin: irakasle-ikasleek egiten dituzten lanek, horrela, aldizkaria elikatzen jarraitzeko balioko lukete, adibidez.


Josu Zabaleta: Esperientzia hori hor dago oraindik, prozesu horretan parte hartu dugun guztion oroimenean: oroimenean ez ezik, gure eguneroko esperientzian ere bai,

oraindik. Gertatu den guztia gogoetaren lapikoan egosi eta, bertako eta kanpoko esperientzien eta gogoaren argitan, behar diren lezioak ateratzek asko lagundu dezake oraindik aurrerabiderako. Lapiko hori berotuko duen sua izatea du, beharbada, oraintxe ingizun nagusia aldizkari honek. Astia eta kemena behar da horretarako. Zuk ere aipatu duzu astiaren kontua, Koldo. Astia, itzultzaile lanbideak ez du asko-asko uzten –unibertsitateak, agian...–; kemena, nork beretik jarri behar du. Euskal Herriko Unibertsitateak martxan jarria du itzultzaile karrera (bazenekiten?...); unibertsitatearen aldetik ez dakit nola sentitzen den lanbidearekiko lotura; lanbidearenetik badut susmoa nola sentitzen den lotura hori: urrun eta hotz. Ez dut uste batera ona denik, ez unibertsitatearentzat ez gure lanbidearentzat, elkarrekiko arrotasun hori. Nire iritzirako, *Senez* aldizkari hau elkargune egokia izan daiteke; elkargune ez ezik, topaketaren eragile ere bai; eta gogoetaren (unibertsitateko eta bestelako gogoetaren) eta lanbidearen arteko elkargune izatea izan daiteke, orobat, nire iritzian, aldizkari honentzat aurrerako biderik egokiena ere; komunikazio hori ez badago, nekez zuzenduko dute gogoetak esperientzia, eta esperientziak gogoeta, eta batak eta besteak lanbidearen irakaskuntza. “Sinergia” ez zaio esaten horri?

Senez: *Senez-en lehenbiziko zenbaki hartan, aldizkaria nork, nola eta zertarako egiten zen adierazi baino lehen, euskarazko itzulpenaren eta terminologiaren nolabaiteko diagnostikoa egiten zenuten, ongi kontuan hartuta, gainera, normalizatu gabeko hizkuntza zela gurea, eta itzulpengintzak berak ezaugarri bereziak zitu-ela hori zela-eta. Orain dela 6 urte Koldo Bigu-*

rik, 20. zenbakian, zuzendari-karguari agur esatean, honela esaten zigen: “Aurrerapauso handiak egin diren arren, euskal itzulpengintzari oraindik ere falta zaio gizarte normalizatueta duen funtzio eta onarpen maila berbera erdiatea, oraindik ere sektore batzuetan alboraturik edo behar bezain balioetsi gabe jarraitzen duen jarduera baita. Ildo horretatik jarraitu behar da lanean, baina ez da itzultzaileon ardura bakarrik”. Diagnostikoa berdina egiten duzue? Sumatzen duzue aldaketarik?

Gotzon Egia: Egia da ez dela itzultzaileon ardura bakarrik; guk zer esango dugu, bada, geure lanbideaz... gauza onik ez bada. Aldaketak, batez ere jendeak gertatzen diren eta kulturalen inguruan duen ikusmoldeetan, ez dira goizetik arratsera gertatzen, ez dira hutsetik osorainoko aldaketa bat-batekoak izaten. Arian-arian gertatzen dira gehienetan, eta beharbada aldaketaren lastertasuna itzultzaileok nahi genukeen adinakoa ez delarik, irudi luke lehengo lekuan gaudela beti, baina ez da egia. Aurrera goaz, ez bakarrik itzultzaileen prestakuntza eta profesionaltasuna hobetzen, antolamendua trinkotzen, baliabideak ugaritzen, teknologien esparruan sakontzen. Aurrerapen horiez gain, uste dut urratsak ere egin direla itzulpengintzaren irudipen soziala ere hobetzen: orain ez da lehen bezain sarritan ikusten itzulpena bigarren mailako testutzat. Idazle batzuek, argitaldari batzuek, erakunde eta enpresa batzuek ikasi dute itzulpen on bat bereizten eta preziatzen; ikasi dute, baita ere, halako itzulpen bat ez dela zerutik jausten, baldintza egokiak eman behar zaizkiola itzultzaileari, itzulpen ona egingo badu. Hor, idazleen artean batez ere, baditugu aliatu batzuk, ongi zaindu beharrekoak.



Holtz

18
1840
1824

On Pedro Berrondo, apaiz itzultzailea

GOTZON EGIA

Ikuspegi bat itzultzaileari buruz

Behin bakarrik izan nuen Pedro Berrondo jaunarekin aurrez aurre hitz egiteko aukera: 1985. urtearen amaieran izango zen. Hiru bat orduz egon ginen hizketan, berak egingadako *Don Kijote Mantxa'koaren*¹ itzulpenaz, Donostiako Erreparadoratako egongela ilun eta lasai batean. Oroitzen naiz tarteka-marteka han ibili zela, biokin batera, beste apaiz zahar bat, andoaindarra, Arregi izenekoa, uste dut politikan ezagunak diren Andoaingo arregitarren osaba zela. Gizakiak zahartzaroan itzuli egiten omen dira, jokabidez eta izaeraz, haurtzaroan izan ziren hartara; ume txikiak nagusien arreta eskatzen nola, hala ibili zitzaigun Arregi apaiz hura, inguru-minguruka, peskizan, Berrondok eta biok zer hitz egin behar ote genuen entzun nahirik, bion arteko elkarrizketari traba txikia eginez.

Ordurako, Berrondok argitaratua zuen bere *Don Kijote Mantxa'koa* osorik. Lehen

liburukia 1976an argitaratu zion Itzaropena Argitaldaria, Donostiako Aurrezki Kutxaren laguntzaz; hiru mila ale kaleratu ziren. Bigarrena, Jose Estornes Lasa argitaldaria-
ren ardurapean plazaratu zen ia hamar urte geroago, 1985ean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankidetzaz; bigarren horretatik ale gutxiago inprimatu ziren, 1.250 baka-
rrik. Lehen alearen salmenta urriak –eta, itxura guztiaren arabera, diru galerak– eraginda hartu zuen Estornesek erabaki hori, bigarren liburukia argitaratzerakoan. Ale ba-
koitzak bere zenbakia dakar, bigarren libu-
rukian hain zuzen; nik, 146.a daukat, lar-
rukiz egoki azalezaturik eta orri ertzak urre
margoz dotore estalita. Liburu-
uen apalean gogo onez edukitzeko modukoak dira, nire
ustez, *Don Kijote Mantxa'koaren* bi liburu-
kiok.

EIZIE itzultzaile elkarteak argitaratzen duen *Senez* itzulpen aldizkarian², 3. zen-

¹ Cervantes Saavedra, Miguel (1976-1985) *Don Kijote Mantxa'ko*. Donostia, Jose Estornes Lasa arg. EIZIEk, *Itzulpen Antologia I* (1996) liburuan, VIII. atalburua argitaratu zuen jatorrizko testuarekin batera.

² <http://www.eizie.org/Argitalpenak/Senez>

bakian (II. urteko bigarrena), 1985eko irailan, Berrondoren lanari buruzko artikulu kritikoa bat argitaratu nuen nik, oso kritikoa, gaurko begiz ikusita kritikoa ere bai. Orain dela ia hogeitau urteko kontuez ari naiz, eta artikulu orain osterira irakurtzen dudanean, ohartzen naiz gaztetasunak ematen duen ausardia eta zorrotasuna sobera dituela, nahiz funtsean han esaten nituenak gaur ere baliozkoak iruditzen zaizkidan.

Pedro Berrondok jakin zuen artikulu hura argitaratu zela, baita nor zen egilea ere, eta etxera deitu zidan telefonoz, ea berarekin hitz egiteko eragozpenik izango ote nuen. Baietz esan nion, noski, eta handik egun pare batera elkartu ginen, lehen esan dudana bezala, Donostiako Erreparadoratan. Bere sotana beltz haren gaineratik alkandora lepo mutur tente-tenteak erakutsi ohi zituen apaiz haren errieta jasotzeko prest joan nintzen hitzordura, egia aitortzen dut, baina ez zen halakorik izan, ezta gutxiagorik ere: ez bakarrik gizalegez, esango nuke Berrondok gozo ere hartu ninduela. Euskararen inguruan eta, batez ere, *Kijoteren* gainean mintzatu ginen luze. Etxera joandakoan ohar batzuk idatzi nituen, elkarrizketa hartaz, baina geroztik galdu egin nituen nonbait, eta oroipen hutsa besterik ez zait gelditu. Amairan, ongi gogoratzen naiz, esker hitzak esan zizkidan, berak egindako lana irakurri eta kritikatzeko lana hartu nuelako. Kanean ikusita, harrotasun puntu batez ikusi ohi nuen apaiz hura, bertatik bertara abegikor eta esker oneko azaldu zitzaidan bat-batean. Horra nola izan zen Pedro Berrondorekin izan nuen hizketa bakarra.

Kixoteren euskal itzulpenen historia laburra

Berrondorena baino lehenago, *Kixote* euskaraz emateko saio bat baino gehiago izan zen. Besteak beste, Serafin Barojak –Pioren aitak, alegia– izan zuen halako proiektu bat, Cervantesen obra euskaraz eta gazteleraz, ele biko edizio batean prestatu eta argitaratzeko, XIX. mendearen hondarretan; hala kontatzen du Pio Barojaren lagun min izan zen Manuel Val y Vera doktoreak, baina saio haren benekotasuna eta izaera dokumentatu gabe daude, eta ez dago esaterik zenbateraino aurreratu ote zen.

Genaro Sorarrainek bere *Catálogo de obras eúskaras* bibliografia bilduman, 1891-98an argitaratua, esaten du bazirela *Kixoteren* zati batzuk euskaratuta, baina egiaztapen bibliografikorik gabe: Julien Vinsonek *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque* (1891) liburuan zerrendatutako izenburu bat errepikatu besterik ez du egiten Sorarrainek. Izenburu hori da «DON QUICHOTTE Manchako aitoren seme izpiritutsua Michel de CERVANTES Saavedra ditzen denaz. XLII capitulua (Bigarren partea)» –(s. t. l. ni d.; 1882). In 8:4 p., tiré à un très petit nombre d'exemplaires». Vinsonek oso xehezalea zen, eta ohartxo bat erantsi zion: «Traduction d'après le français de la fin du chapitre, depuis les mots: "Premièrement, ¡oh hijo!». Alabaina, dirudienek, Vinsonek Baionako udal liburutegian eskuz egindako kopia batetik egin zuen bere aipamena, eta liburutxo horren alerik ez da inon gorde, nik dakidala.

Kixoteren zatiren batzuk euskaraz emateko lehen saio ezaguna Julian Apraiz arabar euskaltzaleari zor zaio. *Kixote* argitaratu ze-

neko hirugarren mendearekin bat, 1905ean liburutxo bat argitara eman zuen izenburu luze honekin: *Donkituera umill euskalduna CERVANTES-eri opatua Manchako don Quijote, seme argi ta ospatsua agertu zanetik irugarren eunki-urrenean. On Julian Apraizen aguinduz, eta ustez. Vitorijan, Domingo Sar jaunaren maldagintzan (sic) 1905-garren Epaillean*. Hitzaurrean Apraizek dioenez, 92 orriko liburutxo honek *Kixoter*en zati hauek jasotzen ditu:

- Hitzaurrea eta lehenengo hiru kapituluak, itxura denez Duvoisin kapitainak lapurterara itzuliak, eta Edward Spencer Dodgson euskaltzaleak 1904an zuzendu eta argitaratuak Miarritzen: «MIGUEL SAAVEDRA CERVANTESTARRAK SCRIBATU ZUEN DON KIXOTEN GERTHAKARIAK *deitzen den liburuko DUVOISIN CAPITAINAK Zubiburun zegoela Laphurdiko Heuskaraz emanak*. Ernest Seitz, Imprimatzaile, Biarritzen, 1904-garren Hurtiko Uzteilan».
- Bigarren zatiaren XLII. kapituluaren hasiera, Pablo Zamarridak gipuzkeraz eta bizkaieraz, nahasirik, emana, eta kapitulu berorren amaiera, gipuzkeraz Mateo Mugica apezpikuak moldatua.
- Bigarren zatiaren XLIII. kapituluaren hasiera, Evaristo Bustinzak bizkaieraz jarria, eta kapitulu berorren amaiera Serafin Ascasubik Arabako euskalkiaz emana.

Julian Apraizek plazaratutako liburuxkak egundoko arrakasta izan zuen, nonbait, lehen edizioa 1905eko martxoaren (edo epailaren) 13an bukatua izan baitzen, eta urte be-

reko apirilaren 10ean bigarren argitalpena kailean baitzen. Bigarren argitalpen horren hitzaurrean argitzen da lehen edizioan guztiz ebatzi gabe utzitako kontu bat: hitzaurrearen eta lehen hiru kapituluaren itzultzailea Duvoisin kapitaina ote zen. Edward Spencer Dodgson argitaratzaileak berak bazuen zalan-tzarik, Apraizi lana argitaratzeko bidali zionean esaten baitzion zati haien itzultzailea ez zela, ziurrenik, Duvoisin izango, «sino que es probable que sea de algun cura ó presbítero del país». Esan bezala, bigarren argitalpenaren hitzaurrean, Julian Apraizek askatzen du korapiloa: lapurterazko itzultzailea Alberto de Palacio arabar arkitektoa izan zen. Dirudienez, Farnsisco Lopez Fabra koronel zerbantistak *Kixoter*en zati batzuk euskaraz emateko eskatu zion 1873an Jose de Palacio y Viteri jaunari Bartzelonan, ehun hizkuntzatan argitaratzeko asmotan. Ilobari eskatu zion hark, lana egin zezan; artean, 15 urteko gaztetxoa zen, baina euskaraz ederki egiten zuen, ama Sarakoa zuelarik bertan emana baitzuen bere haurtzaroa. Inudea Bonaparte printzearen informatzaileetariko bat izan omen zuen... Hitz batera, Alberto de Palacio izan zen *Kixoter*en hasierako zati haiek lapurterara eman zituena, lanari azken ukituak, dirudienez, Duvoisinek berak egin bazizkion ere.

Berrondorena baino lehenago, *Kixoter*en euskal itzulpenen beste atal bat 1928. urtean Iruñeko udalak antolaturik izandako lehiaketa da. Gai bakarra izan zen: IX. kapitulu euskaraz ematea («Donde se concluye y da fin a la estupenda batalla que el gallardo vizcaíno y el valiente manchego tuvieron»). Lehiakideak garai hartako euskal idazle handiak izan ziren: Oyeregui, Garbizu, Lizardi,

Anabitarte, Irigaray eta Orixe. Azkenak eraman zuen txapela, bere itzulpenari «Euskaldun bipilak eta Manchatar bizkorrak izan zuten burrukaldi lazgarriaren ondarra» izenburua jarrita. Lehiaketa hartako lan guztiak Euskal Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkariak argitaratu zituen 1929an³.

Berrondoren itzulpengintzaz hitz bi

Julian Apraizek XX. mendearen hasieran argitaratutako liburutxoak badu tentaziorik, itzulpen kritikaren ikuspegiaz begiratuta. Alberto de Palacioren itzulpenak klasikoan bidea jarraitzen du, xehetasun batzuetan Duvoisin bera bezain latinzalea ez bada ere. Pablo Zamarripa, Mateo Mugica, Evaristo Bustinza eta Serafin Ascasubi, berriz, Hegoaldeko literatur tradizioan kokatu behar dira: lexikoan larramenditarrak dira (*esondeak, onentzuna, goyenda, egopea, ecaidotu, dagoquin-deak* eta tankerako hitzak etengabe darabiltzate), eta sintaxiaren arau kanonikoa (aditza esaldiaren amaieran) zorrotz betetzen dute.

Elkarren arteko konparazioa ez ezik, Berrondoren lanarekin konparatzea du tentazioa Apraizek argitaratutako liburutxoak, batez ere lapurteraz emandako zatiei gagozkielela. Ez nuke inor aspertu nahi halako azterketa konparatibo zehatza egiten, eta xehetasunik nahi duenak jo beza hasieran aipatu dudana Senez itzulpen aldizkariako 3. zenbakira, han aurkituko baititu adibide zehatz eta ugariak.

Alderdi orokorragoak aipatu nahi nituzke, ordea, gaurkoan, Berrondo jaunaren itzulpengintza gidatu zuen ikuspegiaz eta jokamoldeaz orobat.

Oh! Euzkadi aldizkariaren 2. zenbakiak⁴, 1980ko ekainean argitaratutakoak, Berrondo jaunari egindako elkarrizketa bat plazaratu zuen; han oso gauza argigarriak esaten zituen, bai *Kixoter*en itzulpenaz, bai euskarari buruz berak zeukan ikuspegiaz. Elkarrizketa horren pasarte batzuetan oinarri hartu nahi dut, Berrondoren itzulpengintza zertxobait azaltzen laguntzeko.

*Kixoter*en euskaratze lana zergatik hartu zuen galdegin ziotenean, erantzun harrigarri bat eman zuen Berrondok: «maitasunak barakatzen ez duelako», horregatik itzuli omen zuen Cervantesen obra. Orri bakoitzeko, batez beste, bizpahiru orduko lana, guztira hiru mila ordutik gora, erraz esaten da. Horrela zioen Berrondok:

«Ni pozik negok egindako lanekin. *Kijot*eri eskainitako orduak eta, ez negok damutan. Oso gustora gainera. Euskerari eskaintzen dizkiogun bihozkadak eta, hor bazegok bihotz-lege gozo bat, bizi poza ematen duna».

Hizkuntzari buruzko barren-barreneko ikuspen zehatza zuen Berrondok, utilitarismorik gabea, doanekoa esan daiteke, izpirituala. Berak ez zuen euskara lantzen kultur helburu arnas luzeagoko baten izenean, ez. *Kixoter*en itzulpena ere ez zuen, ziur asko, euskarak hor aspaldidanik zeukan hutsune bat betetzeko egin, berak argi azaltzen du:

³ *Revue internationale des études basques*. Paris. Separata, T. 20 (1929), 207-211 or.

⁴ <http://www.armiarma.com/andima/euzk/euzk0309.htm>

«Nik euskeraganako joera ez dit erabakitzen euskerak bizi luzea izango duelako edo ez duelako, bizi handia edo motza izango duelako, baizik nere bizia hori delako».

Erljioak indar handia zeukan, noski, Berrondoren hizkuntza ikuspen barnekoi eta izpiritual horretan. Gaurko begiz, egungo gizarte laikoaren betaurrekoez ikusita, antigoaleko jarrera atzerakoi guztiz galdutakoak dira Berrondok *Oh! Euzkadi* aldizkariko gazte «erreboltarioi» esaten zizkigunak:

«Kontradizioa, zuek esaten deuzen bezela, bizitza aurre aurreko puntan eraman nahi, eta gero lehengo hizkuntza zaharrari eutsi nahi. Hori nola lotu liteke? Ekonomia bakarrik ez, baizik kultura guztia. Nola liteke lehengo euskera zaharrean mintzatu, oraingo irizpide berriak, Hollandako auzo zikin hoietan bildutako iritzietan euskaraz mintzatu. Hori ezin liteke. Nere iritzian euskarak gaur kabi bakarria Elizan zakak, eta kito. Elizara joaten den jendeak bere bihotza lehengo euskera zahar hortan mamitua zakak. Euskara hori gai duk, eta gainera gaibide ona, barrengo gauzak, barrengo, bihotzeko hizkuntza hori berotzeko, goxatzeko, argitzeko, erakusteko. Eta horretarako kabi ona zakak Elizan, Jainkoari eskerrak».

Berrondoren ikuspegia hala zen: *euskara zaharrean* mamitu zuen bere itzulpena, berak hor bakarrik ikusten baitzuen, erljioari eta Elizari lotua, gauzak egoki adierazteko gaitasuna duen baliozko hizkuntza. Berak ez zuen *Kixoteren* gaztelera zahar hura batere urrun sentitzen, hurbil baizik, aipatzen ari naizen elkarrizketa hartan esaten zuenez:

«(...) hizkuntza aldetik, (...) leihatila zabaltea bezela duk, erdal hizkuntzak edo gaztele-

rak zenbat gauza hartuak dituen euskeratik, euskerak haruntz ixuriak. Esaeretan, irudi-joskeretan, pronominal joko hoietan guztietan. Jatorriz erderak euskeratik hartuak, gauza asko eta asko».

Eta aurrerago:

«Holako lan batek bidea ematen dik, eta behartu euskeraren barrenean sartzera, eta gauza asko ikastera. Baina *Kixote* bezelako lana errezago duk euskeratzeko gaurko edozein idazle baino. *Kixoteren* gorabehera gehienak eta gure txikitako euskera maila berdintsuan zegozteko».

Kixoteren zaharkitasun horri itzulpenean nola erantzun behar ote zaion, hizkuntzaren aldetik esan nahi dut, hori beste kontu bat da. Berrondok hautu bat egin zuen, gaur egungo ikuspegiak begiratura Cervantesen testuari darion zahar kutsua euskara zahar—bere ustez behintzat, zahar—batez erantzun zion. Horretan, esango nuke bat egin zuela Berrondok urte luzetan izan den tradizio zerbantistari, gure albo hizkuntza gehienetan halako joera izan baita klasikoa: *Kixoteren* usain zaharrari hizkuntza erregistro arkaikozalearen ordaina bilatu izan zaio.

Esate baterako, *Kixoteren* ingelesezko itzulpenen historian, bertsio zabalduena eta irakurle gehiena bereganatu izan duena Tobias Smollett-ek 1755an egindakoa da⁵. Itxura denez, gizonak ez zekien gaztelera askorik, eta dozena bat urte lehenago Charles Jarvis-ek egindako itzulpen bat bermoldatu besterik ez zuen egin, baina *zahar gustua* eman da testuari. Urte luzetan, Smollett-en bertsio hori izan da *Kixoteren* ingelesezko itzulpenetan gailen... Oraintsu, ordea, Miguel de

⁵ <http://quixote.mse.jhu.edu/Translation.html>

Cervantes-en maisulanaren ingelesezko itzulpen berri bat eman du argitaratzaileak Edith Grossman itzultzaileak New York-en, aurtengo udazkenean, oso bestelako jokabide eta jorera batez. Mexikar idazle Carlos Fuentes-ek 2003ko azaroaren 2an *The New York Times* egunkarian argitaratutako iruzkin batean, azpimarratu zuen «itzulpenaren bikaintasuna», eta erantsi zuen: «Horixe da benetan miresgarria: gaur egungoa eta jatorrizkoa bat dira. Ez kezkatu zaharrarekin edo berriarekin. Grossman-ek ederki lortzen du kategoriaz erraz horiek bere lanera isur ez daitezela. Klasiko bat gaur egungo bihurtzea: horixe da lortzen handiena».

Berrondok ez zuen, noski, halako jomugarik izan, alderantzizkoa baizik. Ez nuke itzulpengintzari soilik dagokion ikusmolde hau beste ezerekin nahasi nahi, batik bat Berrondok euskara batuaren aurka izan zuen jarraitzearekin, hor beste kontu batzuk baitaude, itzulpengintzatik urrunago doazenak. Alabaina, nabarmendu nahi nuke Berrondo itzultzailea bat datorrela, ikusmen orokorrean, Berrondo euskaltzainarekin eta, zer esanik ez, Berrondo apaizarekin. Horra bere elkarriketaren beste zati bat:

«Ez parre egin. Apaizaren paseoa, plazan barrena, baserrietan zehar... ze, pasioan, esaten ziotek baserrietarak, eta ez zaiek gaizki iruditzen apaiza paseoa ibiltzea, beraiek lanean ari diren bitartean. Bazekitek hortarako dagola apaiza. Errezoak egin, eta meza eman eta paseoa ibili, bere sotanarekin dotore. Jende xeheari ez zioke onik egiten apaiza lanean iharduteak. Zer modu, eta ondo ahal gaude esan, eta pake hori eman, lanean ari direnei. Hori duk apaizaren egitekoa. Euskal Herria, plazan barrena, paseoa dabilen apaiz sotanaduna galdutakoan ez duk Euskal Herria izango».

Esanak esan, uste dut inork ezin leporatuko diola Berrondori bere lana kaskarra denik. *Kixote* osoari aurre egin zion, galanki kostatuko lanaz. Euskal itzulpengintzaren historia txikian, episodio nagusietako bat da *Don Kijote Mantxa'ko*, zalantzarik gabe. Ziur nago Berrondok ongi asko zekiela bere lanak ez zuela irakurle desinteresatu asko bilduko, baina hurrengo urte luzeetan beste inork egingo ez duen lana egin zuen, eta hori hor dago. Iruditzen zait gaurko itzultzaileak jakin behar duela bere ikasbidea bilatzen Berrondorenean, bereziki Holandako auzo zikinetan bildutako iritzi eta guzti euskal itzulpengintzan jardun nahi duten itzultzaile gazteek.

Oiartzunen, 2003ko abenduaren 19an




Zuzenketaren gaineko jardunaldiak

2004ko maiatzaren 5etik 7ra

LUGARITZ KULTUR ETXEA

DONOSTIA

UR +



2

Laburpen gisara

MAITE IMAZ

EIZIEK eta HAEE-IVAPeko IZOK, elkarlanean, zuzenketaren gaineko jardunaldiak antolatu zituzten, aurrerantzean zuzenketa jorrazteko eta irizpideak adosteko asmoarekin. Izan ere, zuzenketa alde batera utzita egon den kontua izan da; lan ikusezinen artean ikusezinena da. Jardunaldiak Donostian egin ziren, maiatzaren 5a eta 7a bitartean, Lugaritz Kultur Etxean. Parte-hartzaileak administrazioko, itzulpen-enpresetako, argitaletxeetako, komunikabideetako eta unibertsitateko zuzentzaileak izan ziren. Arlo ugaritan eta hainbat motatako testuekin egiten den zuzenketa-jarduna ikusi ahal izan genuen.

Zuzenketa-lanetan aritzen direnak izan ziren hizlariak, baina ez itzulpenen zuzenketaz arduratzen direnak bakarrik. Beste hizkuntza batetik euskarara **itzulitako testuen zuzenketan jarduten duten zuzentzaileez gain, jatorriz euskaraz idazten diren testuen zuzenketan aritzen direnek ere hartu zuten parte jardunaldietan.** Zuzentzen diren testuen artean aipatu ziren itzultzaileek itzultitako administrazio-testuak edo filosofiako liburua, eta baita ere, idazleek egindako no-

belak edo EITBrako telesailak. Itzulpenaren eta sorkuntzaren artean bada erdibideko zer-bait ere: adibidez, kazetariak idatzitako berriak edo unibertsitateko irakasleek aldizkari zientifiko baterako idatzitako ikerlanak, edo administrazioko langile batek egindako txostenak, euskaraz sortuak izan daitezke, baina gaztelaniako iturriak erabilia, eta horrelakotan, egokitzapena edo itzulpen inplizitua egin dela esan daiteke, euskaraz sortu arren gaztelaniazko iturrietara jo behar izan delako edo idatzi duenak ikasketak gaztelaniaz eginak dituenez gaztelaniaz pentsatu duelako, euskaraz idatzi arren. Itzulpena daramaten egokitzapen-lanak dira, baita ere, eskoletako testu-liburuak eta jakintzako alor guztiak jorrazten dituzten hiztegi entziklopedikoak.

Testu idatzien zuzenketa jorraztu zen batik bat, baina ahozkoak ere baziren. Eusko Legebiltzarrean legebiltzarkideek esandakoak jasotzen dituzten transkripzioak aipatu ziren, argitaratu aurretik zuzendu egiten dira eta. EITBn, berriz, ahoz esateko testuak idazten dira, telesailatarako, euskaraz sortuak gehienetan, baina badira, baita ere, itzulitako gi-doiak.

Itzulpengintza ugariena gaztelaniatik euskarakoa da baina gero eta gehiago itzuli behar da gaztelaniara, gero eta gehiago sortzen da euskaraz eta. Beste hizkuntza batzuetatik ere itzultzen da, jakina. Aldi berean sortzen diren dokumentuak ere izaten dira eta horrelakoetan zaila da zehaztea zein de jatorrizkoa, zein itzulpena.

Zuzenketa-motak

Zuzenketa jarduera integrala edo atalka egin daitekeena izan daiteke. Azaldu ziren kasu guztiak hizkuntzaren zuzenketaz arduratzen diren zuzentzaileak ziren; itzultzaileen, administrazioko langileen, kazetarien, idazleen, eta aktoreen zuzenketa-lana egiten dute. Baina testua zuzentzerakoan hizkuntzaren zuzenketarekin batera edo hizkuntzaren zuzenketa osatuz egiten diren beste zuzenketa-mota batzuk ere aipatu ziren:

1. Gaian aditua den norbaitek egindako zuzenketa: Pentsamendu Klasikoaren bilduman, adibidez, itzultitako liburuak gaian aditua den zuzentzaile baten eskutik pasatzen dira lehenengo, eta hizkuntza-zuzentzailearen eskutik gero. Unibertsitateko zuzentzaile bategi zuzentzailea eta berrikuslea bereiztu zituen. Zuzentzaileak hizkuntza zuzenduko luke eta berrikusleak edukia.
2. Formatu kontuak; dokumentua luzea bada, datu kuantitatiboak begiratzeko hizkuntzan jantzia dagoen baina itzultzailea ez den norbaitek egiten du zuzenketa berezia, zifrak eta abar egiaztatzeko, bi hizkuntzatan,

bata bestearen ondoan, argitaratu behar diren testuetarako. Gipuzkoako Foru Aldundian egiten dute zuzenketa-mota hori.

3. Hizkuntza eta formatua, aldizkarian argitaratzeko formatu egokia eduki dezaten. Uztaro unibertsitate-aldizkariaren kasua da hau, eta zuzentzaile berberak egiten ditu bi zuzenketak.
4. Hizkuntza baino haratago doan zuzenketa, edukian ere sartzen dena, literatur testuetan egiten da.

Egin ondorengoa, *a posteriori* egiten den zuzenketa ere azaldu zen, argitaratu eta gero arazoak ematen dituzten itzulpenen kasuan. Horrelakoetan, akatsak dakarren zalapartaren arabekoak dira hartzen diren neurriak eta sarritan berriro egin behar da itzulpena. Telebistan ere zuzenean ari diren kazetariak akatsik eginez gero, zuzentzaileek egiten dizkiete ondorengo zuzenketak, dagoeneko eginak dauden akats horiek zuzendu ezin badira ere, hurrengo batean akats berberak egin ez ditzen.

Zuzentzaileen arazo nagusiak

Lana presaka egin beharra, izaten da askotan zuzentzailearen oztopo nagusia. Epeak bete egin behar dira eta erabakiak hartzeko denbora urria izaten da askotan. Hemen, hala ere, alde handiak egon ziren zuzentzaile batzuetatik besteetara. Administrazioan eta prentsan dena zuzentzeko denborarik izaten ez dutenez, garrantzitsuena baino ez dute zuzentzen. Administrazioaren kasuan garrantzitsuak dira irauteko diren testuak edo eragin nabarmenena izango dutenak; zoriz au-

keratutako testu-zatiak ere zuzentzen dira. Komunikabide idatzien kasuan tituluak, azpitoluak, argazkien oinak eta leihoak zuzentzea izaten da ezinbestekoa, eta hortik aurrera ahal den guztia. Argialetxeetan, ordea, ia kasu guztietan saiutzen dira gutxienez bizpahiru zuzenketa egiten, eta hiztegi entziklopedikoaren kasuan batez beste hamahiru zuzenketa egin zituztela aipatu zuten.

Itzulterakoan askotan itzulpena eskatu duenak jartzen ditu epeak. Testu luzeak direnean epe laburrean itzultzeko testua banatu egin behar da eta horrek kohesio arazoak dakartza. Beste batzuetan testuak itzultzaileak edo lanak itzultzaileen artean banatzeko ardua duenak jartzen du baina ezin ditu antzeman testuaren barruko korapilo guztiak.

Testuen kalitatea eskasa izaten da batzuetan; zuzentzaileak interpretatu egin behar du testuaren egileak zer esan nahi izan duen eta argiago jarri. Zuzendu beharreko testua itzulpena bada, zuzentzailearentzat hainbatetan errazagoa izan daiteke itzultitako testua zuzentzea baino hutsetik hasi eta itzulpena berriz egitea. Itzulpenen kasuan **kalitate eskasekoak izan daitezke, baina ere, jatorrizko testuak, itzultzaileari itzultzeko heltzen zaizkion testuak alegia, eta horrelakoetan jatorrizko testuaren gain egin behar da lehen zuzenketa.** Batzuetan egilearengana jo behar izaten da jatorrizko testua argitzeko, edo bestela, egilea ezezaguna bada, aditu batengana. Testu paraleloak ere, beste hizkuntza batzuetara egindako itzulpenak baldin baditugu (Europako Batasuneko erakundeetako testuak), lagungarriak izan daitezke edukia ulertzeko. Zenbaiten ustez jatorriz gaztelaniaz egindako testurik txarrenak Euskal Herrian idatzitakoak izaten dira.

Gehiegi zuzendu nahiak eragindako akatsak edo **hiperzuzenketak:** adibidez, lehen "bere" eta "bat" gehiegi erabiltzen genituen; erabili behar ez zirenean ere erabili egiten genituela azaldu ziguten, baina ez ditugu gauzak ondo ulertu, eta orain beharrezkoak direnean ere ez ditugu erabiltzen. Mutur batek bestera joan gara.

Itzulpen-memoriek informazio asko baldin badute ordain txar asko ematen dituzte eta horiek zuzenketa-lana oztopatu egiten dute. Itzulpen-memorian karga masiboak egiten badira, ondorio txarrak erator daitezke, sarritan memoriak ez du proposamen egokirik emango eta.

Zuzenketari buruzko ikasketak

Zuzenketari buruzko ikasketei dagokienez, Martuteneko eskolan egindako saioak aipatu ziren, batetik, eta UEUn eta Gipuzkoako Foru Aldundian egindako ikastaroak, bestetik.

Badago hierarkia bat zuzenketan: lehenengo akatsa sumatu egiten da eta gero analizatu. Sumatu eta identifikatzeko tresna belarria da eta belarria landu daiteke. Belarria lantzeko ariketak diseinatu zituzten Martuteneko Itzultzaile Eskolan azken aldian.

UEUn 2001ean zuzentzaileentzako ikastaroa egin zuten eta Gipuzkoako Foru Aldundian zuzenketari buruzko mintegia, iaz. Mintegi horretan ikusi zuten, testu guztietan dago zer zuzendua baina ez da posible beti zuzentzea. Faktore eraginkorrak dira denbora, epeak eta testuaren garrantzia. Mailaketa bat egin behar da eta zer den oinarrizkoa ikusi. Zuzentzerakoan ezinbestekoa da oinarrizko maila betetzeko eta, ahal bada, horik aurrerakoa.

Ondorioak

Testu-mota eta egile-mota ugari bildu ziren jardunaldietan eta arazoak ez ziren berberak guztientzat, baina gauza batzuetan bat zetozen hizlari guztiak edo ia guztiak.

Ia denek adierazi zuten hasiera batean gramatika-akatsak, eta testu idatzien kasuan, akats ortografikoak eta tipografikoak zuzentzen zituztela, batik bat. Gaur egun hori oinarritzotzat jotzen da, zuzenketa-motarik errazena ere bada, baina ez da nahikoa. Horik gorako zuzenketa egin behar da. **Ez da nahikoa testua gramatikaren aldetik zuzena izatea; testuak komunikatiboa izan behar du.** Testuak egokia izan behar du, eta testu egokia lehenengo irakurraldian ulertzen dena da. Garrantzitsua da, halaber, hartzailea nor izango den kontuan hartzea.

Denak bat datoz esatean zuzentzailearen lana asko erraztu dela azken urteotan. Eta asko erraztu da Euskaltzaindia arauak eta hiztegi arau-emailea argitaratzen hasi zelako 1995ean, lexikoa eta terminologia zuzentzeko hiztegi eta entziklopedia gehiago daudelako, Euskalterm, ere badagoelako. Eta nabarmendu behar da, baita ere, joskerari eta estiloari buruz azken urteotan argitaratu diren liburuak eta artikuluak oso lagungarriak izan direla hainbat arazo (erlatibozko esaldiak, erakusleak...) konpontzeko. Testu bat egokia, koherentea zergatik zen ezin genuen zehaztu garai batan, baina gaur egun bai. Testu kohezionatua zer den esaten ikasi dugu: lehenengo irakurraldian ulertzen dena.

Zuzenketa elkarlana da: batez besteko maila komunikatiboa hobetu egin da azken urteotan eta hori auzolana da. Zuzenketa komentatu egin behar dira. Zuzenketa didak-


tikoa egin behar da. Zuzenketa planteatzen duen arazoa, zuzentzaileak zer eta noraino zuzendu behar duen, zenbateraino sartu behar duen eskua da. Gauza batzuk besterik gabe zuzentzekoak dira, hau da, akats ortografikoak, gramatikako hutsak, gorago aipatu ziren oinarritzko akatsak alegia. Gauza batzuk modu bakarrean esan daitezke. Baina beste batzuk ez. Bereizi egin behar dira zuzenketa eta proposamenak eta egilearekin komentatu. Itzultzailearekin harreman gutxi izan zituzten zuzentzaileen kasuak ere baziren, baina horiek ere, itzultzailearekin harremanak izan beharko lirakeela zioten. Zuzenketa didaktikoari dagokionez, hala ere, batzuei alferrikakoa iruditzen zaie, egileek behin eta berriz zuzentzen dizkioten akats berberak egin jarraitzen dute eta.

Zuzenketa aurrelana eskatzen du. Oso garrantzitsua da, batez ere, ondorengo zuzenketarik egiteko denborarik ez dagoenean. Adibidez, telesail batean ezinbestekoa da hizkuntza-irizpideak elkar hizketak idazten hasi aurretik finkatuta egotea eta, nolahi ere, zuzentzaileak aktorearekin egin behar duen lana, platoon grabatzen hasi aurretik egin behar du, grabaketaren momentuan jende asko egoten baita platoon lanean eta denbora mugatua izaten baita. Prentsan berri batzuk kazetariak idatzi orduko inprentara joaten dira eta ez da zuzentzailearen eskutik pasatzeko denborarik izaten Itzultzaileen eta kazetarien kasuan aipatu zen zuzentzaileak ez lukeela akats ortografikoak eta gramatikalak zuzentzen denborarik galdu behar, itzultzaileek eta kazetariak oinarritzko akatsik gabe idazteko gai izan behar luketela, eta oinarritzko mailatik aurrerako zuzenketa egin beharko luke-

ela zuzentzaileak. Zuzentzaileak ezin du behin eta berriz akats berberak zuzentzen ibili. Horretarako, akatsak antzeman eta egileci akatsen berri eman behar die. Aurretik esan behar die zein irizpideren arabera idatzi behar duten. Aurrelan horretarako lagungarriak izan dira lehenago ere aipatu ditugun Euskaltzaindiaren arauak, eta estilo eta joskera-liburuak. Idazteko irizpide-liburu gehiago ere badira bidean. Legebiltzarrean estilo-liburu bat egin nahian dabilta eta zuzenketari buruzko irizpideak idatziz jartzeko asmoa dute, datorren urtean. Euskarazko ikasmaterialak laguntzeko programaren barruan (EIMA), berriz, ikasmaterialetarako estilo-liburua sortzeko lanean ari dira.

Horrezaz gain, oso lagungarria da zuzentzaile ortografiko automatikoa. Aurrerantzean, teknologia berriek gero eta laguntza handiagoa emango dute aurrelana egiteko. Etorkizunean gramatika eta estilo zuzentzaileak izango dugu ordenadoreetan. Eta dagoneko badaude zuzenketak biltzen dituzten datu-baseak sortzeko, eta zuzenketa-prozesua jaso eta sailkatzeko aukerak. Beste helburuetarako teknologiak, adibidez itzulpen-memorien Trados programa, zuzenketen datu-basea sortzeko ere egokitu daiteke.

Bertaratutako jendearen ustez, jardunaldiak interesgarriak izan ziren. Eta abiapuntu arrakastatsu honi segida emateko asmoa dute bai EIZIEk eta bai IZOk, lan-taldeak edo mintegiak osatuz.





La Sabana Santa

12

IZOko zuzenketa-prozesua. Lehenengo zuzenketa. Zuzenketa-mailak

KAXILDO ALKORTA, JOSEBA URKIA, ANTON BURGOA

Kaxildo Alkorta

Aurkezpena.-Lehenengo ordubete honetan HAEE-IVAPeko IZOko (IZO = Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala) hiru lagun arituko gara. Hemengo gehienek ez duzue motiborik gu ezagutzeko eta aurkeztu egin behar:

- **Joseba Urkia**, IZOko interpreteetako eta interpreteen arduraduna da; itzultzen eta zuzentzen ere jardun behar izaten du;
- **Antton Burgoa** itzulpen zuzentzaile dugu, itzuli ere egin behar izaten du, nahikoa gainera. Eta
- ni neu, **Kaxildo Alkorta**, IZOko interpreteen eta itzultzaileen arduraduna.

(Hirurok jardun behar izaten dugu zuzentzen; itzultzen ere bai).

Testua itzultzeko enkargatzera gugana jotzen duenarekin —lana enkargatzen digunarekin, bezeroarekin— izaten dugun lehenengo harremanetik hasi eta testua itzulita entregatzen dugun arte, bitarte horretan zer egiten dugun, hori da hemen azalduko duguna.

Hiru ataletan banatu dugu gaia, eta gu hirurotako bakoitzak atal baten gainean jardungo du:

- aurreneko atala **testuaren ibilbidea** dugu: testua jaso, itzuli, itzulpena zuzendu eta entregatu bitarteko urratsak; bulegoko administrazio-lana ere bada, baina ez bulegoko administrazio lan hutsa, kudeaketa hutsa. Horretaz neu arituko naiz;
- ondoren **lehenengo zuzenketa** izango du hizpide Anttonek; itzultzeko jasotzen dugun testua da gai: bai gaztelaniatik euskarara pasatzekoa, bai euskaratik gaztelaniara itzuli beharrekoa, eta
- azkenean **zuzenketa-mailak**, itzulitako testuarena, hori izango du mintzagai Josebak.

Testuaren ibilbidea. Hona, bada, gure jarduteko modua:

1.- Itzultzeko testuak

1.1. Hizkuntza:

- gaztelaniatik euskarara itzuli beharrekoak: %95 edo gehiago (?)
- euskaratik gaztelaniara itzuli beharrekoak: %5 (?) (helburukoek ulertzen ez-eta IZOra bidaltzen dizkigutenak: **epaitegietan** euskaraz jasotako erreklamazioak, **Gizarte Segurantzari** egindako eskariak, erreklamazioak...., **saltegi handiek** (kexak: tratua rengatik, euskara ez erabiltzeagatik) bidaliak, **beketako** eskariak beren kurrikulu, proiektu eta guzti,...)
- EBko hizkuntzaren batetik (ingeles, frantses, italiara,...) gaztelaniara itzulita datozkigunak guk euskaratzeko.

1.2. Bezeroak

1.2.1. Zein?

- Administrazioak: **Jaurlaritza** (sail askotatik):
 - **Jaurlaritzaren Lehendakaritza (28/2002)**
Presidencia del Gobierno
 - **Jaurlaritzaren Lehendakariordetza (213/01)**
Vicepresidencia del Gobierno
 - **Ogasun eta Herri Administrazio Sails (211/01)**
Departamento de Hacienda y Administración Pública
 - **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sails (222/01)**
Departamento de Educación, Universidades e Investigación
 - **Herrizaingo Sails (207/99, 250/01)**
Departamento de Interior
 - **Industria, Merkataritza eta Turismo Sails (223/01)**
Departamento de Industria, Comercio y Turismo
 - **Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sails (36/02)**
Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales
 - **Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sails (36/02)**
Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social
 - **Osasun Sails (220/01)**
Departamento de Sanidad
 - **Kultura Sails (34/02-46/02)**
Departamento de Cultura
 - **Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sails (230/01)**
Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente

- **Garraio eta Herri Lan Saila (21/02)**
Departamento de Transportes y Obras Públicas
- **Nekazaritza eta Arrantza Saila (215/02)**
Departamento de Agricultura y Pesca

- **udalak (UEMA),**
- **epaitegiak,**
- **Estatuko Gobernua (Barne Ministerioa: arma-txartela, inportazio-espertzioetako inprimakiak...; Ingurumen Ministerioa: portu eta itsasertzetako lanak, gas-bideak...; Gobernuako Ordezkaritza),**
- **Generalitatea...**
- **Administraziokoak ez direnak: enpresa handiak: Telefónica, RENFE, Notarioen Elkar-
tea, saltegi handiak,... bezero partikularrak.**

Testuen jatorriak eta gai-motak zerikusi handia dute elkarrekin: Hezkuntza Saitetik datozki-
gunek hezkuntzako zerbaite izango dute gaia, Lurralde Antolamendutik jasotakoak hirigintza e.a.

1.3. Maiztasuna

- Ohiko bezeroak ditugu asko, lana egunero, astero edo sarritan enkargatzen digutenak. Horiekin lan-martxa jakina dugu, ohiturakoa da, horretarako bide ematen du-eta gaiak ia berak edo antzekoak izateak; badakite gainera nolako martxan jarduten dugun.
- Tarteka, behin edo behin azaltzen zaizkigunak. Epe-arazoak izaten ditugu batzuetan, gauzak berehala edo guk ahal baino lehenago nahi izaten dituzte-eta.

1.4. Nolako testuak dira?

- **Administrazioa arrautza asko berotzen dituen oilo loka da: gaiak, arlo guztietakoak eta era guztietakoak dira (jendeak irakurriko dituenak ere bai): hezkuntzakoak, kultura-koak...**
- **testu landuak** (liburu edo lan baten aurkezpena, lehendakariaren edo sailburuen hitzal-
diak, Hezkuntzako zenbait idazki)
- **irudimenez itzultzekoak** (esloganak, e.a.; Emakunde, Etxebizitza, ONCE,... horietatik enkargatuak)
- **begi-testuak** (esaldiak osatu beharrik gabekoak: programetako orduak, tokiak e.a., ia komunztadurarik gabeak...)
- **automatikoki itzuli daitezkeen ereduak eta behin eta berriz ia osorik errepikatuta daude-
nak edo zati handiak errepikatuta dituztenak (Industriako eta Kontsumoko testu asko) itzulpen-memorian gordetzen dira (TRADOS)**

- zenbait akta: udalen bateko hurrengo bilerarako badaezpada ere prest egon behar dutenak, aspaldi pasatakoak...

1.5. *Nolako epeak jarri nahi izaten dizkigute?*

Geuk jartzen ditugu ia beti; geu epeak jartzen ikasten eta bezeroak ohitzen ari dira. Hala ere tarteka gogorarazi egin behar izaten zaie bote, jagi edo punpa luzeko pilota dela gaztelaniaz eta euskaraz argitaratu beharreko testua. Enkarguarekin batera honelako oharra etortzen dira: Te adjunto un archivo para su traducción; Buenos días, XX, te remito una resolución para que, por favor, me traduzcas lo que se encuentra señalado en rojo; Te escribo de la XX para traducir este texto de una guía didáctica que envió en archivo adjunto. Cualquier duda nos envías un correo, tiene bastante prisa, un saludo; Te envío el documento XX para su traducción. Como siempre, es urgente, así que ya me dirás para cuándo puede estar. Eta euskaraz ere bai: Bi itzulgai bidaltzen dizkizut. Presazkoak dira. Jakinarazi, mesedez, noizko egon daitezkeen. (Zuzendari batek esaten zigun Administrazioan ez dela hilabetez zain egon ezin den gai edo arazo premiazkorik, baina berak presa zuenean...). Ahal bada, kasu egiten da; ezin bada, ez.

Adibidez, presa handia duen testua etorri zaigu eta ohar hau dakar: 30 orrialde, ... etzi behar dugu. Kalkulua hau da:

- 30 or.: 5 or. egunean = 6 egun lagun batek
- $30 : 10 = 3$ egun bi lagunek (+ bateratu egin behar = denbora gehiago)
- $30 : 15 = 2$ egun 3 lagunek (+ bateratu egin behar)

Behin edo behin, oso gutxitan, hartuko da horrelako lanen bat, baina ez behin eta berriz.

1.6. *Nolako kalitatea eskatzen digute? Nolako kalitatea nahi dugu?*

Oso kalitate ona!, jakina.

Baina kontuan izanda nolakoak diren testuak, epeak, nork irakurtzeko diren edo non geratuko diren lozorroan edo betiko bakean...

...askotan opilgintza industrialeko pastelak bezalakoak edo sukaldaritza industrialean prestatutako jatekoak bezelakoak izango dira itzulpenak, pastelero finaren gustua, etxeakoandarearen sukaldeko goxotasun hura faltako zaie; eta ez da maila txarra hala eta guztiz ere (non eta, jate-rakoan, krematan botoiren bat edo intxaur azalen bat azaltzen ez zaigun).

2.- Jaso dugu itzuli beharreko testua

2.1. Zer egin?

2.1.1. Oharrik dakarren ikusi (lehen ere esan dugu): dena itzuli behar den, lehen ere itzulia dagoen, ... enkargua egiten digunak zer adierazten digun kontuan hartu.

2.1.2. Testua gainetik ikusi: hiztegi berezia duen, ulergaitza den, anbigua nahita edo nahi gabe den, oztoporik duen, aldrebesa den, erraza den. Itzultzaileen keak jasota zerbait ikasi dugu horretan. Zer dela-eta keak?

- hasiera batean uste izan baino testu zailagoak ere agertzen direlako: paragrafo mariagarriak, sintagma-zerrenda ulergaitzak, laburdurak... (Anttonen azalduko du hau).
- lan-banatzailak denborarik ez duelako testu guztiak osorik irakurtzeko; argi dago hori,... eta, horrelakoetan, itzultzaileak egiten du topo testu barruan han edo hemen —edo han eta hemen— dauden koxkekin (aizkolariak ere, enborrean espero ez duen begia gertatzen bazaio, denbora gehiago behar izaten du lana amaitzeko eta ez du izaten gustuko) eta hortik keak.

2.1.3. Behar izanez gero, testua argi idazteko esan bezeroari. Txarren txarrez atzera bota ere egin izan dugu testua (bestela ere ez gara-eta, burukomin faltan)

2.2.4. Zer nora bidali:

a) itzulpen-enpresekin eginda ditugun kontratuen arabera:

- administrazioko gaiak: dekretuak, aginduak, itunak, inprimakiak... enpresa batera
- hedapen handiko testuak (zenbait artikulua, foileto, gidaliburu, e.a.) eta Hezkuntzan sortutako testu teknikoak (ikastetxeetako curriculumak, plangintzak, ...) beste batera
- informatikako gaitakoak, EJIIEk (Eusko Jaurlaritzaren Informatika Erakundea, zerbitzu publikoa) bidaliak: erabilerako gidaliburuak, programa informatikoak... beste batera.

b) IZO barruan, geure artean, zer nori eman. Gure taldekook edozein gaitako testuak itzultzen ditugun arren, testu-mota jakinak direnean, nor zertan ibili izan den kontuan hartzen dugu; hori ez da lehen bezain beharrezkoa, gaur egun itzulpen-memoria dugu-eta.

2.3. Epeak jarri. Bezeroak eskatua gogoan izaten da ahal bada (laster ezagutzen dira negartiak, beti presako lana dutela eginaz dabiltzanak). Itzuli behar duenari ere galdetzen zaio zenbaitetan.

2.4. Dokumentuaren fitxa egiten da: espediente-zk., dokumentuaren datak (urtea, urteko zenbatgarrena den, nondik bidali zaigun... (Josebak azalduko du fitxa nolakoa den). Noizko behar dugun ipini eta itzultzaileari ematen zaio edo itzuli behar duen enpresara bidaltzen da.

3.- Jaso dugu itzulitako testua:

3.1. Zuzenketaren edo berrikusketaren arduradunak itzultzaileak oharrik egin duen ikusi. Oharrak era askotakoak izaten dira: siglaren batek zer esan nahi duen, testu ulertezinen bat argitzeko modurik izan ez eta bere hartan itzuli dela; osatu beharreko testu batean, lehendik itzulita dauden lerroetan okerrak ikusi direla...

3.2. Zuzentzaileari (berrikusleari) eman ikus dezan. Gaur egun IZOko itzultzaile eta interprete guztiak zuzentzen ere ari dira.

3.3. Berrikusi ondoren:

- ondo itzulita dagoela?, aurrera pasa
- zuzendu beharreko zeratxoak dituela?, zuzendu eta aurrera pasa
- akats batzuen berri eman behar zaiola itzultzaileari edo itzulpen-enpresari?, argi adierazi
- barkatu ezin diren hutsak dituela?, atzera bota...

3.4. Zuzentzeko irizpideak? (Josebak azalduko ditu).

3.5. Dokumentu bakoitzak bere fitxa du. Orain arteko urrats guztiak egin ondoren fitxa behar bezala betetzen da (Josebak azalduko du hori).

3.6. Bezeroari bidaltzeko moduan gaude behin hona helduz gero.

Antton Burgoa

Donostiako jardunaldiak amaitu ondoren idatzi dut testu hau. Gogoan hartu dut zelan egun horietan beste hainbat lagunengana esanetan ere bazuela indarrik nik sarrerakoan egin nuen proposamenak, eta beste askoren arduraren ere bazela. Hain zuzen, halako eta bestelako testuak atzera bota, eta bat ere itzuli gabe bihurtu beharko genituela esateraino, juramentua tarteko.

A.- Baieztapena

Baieztapen hau bota nuen maiatzaren 5eko goizean: itzulgaia dela, hau da, eskuetara iritsi zaigun testua dela lehenengo zuzendu behar duguna, hainbat eta hainbat kasutan.

Nolanahi ere, testu guztiak ez dira berdinak beren zailtasunean, eta itzultzailea bera ere ez da beti egoera berberetan aurkitzen. Horretara, hiru mailatan jarriko ditut zuzendu beharreko testuok.

A.1.- Lehenengo eta behin itzultzaileak beste inoren laguntasunik barik berak konpondu ditzakeenak, edo bestela esanda, berak testuari ukiturik egin gabe ere, testua ondo ulertu eta egoki itzultzeko moduan egin dezakeen lana.

Testu osoa irakurri ondoren jabetuko gara arazoez, irakurri osotasunean egiten dugulako, ez txatalka, nahiz eta adibide honetan zatika aurkeztu dudana testua, bigarren irakurketa analitikoari jarraituz.

“Se solicita”.

Aditz horrek ez luke aparteko arazorik sortu behar.

“Se solicita la inclusión”.

Objektua gehitzeak ez luke, berez, ezer larririk ekarri behar, baina norbaitek (norbaitez) nominalizazioa antzemango dute, eta erne datorrenari.

“Se solicita la inclusión en el Catálogo”.

Pasarte honetan ez dago berri berezirik, aurrekoan ikusi ez denik.

“Se solicita la inclusión en el Catálogo de los elementos arqueológicos”.

Orain koska berriak nabaritzen ditugu.

Lehenengo eta behin, badakigu esaldia amaitu gabe dagoela. Hala ere, katalogoari lotu behar ote dizkiogu arkeologiako gaiak? Naturala dirudi, eta funtzionatzen duela. Baina, nondik dabil lehen aipatutako nominalizazioaren kasu hori?

“Se solicita la inclusión en el Catálogo de los elementos arqueológicos señalados en el texto”.

Aurreko tartetxoan argi-edo zegoena, ilundu egin zaigu, gaizki uler baitaiteke testuan aipatutako osagai partikularrekin katalogo orokor bat osatzea. Berriro, nominalizazioaren arrastotik.

“Se solicita la inclusión en el Catálogo de los elementos arqueológicos señalados en el texto que en breve se pretende declarar Monumento”.

Testua al da monumentu izendatu nahi dena? Ala katalogoa? Inklusioa, agian? Galderak piloka datozkit. “Breve” bera ere dagoen tokian egonda, bere ondoan dagoen aditzari ote dago-kio? Ala besteren bati?

Hala ere, ustez, itzultzaileak ez luke arazorik izan behar testua ulertzeko, eta azpian honako testuren bat dagoela esateko:

“Solicitamos que en el catálogo se incluyan los elementos arqueológicos señalados en el texto, ya que (erlatibo horren zentzua kausala izan daiteke) pretendemos que en breve sean declarados monumento”.

A.2.- Hurrengo adibidea lege-aurregitasmo batetik hartu dut. Tituluaz barik, artikulua- ren tes- tuaz dihardut.

Artículo 36. Entidades acreditadas en investigación y recuperación de suelos

1. *La acreditación será requisito imprescindible para poder realizar las investigaciones de la calidad del suelo, el diseño y la ejecución de las medidas de recuperación que se contemplan en la presente ley.*

Lehenengo irakurraldian badirudi testuak ondo funtzionatzen duela, ez duela aparteko oz- toporik, ez duela etenik sortzen; amai- rera arte ondo joan da.

Baina, itzultzen hasi, eta seko, diseinua arazo. Zelako diseinua, zerena? Non dira zehaztasu- nak?

Horretarako, aditzak markatzen du hurrenkeraren hasiera; badirudi hiru direla aditzari zin- tzilika jarri zaizkion objektuak. Lehenengo eta hirugarrena, argiak. Erdikoa (diseño), aldiz, hanka motz.

Kasu horretan egilea aurkitu nuen, eta argigarriak eskatu nizkion. Oso jarrera ona berea (hori ere ez da beti lortzen), eta testuan esan nahi zuena azaldu zidan.

Hona puntuz puntu zehaztuta:

- + para poder realizar
- las investigaciones de la calidad del suelo
- + para poder realizar
- el diseño de las medidas de recuperación
- + para poder realizar
- la ejecución de las medidas de recuperación diseñadas”.

Eta bestetik, “que” erlatibozkoaren barruan, “las investigaciones” eta “las medidas” zeudela.

Ez dut uste testuak horretarako ematen duenik. Erreparatu, bestalde, zer den “realizar la ejecución”.

A.2.1.- Ondorengo adibidea ez nuen Donostian jarri. Zaila eta iluna da didaktikoa izateko, baina bere balioa du, batez ere, zelako egoeran iritsi zitzaigun gogoritzen badugu.

Negoiazioetan ari ziren lehendakaria eta alderdi politikoak, itun bat egiteko, eta prentsari iragarri zitzaion testua hurrengo goizean izango zuela eskuetan, negoziazioak amaitu ondoren gaueko orduetan itzuli ostean. Gaueko hamaikak edo hamaika eta erdiak ziren, gu testuarekin borrokan, eta inor ez telefonoan gure galderei erantzuteko. Egoera planteatzeko ekarri dut hona. Testua norberak azter lezake, konponbiderik aurkitzen ez badio ere.

Estas circunstancias, unidas a la nueva fase política que vive nuestro pueblo, Euskal Herria, en la cual la búsqueda y desarrollo de espacios y métodos en los que la capacidad de decisión y la voluntad de construcción de su propio futuro por parte de todos los vascos y vascas pueda manifestarse libremente y encontrar los cauces adecuados para su democrática plasmación resulta un objetivo irrenunciable.

A.3.- Hirugarren mailako zailtasunean jartzen ditut egile ezagunik ez duten testuak, edo egile horietara iristerik ez dagoenean gertatzen diren egoerak mahai gainean jartzeko.

Testu bi hauek Europako Erkidegoa eratzeke Itunaren itzulpenean egokitu zitzaizkidan. Gaztelaniazko testuarekin batera beste hiru erdaratako testuak ere izan nituen, beherago ikusten den bezala.

A.3.1.- Lehenengo adibidean parentesi artean jarri dut testuak berak ez zekarren sintagma (*y de su banco central*). Itzulpena beste itzulpen oker baten gainean egiterakoan, itsuak daraman itsuaren galbidea berarentzat. Horrek ez dauka konponketarik, albotik beste makuluren batzuk lagungarri izan ezik.

“La exclusión de este Estado miembro (*y de su banco central nacional*) de los derechos y...” (es) EEIko 122.3. art.

“L’esclusione di detto Stato membro e della sua banca centrale nazionale...” (it);

“L’exclusion de cet État membre et de sa banque centrale nationale...” (fr);

“The exclusion of such a Member State and its national central bank...” (en);

“Erkidegoko estatu hori eta bere banku zentrala...”

A.3.2.- Hirugarren mailako bigarren adibide honen arazoa lausoagoa da. “Reconocido prestigio” esatean, berba bi horiek balio positiboa dute, eta behar dela ulertzen da Europako Banku Zentraleko kide zenbait aukeratzekoan. Baina, zelakoa da behar duten “experiencia profesional” delako hori? Ez dauka inolako baloraziorik; badakigu, inozoak ere ez gara-eta, txarra barik onak beharko duela. Testuak, ordea, ez du ezer esaten.

Baina, eta hemen dator goian aipatu dudan makulua, konparatu frantseseko testuarekin (gaztelaniak ingelesa izango zuen eredu pluralgilerik eta generorik ez duen “recognised” horren orpotik), eta erlatiboaren irtenbidea izango zuen argiagoa: dont (cuyos) reconnues (reconocidos).

“... entre personas de reconocido prestigio y experiencia profesional en asuntos monetarios o bancarios...” (es) (EEI 112,2,b) art.).

“... persons of recognised standing and professional experience in monetary or banking matters...” (en).

“... persone di riconosciuta levatura ed esperienza professionale nel settore monetario o bancario...” (it).

“... personnes dont l'autorité et l'expérience professionnelle dans le domaine monétaire ou bancaire sont reconnues...” (fr).

“Diru-gaieran edo bankuko gaieran ospe eta lanbide-eskarmentu handia lortu duten pertsonen artean izendatuko dira...”

B. Galdera

Hasierako baieztapen haren ondoren, galdera bat egin nuen. Egiten ditugun testuak ikusita, zein dira jatorrizko testutik xede testura bidean gure buruetan gertatzen diren interferentziak?

Zalantza ez da itzultzeko gai ote garen, gaizki itzultzen ote dugun, itzultzen badakigun edo ez. Maila horretatik barrurago dago arazoa. Itzulpenak oso ondo frogatzen du itzultzen badakigula, hizkuntza ere ondo erabiltzen dugula.

B.1.- Lagun gutxi egongo da ezezkoa baieztekoan eman ez duenik, handia txikia egin, goikoa behean jarri eta berria zahar bihurtu ez duenik. Ohituta gaude halakoetara. Eta adibide honetan ere beste horrenbeste. Hala eta guztiz ere, hilen izenekin gertatu denak, atzera-aurrerako ibilian, urtarrila zena azken (?) hamar hilabeteetako lehena bihurtu da, eta azkenak bere izena du, urria, hurrenkerako azkenari kasurik egin gabe.

“Los resultados de los primeros diez meses del año 2003 (enero-octubre)...”

“2003. urteko azken hamar hilabeteetako emaitzak (martxoa-urria)...”

B.2.- Buruan interferentziaz gertatutako etenaren beste adibide bi orain datozenak.

Sukarrak gaixotasuna adierazten du.

Testuak ere sukarrak bezala, buru barruko arazoak azaleratzen ditu.

Badirudi begiekin barik, belarriarekin itzuli direla.

“... cuyo pago la Junta Administrativa ha *pospuesto* hasta la finalización definitiva de los trabajos”;
 “... Administrazio Batzarrak, lanak erabat bukatu bitartean, ordaintzea *proposatu* duena”. (00-12-05).

“Segregar de la parcela nº 533... una *porción* de 269,39 m2, para su venta a D. Fernando”;
 “533 zenbakiko lursaila Landa-Katastrotik banatzea... 269,39 m2ko *proportzioa*, alegia”. (00-12-05)

Hor gelditzen da, bada, galdera. Zer gertatzen da gure buruan halako saltoak egiteko?
 Pozik irakurriko nuke erantzuna.

Joseba Urkia

Aurreko guztiak entzun ostean, niri euskarazko itzulpena esku artera iristen zaigunean zer egiten dugun azaltzea egokitu zait, eta horretarako, hasteko, gure zerbitzuan erabiltzen dugun zuzenketa-orriari buruzko azalpen batzuk emango ditut, orri horretako datu batzuek gure lanaren nondik norakoaren berri erakusten baitute.

Hau da zuzenketen berri emateko dugun orria:

The screenshot shows a Microsoft Access window with the title 'Microsoft Access - [1_total]'. The menu bar includes 'Archivo', 'Edición', 'Ver', 'Herramientas', and 'Ventana'. The toolbar contains various icons for file operations and editing. The main window displays a form titled 'ZUZENKETA - BETA'. The form has several sections with checkboxes and text boxes. At the bottom, there is a status bar showing 'Página: 726' and 'Preparado'.

ZUZENKETA - FITXA

Espediente zk Ziurtagiria

Fitxategia

Solaskidea: Aditua:

Itzultzailea Noizko

Zuzentzailea Noizko

Epea

Bidalketa-eguna zenbat itzuli:

ZUZENKETA	EGITEKOA	EGINDAKOA	EMAITZA
Osootasuna eta datuak berrikusi	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Balekoa: aurrera <input type="checkbox"/>
Lagina berrikusi	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Akastuna: zuzendu eta aurrera <input type="checkbox"/>
Osorik berrikusi	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	Onartezina: itzuli eta zuzentzaileari <input type="checkbox"/>
Edukia:	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	bihurtu
Estiloa:	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
Dena irakurri: ulertu	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
ONARTEZINA ZERGATIK			AKASTUNA ZERGATIK
Formatua oker:	<input type="checkbox"/>		Morfologia: <input type="checkbox"/>
Zatia falta:	<input type="checkbox"/>		Joskera: <input type="checkbox"/>
Datuak oker:	<input type="checkbox"/>		Lexikoa: <input type="checkbox"/>
Akats ortografikoak:	<input type="checkbox"/>		Terminologia: <input type="checkbox"/>
Akats ugari:	<input type="checkbox"/>		Estiloa: <input type="checkbox"/>
Besterik:	<input type="checkbox"/>		Besterik: <input type="checkbox"/>
Oharrak:	<input type="text"/>		

Orri horretan zein atal jarri diren ikusita, egiten dugun lanaren nondik norako orokor samarra izateko aukera behintzat badugu: dena zuzentzen den edo testuaren zati bat aztertuta nahikoa den, gutxi gorabehera zer nolako akatsak izatea aurreikusten den, testua berriz ere itzultzailearengana bidaltzea zerk eragin dezakeen... Testua itzultzerakoan jatorrizkoa ulertzeko arazoak egon daitezkeela jakinda, “aditua” izeneko atala ere ageri da, dena delako pertsonak testuan ilun dagoena azal diezagun.

Dena den, zuzenketa-orrian kontu asko ageri dira batera, nahas-mahas, eta teorian behintzat kontua argiago izateko, ondorengo mailak bereiztuko nituzke gure lanean:

1. maila

Zuzentze-lanari buruz ari garelarik, askotan pentsatu izan dugu lan horretan maila bat baino gehiago dagoela, eta berariaz inolako bereizketarik egiten ez badugu ere, uste horrek eragin du hitzaldiaren izenburuan zuzenketa-mailak aipatzea. Izan ere, gure zerbitzuan behin baino gehiagotan iruditu izan zaigu zuzendu beharko ez genituzkeen kontuak zuzentzen ari ginela, eta ez, hain juxtu ere, testuak premiarik ez zuelako, ezpada ze zuzentzen genituen gauza horietako asko itzultzaileak berak inolako zalantzarik gabe zuzen idatzi beharko zituzkeen kontuan zirelako. Asko dira, dagoeneko, Euskaltzaindiak araututa eta zehatz araututa dituen kontuak: azken 10 urteotan Euskaltzaindiaren karpeta lodikoteetan hainbat arau eta gomendio jaso dituzte (lehenago esandakoez gainera), eta baita hiztegi arauemailea osatzen duen zerrenda luzea ere. Beraz, esanda eta garbi esanda dagoena zuzentzen ez genuke denborarik galdu beharko. “Zero” puntua ere deitu izan diogu kontu horri. Nolabait esan, maila horretako akatsak ez dira aukerakoak, ez dago itzultzailearen esku aldagai bat edo bestea hartu, bide batetik edo bestetik jo. Ortografia-akatsak ez dute aitzakiarik, komuntadura kontuek ez dute aitzakiarik, labur esanda, beste ezertan hasi aurretik zuzen behintzat idazteak ez du aitzakiarik; beste kontu bat izango litzateke terminologia arloan erabaki gabe edo joera/aukera bat baino gehiago dagoenean zalantzan ibiltzea, baina hor ere termino bat aukeratu bada, testuan behintzat koherentziari eutsi beharko zaio, eta ez nahas-mahas ibili, orain hau eta gero bestea hartuta.

2. maila

Bigarren mailan Euskaltzaindiaren araugintzaz haratagoko proposamenek erakusten ditutena kontuan hartuta jardungo dugu. Azken urteotan hainbat liburu argitaratu da euskaraz idazterakoan sortzen den/dugun nahasbide edo galbide asko txukuntzeko asmoz, eta ezinbestekoa da euskaraz idazten duenak liburu horietako gomendioen berri izatea. Hauek dira aipatzen ari garenaren berri ematen duten liburu nagusiak: *Senex* aldizkariko zenbait artikulua, beste batzuen artean: Koldo Bigurik erlatiboazko esaldiei buruz idatzitakoa; Jose Moralesek erakusleei buruz eta aposizioei buruz idatzitakoak eta Juan Garziak erakusleen gainean Jose Moralesek esandakoari erantsitakoa. *Joskera Lantegi* (Juan Garziarena); *Euskal Estilo Liburu-*

rantz (Xabier Alberdi, Ibon Sarasola); *Euskara batuaren ajeak* (Ibon Sarasola); Egunkariaren *Estilo Liburua*.

Horietan guztietan euskarazko testuetan behin eta berriz ikusten ditugun arazoen inguruko irtenbideak proposatzen dira. Egia da maila honetako kontu batzuk lehenengo mailakoak baino “aukerakoagoak” direla, hala esaterik baldin badago behintzat, baina euskaraz txukunago, ego-kiago eta hizkuntzaren berezko horretatik gertuago ibiltzeko aukerak eskaintzen dizkigute. Ipar garbirik gabe edo inolako iparrik gabe darabiltzagun kontuetarako jarraibideak eskaintzen dizkigute. Ez dute, beharbada, Euskaltzaindiaren sendespenik, baina hizkuntza langai dutenen eskarmentutik ateratako ondorioak eskaintzen dizkigute, nora eza ahalik eta txikiena izan da-
din. Hor sartzen dira, gorago aipatutako kontuez gainera, puntuazioa zuzen erabiltzeko jarraibideak, esaldi menderatuen nondik norakoak, nominalizazioak dakartzan morrontzak, galde-
gaiaren inguruko uste, teoria, sasi-teoria e.a. Kontuan izan behar da *Euskal Estilo Libururantz* liburuan 67 gai jakin aipatzen direla, nahiz eta horietako batzuk Euskaltzaindiak dagoeneko argituta dituen arazoen ingurukoak izan; hau da, badago zertaz arduratu.

Lehenengo bi maila hauetako akats edo arazoak euskaraz sortutako zein euskarara itzulitako testuak zuzentzerakoan ikusten ditugunak dira, hau da, nahiz eta gure eguneroko lanean itzulitako testuekin jardun, sarri ikusten ditugu ustez euskaraz sortuta daudenetan ere, askotan ez baitago garbi zer den euskaraz sortutakoa ere.

3. maila

Hirugarren mailan, zuzenean itzulpengintzak eragindako arazoak ditugu. Hau da, hizkuntza batetik besterako joan-etorrian ari garela, beti dago hizkuntza-maila guztietako interferentziak gertatzeko arriskua, berez hizkuntza batekoak ez diren aukerak bestera eramateko joera, eta hor itzulpen-teoriek diotena eta itzulpen-teknikek eskaintzen dituzten aukeren berri izanda jardun behar da, al bait. Batzuetan hitzez hitz itzuliko dugu edo itzuli beharko dugu, beste batzuetan transposizioaz edo modulazioaz baliatuko gara, beti baliokide ahalik eta berezkoenaren bila joko dugu, sarritan mailegua hartu beste modurik ez da izango, hurrengo zalantzak jota ibiliko gara, baina ahalik eta gutxienetan oharkabe eta ematen ari garen ordain horri aparteko jaramonik egin gabe. Beti izan beharko dugu gogoan itzultzen ari garela, eta aukera bat ala bestea egiteak ondorioak izan ditzakeela.

Mailarik subjektiboena da hirugarren hau, askotan ez baitugu garbi jakingo zergatik egiten dugun hautu bat eta ez bestea, eta zuzenketa modurik zailena izango da.

Garbi utzi nahi dut hiru maila hauek bereiztea neurri handi batean nahierazkoa dela, ez guztiz kontu zehatza, baina eguneroko lanean gertatzen denak eragindako ondorio garbia da. Bigarren eta hirugarren mailako kontu asko berdin-berdin izan daitezke maila batekoak zein beste-koak, baina bereizketa hori eginda zer adierazi nahi dudan garbiago dagoela iruditzen zait.

Ondorengo arazoak sartuko nituzke hirugarren maila honetan: hizkuntza batek menderakuntzaz edo koordinazioaz baliatzeko joera handiago edo txikiagoa izatea (joskerari dagokio);

kalko eta maileguekin sortzen diren zalantza guztiak; esaldi barruko osagaiak antolatzean sortzen diren arazoak; gure inguruko hizkuntzek preposizio bidez duten konplementazio-sistema osoa euskaraz emateak sor ditzakeen arazoak (beti ere izen sintagmaren konplementazioaz ari naiz). Hitz berriak sortzerakoan atzizki edo aurrizkiak zuzen erabiltzeko sortu izan diren arazoak, hizkuntza bateko hizkera metaforikoa egokitzeak sortzen dituen arazoak. Azken batean era guztietako interferentziak daudenez, horiei neurria hartzea da kontua, eta interferentziok itoferentzia ez bihurtzen saiatzea (Juan Garziarena da hitza).

Orain artekoan guk egiten dugun lanean ikusten ditugun arazoak nola edo hala sailkatzen saiatu naiz; baina zer da benetan gertatzen dena?

Horren berri emateko, hasteko gure zerbitzuari eskatzen zaionaren %75 inguru kanpoko enpresetan itzultzen dela esan behar da, eta gu lan horren guztiorren zati handi bat zuzentzen saiatzen gara, dena zuzentzea ezinezkoa baita. Eta egoera hori izanik, azaldu nahi dudana nagusietako batera iritsi gara: gorago egin dudana sailkapen horretako lehenengo zuzenketa-mailan tratatuta egoten gara testu askorekin. Gure ustez profesional batek itzultitako testu batean inondik ere agertu beharko ez liratekeen akatsak konpontzen ibiltzen gara, eta horrek non-bait zerbait behar bezala ez dabilela erakusten digu.

Gai horren inguruan, otsail-martxoko *Argia* astekariko elkarrizkera batean Ibon Sarasolak euskara zuzen eta egokiari buruz esan zituenak etorri zaizkit gogora. Euskara zuzen, egoki eta komunikatiboaren arteko bereizketa egiten du, eta gaur egun sarritan Euskaltzaindiaren arauak baino betetzen ez dituen euskara-modua bultzatzen dela/dugula dio, nahiz eta posible izan euskara txar eta zuzena idaztea. Sarasolak esaten duenez, gaurko euskararen arazoa ez da Euskaltzaindiaren arauak betetzen dituen edo ez, eta ados nago ideia horrekin, nola ez, baina zoritxarrez, bada gure eskuetara iristen diren testu batzuen arazoa. Ez ginateteke gutxi poztuko esku artera datozkigunek gutxienez errazena den hori, hau da, Euskaltzaindiaren arau gehienak behintzat bete eta gero guk, zuzentze-lanaren bidez, euskara egoki eta komunikatibo horretara iristeko egin beharko genituzkeen aldaketan egin behar izango bagenu (hain zuzen ere, nik 2. eta 3. mailako zuzenketa artean sailkatu ditudan kontuak). Baina oraingoz ez gaude hor. Eta ez da ahaztu behar gu ia beti itzultitako testuez ari garela.

Egoera horretan egonda, zeintzuk izan daitezke irtenbideak?

Hasteko, arazoak jabetu beharra dagoela uste dugu, ez baita posible behin eta berriz antzeko kontuekin topo egin eta oraindik askotan testu onartezinak jasotzea. Eta horrekin lotuta, askotan (gehienetan) guk geuk sartzen ditugu egindako aldaketak testuan, itzuli duen pertsonari horren berri eman gabe. Hor ere lan egiteko modua aldatu behar dugu, eta egindako aldaketak guztiak itzultzaileari jakinarazi, testua hobeto uzteaz gainera itzultzaileak gure lanaren berri izan eta dituen akatsak konpontzea komeni baitzaigu.

Gure zerbitzuko lanari dagokionez, garbi ikusten dugu guretzako itzulpen-lanak egiten dituzten enpresekin guztiz zehatu beharrean gaudela zer den onartzeko modukoa eta zer inondik ere pasatuko ez duguna. Kalitatearen inguruan beste herrialde batzuetan egiten denari buruzko zertxobait irakurri eta behin eta berriz agertzen da akatsa zer den objektibatzeko premia, hau da, itzulpen-lana egiten duen enpresak alde aurretik jakin beharko du zer izango den akats arina, zer larria eta zer lana atzera botatzeko modukoa. ISO eta DIN arauetan esaten denaz bezainbatean, batez ere prozesuak hobetzeko moduak zehazten dituzte, lana itzultzeko eskatzen denetik itzulita bueltan bidali arte jarraitu beharreko pausoak hobetzeko moduak, baina ez zehazki eta zuzenean testua kalitatezkoa izatea lortzeko biderik (egia da itzultzailearen prestakuntzaz ere badihardutela eta esaten dutena kontuan hartzeak hobera egitea lekarkeela, baina esan bezala ez dira gure arazo nagusia konpontzeko kontuez ari). Beraz, guk izan beharko dugu gure neurriko irtenbidea modutu beharko dugunak.

Gogoan izan beharreko zenbait kontu

Administrazio-hizkera

Ez da ahaztu behar *administrazio-hizkeraz* dihardugula, eta horrek ezaugarri jakin batzuk dituela; horien artean garrantzitsuena mezuak beste ezerk baino indar handiagoa izatea, eta horri esker, itzultzaileok beste hizkera/idazkera modu batzuetan baino askatasun handiagoa izatea aldatu beharrekoak aldatzeko, horrek mezua hobetu ulertzea ekarri behar baldin badu. Dena den, eta aurrekoa orokorrean gogoan hartu beharreko kontua izanik ere, ez da gauza bera Ibarretxeren plana itzultzea, igeltsero edo mediku lanpostua betetzeko hautagaiantzako azterketak itzultzea, testu-liburu bat itzultzea edo telebista zein irratiko iragarkia euskaraz jartzea. Guztiak izan daitezke, asko gutxi, administrazio hizkera, baina alde handiak daude batean eta bestean aukeratu beharreko hizkuntza-ereduan.

Bezeroa

Enpresa pribatuetan bezeroak indar handia du, hala diote, bezeroa gustura geratu ezean hurrengoan lanik gabe geratuko delako enpresa, eta, jakina, hori jakite hutsak beharrezko neurriak hartzera bultzatzen ditu arloan arloko erakundeak. Itzulpengintzan ere beste horrenbeste gertatzen da, baina ez guri beste administrazio batzuek itzultzeko eskatzen dizkiguten testuen kasuan (eta horiek dira gure lanaren zatirik handiena). Zoritxarrez, gure itzulpen-lana ez dago bezeroak adieraziko duenaren presiopean. Bezeroak itzuli beharra dagoela esaten du, baina batez ere legeak hala egiteko eskatzen duelako; gehienetan berdin dio ondo edo gaizki egongo den, gehienetan lana irakurri ere ez duelako egingo. Zer esan nahi dut horrekin? Guk jarriko dugu maila, gure eskuetan egongo da zenbaterainoko ahalegina egin nahi dugun. Lan duina, txukuna egin edo nola edo hala aurrera egiteko moduko testu zabarra bidaltzea gure esku egongo da. Azken batean, oso gutxitan egongo gara kritikaren presiopean, eta hori ere arriskutsua izan daiteke.

Kalitatea/prezioa/denbora aldagaiak

Denok ikusten dugu lanak azkar eta ondo egitea oso zaila dela, baina garbi izan behar dugu zenbait akats-moduk ez duela inolako zerikusirik presaka aritzearekin. Askotan arazoaren berri izatea baino ez da kontua. Hasieran aipatutako 1. mailako akats horietan, denborak ez du ia inolako eraginik: badakizu edo ez dakizu. Beste kontu bat da testua berrikusteko denbora izatea, behar bezala zuzentzeko aukera izatea, baina horrek ez du edozein gauza zuritzen.

Zuzentzea berriz itzultzea

Askotan pentsatu izan dugu, arrazoi osoaz gainera, hobe dela zenbait testu zuzentzen hasi baino berriaren berri berriz itzultzea, baina hori ezinezkoa da kasurik gehienetan, batez ere testuak luzeak edo oso luzeak izaten direlako; bestalde, arazoari ihes egitea da. Gerta liteke testu laburra izanda irtenbide hori baliagarria gertatzea, baina beste kasu guztietan, kontua larria bada, itzultzailearekin harremanetan jarri eta egoeraren berri eman beharko zaio. Hutsuneak non dauden erakutsi, irtenbideak proposatu eta hortik aurrerakoak berriz ere itzultzailearen kontua izan beharko luke.

Bukaerakoa:

Artikulu honetan ez dut inondik ere kontu berririk aipatu, eta hori da, hain juxtu ere, azpimarratu nahi nuen gauzarik garrantzitsuenak: orain arte beste batzuek erabaki, esan, gomendatu, iradoki edo proposatu dutena txukun antzean beteko bagenu —eta ez zait hainbesteko lana iruditzen hizkuntza bizibide duen bati hori egiteko eskatzea, betebeharra da, hasteko—, esku artera datozkigun lan asko ez lirateke hain maila kaskarrekoak izango. Hizkuntzari buruzko proposamen zentzuzkoenen mailaren eta eguneroko itzulpen-lanen arteko jauziak harritu beharko gintuzke. Askotan entzun izan dugu kontu hau edo bestea erabakitzeke dagoela, cuskaraz idaztea nolabaiteko guruzbidea-edo dela, eta badakigu zenbait kontu beharbada ez daudela gure auzo-hizkuntzetan bezain garbi zehazturik (hizkuntzazkoek baino soziolinguistikako eragileek izango dute pisu handiagoa, ziurrenik; corpus kontua baino, estatus kontua areago, gaur egun). Baina hori hala izanik ere, esku artera iristen zaizkigun hainbat eta hainbat testu zuritu ezinekoak dira. Ez dut hainbeste liburu aipatu, eta bakoitzeko aztergaietako asko batean eta bestean errepikatzen direnak dira. Horietan guztietan ikusten den joeraz jabetu, eta ez zait iruditzen lanbidea itzulpengintza duen batentzat hain zaila behar duenik gutxienekotik gorago ibili ahal izatea.

p.s.: Joseba Sarrionaindiak Berria-ko elkarrizketan idazkerari buruz aipatutakoak aurrera egin izanaren adierazle iruditzen zaizkit: gutxi gorabeherako kanona zehaztu ostean gauza ederra behar du hizkuntzarekin jolasean edo erdi burlaka ibili ahal izatea; dena den, idazle batzuen lizentzia izan ohi da hori, ez administrazioko testugileen aitzakia erraz.

Testu zuzenketa Bizkaiko Foru Aldundian

JOSEBA URZELAI

Sarrera

Jardunaldi hauetan parte hartzeko kon-tuaz hitz egin genuenean, argi esan nion Karlos del Olmori ez nintzela gauza testu zuzenketaren gaineko teorizazio sakonik egiteko. Argi adierazi nion hori baino xumeagoa izango beharko zuela nire ekarpenak: berak interesgarri iritziz gero, Bizkaiko Foru Aldundian testu zuzenketa zertan den edo ez den azalduko nuen, eta batez ere nire esperien-tziaren berri emango nuen.

Azken hilabete eta erdian miraririk gertatu ez denez, eta teorizazio sakonik egiteko gauza izan gabe jarraitzen dudanez, orduan agindutakoari eutsiko diot, gutxien-gutxien egoeraren irudi errealista eta benetakoa osatzen lagunduko duelakoan.

Ezer baino lehen, esan behar nuke hutsune handi bat dagoela arlo honetan, edo gurean behintzat hala dela oraingoz. Ez daukagu zuzentzailerik —ezta itzultzaile-zuzentzailerik ere—, ez dugu erabat zehaztu zer nolako lekua hartu behar duen zuzenketak gure lan prozesuaren barruan, eta, garai batean itzulpenarekin gertatzen zen bezala, ez

daukagu zuzenketaren praktika bideratu eta sistematizatzeko irizpide argiegirik. Azken batean, itzultzaileok arduratzen gara zuzendu behar diren testuak zuzentzeaz. Nola? Ahalik ondoen.

Dena dela, eta aurreko hitzaldiaren izenburuak aditzera ematen duen moduan, gurean ere itzulpenarekin eta dokumentuen kudeaketarekin loturik dago zuzenketa. Alde batetik, gehienbat edo ia bakarrik testu itzuliak zuzentzen ditugulako, eta, bestetik, dokumentuak kudeatzeko katearen azken edo azkenurreneko begia delako (edo izan beharko lukeelako) testuen zuzenketa.

Hortaz, zer, zenbat eta nola itzultzen den esan beharko nuke hasteko.

Zer, zenbat, nola itzultzen den

Zer eta zenbat itzultzen den, ez baita gauza bera mota bateko edo besteko testuak itzultzea, asko edo gutxi itzultzea ere gauza bera ez den bezala.

Bizkaiko Foru Aldundian, bada, testu asko eta askotarikoak itzultzen ditugu. Ez naiz luzatuko testuen tipologia zehatza egi-

ten, edo dokumentu mota bakoitzaren ezau-garriak aipatzen. Esan dezagun, bakar-bakarririk, aldundia Administrazio erakundea izanik, gehienbat testu administratiboak edo arauemaileak tratatzen ditugula, baina tartean badirela beste era batzuetako dokumentuak ere, hala nola zabalkundeak, publikitate kanpainetako leloak, egunkari edo aldizkarietarako artikulak eta abar. Azken horietako batzuek badute antzik testu literario edo *konnotatiboagoekin*, baina oro har komunikatzeko gaitasuna, eraginkortasuna eta zuzentasuna izango dira dokumentu administratibo estandarrak itzuli nahiz zuzentzeko irizpide nagusiak. Ez dut uste inor harritzeko gauzarik esaten ari naizenik.

Eta lehen esan dudan moduan, bestetik, testu asko itzultzen dira aldundian, edo itzultzaileoi behintzat hala iruditzen zaigu. Zifra bat ematearren, iaz, gutxi gorabehera, 50.000.000 karaktere itzuli ziren, itzulpen lanak kudeatzeko erabiltzen dugun postontzi elektronikoen arabera. Beste modu batera esanda, 25.000 orrialde inguru itzuli ziren.

Kopuru horretatik, 20.000.000 karaktere aldundiko itzultzaileok itzuli genituen, eta 30.000.000 karaktere kanpoan itzuli ziren. Hau da, %40 aldundian, eta %60 kanpoan. Eta horrek badu ondorioz. Gogora dator kit orain José Palacio González Europako Erkidegoko Auzitegiko legelari-hizkuntzalari ohiak Europako Batasuneko itzulpenaz esandakoa (Senez aldizkariaren 19. aletik hartu dut; 1997ko aipua da, beraz):

“Cabe señalar, por último, que junto a la labor desarrollada por los traductores y juristas-lingüistas al servicio de las instituciones, éstas confían a personal exterior una carga de trabajo que fluctúa entre el 14% y el 20% aproximada-

mente de los textos a traducir. Por lo general, los documentos confiados a la traducción exterior son los menos urgentes, o aquellos que sólo inciden de manera indirecta en el funcionamiento interno de la institución. Las modalidades de contratación del personal exterior varían según la práctica administrativa de las distintas instituciones. Ahora bien, la relativa lejanía de los traductores externos, tanto de los apoyos informáticos y documentales puestos a disposición de los servicios internos de traducción, como de los usos y prácticas consolidados dentro de dichos servicios, hace que la traducción procedente del exterior presente con frecuencia discordancias con estos usos o prácticas, cuando no serios problemas de calidad. Este hecho incide negativamente en la carga de trabajo de los traductores funcionarios, que deben reservar parte de su tiempo a la revisión de sus colegas del exterior.”

Hori horrela bada —eta horrela da, Administrazioeko itzulpen zerbitzuetan ari zaretenok ondo dakizuen legez— kanpoan testuen %14 edo %20 itzultzen denean, zer ez da gertatuko itzulpenen %60 erakundetik kanpo egiten bada. Begi-bistakoa denez, kalitatearena bene-benetako arazoa da, eta, beraz, testu zuzenketa guztiz funtsezkoa da, batez ere erakundearen barruko kontsumorako ez diren dokumentuen kasuan. Gainera, gure kopuruak ikusita, erabat ezinezkoa da kanpoan itzultzen den guztia kontrolatu edo zuzentzea, eta horrek esan nahi du ondo aukeratu behar dela zer eta nola zuzendu behar den.

Geroago emango dut horren berri modu zehatzago batean, lehen esandako “ahalik ondoen” hori baino pixka bat harago, alegia. Baina gatozen orain aldundiaren barruan egiten den %40az hitz egitera, barruko antolamendu horrek ba du-eta zerikusirik testu zuzenketarekin.

Zer eta nola itzultzen den aldundiaren barruan

Lehenengo eta behin, esan behar da Euskara Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia sortu zela aurreko legegintzaldian, eta horren ondorioz itzulpen eta euskara zerbitzuak berregituratzen hasi zirela. Berregituraketa horren barruan, besteak beste, itzultzaile taldea handitzea eta terminologo bat eta hizkuntza-ingeniaritzako teknikari bat hartzea aurreikusitako da, baina halako prozesuek luze jotzen dute, eta oraindik bidean gabilta. Hortaz, dagoenarekin moldatu beharra dugu.

Aurreko legegintzaldi osoan lau itzultzaile izan ginen zerbitzuan, eta aurtengo urtaririlaz geroztik bost. Gainera, aldian-aldian behin-behineko kontratazio batzuk egiten izan dira lan pilaketagatik-edo. Hori da gure armada.

Gauzako baliabideei dagokienez, guztion antzera ibiliko garela pentsatzen dut: itzulpen memoriak erabiltzen ditugu, hiztegi edo glosario terminologiko bat daukagu —itzulpen memoriaren sistemaren barruan txertaturik, eduki ere—, zuzentzaile ortografikoa erabiltzen dugu, eta gaur egun ezinbesteko informazio iturriak direnak ere baliatzen ditugu (Internet, Itzulist...).

Zehaztasun handiagoaz esateko, duela lau bat urte hasi ginen itzulpen memoriak erabiltzen, guztiok ezagutzen duzuen TRADOS etxearen programa-multzoa, alegia. Iraultza txiki edo handi bat ekarri du horrek, eta neurri batean lan egiteko modua ere aldatu du. Ezagun denez, itzulpen memoriak izugarri laguntzen dute testu administratiboak itzultzen, lehenago itzultzaile berriz ez itzultzeko aukera ematen duten neurrian. Izan ere, testu administratiboan unibertsoan asko dira

lehenago itzuli eta errepikatzen diren esaldi, paragrafo edo dokumentu zatiak. Hala dio teoriak.

Gero, kontua da itzulpen memoriak eskaintzen duten abantaila benetan baliatu ahal izateko, ezinbestekoa dela gure memoriak ematen digun itzulpena ona izatea, hau da, itzulpen horrek zuzendu edo ukitu behar handirik ez izatea. Zeren, bestela, ez baitugu hainbeste aurreratzen. Eta hori kasurik onenean, arriskutsuagoa bailitzateke memoriak emandakoa itsu-itsuan onartzea —itsua itsugidari jartzearen parekoa litzateke hori, eta, Bibliak dioenez, itsuaren gidaria itsua bada, biak errekarra—.

Horrek esan nahi du, beraz, testu edo dokumentuen gainean ez ezik, itzulpen memoriaren gainean ere egin behar dela zuzenketa edo orrazketa-lana. Nire esperientziaren arabera, behintzat, zaila eta astuna da zuzenketa-modu hau. Batetik, itzulpen memoria ondo etiketaturik eta antolatutik eduki behar delako, eta, bestetik, TRADOSek (3. bertsioak bederen) memoria mantentzeko eskaintzen dituen tresnak nahiko trakets eta nekagarriak direlako. Zuetariko askok dakizueenez, gainera, memoriaren tamaina handia bada, edo memoria sarean jarri eta hainbat itzultzailek aldi berean memoria beraren kontra lan egiten badute, arazoak sortzen dira, eta behin baino gehiagotan memoria osoa hondatzen da.

Gurean, esate baterako, memoria elikatzeke karga masibo bat egin zen hasieran, memoriaren beraren diseinu egoki bat egin gabe, eta ondorioak ordaintzen ari gara oraindik ere. Baten batek Intenetetik gure memoria deskargatu badu, jakingo du zertaz ari naizen: 300.000 itzulpen unitatetik gorako memoria erraldoia daukagu, batere sailkatu eta

antolatu gabe, eta horrek ezinezko bihurtzen du memoria behar bezala mantentzeko lana. Horren ondorioz, memoriak proposatzen duen itzulpena nahi baino gehiagotan izaten da desegokia, eta nahi baino gehiagotan zuzendu behar izaten dugu (egia da memoria etengabe hobetzeko modua dela hori, baina egia da, era berean, ehuneko hainbeste lehenago itzulita dagoela-eta, itzultzaileari arinago lan egiteko eskatzen bazaio, garrantzi handikoa dela memoriak erantzun egokiak ematea).

Ez da hori arazo bakarra. Lehentxoago esan dudan bezala, guri behin baino gehiagotan hondatu zaigu memoria, eta horrek burua hautsi eta denbora galdu beharra ekarri digu. Ezinbestekoa zaigu, beraz, itzulpen memoria ondo antolatzea eta oinarri informatiko egonkor eta, aldi berean, malgu batera aldatzea.

Bada itzulpen memorien erabilerarekin eta testuak prozesatzeko moduarekin zerikusia duen beste kontu bat. Sistema hauekin segmentuka edo esaldika egin eta gordetzen dira itzulpenak. Itzulpengintzaren teoriak diotenaren arabera, ordea, testua edo dokumentua da itzultzaileak kontuan hartu beharreko gutxieneko unitatea —testu edo dokumentu hori hitz bakarrekoa izan badaiteke ere—. Bestela esateko, esaldi edo segmentu baten itzulpenak (itzulpen egokiak, esan nahi dut) ez du zertan bat eta bakarra izan dokumentu posible guztietan, erreferentzia anaforikoren bat aldatzen delako, dokumentu jakin batean ohikoa ez den termino edo adierazpide bat hobesten delako edo bestelako arrazoiren batengatik.

Itziar Bernaolak, Ana Moralesek eta Iruñe Payrosek, *Senez* aldizkariaren azken alean,

ederki adierazten dute zeintzuk diren segmentazioaren arriskuak. Hona hemen aipu laburra:

“Hala ere, segmentatzailearekin lan egiteak badauzka bere arriskuak itzulpenaren beraren kalitaterako, eta post-edizio lan arduratsua eskatzen du, gure itzulpenak zenbait arriskutatik babestu gura baditugu. Hiru mailatan bereiztu ahal dira arriskuok:

- 1) koherentzian,
- 2) kohesioan,
- 3) erretorika testualean.

Itzulpengintzak *testua* dauka langai, ez hitzak edo esaldiak, eta, beraz, Diskurtsoaren Analiaren barruan aztertu behar dira haren produktua.”

Horrez gain, dokumentu eredu batzuk finkatu eta normalizatzeari begira, guztiz komenigarria da halakoak oso-osorik eta ondo antolaturik gordetzea. Hori guztia gogoan izanik, beharrezko ikusten dugu itzulpen memoriak datu base dokumental batekin edo itzulpen-ereduen biltegi egituratu batekin osatzea.

Geroago azalduko dut zer nola erantzun-go diegun arazo horiei. Has gaitezen, orain, zer zuzentzen dugun esaten, hots, zein testu zuzentzen dugun eta zein ez.

Zer zuzentzen dugun

Lehen aipatu dudan legez, kanpoan itzulitako dokumentuak zuzentzen dira —zuzentzen direnean—. Horrek ez du esan nahi, jakina, aldundiaren barruan egindakoak zuzendu behar ez liratekeenik. Horrek esan nahi du normalean edo sistematikoki behintzat ez direla zuzentzen, horretarako denborarik edo giza baliabiderik ez dugulako, nondik begiratzen zaion.

Badira, ordea, testu jakin batzuk modu berezian tratatzen direnak, berez duten zailtasunagatik, erakundetik kanpo izango duten eragin edo oihartzunagatik, edo etorkizunean beste dokumentu askotarako erreferentzia izango direlako. Halakoak zuzendu ez dira zuzentzen, baina taldeka edo bi edo hiruren artean (askoz gehiagoren artean ezin izan daiteke eta) aztertu eta lantzen dira, edo batek itzuli eta beste baten batek gainbegiratzten ditu.

Hortaz, kanpoko itzulpenak zuzentzen dira gehienbat. Lehenago emandako datua gogora ekartzen badugu —gure produkzioaren %60 kanpoan egiten dela, alegia—, erraz ulertuko da ez daukagula hori guztia zuzentzeko modurik, ezta gau eta egun lan eginda ere. Aukeratu beharra dago, ezinbestean, zer zuzendu eta zer ez.

Gutxi zuzentzen dela aitorturik, esan dezagun hiru direla, eskuarki, zuzentzen diren testu multzoak:

Lehenengo eta behin, garrantzi berezia eta kanpo-eragin nabarmena duten testuak. Halako dokumentuak barruan itzultzen ahalegintzen garen arren, batzuetan ezinezkoa gertatzen zaigu eta kanpora atera behar izaten ditugu. Hala denean, argitara eman aurretik zuzentzen ahalegintzen gara. Helburu zaila da, ordea, eta badakigu zuzendu beharreko testu garrantzitsu batek baino gehiagok ihes egiten dugula. Lehen aipatu dudan berregituraketa gauzatzen den neurrian, egoerak hobera egitea espero dugu. Orduan errazagoa izango da testu hauek barruan egitea edo behintzat hurbilagotik kontrolatzea, eta, José Palaciok esaten zuen moduan, presarik gutxien duten agiriak edota erakundearen barne funtzionamenduan zeharkako

eragina baino ez dutenak uztea kanpoko itzultzaileen eskuetan.

Bigarrenik, zoriz aukeratutako testu batzuk ere zuzentzen ditugu. Gutxitan egiten dugu, egia esan, baina inoiz bai. Halakoe-tan, ausazko lagin bat hartzen dugu, eta suertatzen diren testuak zuzendu edo gainbegiratzten ditugu. Gutxitan egiten dugula ikusita, eta laginen tamainak kontuan hartuta, esan dezakegu kanpoan egiten diguten itzulpen estandarraren kalitatea neurtzeko balio digutela, gehienbat, zuzenketa hauek.

Eta, azkenik, *a posteriori* zuzentzen direnak aipatuko nituzke, hau da, argitara eman ondoren, arazoak sortu, eta nahitaez zuzendu behar diren testuak. Egia esan, halakoak gertatzen direnean, zuzendu barik, berriro itzultzen dira gehienetan. Adibide modura, 2002ko foru arau bat aipa dezaket, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara egokitzen duena, hain zuzen ere. Batzar Nagusietan onartu eta gero, baten batek (ahaldun batek, oker ez banago) euskarazko testuaren kalitatea salatu zuen, eta berriro itzuli behar izan genuen, zerotik hasita, arrazoi osoa baitzuen salatariak. Esan beharrik ez dago, neurri profilaktiko guztiak hartu genituela bigarren itzulpena egiteko: behar adinako arretaz eta denboraz egin zen itzulpena, eta egin ondoren Batzar Nagusietako itzultzaileei eta Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko bi irakasleri —haietariko bat Foru Zuzenbidean aditua— eman genien testua, gainbegira zezaten.

Kontuak kontu, aipatutako hiru testu multzo horiek zuzentzen ditugu normalean. Jarraian, nola zuzentzen ditugun azalduko dut laburki, baina, agindu bezala, hasierako “ahalik ondoen” baino apur bat zehatzago.

Nola zuzentzen dugun. Zuzenketa-mailak

Testu motaren araberakoa izaten da zuzenketa, neurri batean behintzat, eta ez da harritzekoa, itzulpenarekin ere gauza bera gertatzen da eta. Hasieran esan dudana bezala, komunikatzeko gaitasuna, eraginkortasuna eta zuzentasuna izaten dira dokumentu administratibo estandarrak itzuli nahiz zuzentzeko irizpide orokorrak. Irizpide horiek ezartzen duten helburua lortzeko, zuzenketa-maila edo -mota hauek bereiziko nituzke:

Zuzenketa ortotipografikoa

Testu guztiei egiten zaien zuzenketarik oinarrikoena da.

Zuzenketa ortografiko hutsa, gainera, automatizatzen errazena dugu, zuzentzaile ortografikoa daukagunetik. *Hiztegi Batua* da gure dotrina-liburua, eta XUXEN gure erreminta. Horiekin argitzen ez ditugun zalantzetarako, gainerako hiztegiak, corpusak eta Itzulit erabiltzen ditugu.

Esan dezadan, bide batez, batuaz idatzitako testuetarako balio duela esandakoak, bizkaieraz egiten direnak eskuz-edo zuzendu beharra baitugu oraingoz.

Tipografiari dagokionez, gure testuak nahiko lau eta errazak izaten dira normalean, baina badira argitalpen batzuk (kartelak, triptikoak, liburu eta liburuxkak, eta abar) kontu tipografikoetan arreta berezia jartzeko eskatzen digutenak. Hitzak nola moztu, laburtzapenak nola eman, orduak eta datak nola adierazi, zenbakiak nola idatzi eta, batez ere, letra larriak eta xeheak noiz idatzi erabakitzea izaten da kontua. Ez naiz luzatuko honetaz, beste arlo batzuetako jendeak (komunikabideetakoek edo zientzia arlokoek) zer

esan gehiago izango dutela pentsatzen dudalako. Esango dut, hala ere, zuzenketa-modu hau ez daukagula automatizaturik. Areago dena, zuzenketak euskarri informatikoaren gainean egiten ahalegintzen garen arren, behin baino gehiagotan gertatzen zaigu moldiztegiako azken probak paperaren gainean, eskuz eta banan-banan zuzendu behar izatea. Euskaltzaindiaren arauak eta *Laburtzapenen gidaliburua* izaten dira gure ohiko bidelagunak.

Oro har, esan daiteke, moldiztegiaren euskarazko zuzentzaileak ez egotea izaten dela arazo iturri garrantzitsuenetakoa bat. Izan ere, euskarazko zuzentzaileak ezean, gaztelanirekiko mimetismoa izaten da irizpidea, eta sarritan ikusten dugu euskaraz ondo dagoe-na “zuzendu” eta txarto jartzen dela (zientzia-unitateen ikurrei puntua eransten zaie-la, esate baterako).

Itzulpen akats materialen zuzenketa

Zuzenketa-mota honek ez du, agian, aparteko garrantzi teorikorik, eta egiten erraza da (akats material horiei erreparaturuz gero), baina aipatu behintzat egingo dut, halako akatsak ezin baitira alde batera utzi. Informazio galera edo distorsio txikiez ari naiz, gehienbat.

Askotan, gainera, baliabide teknologikoen erabileraren ondorio dira, edo hobeto esanda, testu prozesadoreen eta itzulpen memoriaren erabilera arinegiaren ondorio. Honezkerok, denok dakigu testu prozesadoreetako “ebaki” eta “itsatsi” aginduekin zer pasatzen den, ebaki behar ez direnak ebakitzen direla eta itsatsi behar ez direnak itsasten direla behin baino gehiagotan. Esperientziak esaten dit itzulpen memoriarekin ere antzeko zerba

gertatzen hasi dela: itzultzaileak presaka egiten du lan (hori enuntziatu tautologikoa da, eta hitzeko edo takadako kobratzen badu, are tautologikoagoa), eta batzuetan gure itzulpen memoriaren arabera %90eko edo horren bueltako kointzidentzia duen esaldia %100ekotzat hartu eta ontzat ematen da.

Esan dudanez, ez du aparteko garrantzi teorikorik, baina uste baino gehiagotan gertatzen da. Edozelan ere, zuzentzaileak arreta pixka bat jarritz gero, eta itzultzaileak izan ez duen patxada izanez gero, erraz konpontzen dira gisa honetakoak.

Zuzenketa terminologikoa

Hirugarren mailako zuzenketa dugu hau, eta aurrekoak baino askoz ere zailagoa. Egokitasun, zehaztasun eta koherentzia terminologikoak zaintzen ditugu arlo honetan. Bestela esateko, adierazi beharreko kontzeptuak adierazteko termino egokiak erabiltzen ote diren eta termino horiek modu koherentean erabiltzen ote diren begiratzen dugu. Gogoan izan behar dugu, edonola ere, zuzenketa terminologikoaz argi garenean, gutxieneko espezializazio maila bat duten testuez ari gara, eta ez testu "arruntagoez", halakoetan egokitasun lexikoa neurtzeko irizpideak ez baitira han zurrinak.

Egokitasun terminologikoa neurtzeko, bada, hiztegi orokorrak, hiztegi terminologikoak, EUSKALTERM eta gure hiztegi edo glosario terminologiko propioa erabiltzen ditugu. Adibidez, lehen aipatu dugun foru arauaren itzulpenean (Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-sistema Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren berezitasunetara egokitu zuen foru arauaren kasuan, alegia), garrantzi handikoa zen hainbat termino ondo

finkatzea, arauaren funtsa eta ardatza baitziren. Adibide batzuk aipatuko ditut:

- ‘Poder testatorio’ esateko (eta beharbada berau zen kontzepturik garrantzitsuena dokumentu osoan), ‘ordenatzaile ahal’ eman ziguten hasierako itzulpenean, ‘testamentua egiteko ahalorde’ edo ‘testamentu ahalorde’ behar zuen lekuan.
- ‘Sucesor’ itzultzeko, ‘oinorde’ erabili zuten, ‘oinordeko’ barik.
- ‘Bien mueble’ adierazteko, ‘ondasun higitakor’, ‘ondasun higitakari’ behar zuen lekuan.
- ‘Bien troncal’ eta ‘pariente troncal’ ‘oinetxeko ondasun’ eta ‘enborreko ahaide’ itzuli ziren, hurrenez hurren. Foru Zuzenbideko irakasleek ‘tronkal’ erabili behar zela esan ziguten.
- ‘Tercero’ esateko (adiera juridiko petoan, hau da, harreman juridiko baten alderdi ez dena adierazteko), ‘gainontzeko’ erabili zen, ordurako aski finkaturik zegoen ‘hirugarren’en partez.
- ‘Transmisiones lucrativas’ esateko, ‘irabazizko eskualdaketak’ erabili zuten, ‘dohaineko eskualdaketak’ barik.

Adibide batzuk besterik ez dira, batzuk besteak baino nabarmenago edo adierazgarriagoak, baina garbi erakusten digute zehaztasun terminologikoa ondo zaindu beharreko arloa dugula testuak zuzentzerakoan, testu seguru eta eraginkorrak sortuko baditugu.

Dena dela, ez dira hor amaitzen gure kezkak, terminologiari dagokionez. Egokitasunaz gain, koherentzia aipatu dugu lehen, eta horrek ere badu pisurik, zeren gauza bera adierazteko orain termino bat eta orain beste bat erabiltzen baditugu, zehaztasunean

galduko baitugu ezinbestean. Koherentzia hori dokumentuaren baitan (edo *intra texto*) zaindu behar da lehenengo eta behin, hartzaileari alperreko zalantza eta nekerik ez eragiteko. Bizkaiko beste zerga-arau batean, esate baterako, batzuetan ‘dohaineko eskualdaketak’ erabiltzen da ‘transmisiones lucrativas’ adierazteko, eta beste zenbaitetan ‘musu trukeko eskualdaketak’. Ziur nago irakurleak, gutxien-gutxienez, biak gauza bera ote diren galdetuko diola bere buruari.

Baina koherentzia horrek testu artekoa ere izan behar du, hau da, dokumentu jakin batean erabiltzen den terminologiak bat etorri behar luke arlo bereko gainerako dokumentuetan erabilitakoarekin, batez ere dokumentu horien artean hierarkiazko harremanik badago, zuzenbide edo Administrazioaren alorrean hainbatetan gertatzen den moduan.

Hizkuntza normalizatuagoetan, lege, dekretu eta gainerakoen balio arauemaile terminologiara ere hedatzen da, eta goragoko arauan erabilitako terminologia berbera erabili ohi da bera garatzen duten gainerako gutzietan ere (teorian bederen, zeren behin baino gehiagotan ikusten baitugu hizkuntza gutzietan txakurrak ortozik ibiltzen direla).

Euskaraz, ordea, bereziki korapilatsua da arazo hau, kontuan hartu beharreko erreferentzia asko eta asko aspaldikoak direlako, eta halakoetan erabiltzen diren hainbat termino (eta esamolde) zaharkiturik geratu direlako, edo delako erreferentzia hori berri samarra izan arren, bertan erabiltzen diren termino batzuk desegokitzat jo eta baztertu direlako. Ez hori bakarrik, nire esperientziaren arabera, esango nuke euskaraz salbuespena dela edozein arlo edo jarduera arautzen duten xedapen gutziek (dekretu, agindu edo

erabakiek, esan nahi dut) terminologia bera erabiltzea.

Ez da kontu erraza, bistan denez, baina nola edo hala testu arteko koherentzia terminologiko hori zaintzen saiatu behar dugu, ezadostasunak eta kontraesanak ahalik eta gutxien izan daitezen behintzat.

Espezializazio maila bateko testuez aritu naiz azken minutuetan, baina esan dezadan labur-labur testu gutzietan lortu behar dela gutxieneko egokitasuna, lexikoari dagokionez. Zehaztasuna baztertu barik, testuaren hizkuntza-maila, hartzailea, funtzioa eta beste faktore batzuk ere hartu behar ditugu kontuan hitzak aukeratzekoan.

Burura datorkit kanpaina batean erabilitako eslogan edo lelo bat: “utzi umei jokatzen”. Eskola-umeentzako kirolaren ingurukoa zen, “jokatu” aditzak besterik iradokitzen badu ere.

Hona beste adibide xume bat: bazen behin, Lakuako komunitan, palankatxo bati eraginik eskuak lehertzeko papera ematen zuen makinatxo bat. Makinaren albo batean, ohar bat zegoen, makina erabiltzeko jarraibideak ematen zituen: “EXTRACCIÓN DE PAPEL” zioen gaztelaniaz; eta euskaraz, “PAPER ERAUZKETA”. Hau da, gaztelaniaz “PARA SACAR PAPEL” jarri izan balu, euskaraz “PAPER ATERATZEKO” jarriko zuen, seguru asko.

Idazkeraren zuzenketa: testu egokiaren bila

Hau da testu zuzenketaren benetako muina, eta sarritan *gordiar korapiloa*, puntu honetan idazketa edo testugintzarekin zerikusia duten faktore guztiak batzen baitira.

Une honetan harira dator Ibon Sarasolak *Argia* aldizkarian euskara onaz, euskara zuzenaz eta euskara egokiaz esandakoa, alegia, ez direla gauza bera euskara zuzena eta euskara ona, euskara zuzena eta txarra izan daitekeela, eta askoz errazagoa dela Euskaltzaindiaren arauak eta abar zuzentzea, euskara ona zuzentzea baino. Euskara ona zer den jakiteko, sena behar da, eta sena neurtzea ez da kontu erraza.

Oinarrizko filosofian gehien-gehienok bat etorriko garela uste dut: denok onartuko dugu Administrazioa idazle, itzultzaile zein zuzentzaileek testu zuzen, argi eta adierazkorrak sortu behar ditugula, hartzaileak nekerik gabe ulertzeko moduko mezua eman behar ditugula. Esango nuke, gainera, Administrazioan dihardugun guztiok idatzi nahiz zuzentzeko inspirazio iturri berak baliatzen ditugula: *Hizkera argiaren bidetik, Argiro, Idazkera-liburua, Joskera lantegi*, garai bateko *Egunkaria*-ren *Estilo liburua, Euskal estilo libururantz, Euskara batuaren ajeak...* Areago, irizpide orokor horiez gain, zenbait arau edo gomendio praktikoago batzuk ere onartuko genituzke gehienok zalantza handirik gabe:

- Ahozko euskara oinarriztat hartzea (beldarra epaile, Joxe Ramon Zubimendik eta Pello Esnalek dioten moduan).
- Esaldi luzeegirik ez egitea.
- Aditza aurreratzea.
- Aukeran hitzik hurbilena edo ezagunena erabiltzea, batez ere hartzaile herriar arrunta bada.
- Testua beharrik gabe ez hanpatzea.
- Gaztelaniaren nominalizazio joera gehiegizkoa saihestea.

- Euskararen adierazpiderik naturalena aukeratzea gaztelaniakoari itsu-itsuan jarraitu barik. Bilboko zinema-areto batzuetan, adibidez, filma hasi baino lehen "halako zinema-konpainiak edo taldeak zuen etortzea eskertzen dizue" esaten zaie bertaratutakoei, "eskerrik asko etortzeagatik" esan beharrean. Zergatik? Gaztelaniak "los cines xxx les agradecen su asistencia" esaten delako.
- Ideiak ondo antolatzea. Horretarako, jakina, ezinbestekoa da puntuazio markak (marka guztiak) eta esaldiak josteko gainerako baliabideak ondo erabiltzea.
- Mezua argi eta garbi identifikatzea, gaztelaniako formulazioaren labirintoan galdu gabe. Bilboko metroko geltokietan, esate baterako, marra bat dago nasa guztietan, lurrean. Marra horretan, "rebasar sólo con tren parado" dago idatzita, eta euskaraz "trena geldidagocnean sartu". Agian egokiagoa litzateke "ez sartu (edo ez saiatu sartzen) trenageldi egon arte", batez ere tren guztiak leku berera ez doazela kontuan hartuta.

Antzeko dekalogoak osatuko genuke gehienok, eta antzeko ideiak ditugu buruan testuak zuzentzerakoan. Hala ere, zaila gertatzen zaigu testuak zuzentzea, puntuazioaz eta gramatika-zuzentasunaz harago goazenean (Sarasolak zioen moduan). Sarritan egoten gara zalantzan, zer egin edo noraino zuzendu ondo ez dakigula. Aurreko astean bertan, «esanez batera» egitura posiblea ote zen galdetzen zuen batek Itzulisten, eta "azken honi ez diot inoiz usain onik hartu" esaten zuen, "esan zuenarekin batera" egitura zela eta.

Usaimen ona eta eskarmentu handia izan arren (eta Itzulisteko galdera egin zuenak halakorik baduela uste dut), zalantzan gertzen gara sarritan halako egitura askoren aurrean.

Agian, testuak zuzentzen eskarmentu handirik ez dudalako izango da, baina niretzat edo oso testu onak edo oso txarrak izaten dira zuzentzeko errazena. Lehenengoak, zer orraztu gutxi izaten dutelako; eta bigarrenak, alde batera utzi eta berriz itzultzen ditudalako, zerotik hasita.

Puntuazioaren kontura itzuli nahi nuke honekin amaitu baino lehen. Gramatika-arauak eta puntuazioa zuzentzea euskara ona zuzentzea baino errazagoa dela esan dut. Horrekin ez dut esan nahi, baina, garrantzirik ez duenik, sarritan puntuazio-markak txukun eta egoki jartzea baita zuzenketa-lanaren parterik handiena. Izan ere, askotan puntuazioak berak eragozten du mezua behar bezala ulertzea.

Bada, gainera, fenomeno bitxi bat horren inguruan gertatzen dena: hainbat eta hainbatetan gaztelaniazko testutik abiatu behar da euskarazko puntuazioaren zuzenketa. Hau da, lehenengo eta behin gaztelaniazko testua zuzendu behar izaten da, birtualki baino ez bada ere (puntu honetan gogoratu beharra dago orain arte zuzentzeko eman dizkidaten testu guztiak gaztelaniatik itzulitakoak izan direla). Terminologiari buruz esan dudan moduan, puntuazioari dagokionez ere gaztelaniazko txakurrak ortozik. Hona hemen adibide bat:

“Teniendo en cuenta que las alegaciones expuestas por el interesado no desvirtúan el contenido de la Resolución impugnada, en tanto en cuanto, atendiendo a lo dispuesto en el artículo 13 de la precitada Orden, al

sobrepasarse el factor de densidad de 2 UGM/Ha. hay que deducir animales, aplicando la fórmula al efecto de la siguiente manera: N° U.G.M.s disponibles para pagos de carne vacuno = (Superficie forrajera determinada \times 2) - (V.L. \times 1 + O.C. \times 0,15) = $8,16 \times 2 - 14,05 = 2,27$ U.G.M.s. Así, el exceso de U.G.M.s solicitadas (4,8 terneros) menos las disponibles (2,27) = 2,53 U.G.M.s a descontar, que implica 2,53/0,6 = 5 terneros T-1 a descontar, pagándosele 3 terneros (T-1) reducidos ($3 \times 0,73335903 = 2,1$). Siendo la nueva densidad ganadera 1,94 U.G.M.s/HA, por tanto, cobró correctamente. Por lo dicho, procede desestimar el recurso en función de la cuota láctea”.

Beizamako abeltzain bati bidalitako gutun edo jakinarazpen batetik hartuta dago. Eskualdeko nekazarien bulegoko exegetarengana joko zuela pentsatzen dut. Muturreko kasua da, eta ez du puntuazioa arazo bakarra. Baina gauza bat segurua da: horrela puntuaturik, ezinezkoa da ulertzea. Alferrik ematen dira azalpen guztiak, seguru asko nahikoa zatekeen “cobró correctamente, recurso desestimado” jartzea.

Puntuazioari buruzko kontuekin amaitzeko, hiru erreferentzia hauek aipatu nahi nituzke, ondo lagungarriak baitira: *Joskera lantegi*, Espainiako Akademiak argitaratutako *Ortografía de la lengua española*, eta orain dela aste batzuk Itzulisteko mezu batean aipatutako *The Penguin guide to punctuation*.

Azken gogoetatxo bat gehitu nahi nuke, geroko asmoz hitz egin baino lehen. Mailak edo motak aipatu ditugu, testu zuzentzen parte hartzen duten faktoreak deskribatu guran. Ez da ahaztu behar, ordea, jardura integrala dela zuzenketa (idazketa bera den bezala), eta aipaturiko alderdi guztiok elka-

rri lotuta egoten direla normalean. Xehetasun materialenak alde batera itxita (ortografia hutsezkoak, agian), gainerako kontu guztiak elkarriz josirik daude: tipografia bera dokumentuaren diseinuarekin eta ideien antolamenduarekin loturik egon daiteke; arazo terminologikoa dirudiena fraseologia-kontua izan daiteke; puntuazio arazoak estiloaren ondorio hutsa izaten dira askotan...

Horrek ondorio garbia du: azaldutako mailakatzeari birtuala baino ez da, zuzenketa ezin baita atalka egin; aitzitik, dokumentua bere osotasunean hartu behar da (lehenago aipaturiko testu-artekotasuna ahaztu gabe), eta bere osotasunean tratatu. Hortik datoz zailtasunak, kasu askotan. Baina bera izan behar da, nire ustez, zuzenketa abiapuntua, arazo pragmatiko askoren soluziobidea dokumentuari buruzko hasierako hausnarketa *integral* horretatik baitatzen.

Orain arte esandakoaren arabera, bistan da badugula zer hausnartu eta zer hobetu testu zuzenketa inguruan. Horretan gabiltza. Hasieratik aitortu dudanez, gutxi jorrratu dugu alor hau, baina badugu horretarako asmorik.

Gerora begirako asmoak

Esan dugunaren ildotik, beraz, itzulpenaren kalitatearekin lotuta dago testu zuzenketa. Hala bada, ez dirudi abiaburu txarra denik ahalik eta itzulpen kalitate mailarik onena ziurtatzea. Horrek esan nahi du, itzultzaile taldea handitzeaz gain (azken finean horrek emango baitigu produkzio osoaren zati handiagoa barruan egin ahal izateko aukera), baliabiderik eraginkorrenak jarri behar direla testugintzaren edo itzulpengintzaren zerbitzuan. Eta horretan ari gara.

Lehen esan dugun moduan, gure itzulpen memoriak ondo antolatzea eta oinarri informatiko egonkor eta malgu batera aldatzea da gure lehenengo asmoa. Hau da, gure itzulpen memoriak eraginkortasunez kudeatzeko datu basea ezarriko dugu (ezarriko digute, egia esan, kanpoko enpresa bat ari baita horretan lanean —Eleka, hain zuzen ere—). Ez naiz xehetasun teknikoetan luzatuko. Esan dezadan, bakar-bakarrik, datu base hori gure zerbitzuaren premien arabera diseinatuko dela, eta hari esker informazio guztia —itzulpen segmentu guztiak— behar bezala sailkaturik eta etiketaturik izango dugula. Batetik, gure memoria osoa egonkorragoa izango da, eta, bestetik, erosoago egin ahal izango ditugu bera mantendu eta kudeatzeko lanak: errazagoa izango da era guztietako kontsulta eta bilaketak eta —nahi izanez gero— aldaketak —txikiak nahiz orokorrak— egitea memorian, errazagoa izango da neurri egindako memoria partzialak sortzea, edota memoriak eguneratzea eta informazio guztia itzultzaile guztien artean partekatzea ere.


Itzulpen memoriak kudeatzeko datu base horrez gain, datu base dokumental bat jartzeari pentsatu dugu, dokumentu pare elebidunak (dokumentu credugarriak direnak, nolabait esateko) oso-osorik eta lerrokaturik gordetzeko aukera emango digun datu base dokumentala, alegia. Kasu honetan ere, kanpoko enpresa bat arduratuko da datu basea diseinatu eta instalatzeaz —Code & Syntax—.

Helburua ez da, jakina, TRADOS edo itzulpen memoriaren erabilera baztertzea, bera osatzea baizik. Izan ere, sistema bien helburuetako bat berbera bada ere (lehendik itzultitakoa berriz ez itzultzea), datu base do-

kumental honek badu ezaugarri propio eta garrantzitsu bat guretzat: dokumentuaren erreferentzia ez galtzea, hau da, dokumentu osoak erraz eta erosoa sailkatu, artxibatu eta berreskuratzea ahal izatea (gogora dezagun TRADOSeko itzulpen-memoriak segmentu-tuka edo "esaldika" antolatzen direla). Zailentziaz ez dago horrek ikeragarri lagun dezakeela zenbait dokumentu-eredu finkatzen eta normalizatzen. Horien artean, urte batetik bestera egitura komun edo ia berdina duten dokumentuak aipatuko nituzke, edota haien erabilera publikoarengatik edo haien izaera ereduarengatik normalizatu eta

finkatzeko premiarik handiena dutenak: kontratazioko iragarkiak, erabilera publikoko iragarkiak, erakundearen barruko izapideak egitekoak eta abar. Gainera, dokumentu pareak lerrokatu gordetzen direnez, sistemak aukera ematen du TMX dokumentuak sortu eta, beraz, itzulpen memoriak elikatzeko.

Horiez gain, testu zuzenketa bera antolatzeko izango da hurrengo urratsa. Aitortu dudana legez, oraingoz gutxi landu dugu zuzenketa alorra. Espero dezagun jardunaldi hauek argibide onik ematea.



EIMAren nondik norakoak

ANDRES ALBERDI

Sarrerakoa

EIMAren nondik norakoan berri azaltzeko mandatu-eskaintza egin zidatenean, galdera sorta etorri zitzaidan burura: zer forma eman txostenari?, nondik heldu gaiari?, nola saihestu beste txostengileekin egon litekeen errepikatzeko arriskua?...

Berehala ohartu nintzen, era berean, eskatzen zidatenak kolore erabat praktikoa behar zuela eduki, halakoak ziren-eta proposamen modura EIZIEkoek egiten zizkidaten iradokizunak, hots, zuzenketa-esperientziaren gainekoak nagusiki: testu-zuzenketa izandako esperientzia, EIMako zuzenketa-irizpideak, zuzenketa arazo nagusiak, lanaren antolamendua, testugintzaren ezaugarriak... Definizio teorikoetan inor aspertzen ez ibiltzeko, beraz, saiatuko naiz antolatzaileen itxaropen horri ez huts egiten.

Jardunaldiak *zabalak* izango zirela ere gaztigatu zidaten, halere, hau da, ikasle-entzuleak eta abarrak ere izango zirela. Horrek kezkatu ninduen gehien: zer neurritan aritu behar dut nik?, norentzat?, zer motatako entzuleria batuko ote da han?, galdetzen nion neure buruari. *Nairobi*arrako Josu Iztueta-

ri-eta gertatutako pasadizoa igaro zitzaidan burutik. Beren ibilaldi horietako batean, Ameriketako Estatu Batuetan gertatu zitzaie-na, hain zuzen ere. Lehen aldia omen zuten han, eta iritsi berriak omen ziren. Gertatu behar eta, autobusak matxura txiki bat. Berehala bistaratu zuten telefono bat bide bazter batean. Bertaratu, eta *kontxo, altu zegok hau!*, pentsatu omen zuen Josuk; egon ere altu zegoen-eta telefono hori: ia bi metro altu! *Makaleko mutil puskek amerikar hauek, denak ere bi metro luze badira. Eta euskaldunok handiak ginelakoan ni!* Aitaren batean ohartu zen, haatik, telefono horiek ez zirela oinezkoentzat, amerikar kamioitzar haietako kabinatik zuzenean hitz egiteko baizik. Haren lasaitua!... Nire kezka horixe da: altutik aritu behar ote dut amerikar erraldoientzat moduan, ala behetik, xehetik, euskaldun txikientzat bezala? Erdibidera jo beharko.

Eta gaiarekin hasi aurretik, ez nuke isildu nahi maiz samar ahanzten dugun gauza bat ere: zergatik onartu nuen gonbidapena, hain zuzen. Lehenik eta behin, EIZIEko antolatzaillei etsipenik ez sortzeagatik, hain egin zidaten-eta eskari adeitsua baina era berean

saiatua! Baina badituzte gogoan beste hiru arrazoi ere baietza emateko: gonbidapena onartzeak, alde batetik, hausnarketarako bidea emango zidan, behartu egingo ninduen eguneroko lanaren morrontzatik ihes egin eta ikuspegia zabaltzen eta zorrotzen; beste alde batetik, gurearen lan bertsuan dabilen jendearekin gure arazo-premiak eta iritzi-ustek kontrastatzeak, are gehiago jende hori jende jantzia eta eskarmentu handikoa bada, on besterik ez zidan egingo; eta, azkenik, EIMAREN berri jendaurrean emateak abantaila baino ekar ez ziezaiokeelako hari eta hark ikasmaterialgintzan dituen asmo-eginkizunei.

1. EIMA: helburuak eta egitekoak

EIMA izena akronimo bat da eta hau esan nahi du: *euskal ikasmaterialgintza*. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuak 1982. urtetik hona abian duen lan-programa bat da. Honako bost helburu hauek ditu:

- a) euskaraz behar adinbat ikasmaterial sor dadin bultzatzea;
- b) euskal ikasmaterial horien salmentaprezioa antzeko erdal materialena baino garestiago gerta ez dadin segurtatzea;
- c) material horiek hizkuntza-trataera egokia izan dezaten zaintzea;
- d) irakasleei, ikasleei eta irakasmunduan zuzeneko zeresana duten gainerako talde eta norbanakoei aldiro-aldiro aukeran dauden euskal ikasmaterial horien berri zehatza ematea;

- e) ikasmaterial horien kalitatea (konposizioz, maketaziaz eta irudi-argazkiez, inprimaketa eta enkoaderazio egokiz) bultzatzea.

Hona bildu gaituen arrazoiak —testuen gaineko zuzenketa— c) eta e) epigrafeei begira jartzen gaitu.

Euskarazko 400etik gora ikasmaterial argitaratzen dira, urtero, gure ikastetxeetan erabiltzeko. Testu-liburuak dira gehienak, baina bestelakoak ere asko dira tartean: ariketakoadernoak, irakasleen gidaliburuak, gai monografikoak lantzen dituzten kontsultaliburuak, entziklopediak, eskola-hiztegiak eta eskola-atlasak, besteak beste.

Liburu-formatuan argitaratzen dira gehienak. Gero eta ugariagoak dira, ordea, ikusentzunezkoak ere, eskola-mundurako kaseteak, CD-ROMak eta Internet bidezkoak, hain zuzen ere.

Argitaldari eta produkzio-etxe asko dira, hartara, urtero-urtero egiten den EIMAKO deialdira atxikitzen direnak eta, baldintzak betez gero, diru-laguntzak jasotzen dituztenak. Oso ezagunak dira lan-esparru horretan diharduten etxe batzuen izenak. Sei dira nagusiak (Elkar/GIE, Erein, Ibaizabal, Zubia/Santillana, Giltza/Edebé eta Anaya/Haritz), baina denera badira pare bat dozena.

Hezkuntza Sailak erabakimen zuzena du ikasmaterial horien onspen- eta autorizazio-arduran¹. Berak eman ohi die, ondorioz, euskal ikasmaterialeri, eskolan erabiliak izateko onspena. Hartarako, berriz, kasuan kasuko onspen-azterketa egin ohi da. Labur esanda hiru eratako azterketa egiten da:

¹ 1998ko azaroaren 3ko 295/98 dekretuak arautzen du hori.

- a) Azterketa teknikoa: ikus-entzunezko eta software-ikasmaterialgintzak ea gaur egun mundu profesionalean ohikoak diren eskakizun-estandar teknikoak ongi errespetatzen diren ala ez aztertzen da atal honetan. Hizkuntzazko egokitasun-azterketak egiten ditugunon esparrutik kanpo dago ardura hori.
- b) Eduki-azterketa: aztergai den materialak kasuan kasuko ikasketa-programa ofiziala behar den neurrian jarraitzen edo errespetatzen duen ikertzen da atal honetan. Bistakoa da, edukiak hizkuntzarekin duen loturagatik, era batera edo bestera, gure esparruarekin duen lotura erabatekoa, are gehiago herri moduan Euskal Herrian bizi dugun gatazka kontuan hartzen bada. Denok gara kontziente gai sozial eta kulturalen trataeran, lurraldetasunaren ikuspuntuaren jarreran, herriaren historia azaltzerakoan eta abarretan, kontzeptu bat edo beste erabiltzeak, hitz bat, ñabardura bat, iradokizun bat proposatzeak... errealitatearen interpretazio anizkoitzak erakusten dituela. Badira gai horretaz egindako hausnarketak eta liburuak², batzuk orain-oraintsukoak, gainera. Baina, gaurkoan, ez dugu hori aztergai. Bestelako kontu bat —hizkuntzaren zuzenketarena, alegia— dugu gaur hemen argitu beharrekoa. Zernahi dela ere, edukien esparru horretan ere ez gara sartzen hizkuntzazko onespen-aztertzaileok.
- c) Hizkuntza-azterketa: Euskaltzaindiak emandako edota onartutako arauak eta gomendioak ondo betetzen dituzten eta, jakina, euskararen oinarritzko legeak behar den bezala errespetatzen dituzten ala ez ikertu ohi da atal honetan; eta, jakina, hauren adina eta hizkuntza-gaitasuna ere kontuan hartu nahi izaten da azterketa horri ekiterakoan. Alor hau dagokigu guri.

Aurrera baino lehen, hala ere, zehaztasun bat: EIMAren bidez, unibertsitate-mailako liburuentzako laguntza ere badago, baina hori ere ez da gure esparrua. Unibertsitateko ikasketez beherakoa hartzen du gureak.

2. EIMAren egungo egitura eta giza baliabideak

Hizkuntzazko onespen-azterketaz Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzua arduratzen da. Hezkuntza Administrazioak berak, horretarako, lehen ez bezalako baliabideak ezarriak ditu azken urteotan hizkuntzazko onespen-azterketa arrazoizko kalitate-mailara eramaten saiatzeko. Egindako saioen argi-itzalek eta azken urteetako eskarmentuak lehen ez bezalako aukera eskaintzen digute orain guztioi xede zehatzagoak finkatzeko eta egokitasun-estandar zentzuzkoak aplikatzeko.

Lan-talde homogeneoa lortzen ahalegindu da Saila eguneroko lan praktikoan sortzen diren problemei erantzun koherente eta bateratua eskaintzeko.

² Esate baterako, Imanol Murua Uriaren *Lehen Hezkuntzarako ikasmaterialari gainbegiratua* (1996). Edo argitaratu berriak diren Karmele Perez Urrazaren *Curriculuma eta testu-liburua Euskal Herrian*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 2004; eta Begoña Bilbao Bilbaoren *Curriculuma eta kultura Euskal Herrian*, 2004.

Hala, propio hizkuntzazko aztertze-lanari berari dagokionez, EIMAn, gaur egun, alde batetik, onespren-aztertzaileen taldea eta horien koordinatzailea dauzkagu; eta bestetik, Aholku-batzordea. Egitura hau 1999tik honakoa da, ordura bitarteko egitura, gero ere ikusiko dugunez, bestelakoa baitzen.

Onspren-aztertzaileak eta koordinatzaileak. Gauza ezaguna da argitara ematen diren ikasmaterialek gero eta berezituagoak direla espezialitatez, ikasmailaz eta abarrez. Hori dela eta, onspren-azterketako aditu horiek jakintza-alor diferentekoak izatea komeni zen, eta halatan daude izendatuta. Zazpi dira gaur egun aditu horiek, eta honako espezialitate hauetakoak dira: gizarte-alorrekoa, hizkuntza-alorrekoa, natura-zientzien alorrekoa, teknologia-alorrekoa, musika-alorrekoa, fisika-kimika alorrekoa, enpresa-zientzien alorrekoa, eta informatika- eta matematika-alorrekoa. Aditu tekniko horien txosten-jardunek beharrezko barne-lotura izan dezaten, eta argitaldarien horren falta nozi ez dezaten, koordinazio-lana egingo zuen figura ere behar zen: koordinatzailea. Lan horixe da gaurgaurkoz nirea. Lan-talde hau da hizkuntzaren *kontrola* egiten duena.

Aholku-batzordea. Langintza hori bide onetik eramateko, EIMako zuzentasun-irizpideak finkatzeko besteak beste, ikasmaterialeen Aholku-batzordea dago, bestetik. Batzorde horretako kideak, Euskara Zerbitzuaren buruaz eta EIMako onspren-aztertzaileen koordinatzaileaz aparte, honako hauek dira: Joxe Ramon Zubimendi, Euskaltzaindiaren proposamenez izendatua; Xabier Mendiguren Bereziartu, Euskal Editoreen Elkarteak proposatua; eta Juan Gartzia, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretuen Elkarteak proposatua.

Eginkizun jakina izan du Aholku-batzordeak azken urteotan: ikasmaterialeterako estilo-liburua prestatzea, batez ere. Hori izan du urteotako langintza nagusia. Estilo-liburu horren beharra aspaldidanik aipatu izan da han-hemen. Hezkuntza munduak, oro har, eta eskola-liburuekin harreman zuzena duten profesionalek bereziki, behin baino gehiagotan adierazi izan dute hori: ikasmaterialeak, hartan diharduten argitaletxeetako orrazketa-arduradunak eta material horien onspren-aztertzaileak ditugu, esaterako, diogunaren lekuko. Estilo-liburua ez da bide bakarra, jakina, ikasmaterialekintzan ari direnek esku artean dituzten korapiloak askatzeko eta konponbideak bilatzeko. Ezingo da ukatu, hala ere, urrats bat ez denik. Gero itzuliko naiz gai honetara berriz. Egin dezagun historia apur bat lehenago.

3. Historia apur bat. Hainbat fase

Guztiok dakigu denboraren joanean beharrak eta arazoak aldatu egiten direla. Hala dirudi gertatzen dela hemen ere, hala gertatu zaigu guri behintzat: testu-zuzenketan gaur arazotzat ditugun hainbat gorabehera lehen ez genituen arazotzat hartzen; aldiz, lehen arazo genituen batzuk ez dira jada arazo. Bilakaera nabaria sumatzen da gure lan modu eta lehenasunetan.

1991n kokatzen dut abiapuntua. Urte hori baino lehenago ere egiten ziren EIMAn ikasmaterialeen hizkuntzazko azterketak, baina urte horretan eskaini ziguten batzuei lan horretan aritzeko berariazko jardunbidea edo dedikazioa, eta ordutik honakoaz arituko naiz ni.

Gogoratzen naiz hasiera hartan oso gramatizistak ginela, oso gramatikazale jokatzeko genuela. Gaurkotik begiratuta, garbi daukat,

neurri handi batean, defentsa-jarrera zela orduko gure hura, izan ere, euskararen idaztarauak berak ere, esate baterako, oraindik aski lauso zeuden garaia zen; eta ortotipografian, onomastikan, puntuazio-marketan eta abarretan joera eta molde diferente asko batu gabe zeuden artean. Geure ezjakintasuna ere ez zen txikia, bai eskarmentu faltaz eta bai formazio faltaz ere, eta arauak betez gero, dena listo zegoela uste genuen. Hala, gramatikazko zuzentasunari begiratzen genion batik bat. Hizkuntzaren barne-egitura sistematizatu osatzen duten atalak zaintzen genituen nagusiki (ortografia, hitz-eraketa edo morfologia, sintaxia, erdarakada nabarmenak...). Hizkuntzaren *berezko* egitura eta arauak, legeak eta debekuak ongi betetzen ziren aztertzen genuen, beraz. Horixe zen gure lan-esparru nagusia hizkuntza zuzen neurtzeko orduan, horixe baitzen geure hutsuneak eta errakuntzak zuzentzerakoan ere aplikatzen genuena. Euskaltzaindiaren EGLU bildumako lehen hiru aleak eta gramatika batzuk ziren, Orotariko Euskal Hiztegiako lehen liburukiekin batera, gure bermaleku bakar eta ahulak.

Ibilian joan ginen ikasten. Sasoi onean etorri ziren, 1995eko bueltan, alde baterik, Zubimendiren eta Esnalén *Idazkera-liburua*³, HAEE-IVAPen *Hizkera argiaren bidetik*⁴, EGUNKARIAren *Estilo liburua*⁵ eta beste hainbat. Zorionez, euskara idatziaren eredu batua ere finkatuz zihoan (ARAUAK eta hiztegi batuko hitzen zerrendak orduan hasi zen argitaratzen Euskaltzaindia). Helduleku

bikainak bihurtu ziren horretan geniharduenontzat. Gramatika-maila gainditu eta testuaren organikotasunaren zantzuak antzematen ere orduantxe hasi ginen, bestetik: orduantxe egin zitzaizkigun ezagun Teun A. Van Dijk eta Jean-Paul Bronckart, esate baterako; garai horretan ikasi genuen, testu-gramatikarekin batera, zer ziren erlazio anaforiko eta kataforikoak; zer, lokailuak eta antolatzaileak; zer, testu-egituren sekuentzien eta hezurduren garrantzia; zenbaterainoko garrantzia zuen modalizazioak; testuaren kohesioari eta koherentziari derrigorrean eutsi behar zitzaiea testuaren komunikazioak funtziona zezan, etab.

Urrats handia gertatu zen hor, orduan konturatu baikin gramatikazko eta grafiazko zuzenketa guztiak urrats bat baino ez zirela (ez zela aski ergatiboa noiz falta edo sobera zen esatea, edo *arazi* guztiak lotuta joan behar zutela, edo hil(abete)en izenak letra xehetz zirela, edo zenbakiak ordura artean ez bezala idatzi behar zirela...). Beste era batera esanik, gramatikazko legeak eta idaztarauak betetzearekin bakarrik ez dela zuzentasun beterik eskuratzen. Zeregin zabala irekitzen zuen horrek, zeren zuzentasunaren eta kalitatearen auzia, tipografiatik eta ortografiatik hasi eta lexikoa eta sintaxia gaindituz, testuaren koherentzia eta kohesioraino iristen den fenomeno dela jabetu baikin.

1999-2000. urteen bueltan eman zen beste urrats bat. Ordurako, Juan Gartzia *Joskera lantegi*⁶ liburu trinkoa argitaratu zuen. HAEE-IVAPek ere bai *Zalantza dan-*

³ Gasteiz, 1993.

⁴ Gasteiz, 1994.

⁵ Donostia, 1995.

⁶ Donostia, 1997.

*tza*⁷ liburuki biziki praktikoa. Bittor Hídalgo ere hitzen ordenari buruzko bere tesia defenditua zuen⁸. Ibon Sarasolaren *Euskara batuaren ajeak*⁹ izeneko liburuak ere hautsak harrotu zituen majo garai horretan. Bitarteko teknikoak ere eskuratu zitzaizkigun (EUS-KALTERM, esate baterako). Testu-liburuetako hizkuntza-mailari buruzko kritika serio-rik ere agertu zen publikaturik¹⁰.

Garai horretan hartu zuen EIMak gaur egun duen egitura eta moldea. Orduantxe hasi ziren lanean bai hizkuntzazko onespentzertzaileen eta koordinatzailearen taldea, bai Aholku-batzordea ere. Ezer baino lehen, norabide biko jardunbidea jarri zen martxan orduan: alde batetik, Aholku-batzordekideei, urte pare horretako ikasmaterial-ekoizpenaren lagin bat helarazi zitzaien material hori azter zezaten, eta aztertu, lorpenetatik akatsetaraino, hobekizunak seinalatuz eta hobebideak bilatuz, ikasmaterialen onespenerako irizpideak zehazten laguntzeko; eta beste aldetik, artxibaturik zeuden garai horretako hainbat azterketa-fitxaren eta txostenen ebaluazioa ere egin zen, haietan markaturiko akats, flakezia eta premiak ere ildo beretik zihoazen edo ez ikusteko. Kontraste-lana egin nahi zen, alegia. Aholku-batzordekideen iritzia aho batekoa izan zen: gehienetan, ikasmaterialetan lortzen zen egokitasun-maila aski ona zen, eta ez zegoen zer kritikatu handirik ortografia-, morfosintaxi- eta gainerako arau gramatikalei eta, oro har, zuzentasun gramatikalari zegokionez; baina, neurri berean, argi geratu ziren agerian berandu bai-

no lehen aurre egin beharreko bestelako gabezia batzuk: hizkuntzaren halako gogorkeria moduko bat, lehorkeria, zurrunkeria, malgutasun-gabezia... aipatzen zen; atzerakargaren konstatazioa ere agerikoa zen; erdal interferentziek eragindako estilo bihurriaren zama ere nabarmena zen (nominalizazio-estiloari tamaina hartu ezina, horrek sortzen zuen konplementazio-arazoa, erdal adjektibo batzuen kalko-erabilera okerra, etab.). Fitxa eta txostenen ebaluazio-analisiak ere guztiz antzeko emaitza eman zuen: interferentzia-arazoak ziren haietan ere adituek markaturiko akatsik seinalatuenak (*bat zenbatzailearen gehiegikeria*, nominalizaziorako joera handiegia, *ezberdin (desberdin)* hitzari ematen zitzaion balio adjektibal ustela, esaldi luzeegietarako joera, aspektuaren trataera kalkatua, erdal gerundioaren moldaketa beti-berdina *-(e)z*, *-(e)larik*, batik bat), *bezala* partikularren gehiegikeria...); gero, kohesio-arazoak, ortotipografikoak, etab. zetozen. Estilo-liburu baten beharra sumatu zen.


Garai berean, argialetxeetako hizkuntzazuzentzaileei inkesta-galdekizun bat egiteko aukera ere izan zuen Aholku-batzordeak. Haietan erantzunek klaru adierazten zituzten eskari batzuk: irizpide seguru baina malguak erabiltzeko; orobat, arau-gomendioak ongi bereizteko; teknikarien irizpideak bateratzeko; eta zalantzak argitzeko moduren bat eskaintzeko. Estilo-liburu baten beharra esplicituki aipatzen zuten haiek ere.

⁷ Gasteiz, 1999.

⁸ "Hitzen ordena euskaraz", EHU, 1994. Apunteak.

⁹ Alberdania, 1997

¹⁰ Ormaetxea, I. eta Ziauriz, M., "Testu-liburuetakoko hizkuntza-maila", in Senez 21, 1999.



4. Esku artean ditugunak

Goiko datu horiek eskuan, zalantzarako tarte handirik ez zen. Bagenekien, gainera, euskal liburugintzaren erdia irakaskuntza inguruko liburua zela¹¹. Estilo-liburu bat egiteko erabakia hartu zen orduan. Hasiera batean, liburu *bat* geneukan buruan, baina berehala konturatu ginen *bat* horrek, bere osotasunean, urte asko eramango zizkigula. Atalka jokatzera erabaki zen, beraz, eta erabaki horren ondorio dira orain esku artean darrabiltzagun lanak: alegia, ortotipografiari buruzko txostena, interferentzietan buruzkoa, morfosintaxiari buruzkoa eta onomastikari buruzkoa.

Ortotipografia

Noiz erabili letrakera arrunta? Noiz, etzana? Noiz, kakotzak? Nola idatzi siglak, sinboloak eta laburdurak? Nola lotu horiek hitzaren lexemari? Nola aipatu bibliografia?... Baziren cuskararen esparruan aurretiko ahalagin eta ohitura batzuk ortotipografiaren alorrean. Horien elkartze, formaberritze eta adoste zabal bat nahi zen lortu, eta denon eskura jarri han-hemenka sakabanaturik zeuden proposamen, gomendio eta ohitura eginak. Aholku-batzordeko kide den Joxe Ramon Zubimendik ekin zion alorrari, eta berak atondu du mintzagai dugun ortotipografia atala, baina ez da bakar-lana izan, lan horrek jende askoren ekarpenak jaso baititu bere ibilbide luzean: Aholku-batzordeko kideenak, esaterako, lehen eta azken faseetan; baina ez haienak bakarrik. Ibilbide kalkulatu eta irekia eman nahi izan zitzaion lanari

hasieratik; irakasmaterialen esparrutik landa ere eragina izateko modukoa. Hartara, lehen eskualdiko testuaren gainean, kontsulta zabal egin zen, eta denbora hartu zen ekarpenak soseguz aztertzeke: urtebete pasa. Euskaltzain, idazle, onespren-aztertzaile, argitaletxeetako teknikari, itzultzaile, irakasle... jende asko izan zen lehen idazkuntza hari bere ekarpen-erregimeno-zuzenketak eta hobespeneoharrak egiteko aukera izan eta egin zuena. Emankorra gertatu zen esperientzia.

Zabalkundeari eta eraginkortasun horri begira, horrenbestez, Euskaltzaindiaren oniritzia ere behar zuen lanak, jakina. Eta horixe eskatu zitzaion Akademiari duela hila-bete batzuk. Zorionez, "egoki eta taxuzko" iritzia eman dio hark Zubimendik egin, EIMAKo Aholku-batzordeak atondu eta Hezkuntza Sailak aurkeztutako lanari. Euskaltzaindiaren berme horrekin, beraz, inprentara bidean jarrita dago dagoeneko lan hori.

Berri ona da, dudarik gabe, testu-zuzenketaren esparru honetan lanean ari garenontzat. Eguneroko buruko min praktikoko frankoren erantzun zehatzak datoz bertan. Konpondu ez den arazo batek hor dirau, hala ere, eta arazoa ezin da ezkutatu: ortotipografiari buruzko lan handi hori eginda ere, "Hitz elkartuen idazkera" atala oraindik ere auzitan dago. Euskaltzaindiak ez du atal hori epaitu, eta ez du horretaz irizpenik eman. Atal horretan, Euskaltzaindiak berak bere arauetan (25.ean) "Hitz elkartuen osiera eta idazkera"z dioenez baino haratago ez du oraingoz biderik urratu nahi izan.

Hezkuntza Sailak begirune eta errespetu osoz onartu du erabaki hori, eta ez dio muzin egiten. Hala ere, Euskaltzaindiak ematen di-

¹¹ Torrealdairn 1993ko datuak (*Euskal Kultura Gaur*).

tuen aukeren artean, gomendio modura, EIMAK uste du Zubimendiren liburuki horretan ageri den ortotipografia-araudia eskatzea komeni dela ikasmaterialetan eta hala egiteko asmoa du aurrerantzean.

Erdarazko egituren kalko okerrak

Txosten hau ere dagoeneko atondurik dago. Juan Gartzia egin du. Sarrera teoriko bat egin dio hasieran, eta bertan dio berezkoa eta etengabea duela edozein hizkuntzak bere baitako lehia eta tirabira, indar finkatzaileen (bateratzaile) eta aldatzaileen arteko dialektika; normala dela, era berean, alde edo molde, eta gehiago edo gutxiago, kontaktuan baitaude, hizkuntzek elkarri eragitea; eta hortxe sortzen direla interferentziak (ala *interferentziak* deitu behar ote?) eta kalkoak; eta kalko batzuk okerrak direla. Zein? Premiarik gabe, abantaila baino kalte handiagoz, erdararen imitazioa jotzen dutenak. Hortik abiatuz, kalko arruntez baino gehiago, testugile trebatu batentzat zalantzarri gerta daitezkeen gramatikaz gorako kontuak dakartzatza, gero, hurrengo ataletan:

- a) alde batetik, perpausen baitako elementuen kalkoak: *bat* ala *-a*; erdaraz izenaren aurretik doazen adjektiboen euskal ordainak (*berri*, *ezberdin*); *-egi* atzizkiaren gehiegikeria; "presente historikoa" / orainaldi narratiboa, etab.
- b) bestetik, perpausetik goragoko kalkoak: *bezala* konparazio-partikularen abusua; erakusleen testu-erabilerrak: *haren* / *beraren* (berretua) / *bere* (bihurkaria); erakusleen lehen graduaren gehiegiko erabilera (hautismoa) [hizkuntza bakoitzak du bere anafora-

ra-sistema]; nominalizazio-estiloaren gehiegikeriak, etab.

Ortotipografiaren txostenarekin egin bezala jokatu da honekin ere; jende artera zabaldu da, jendearen iritzi-kritika-ekarpenak jasotzeko. Horiek Aholku-batzordean azertu dira, eta orain, azken ukituak egiten ari da Juan Gartzia bera. Laster batean Euskaltzaindiari pasatuko zaio txosten hau ere, hark bere iritzia eman dezan.

Onomastika

Nori ez zaio gertatu? Aizu, nola idatzi behar da: Etxepare, Etchepare, D'Etxepare...?; Bernat, Bernardo, Beñat...?; nola, Almantzor, Almanzor ala Al Mansur?; nola, Napoles ala Napoli?; nola esan euskaraz, esaterako, Blanca de Navarra?; nola, Errenazimentu, Errenazimendu, Bepizkunde...?; Don Quijote de la Mancha ala On Kixote Mantxako?; nola, nazioarteko erakundeak: Nazioarteko Diru Funtsa ala Diruaren Nazioarteko Funtsa?

Zabala da onomastika, bihurtune ugariak eta adar ugariak. Zabala eta bizia, dinamikoa, bestalde, egunero sortzen eta agertzen baitira izen berriak, eta hiztunen joerak ere aldatuz baitoaz. Nekez bilduko da, beraz, onomastika izenaren azpian dagoen izen multzo erraldoi hori irizpideen uztarpeira, eta salbuespenak ere, ezinbestean, ez dira gutxi izango. Alabaina, oinarri bat, aski zabala, ezartzeko asmotan, EIMAK Onomastika-batzorde bat sortu zuen duela urte eta erdi. Euskaltzaindiak, euskara batua eraikitze ahaleginean, onomastikari ere heldu dio, eta gutxieneko batzuk finkatu ditu dagoeneko. Hala ere, onomastikaren esparru zabalcan oraindik arautu gabeko azpiarlu ugari

ri zegoenez, gabezia horiei erantzuteko ekin zion lanari batzordeak.

Bederatzi lagunek osatu dute Batzordea, eta urtebetez jardun du lanean. Lan horien koordinazioa eta euskarri teknikoa Elhuyar Fundazioaren zeregina izan dira, Euskara Zerbitzuarekin sinatu zuen kontratuaren indarrez. Bertatik, Alfontso Mujika eta Ane Goenaga bildu izan dira teknikari, koordinatzaile eta material-hornitzaile gisa. Heda-bide-esparruko euskara-adituak ere izan dira: Asier Larrinaga (EITB) eta Patxi Petrirena. Argitaletxe batzuetako ordezkariak ere bai: Manu Arregi (Elkarlanean), Iñigo Roque (Giltza/Edebe) eta Ainhoa Basterretxea (Zubia/Santillana). Eta Hezkuntza Sailak izendatutako ordezkari bi: UEUko Historia arloko kide den Irati Itziar eta EIMAKo koordinatzailea.

Eskola-liburuetako onomastika finkatzeko egindako ahaleginaren emaitza esku artean dugu dagoeneko. Bertan, eskolako ikasgaietan agertzen diren izen bereziak —lekuak, pertsonak, gertaerak, erakundeak, artelanak...— idaztean maizen sortzen diren zalantzak konpontzeko argibideak eta irizpideak jaso dira, eta baita txostenak atxiki ere. Lanaren hastapenetan, bi iturri erabili ziren hasierako corpus onomastikoa osatzeko:

1. Elhuyar Fundazioaren datu-base onomastikoa (28.343 sarrera).
2. Hainbat eskola-liburutatik egindako hustuketa (3.614 sarrera).

Abiapuntutzat hartutako hasierako corpus hori handiegia zen, eta hainbat irakasleri pasatu zitzaizen iragazi eta beren eguneroko jardunean premiazko zituztenak hauta zitzaizen. Irakasleek egindako galbahe lan horretatik, 2.994 toponimo (leku-izen), 3.805 an-

troponimo (pertsona-izen), 897 artelan eta 1.408 bestelako sarrera (gertaera historikoak, aro historiko eta geologikoen izenak...) ditu txostenak. Sarrera horiek guztiak multzoka antolatu eta landu ditu Batzordeak, eta multzo bakoitzeko irizpideak landu, eztabaidatu eta adostu ditu. Irizpide horiek aplikatuta osatu dira gero arloz arloko zerrendak, erdatetako formez eta oharrez horniturik.

Txostena, amaiturik, EIMAKo Aholku-batzordearen eskuetan dago orain. Uda baino lehen Euskaltzaindiari aurkezteko asmoa dago.

Morfosintaxia

Jada abian den txostena da morfosintaxiari buruzkoa ere. Patxi Petrirena ari da hura atontzen. Bertan, ikasmaterialen hizkuntzazko egokitasunaren azterketetan onespeneztertzaileok sumatutako akats, ondoez, ezin, zalantza, badaezpadako erabilera, ezbidet, aldrebeskeria eta eskasia jakin batzuei erantzun zehatz eta doia ematen saiatuko da Petrirena. Nahiz gorabehera batzuk jada eztabaidatuak eta erabakiak dituen Aholku-batzordeak, azken txostenak luze joko duen erreze-loa dago, hainbeste dira-eta auzi-mauziak. Besteak beste, honako hauek, esate baterako:

Lokailuen inguruko zalantzak: *izan ere + bait-* erredundantzia; *ezen* noiz erabili, etab.

Juntagailuen inguruko zalantzak: *edolala*; balio banakaria duten juntagailuen korrelazioa zaintzea (*bai... bai, nahiz... nahiz*), etab.

Menderagailuen inguruko zalantzak: *ote* modalizatzailearen erabilera, alferrikako erlatiboak saihestu beharraz, erlatibo vs zehargaldera, etab.

Aditzaren lekuaz, aditz-lokuzioak eta galdegaia, etab.

Mugatu/mugagabea, etab...

Saski-naski

Oraindik proiektu baino ez den balizko bosgarren txostenari eman diogu izen hori. Bertan, zalantza eta tirabira sortzen duten hainbat arazo ortografiko, gramatikal eta lexiko-semanticoko sartzeari aurreikusten da orain-oraingoz: aditz jakin batzuen erregimena zehaztu beharra (*agindu: egitea/egiteko*); hitzen balio semanticoko bereizi beharra: *batekolunitate, gehitu/batu, noski/jakina, kantitate/kopuru*; hitzen forma estandarizatu zehaztu beharra: *-ajel-ai-a: erreportaje/erreportaia*, edo *-gailul-dore: alternagailul/alternadore*; hitz jakin batzuen hobespena: *ausazko, menturazko / aleatorio*; gorabehera ortografikoak: *aurreaurrizkia* nola lotu e bokalez hasten diren hitzekin (aurre- + elikadura, aurre- + erromantiko); *-gune* eta *-une* hitzen eratorpenbalioak duen arau-indarra, etab.

5. Zer hobetu da azken urteotan?

Ikasmaterialek hizkuntzazko egokitasunean asko aurreratu bada ere, ezaguna da, oraindik ere, ikasmaterialetako euskara dela eta, hainbat jende kezkatuena galdera. "Laguntzen ari ote gara benetan ikasleei, beren hizkuntza-gaitasuna sendotzen eta zabaltzen, edota etxetik eta irakasle trebearen ahotik ondo samar zekitena zabaltzen eta ahultzen ari gara?". Horrelako iritziak entzutea ez zaigu harriztekoa gertatzen. Arazoa, baina, muinaren muinera bagoaz, ez da eskola-materia-

lena berena bakarrik: ez da testu horietan sortua, eta ez da horietan bakarrik ageri. Hizkuntza idatziaren batez besteko bilakaerak esplikatzen ditu, gure ustez, egungo prosa landu ustezkoaren argi-ilunak. Hor kokatu behar da, inon kokatzekotan, testu-liburuen kontua ere.

Kezka horiek gorabehera, hala ere, baikor dakusat nik testugintzako euskararen maila eta kalitatea, eraikuntza-tentsioan ikusten da eta euskara. Gizarte-indar ahulak dakarzkigun oztupoak hortxe badiraute ere, uste dut urrats asko egin eta lorpen handiak erdietsi ditugula azken urteotan euskararen lankean¹² eta testugintzaren kalitatean.

Iritziak iritzi, zortzi lorpen aipatuak ditut.

1. Izen bat eman behar eta, **prosa didaktiko**¹³ izena baliatuko dut ikasmaterialek testu-tipologia definitzeko. Eta esan behar dut, nire ustez, prosa molde hori bere historia egiten hasia dela gurean.

Urte askoan, prosa didaktikoaren eredu bat aurkitu nahian ibili gara, eredu falta ikaragarria genuen eta: zein lexiko mota erabili eta noiz erabili; zein esamolde, klise eta komodin; noiz esaldi luzeak, noiz laburrak; noiz jator, noiz mordoilo; nola jokatu anaforikoekin; zer egin menpekoak elkarrekin kateatzen direnean; Altuberi zenbateraino egin kasu; eta beste makina bat gauza.

Tradizioari begira jarrita, Axularren lana genuen, alde batetik. Baina haren prosa gaur

¹² Edozein modutan, eskolatan lan egiten duten profesionalengana nekez iristen dira hizkuntzaren inguruko *berri* akademikoak, eta garai bateko lausotasuna edo uste okerrak oraindik ere irakasleen artean dantzan dabilzalako susmoa ezin ezkatutuko dugu.

¹³ Edukia eta funtzioa kontuan hartuz deitzen zaio horrela. Ezagutza hauek ditu: erakustea, informazioa ematea du helburu; egilea, bere gaian, (oso) jantzia da; hartzailearen asmoa *ikaslea* da; mezua egitura zehatzez eta sistematikoz eman beharra dago; mezuak ahalik eta objektiboena izan behar du; mezuak argia eta eraginkorra izan behar du.

egungo moldeetatik urrunxko geratzen zitzaien, eta ez zigun balio. XIX. mendebukaera eta XX. mende-hasierara etorrita, Sabin Aranaren axiomen inguruan, garbi ikusten da ahalegin berezia Euskal Herrian euskararen irakaskuntzaren inguruan. Ez ziren lan asko izan, baina zinez aipagarriak bai, eta, liburuekin batera, medikuntza, matematika, fisika eta kimikaren arloko autore batzuk: Jean Etxepare medikua, Ixaka Lopez Mendizabal, Jokin Zaitegi, Gabirel Jauregi, etab. Baina jarraipenik gabeko lanak izan ziren haienak ere.

1970. urte inguruan kokatzen da prosa didaktikoa kontzienteki lantzeko nahia¹⁴, Donostian eta Bilbon finkatutako talde batzuen ekimenean zehazki, 1960ko hamarkadako mugimendu politiko abertzale jaioberriaren bultzadaren fruitu modura. Gabezia izugarria zen, eta autore gehienak autodidaktak. *Anaitasuna*, *Zeruko Argia*, Elhuyar, UEU, UZEI... izan ziren plataformak. Mesfidantzak, erreparatzeak eta kritikak ere ez ziren falta izan ("Leioako euskalkia" esamolde despektiboa, agian, arbuigarriena). Agian ez ziren erabat kontziente gaur egun lantzen ari garen prosa didaktikoa sortzen ari zirela, baina ukaezinak dira euskara zehaztasunez eta erraztasunez erabiltzeko haiek egindako ahaleginak. Hasieran erabat teknikoak izan ziren —adierazpen matematikoak irakurtzeko eta adierazteko esamoldeak nolakoak izan behar zuten, etab.—, baina ezinbestean sortu ziren prosa zientifikoaren inguruko estilo-arazoak ere, eta horiei erantzun beharra.

Berriz diot: tradizio horren harian, orduetik hona, euskarazko prosa didaktikoaren (eta zientifikoaren) eredu nahiko gauzatuta dagoela uste dut. Egia da puntu batzuetan oraindik badela kontrako jarrerarik —bar aipatzearren, lexikoa aipatuko nuke adibidez, non babelizazio-aztarnak¹⁵ oraindik ere hor dauden (portzentaje/portzentaia; portzentaje/ehuneko; oskoldun/krustazeo; belarjale/herbiboro; digestio edo txegoste/liseriketa...)—, baina urte gutxian egindako bidea oso luzea izan da.

2. Testu-gramatikaren ekarriak nabarmen jokatu du hobekuntza horretan.

Duela urte gutxi arte, hizkuntzaren ikasketan, perpausa izan da analisiko elementu nagusia. Soinuaren unitateak (fonemak), elementu gramatikalak eta haien deskripzioa (morfologia) eta erlazioak (sintaxia), hitzen eta esaldien esanahi-balioa (semantika) eta horiek guztiek osatzen duten multzoa ziren interesguneko elementu bakarrak. Esana dugu arestian. Hizkuntzaren kanpotiko faktoreek, hala nola intentzionalitateak, igorlearen eta hartzailearen ezaugarriak, komunikazio-egoerak eta bestek ez zuten aparteko garrantzirik.

Konturatzen joan gara hitzek eta perpausek ezin dezaketela komunikazio osoa eman; komunikazioko parte direla, bai, baina parte bakarrik. Komunikazioa hanka-motz geratzen da horiekin bakarrik. Hura lortzeko, hitz eta perpausaz gaindi gertatzen den ideia edo gaien unitatea den testua behar da. Izan ere, errealtatean, komunikazio-egoeretako gertaerak eta berbaldiak *testuak dira, ez perpausak*.

¹⁴ Hegats 30 (1990). Iñaki Irazabalbeitia, Jose Ramon Etxeberria eta Kepa Altonagaren artikulua.

¹⁵ Nozio berbera izendatzeko hainbat denominazio erabiltzetik datorren hutsunea.

Komunikazio-ekintzetan, testuez gain, hau da, hizkuntza-gertaerez gain (hitzak, perpausak, paragrafoak...), kontestu bat dago beti, testuekin erlazio estu-estuan baina testutik at dauden kanpoko faktoreen mundua, alegia (igorlea, hartzailea, komunikazio-asmoa, komunikazio-unea eta -tokia).

Azken urteotako ikasmaterialak asko ondu dira aspektu horretan. Gaur egungo ikasmaterialgileek badakite testu on batek ezaugarri batzuk bete behar dituela:

Egokitasuna: Hizkuntzak eskaintzen dituen aukera linguistikoko guztietatik *komunikazio-egoera bakoitzerako egokiena aukeratzen jakitea*, alegia.

Koherentzia: Testuaren edukia *modu argi, logiko eta lotuan ematea*, alegia. Hots, testuko ideiak egitura, progresio eta ordena logikoan dauden emanak zaintzea, informazio garrantzizkoa ez denekotik bereiztea, ustekabeko errepikapenak saihestea, komunikazio-egoera bakoitzari dagozkion sarrerak, atalak, ondorioak, etab. tentuz neurtzea, etab.

Kohesioa: Testuko esaldiek eraman behar duten *lotura sintaktikoa zaintzea*. Testua osatzen duten elementuak (hitzak, esaldiak, paragrafoak...) ez dira unitate lokabeak, joserik doazenak baizik. Zenbat eta hobeto josi elementu horiek, kohesionatuagoa izango da testua. Juntagailuak, menderakuntzako erlazio-hizkiak, elipsiak, lokailuak, antolatzaileak, deklinabide-atzizkiak, puntuazio-markak, etab. dira kohesio-elementuak.

Zuzentasuna: *gramatikaltasuna*.

Aurkezpena: Hitz egiterakoan, ahotsaren kontrola, etenak, intonazioa, keinuak, begirada eta abar zaintzea. Idatzizkoan, forma-

tua, marjinen jokia, lerro kopurua, kaligrafia, txukuntasuna, etab. zaintzea.

3. Irakaskuntza-liburuak ezaugarri berebereak dituela ere konturatu gara, eta horietaz baliatzen ikasi dugu.

Nahiko mundu propioa da irakaskuntzako liburuarena. *Ekoizpen-prozesuari* begira ezaugarri nabarmen batzuk ditu. Torrealdaik lau ezaugarri atxikitzen dizkio¹⁶. Bistan da ezaugarri horietako bik, lehenengo biek, mesederako zein kalterako, bete-betean ukitzen dutela hizkuntzazko zuzentzaileen jarduna:

- Lan-taldea da gehienetan ikasmaterialaren egilea, ez autore bakarra. Argitaletxeak berak sustatu eta antolatutako lan-taldea gehienetan, eta ia beti gai jakin bateko espezialistek osatua. Zer esanik ez, hizkuntza-mailan oztopoa sortzen du sarritan horrek, hainbat esku aritzeak idaz-irizpideen sakabanatze-arriskua baitu beti berekin. Baina kontziente dira horretaz orrazketa-arduradunak.
- Erraz zaharkitzen da ikasmateriala. Irakaskuntza-plangintzaren aldaketa dela, pedagogia-metodologiaren aldaketak direla, edukia ere eguneratu egin behar dela, informazio estatistikoen berrikuntzak direla..., sarri berritzea komeni da ikasmateriala. Abantaila gertatzen da hori testuaren kalitateari begira, euskararen inguruko azken arauetara joerei jarraitzeko aukera ematen du eta.
- Konposaketa-lanak teknikoki zailagoak dira, letra tipo desberdinak tarteko edo ilustrazio ugaria duelako (eskemak, kar-

¹⁶ Torrealda, *Euskal Kultura Gaur*, 1997.

tografia, infografia, argazkiak, etab.). Koloreak, paperaren kalitate onak eta koadernatze sendoak garestitu egin ohi dute liburu modu hau.

- Berezi-bereziak ditu promozio-bideak eta salmenta-bideak. Merkatu eta zirkulazio bereziko materiala da. Ehuneko handi batean ikastetxeetan bertan saltzen da.

Prosa didaktikoaren *funtzioak* hartara behartuta, hauek dira kontuan hartzen diren ezaugarriak:

- 1) Estrukturazio zorrotza behar dute, ikasmaterialen helburua, beren egin-kizunean eta intentzioan, doitasuna, argitasuna, objektibotasuna, egiaztagarritasuna, unibertsaltasuna eta antzeko balioak izatea baita. Estrukturatze-behar horrek hartaraturik, normalean bi testu tipo nagusitzen dira: azalpen-testuen moldea eta argudio-testuen moldea.
- 2) Koherentzia logikoa ere asko zaindu behar da. Kontraesanak, digresioak, zehaztu gabeko azalpenak eta antzeko gabeziak erabat saihestu behar dira, ulermen-zailtasuna eta doitasun-eza baino ez baitakarte horiek. Hala, antolatzaile diskurtsiboek erabateko protagonismoa hartzen dute ideien segida egokia markatzeko (*Beraz,...*; *beste aldetik,...*; *ondorioz,...*).
- 3) Lexiko espezifikoa tentuz kalkulatu eta zaindu behar da.

4. Gaztelaniaren morrontzatik libratzen hasiak gara. Borroka etengabea bada ere, badakigu arriskuak non dauden.

Gogoratzen dut uste faltsu batzuen morroi izan garela urte askoan, pentsatuz —eta

hainbatek oraindik hala jarraitzen du— gaztelaniaren (edota frantsesaren) moldea zela eredu, haiek hain maitea duten fraseologiaren ildotik. Uste gaizto hori gaindituta da goelakoan nago.

Ez dago ezkututzerik literaturan, pentsamenduan, irakaskuntzan, komunikabideetan... itzulpenak direla nagusi; erdal ereduak aurrean direla sortu (behar izan) dira euskarazkoak. Harritzekoa ez denez, lan horietan ari izan direnek ez dute beti behar adina eza-gutu iraganeko euskal tradizioa, ezta itzulpengintza burutzeko ezinbestekoak diren teknika eta prozedurak ere, eta ondorioz ahozko zein idatzizko zenbait testuren ulergarritasunak arazoak sortu izan ditu.

Askotan komentatzen dugun kontu eza-guna da beste hau ere: eskoletan barrena euskarazko sorkuntza-lan gisa dabilen testu-liburu, irakurgai, bideo eta abar dezente ere, lehen begiratu batean dirudien baino gehiago, ez da euskarazko sorkuntza-lan hutsa. Aitortzen direnak baino gutxiago dira euskaraz idatzitakoak, eta are gutxiago euskaraz pentsatuak. Ofizioko irakurleak berehala igartzen du hori. Hor ere erdararen itzala, beraz.

Muga horiek guztiak tartean izanik ere, pauso nabarmena eman da azken urteotan. Hartara, gaur egun bistakoa eta agerikoa da ahalegina —ez dut esaten beti-beti asmatzen denik— albo-erdaren bide (pedante) bera egiten ibili gabe, egitura luze-geldotik aldentzeko; erdal egitura pasiboak albora uzteko; gehiegizko nominalizazioaren eragina zaintzeko; erdal gerundio okerrak saihesteko; aspektuaren erabilera okerrak gainditzeko; menderatu faltsuak antzemateko (eta asko eta asko, euskaraz, koordinazioaren bidez konpon daitezkeela onartzeko); erlatibo faltsuak ekiditeko; etab.

5. Euskararen baitako korapilo batzuk askatzen hasiak gara, eta estiloa arintzeko heldulekuak non dauden antzematen ikasten ari gara.

Egia da, alde batetik, inoiz ez bezala eta euskara osoa kontuan hartuta, Euskaltzaindia etorkizuneko gramatika arau-emailearen osagaiak prestatzen aurrera doan bitartean, erdaretatik gero eta gehiago itzuli eta moldatzen diren testuen eraginez batik bat, gure tradiziozko gramatikaren izaeraz eta mugez gero eta zalantza gehiago sortu ere sortzen zaizkigula. Hala, zenbaitetan, hizkuntza-premia eta gertakari berrien aurrean aurkitzen gara, eta iraganetik beti ezin izaten da erabilpen horien zuzentasuna eta egokitasuna erabaki: ezezkako esaldien joskera-gatazkak, fokalizazioaren arazoa aditz-lokuzio eta perifrasiatan, aposizioaren erabilpenari buruzko zalantzak, *zeinez* baliaturiko egituren mugak, etab.

Baina, bestetik, etengabeko dialektikan, soluziobide askoren jabe egin gara eta kontzienteki jokatzeko da hainbat kontu edo gaitan, hala nola galdegaiaren ezker aldean elementu asko ez metatzen; aditza aurreratuz atzerakarga saihesten eta aditz deklaratiiboak aurrera pasatzen¹⁷; subjektua eta aditza elkarrengana hurbiltzen; subjektua atzeratzeko aukerak baliatzen; definizioetan egitura analitikoak erabiltzen; erlazio anaforiko-kataforikoak doiki zehazten; galdegai faltsuak jartzeko¹⁸, etab...

6. Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* eta ARAUAK erabakigarriak gertatu dira guztiz. Buruko min franko kendu digute. Esate baterako, hiztegi batua bera, bere murriztean,

egundoko baliabidea gertatzen da, ez bakarrik hitzaren forma eta ortografia zehazteko, ezpada aditz-erregimena zehazteko, adiera espezifikatzeko, ageri ez diren hitzen eratze moduak asmatzeko, egokitasun dialektala markatzeko eta abarretarako.

7. XUXEN testu-zuzentzailea ezinbesteko bihurtu da. Zuzentasuna zaintzeko tresna dela jakinik, ikasmaterialetan erabili beharreko euskara zuzen eta estandarizaturako, bitarteko ezin baliotsuagoa da.

8. Kontziente gara euskararen kalitatearen arazoa arazo poliedrikoa dela, aurpegi askokoa, baina aitortu behar da argialetxeetako orrazketa-arduradunak eta argialetxeek kontratatutako itzultzaileak izan direla arestian aipatutako estiloaren sortzaileak; alegia, euskal prosa didaktikoa haiei esker ari dela aurrera egiten. Eredugarri bihurtzen ere ari da argialetxe bat baino gehiago egin behar horretan.

Zuzentasuna kalitatearen sinonimo da neurri on batean. Kalitate ona lortuko bada, berriz, gainerako baldintza guztien gainetik dedikazioa aipatu behar da. Lau errezeta merkerekin ez dago liburuen hizkuntza-trebetasuna hobetzerik. Bada, testugintzan gaur egun *profesionalak* ari dira. Horixe da, argialetxeen apustu hori, beharbada, euskal ikasmaterialgintzan egon den urratsik seinalagarriena. Jorria da, euskara txukunean, aldenik aldeko orrazketarik behar izan gabe, idazteko gai izan eta itzulpen-teknika ederki baino hobeto —zenbaitetan jatorrizko testua bera gaztelania zuzenaren eredu izan gabe— menderatzen duten profesionalen emana.

¹⁷ esan, adierazi, ukatu, erabaki, agindu, etab.

¹⁸ Alegia, aditza aurrean mantentzeko, galdegai ordezkatzen duen osagai laburrago bat jartzeko, normalean aditzondo bat.

Hizkuntza-mailako gutxieneko exijentzia-tik arras gora jo dute beren lanean argitale-txeek (baina ez hor bakarrik: zuzentasun gra-fikoetan eta forma-kontuetan ere esfortzu handia egin da), eta datuek frogatzen dute ontasun-maila hori: hizkuntza-onespenaren bila EIMARA aurkezten diren ia lan guztiak onartzen dira beren lehen azteraldian; % 5 baino gutxiago dira atzera botatzen direnak¹⁹.

6. Zer da testu ona, zuzena, egokia?

Testuinguru hori kontuan hartuz, egin dezagun orain beti-betiko galdera: zer da, baina, testu ona, zuzena, egokia? Zer da kalitatezko testu bat? Gustu-kontua ote da? Estetika ote da guztia?

Erraza da galdera; nekezagoa, ordea, gehienok aseko gaituen erantzun laburrik ematea, guztiok besterik gabe aho batez onartzeko moduko formularik aurkitzea.

Herriaren memorian erroak bota dituen esaera ezagun askoa dugu honako hau: "Euskara ona, Tolosakoa". Herri-esaerak ez du definitzen zertan datzan hizkuntzaren ontasun hori, baina bistakoa da hor badela edertasun-patroi bat. Horrenbestez, auzia beste galdera honetara biltzen da, orduan: gai al gara patroi horiek konkretatzeko? Edo beste modu batera esanda: EIMAn hizkuntzazko zuzentasun- eta egokitasun-azterketak egiten badihardugu, zer zuzentasun-eredu eta onargarritasun-listoi ditugu?

Hiru adjektiboren bueltan zehaztuko nuke gure jardunaren patroia: testu onak

(onargarriak, beraz), gure ustez, **zuzenak, egokiak eta komunikatiboak** direnak dira. Ez dut uste inor harritu dudarik.

Zuzena. Ez dago inolako dudarik, eskola-liburuetako euskarak ezingo duela gramatika-akatsik izan, eta, erabilera estandar zainduari dagokion neurrian, Euskaltzaindiak batasunerako emandako arauak eta gomendioak bete beharko dituela. Hau da, zuzena izatekotan, tradizioaren araberakoa eta estandarren arau-gomendioak betetzen dituen izan behar du. Alegia: arauzkoa, gramatikala, batua, ona, txukuna. Baina kontuz; ez hori bakarrik. Jendeak pentsatzen du Euskaltzaindiaren gomendioak beteta jada euskara ona egiten duela, eta ez da hala. Zuzentzaileok ere badugu jarrera (uste) hori bultzatzeko arriskua, izan ere, Euskaltzaindiaren gomendioak zuzentzea askoz errazagoa da euskara ona zuzentzea baino.

Egokia. Hizkuntzaren erabilera zuzena ez da balio absolutu bat. Bada besterik ere. Situazio bakoitzak bere beharrak ditu, bere rol-harremanak eta bere mintzagaiak. Hartara, erabilera egokia situazionala da. Situazio-egoerak markatzen du, hiztunaren beraren trebeziak gainera, egokiaren eta desagokiaren arteko muga lausoa. Beraz, erabileremuak askotarikoak diren neurrian, euskara-ereduez hitz egin behar da egokitasunaz mintzo garelarik. Hartzailearen adina, gaiaren zailtasuna, perpausen luze-laburrak, zenbat termino tekniko sartu, etab., idazle trebeak tentuz neurtu beharreko eragile eta faktore garrantzitsuak dira, testu egokia lortu nahi badu,

¹⁹ 2004ko martxo-apiriletan EIMARA aurkeztutako 88 ikasmaterialek honako balioespen-kalifikazio hau jaso zuten:

Dagoen-dagoen onargarria: 17 (% 19,5)
Gomendioak kontuan hartuz onartzekoa: 48 (% 54)
Aldaketak eginda onartzekoa: 19 (% 21,5)
Aldaketak egin arte onartu ezina: 4 (% 4,5).

edo beste modu batera esanda, testu zehatza, aproposa, moduzkoa, gisakoa, baliagarria (edo gorago jo nahi bada: dotorea, landua, jaso, aberatsa, noranahikoa) erdietsi nahi badu.

Komunikatiboa. Edo, nahi bada, erraza, argia, naturala, ulergarria, crosoa. Duela gutxi ARGIAko elkarrizketa batean Ibon Sarasolak zioen, “*esaldi bat ulertzeko bi aldiz irakurri behar bada, kontu txarra*”²⁰. Zubimendiren eta Esnalen liburuan honela definitzen da euskara egokia: “lehenengo irakurketan ulertzen dena”. Irakurlea eroso sentiarazten duen euskara da, hartara, euskara komunikatiboa. Ezin kalitatezko euskara izan, hartara, komunikazio aldetik funtzionatzen ez duena, argia ez dena, ulergarria ez dena. Hortxe dago testu on baten hirugarren giltzarria. Eta horixe da esaldi askoren arazoa: behin baino gehiagotan irakurri behar dugula esanahiari antzemateko eta anbiguotasunari aurre egiteko. Esaten errazagoa da, egiten baino. Ezin uka, hala ere, zuzen hitz egin eta idatzi nahi duenak era erraz eta atseginean jarduten saiatu behar duela.

Eta hiru adjektibo horien bueltan, ezin ahaztu ikasmaterialen funtzio eta ikur ezinbestekoa: **eredugarritasuna**. Eskolan erabiltzen den ikasmaterialak oso efektu biderkatzailerik handia du —*erabiltzeko* egiten baitira testu-liburuak eta bestelakoak, eta ez zokoa uzteko—. Egundoko erantzukizuna eskolentako testugileena!

Bi irizpide nagusi hauetatik abiatzen gara, dena dela, gure lanean, inoiz bateraezin samarrak diruditen arren:

- a) Erabat zaindu behar den kulturagunea da eskola eta, beraz, (goi-)mailako

hizkuntza-eredua eskaini behar dute eskola-materialek, guztiz eredugarriak izan behar dute, eta, ahal den neurrian, euskara zehatz eta jasoa erabili behar dute.

- b) Gaurko euskaldunen maila nolakoa den jakinda, euskara mordoiloak alde batera utzi, eta argi ulertzeko mezuak adierazten saiatu beharra dago. Ez gaitu kezkatzen ederzale mokofin batzuen dotoreziatzko ardura elitistak, ez da hori gure asmoa. Eskolan hizkuntza duina eta eredugarria, alde bate-tik, baina benetako euskaldunen zerbitzutan dagoena lortu nahi dugu.

Idazle askoren ustea da euskarak azken urteotan hartua duen erronkarik handiena estiloarekin zerikusi zuzenagoa duten aukerak urratzen dagoela. Eta nik ere esango nuke, eskola-liburuez ari garela (eta argitaletxe handiei begira), gaur eguneko euskararen arazoa ez dela hainbeste Euskaltzaindiaren arauak betetzen diren ala ez; hori bigarren edo hirugarren arazoa da. Gaur euskararen arazoa da euskara komunikatiboa egiten asmatzea.

7. Zuzentze-irizpideak

Behin baino gehiagotan sartu izan zait halako egonezin txatxu bat gorputzean ikasmaterial bat goitik behera tinta gorritz betea ikusi izan dudanetan. Hala ere, beti pentsatu izan dut zuzenketak ez duela zertan lotsagarria izan. Ulertuko eta onartuko duzelakoan nago, izan ere, benetako bizitzan eta, zer esanik ez, egunotan mintzagai dugun gorabeheraren aurrean, hizkuntzarekin lan egiten duen edonork, testuak zuzendu eta hobetzea

²⁰ 1.931, zk., 2004-02-15

behar-beharrezko langintza izanda, eskarmentuz dakiela hanka-sartzeetatik ez bada, zail dela ezer ikasterik. Esan behar dut saiatzen garela gizalegez eta on ustez jokatzeko, eta, kexuak kexu (oso-oso gutxi), asmatzen dugulakoan nago. Helburua ere garbia eta konpartitua dugu: testu baten kalitatea hobetzen laguntzea.

Zer zuzentzen dugu?

Alde batetik, morfologia-, sintaxi- eta ortografia arloan, Euskaltzaindiaren arauak betetzen eta betearazten saiatzen gara. Euskaltzaindiak euskal ortografiaren, gramatikaren, lexikoaren²¹ eta prosodiaz emandako aholku eta arauak kontuan hartu diren ala ez aztertzen da (zuzentasunaren irizpidea).

Bestetik, inguramen eta kontestuaren azterketan (egokitasunaren irizpidea), honako faktore hauek hartzen dira kontuan: batetik, testu-koherentzia eta -kohesioa, eta bestetik, elkarreaginezko inguramenarekin (hots, material hori nork, norekin, non eta zertan erabiltzekoa den) bat etortzea. Ikasleen adinerako, ikasgelaren eredurako (A, B, D) eta kasuan kasuko jakintza-alorrerako material hori baliagarria den ere argitzen da, besteak beste.

Eta, hirugarrenik, ulergarritasunaren eta komunikagarritasunaren irizpidearen euskarriko —estilo arin eta erraza lortzeko dauden faktoreen inguruko baliabideak markatzeko orduan, alegia—, txosten honetako bosgarren puntuaren bosgarren epigrafean aipatutakoak dira: galdegaiaren ezkerrean elementu asko ez metatzea, aditza aurreratuz atzerakarga saihestea, subjektua eta aditza elkarrengana hurbiltzea, etab.

Argi utzi behar da hizkuntzazko onespenezko aztertzaileon lana ez dela orrazketa-lana egitea, lanaren balioespina egitea baizik (eta, zeharka, baina soilik zeharka, testua orrazteko arau eta gomendioak gogoratu-iradokitzea). Horretarako dugun prozedura honako hau da:

- 1) Normalean, ez dugu esku artean izaten dugun material osoa irakurtzen. Laburra baldin bada (1-30 or.), bai, goitik behera irakurtzen edota ikusten/entzuten da; bestela, aurrez erabakita dauzkagun neurri-parametro eta moduetara jokatzeko dugu, baina orrien kantitateak betiere aski lagin esanguratsua izan behar du.
- 2) Materiala aztertu ondoren, kalifikazio-balioespina moduko aholkua ematen dugu. Lanaren balioaren arabera honela kalifikatzen ditugu: *Dagoen-dagoenean onargarria; Gomendioak kontuan hartuz onartzekoa; Aldaketak eginaz onartzekoa; Aldaketak egin arte onartezina; (Inolaz ere) Ezin onartuzkoa*. Kalifikazioak argi adierazten du bakoitzak zer esan nahi duen.
- 3) Txosten bat egiten da argitaletxeari igortzeko. Bertan, balioespina gainera, testua zertan zuzendu edota hobetu daitekeen justifikatzen zaio argitaletxeari, argitara aurretik, guk proposatutako hobekuntzak edota zuzenketak egin ditzan. Lehen azteraldian onartu ez diren ikasmaterialek ere berdin egin behar dute —zuzenketak eta gomendioak kontuan hartu, alegia—, baina EIMAKo beste azteraldi bat pasatu behar dute argitara baino lehen.

²¹ Lexikoari dagokionez, hitz arruntan kasuan ez da problemarik izaten, are gutxiago Hiztegi Batuarekin; dena den, arazoak izan ditugunean, Elhuyar, Euskalterm, Orotariko Euskal Hiztegia, Sarasola... izan ditugu gidari.

8. Hobekuntza-proposamen batzuk

Euskaltzaindiaren araugintzak aurrera dirau; idazleek ere badihardute bide eta molde berrien bila... Gramatika-mailako auziak, estilistikaren, erretorikaren eta pragmatikaren axiomak, diskurtsoaren eta komunikazioaren teorizazioak... gero eta ezagunagoak egiten zaizkigu, eta sartu gara mundu horretan..., baina oraindik ere eginkizun luzea da esku artean duguna.

Bukatu egin beharko dut. Hiru egun hauetan hemen azalduko diren premiak asko eta anizkunak izango direla jakinik ere, ikas-materialen mundura bildu nahi nituzke nik nireak. Eta, gehiago ere badirela jakinik ere, orain eta hemen bost premia hauek aipatuko nituzke gerora begira:

1. Prosodiaren inguruko hausnarketa baten beharra. Gero eta ugariagoak dira eskolatarako ikus-entzunezko materialak: batzuk oso egokiak (esatari eta bikoizle profesionalek egindakoak); beste batzuk, ordea, guztiz desegokiak (sinesgarritasun falta ikaragarriarekin). Jende asko da oraindik, ahoskerazko arauen ezean, benetako hizketa letraka, eta ez esaldika, gertatzen dela uste duena, ahoskera ortografia aurkitu berriak (letrak) gidatu behar duela uste duena. Euskaltzaindiak (87. araua) emana du cuskara batu estandararen ahoskera zaindua, baina motz gertatzen zaigu sarritan gure lanerako. Azentuaren inguruko arau estandarra, pausaldi prosodikoaren inguruko orientabideak, perpaus moten araberako tonemen nondik norakoen ezaugarriak, euskara jatorraren enfasiaren indar-koloreak..., hutsune sumatzen ditugun aldetik, gure lanean guztiz mesedegarriak eta eskertzeak lirakeela esan beharrik ez dago.

2. Testu zaharren transkripzioak egiteko irizpideak finkatu beharra. Bertsozale Elkar-

teak bat-bateko bertsoak transkribatzeko irizpideak markatuak dituen moduan, testu-liburuetara ekartzen diren tradizioko —literaturako, historiako, etab.— testu idatzien inguruan, zehaztu beharra dago nola jokatu eta zein irizpide grafiko eta ortografikori jarraitu, adinaren, programazioen eta helburuen arabera. Irizpide horiek laguntza handia emango ligukete.


3. Testu-kohesioaren inguruan dagoen hausnarketa-premia. Alde batetik, puntuazio-marken inguruan, orain-orain darabiltzagun arauak gaztelaniaren mundutik ekarriak baitira ia beti (batez ere komaren eta puntu eta komaren erabileran, aisa antzematen denez). Baina ez hor bakarrik. Erlazio anaforiko-kataforikoetan ere, askotan, erdararen mende izaten jarraitzen dute gure testu-aukerak, eta ondorio kaltegarriak nozitzen dituzte testu askok (*berelharen* edutezkoak bereizten ez direlako, edota erakusleei eragiten diegun kohesio-jokoan euskararentzat desegokiak diren aukerak erabiltzen ditugulako). Ikas-materialetan hain eguneroko diren esapide eta antolatzaile batzuen moldaketan ere (adibideak eta enumerazioak ematerakoan, esaterako) freskura eta eredu faltan sumatzen dira testu asko.

4. Erdal interferentzien inguruan gehiago hausnartu eta argitu beharra. Juan Gartzia EIMArako eginiko arestian aipatutako interferentziei buruzko lan ederraz gain, on egingo liguke oraindik ere erdal *hitzontzikeriaren* aztarnen aferan zabalago eta sakonago erreflexionatzeak. Esate baterako, nahi baino sarriago ikusten diren era honetako esapideetan, agerikoa da erdararen eragina: “sexu femeninoko izaki biziduna” idazten da lasailasai, “emea” hitz betearen orde; edota “normalki ongi informatutako iturriek jakinara-

zi dutenez, Portugaleteko hiri bizkaitarren bi kamioiren arteko istripua gertatu da” bezalakoak, “bi kamioiren artean istripua izan (omen) da Portugaleten” esan ordez; edota “ezagutaraztera eman”, “sortarazten duen beldurra”, eta “lortu ahal izateko” bezalakoak, “ezagutzera eman”, “sortzen duen beldurra” eta “lortzeko” moduko sinple eta naturalen ordez. Zuzentasun-irizpideek era horretako *sobrak* alde batera botatzen lagundu behar ligukete, eta hartaraz gero, bai testuak hobeto orrazten ere.

5. Web gune bateratu bat izatea. Eduki, hor ditugu gure lanerako, besteak beste,

UZEIk atondutako XX. mendeko euskarren corpora, EHUren Ereduzko prosa gaur, Euskaltzaindiaren Jagonet zerbitzua, Itzul posta-zerrenda, etab. Baina datu-base jakin eta bateratu baten premia ezin ezkutatu. Artelanak direla, nazioarteko erakundeen izenak direla, EIMAK atontze-bidean duen onomastikako zerrendak direla..., hainbat kontsulta-iturritara jo behar izaten dugu informazioaren bila bai itzultzaileok, bai testu-egileok, bai onespren-aztertzaileok. Hori dela eta, interesgarria izango litzateke denak leku bakarrean zentralizatuta eta sistematikoki kontsultatzeko moduan egotea.



Zuzentzaile euskaldun / Euskal zuzentzaile baten memoriak

LOREA ARRIETA

Sarrera

Konbidapena jaso nuenean zuzenketa gaineko jardunaldietan parte hartzeko, eskatu zidaten zuzenketa arloan dudan esperientziaren berri ematea. Konbidapen hori onartzeak ekarri zuen hamaika urteko ibilbideari begira jartzea, eta hausnarketa egitea zuzenketa inguruan dauden arazoak buruz. Izan ere, lehenengo galderatik bertatik sortzen dira, sortu, arazoak: testu batean, zer zuzendu behar da?

Denok gara testu-zuzentzaile, irakurle garen heinean. Irakurtzen ari garen bitartean, zuzenketa-saio ugari egin behar izaten ditugu. Zuzenketa batzuk, modu automatikoan egiten ditugu, irakurketa galarazi gabe; hor sartzen da, esate baterako, antzematen ditugun akats ortografikoak eta gramatikalak zuzentzea. Beste batzuek, ordea, lan gehiago eskatzen digute, irakurketa bera galarazterainokoa zenbaitetan; hor sartzen da testua hainbat aldiz irakurri behar izatea harik eta testua ulertzeko egin behar ditugun aldaketak egiten ditugun arte. Beraz, irakurtzen ari

garen bitartean, testua "zuzendu" egiten dugu buruan: testu-osagaien ordena aldatzen dugu, beste era batera puntuatzen dugu, ideia beste era batera formulatzen dugu...

Nire ustez, zuzentzailearen lana da irakurlearen lana erraztea, alegia, antzematea irakurleak zein traba edo behaztopa izan ditzakeen irakurketan. Jarrera horrek zuzentasun gramatikalaz haratago eramaten du zuzentzaile, ezinbestean; arau gramatikalak iristen ez den eremu batera hain zuzen ere. Arau gramatikalak ematen duen neurririk (eta babesik) gabe, zuzentzaileak gomendioak egin behar ditu testuaren irakurgarritasuna hobetze aldera. Helburua jada ez da testu zuzena eta akatsik gabea, ez hori bakarrik; helburua testua da, alegia, zuzentasunaz gain beste baldintza batzuk ere bete behar dituen zer hori da helburua.

Baina zuzenketa-irizpideak bestelakoak ziren duela hamaika urte lanean hasi nintzeanean. Hitzalditxo honen helburua da bilakera horren berri ematea eta gaur egun dudak ikuspuntua zertan oinarritzen den azaltzea.

Pentsamenduaren klasikoak

“Pentsamenduaren Klasikoak” proiektua (www.klasikoak.org) 1991n abiatu zen, eta helburua zuen giza pentsamenduaren bilakaeran mugari izan diren lanak euskartztea. Euskararen normalizazio-prozesuaren barnean, argi ikusi zen gure hizkuntzak bereganatu behar zituela mendebaldeko kulturaren oinarrian dauden lan gailenak, zuzenean eta modu sistematikoan.

Itzulgaien ezaugarriak

Itzulgaien zailtasunari dagokionez, Klasikoen proiektuko testuak oso espezializatuak dira, eta arlo askotarikoak (ekonomia, filologia, politika, hizkuntzalaritza, psikologia...). Bestalde, konplexuak ere izaten dira zenbaitetan: gaiagatik beragatik oso kontzeptualak edo abstraktuak direlako, edo estilo aldetik egungo moldeetatik aldentzen direlako.

Lan-antolaketa: itzultzailea / berrikuslea / zuzentzailea

Itzulpenak bi iragazi pasatzen ditu: lehen, berrikuslearena, eta bigarrena, zuzentzailearena. Berrikusleak ondo ezagutzen ditu bai lanaren aztergaia, bai pentsalaria bera eta haren lana, eta hortaz, beraren eginkizuna da bermatzea itzulpen testuak ondo jaso duela jatorrizko lanaren eta haren egilearen mezua. Zuzentzaileak, berriz, testuaren zuzentasunaz arduratu behar du, alegia testuak akatsik ez duela bermatu behar du, eta horretarako, hizkuntza-alderdiei (ortografia, gramatika...) erreparatu behar die.

Zuzentzailearen lana

Zuzentzaileari testua inprimatua iristen zaio eta zuzenketak paperean egiten ditu. Testuaren gaineko lana bukatutakoan, txosten bat egingo du, batetik, zuzenketarako erabili dituen irizpideak azaltzeko, eta bestetik, testuan aurkitu dituen arazozen berri emateko eta, hala badagokio, arazo horiek ebazteko ikusten dituen irtenbideak proposatzeko. Eremua, beti ere, zuzentasun gramatikala, eta ez estiloa.

Zuzenketaren helburua hasieran: gako hitza, akatsa

Horixe da, funtsean, lana eskaini zidatenean adierazi zidatena: zuzentasunaz arduratu behar nuen, ez estiloaz; eta zuzentasunaz hitz egitea euskararen Gramatikaz hitz egitea zen (Elhuyar hiztegiaren arabera, ‘gramatika’ hitzaren adieretako bat: “Antzina, hizkuntza bat zuzen hitz egin eta idazteko arauen multzoa.”). Beraz, akatsak detektatzea zen nire lana, eta akatsak bi motatakoak ziren: batetik, akats mekanografikoak, eta bestetik, akats gramatikalak (ortografia, deklinabidea, sintaxia, komunztadura...).

Hasiera hartan, dena den, baziren bestelako buruhauste-iturriak. Batetik, hitzen forma bera. Hiztegi Batua zirriborro bat besterik ez zen, eta hitzen formaren inguruan zeuden zalantzak itzulpenetan islatzen ziren: ohikoa zen hitzak bi edo hiru erataraz agertzea (distira, disdira, diztira, dizdira; batzutan, batzuetan; tragedia, tragedia...). Bestetik, zalantza ugari zegoen, halaber, zenbait marka ortotipografikoren erabilerari zegokionez, eta horren isla zen ez zela batasunik antzematen, esate baterako, aipamen biblio-

grafikoak egiteko orduan edota hitzak-eta nabarmentzeko orduan (letra etzanez agertzen ziren, beltzez, komatxoaren artean, letra etzanez eta beltzez, letra etzanez eta komatxoaren artean...). Halakoetan, gure ustez, bidea zen testuaren barne-koherentziari eustea, eta ildo horretatik, proposamen bateratzaileak egiten genituen. Hona hemen, adibide moduan, hasierako txostenetan maiz egiten genuen oharra:

Testuan ez da sistematizaziorik antzematen hitzak eta abar nabarmentzeko garaian. Hala, komatxoak erabili dira:

- bai hitzez hitzeko aipamenak egiteko
- bai hitzak nahiz esapideak nabarmentzeko
- bai liburuen aipamena egiteko
- bai erdal hitzak nabarmentzeko

Bestalde, letra etzana erabili da:

- bai hitzez hitzeko aipamenak egiteko
- bai hitzak nahiz esapideak nabarmentzeko
- bai liburuen aipamena egiteko
- bai erdal hitzak nabarmentzeko

Gure proposamena:

- hitzez hitzeko aipamenak: komatxoaren artean
- liburuen izenburuak: letra etzanez edo azpimarratuta
- artikuluen, hitzaldien eta abarren izenburuak: komatxoaren artean
- erdal hitzak: letra etzanez
- nabarmendu nahi diren hitzak-eta: letra etzanez edo beltzez
- ohiz bestelako adiera duten hitz edo esapideak: komatxoaren artean

Beste horrenbeste gertatzen zen, esate baterako, pertsona-, toki- eta bestelako izen arrotzei deklinabide-atzizkia eransteko erari zegokionez; ez zegoen batasunik:

Pertsona-, toki- eta bestelako izen arrotzei deklinabide-marka eransteko modua dela eta,

testuan bi joera agertzen dira: zenbaitetan marratxo batez erantsita (Kant-ek, New York-eko), zenbaitetan zuzenean (Kantek, New Yorkeko). Afera horri dagokionez, gu marratxoa ez jartzearen aldekoak gara, ahal dela behintzat, testua ez astuntzearen. Ildo horretatik, gure proposamena da: marratxoa jartzekotan, hitz arrotzaren lehen agerraldian jartzea, baldin eta horren beharra ikusten bada —hitzaren azken letraren gorabeherak—, eta hortik aurrera marratorik gabe ipintzea.

Beraz, nire lana zen, alde batetik, akatsak (araututako gramatikaren arabekoak) zuzentzea, eta bestetik, arautu gabe zeuden zenbait konturi zegokionez, proposamenak egitea testuaren barne-koherentzia bermatze aldera batez ere, eta hori guztia txostentxo batean jasotzea. Txostentxo hori Klasikokoei bidali eta haiek helarazten zioten itzultzaileari.

Itzultzaileekiko harremanak

Hortaz, txostentxo hori izan da itzultzaile asko eta askorekin izan dudana harreman-bide bakarra, gutxitan egokitu baitzait itzultzailearekin zuzenean aritzea. Nolanahi ere, iruditzen zait, aukeran, onuragarria izan dela itzultzailearekin zuzenean aritzea. Hona hemen klasikokoei bidalitako txostentxo bat, azaltzen duena itzultzaile batekin hitz egingakoa:

Itzultzaileari egindako oharrak

Testua ez da irakurtzen erraza, batez ere, hiru arrazoiengatik: batetik, edukia bera; bestetik, jatorrizko testuaren diskurtsoaren nolakotasuna; azkenik, puntuatzeko modua.

Lehen arrazoiari dagokionez, esan beharrik ez dago testuaren edukia oso kontzeptuala dela eta abstrakzio-ahalegin ikaragarria eskatzen duela, baina hori azken finean badaki liburua irakurtzeko asmoa duenak. Dena den, azpimarratze-

koa da irakurtze-zailtasun hori gutxitzen edo leuntzen doala liburuki batetik bestera. Itzultzailearekin hitz egin eta esan dit berak irudipen bera izan zuela jatorrizkoa irakurtzean, eta gero ere, testua itzultzerakoan, arazo horrekin egin zuela topo, alegia, edukiaren argitasunari dagokionez testuak irregulartasun nabarmena erakusten zuela liburuki batetik bestera. Bestalde, berrikusleak ondo ezagutzen du autorearen lana, eta irudipen hori berretsi du. Beraz, jatorrizko testuaren berezko ezaugarri baten aurrean gaudela dirudi, eta zentzu horretan, itzultzailearen ustea da itzulpenak errespetatu egin behar dela jatorrizko testuaren jitea, bestela interpretazioetan erortzeko arriskua bailegoke —frantsesek bertsoian hala gertatzen omen da—.

Bigarren arrazoiari dagokionez, hau da, autorearen diskurtsoaren nolakotasunari dagokionez, esan beharra dago testua oso trinkoa dela, paragrafo osoak baitaude bata bestari lotutako mendeko perpauzez kateatzen direnak. Horrek eskatzen du gaur egun nahiko bitxia gerta daki-gukeen idazkera-estiloa erabiltzea, besteak beste, erlatibozko esaldi ugari agertzen duena. Dena den, nire ustez hori ez da arazoa esaldiak-eta ondo eraikitzen badira, eta horixe da itzulpen honen kasua. Badago, hala ere, pasarteren bat edo beste kortxete artean markatutakoa, itzultzaileak berriro azter ditzan.

Hirugarren arrazoiari dagokionez, puntuatzeko modua alegia, dilema baten aurrean gaudela. Izan ere, kasu honetan —beste askotan bezala— jatorrizko testuak agertzen duen puntuazio-sistema ez dator bat gure gaurko puntuazio-sistemarekin. Eta egia bada ere, sistema bat edo bestea izan, azkenean, sistemaren koherentzia dela inportanteena —bestela, araurik gabe, bide-seinalerik gabe bezala, noraezean ibil gintezke—, egia da, halaber, irakurleari lana eman diezaiokeela sistema berriari antzemateak. Sistemen arteko alde nabarmenenak honako puntu-zeinuen erabilerari dagozkio: puntu eta koma, bi puntuak, marra luzea. Batez ere, puntu eta komaren erabilera eta marra luzearena dira deigarrienak; lehenengoa, gurean

ez bezalako testu-craikuntza eta testu-antolake-eta egiteko erabiltzen delako; bigarrenkoa, (marra luze bakarra, tartea utzita) ondorioei-eta sarrera emateko erabiltzen baita. Hala eta guztiz ere, sistemak badu barne-koherentzia, hori ezin da ukatu. Gauzak horrela, eta kontuan hartuz itzultzailearen iritzia, hau da, puntuazio-era berezi hori dela jatorrizko testua ezaugarritu eta, beraz, bereizten duen elementutako bat, nire lana izan da, itzultzailearekin adostuta, jatorrizko testuari tankera berezi hori ematen dioten elementu horiek errespetatuz, gainerako puntuazio-zeinuei dagokienez —komak batez ere— testua gure sistemaren arabera puntuatzea, testuaren irakurketa erraztearen alde.

Dena den, ez da lehenengo aldia auzi hori azaltzen dela, hau da, jatorrizko testua ezaugarritzen duten elementuren bat, edo tankera oro har, errespetatzearena, nahiz eta gaurko joeren aurkakoa izan. Arazoaren ebazpideari dagokionez, nire ustez itzultzaileak auzi horien berri eman beharko lioke irakurleari, bai eta hartu dituen erabakien berri ere. Horrela irakurleak, jakinaren gainean, tresna gehiago izango luke testua ulertzeko, testuari aurre egiteko, eta irakurketa errazagoa izango litzateke. Nire proposamena da, beraz, itzultzaileak izan dezala atal bat liburuan itzulpenaren inguruko gorabehera eta gogoetak egiteko eta hori guztia irakurleari konpartitzeko.

Zuzenketaren bilakaera. Zenbait mugarri

Txostentxo horretan ikusten denez, dena den, zuzentasun-eremuko akatsez haratago, itzulpenen irakurgarritasuna zen, hasieratik, kezka nagusia. Eta irakurgarritasuna esatean, ez zait definizio hoberik bururatzen hiztegitan agertzen dena baino (Elhuyar Entziklopedia):

irakurri. du ad. 1. Idatzitako zeinu grafikoak begi-bistaz ezagutuz, mentalki nahiz ozenki

elkartu eta esanahia egokitu; horrela aritzuz testuaren edukiaz jabetu.

irakurgarritasun. iz. Irakurgarria denaren nolakotasuna.

irakurgarri. izond. 2. Behar den argitasunez idatzita dagoelako, irakur daitekeena.

irakurterraz. izond. Irakurtzen erraza dena.

irakurgaitz. izond. Idazkeragatik nahiz mamia-gatik irakurtzen nekeza gertatzen dena.

irakurtezin. izond. Idazkeragatik nahiz mamia-gatik ezin irakur daitekeena.

Bien bitartean, *Idazkera Liburua* argitaratu zuten J. R. Zubimendik eta Pello Esnalek, niretzat mugarrria izan dena. Haiiek idatzi zuten euskal testugintzan dihardugun guztiok une horretan sentitzen genuen ondoez bati buruz, alegia, hitz egin ziguten euskal testuek sarriegi izaten zuten eite gordinaz. Hiru euskara-mota bereizten zituzten euskaraz idatzitako testuetan: sasi-euskara, euskara gordina eta euskara egokia, eta hizkuntza-mota bakoitzaren ezaugarriez eta haien arteko aldeez mintzatu zitzaizkigun. Hona zer zioten euskara gordinaz:

Euskara gordina deitu diogu bigarren motako euskarari. Gogorra baita, heldu gabea, irensten gaitza... Baina euskara da, sasi-euskara ez bezala. (...) Hedatu samarra dugu euskara gordina. Halere, itzulpenetan aurkitzen dugu sarrien, edo erdarazko idazkien eitea dutenetan. (...) Euskara gordinaren idazleak leial eta zuzen jokatu nahi du euskararekin: leial eta zuzen gramatika-arauekin, leial eta zuzen hitzekin... Goi-mailaraino igo nahi du euskara, eta auzoko hizkuntzak bezain tresna egoki eta erabilgarri bihurtu. Erdararen pareko nahi du euskara: hiztegi ugari eta aberats, gai zailenak eta korapilatsuenak ere adierazteko moduko. (...) Baina leialtasun horren eraginez urrutiegi ere joan daiteke idazlea: saihestu nahi dituen zenbait zultan eror daiteke. Besteak beste, alboan erdararik behar ez duen euskara nahi izan arren, erdararen morroi bihurtzen da: erdal erduetara

jotzen du itsu-itsu, itzulpen estuegiak egiten ditu, erdal hitzak sartzen ditu euskal hitzen lekuan... azkenean, sasi-euskararen antzeko gertatzen da, euskararen kalteran: ulergaitz eta erdararen morroi. (ID, 147)

Euskara gordina, beraz. Jakina, baten batek esango du P. Esnalek eta J. R. Zubimendik kazetaritza-euskarari buruz esan zutela hori guztia. Eta egia da: gauza bat da egunkaria irakurtzea, eta bestea, oso bestelakoa, teoria eta gogoeta filosofikoak, politikoak, ekonomikoak edo linguistikoak irakurtzea. Ildo horretatik, hona hemen zer zioen itzultzaile batek itzulpenarekin batera zihoan ohar batean (kasu honetan ez hurrengo itzulpen-aipamenetan ere, ez da itzultzailearen izena ematen, ez baita esan-guratsua):

Estiloan ere, latinari ahalik gehien atxiki natzaio. Paragrafoaren luzerarik ez dut ia inoiz laburtu, batzuetan oso luzeak eta menpeko eta elkarren gaineko perpausuz josiak izan arren. Ulergarritasunaren aitzakian, autorearen estiloa txikitzeari ez deritzot bidezko. Luzetasunean argia izaten ahalegin naiz, baina konplexutasunik saihestu gabe, euskarak ere konplexutasuna konplexurik gabe adierazten jakin dezan. Lan hau ez da, nik uste, material didaktiko bat, pentsamendu eta literatura oso garatu baten itzulpena baizik. Testu bat joskeraz eta estiloz oso zaila izan daiteke, nahiz eta oso argia izan. Gure autorearen testua horrelakoa da sarritan eta euskaraz ahalik gehien beragana hurbiltzen saiatu naiz. Eskertuko nuke irizpide hau berrikusleak eta "Klasikoak" saileko arduradunek ere errespetatuko balute.

Erabat ados. Euskarak badaki konplexua adierazten, eta testua espezializatua izateak ez du esan nahi irakurgaitza eta ulergaitza izan behar duenik. Zertan da, bada, irakurgarritasun hori? Begira honako testu hau:

Gure baitan sortzaile baten ideia txertatu eta sortzaile horrengana garamatzen legea, lege naturaletan lehena da garrantziz, baina ez lege naturalen ordenari dagokionez. Gizonak, natura-egoeran, ezagutzeko ahalmena izango zuen, baina ez ezagupenak. Argi dago haren lehen ideiak ez zirela ideia espekulatiboak izango; bere izatea gordetzen saiatuko zen, bere izatearen jatorria bilatu baino lehen. Halako gizaki batek bere ahulezia baino ez zuen sentituko; haren herabetasuna ezin handiagoa izango zen; eta horren esperientziarik behar izanez gero, aurkitu izan dira basoetan gizaki basatiak: edozerk eragiten die ikara, edozerk jartzen ditu ihesean.

Batek baino gehiagok esango du testu hori ez dela irakurraldi bakar batean harrapatzen den horietakoa —are gutxiago testuingururik gabe—. Bestalde, jatorrizko testua hartuko bagenu, litekeena da pentsatzea guk beste aukera batzuk egingo genituzkeela. Nolanahi den, testu horretan arazorik gabe identifikatu eta bereizten ditugu **mintzagaia** (lege naturaletako bati buruz ari da, gure baitan sortzaile baten ideia txertatu eta sortzaile horrengana garamatzen legeaz hain zuzen) eta **iruzkina** (lege natural hori lehena da garrantziz; baina ez da gizakiak ezagutu zuen lehen legea), eta **informazioa** ordenatua eta lotua agertzen zaigu (gizakiak hasieran: ezagutze-ko ahalmena bai, ezagupenak ez...).

Beraz, testuinguruak argituko lituzkeen kontuak alde batera utzita (lege naturalak?, natura-egoera?), lehen irakurraldi horretan irakurlearen lana izaten da bilatzea testuan argibide edo zantzuak adieraziko diotenak testua nola irakurri behar duen (ulertzeko, alegia): esaldiak nolakoak diren (ondoriozkoak, kausalak, denborazkoak...), pausaldiak non egin behar dituen...; hitz batean, testua zer doinuz irakurri behar duen antzematea.

Zuzenketa-arazo nagusiak

Gauzak horrela, galdera da: zein izan behar du, beraz, zuzenketaren helburua; lehenengo irakurraldian ulertzen den testua? Ez dut uste, gure kasuan ez behintzat. Izan ere, testu horiek zailak izan litezke gaigatik-eta, baina horrek ez du ustekabeen harrapatuko klasikoen irakurlea.

Izan ere, irakurle garen aldetik, denok dakigu bereizten zer den testu erraza eta zer den testu zaila, eta badakigu, halaber, erraztasun/zailtasun hori zertan den identifikatzen: gaia bera, egilearen estiloa (egin dituen hizkuntza-aukera sintaktikoak eta bestelakoak), liburuaaren helburu den irakurleari suposatzen zaion jakite-maila... Badakigu, bestalde, testua zaila izateak ez dakarrela ezinbestean irakurgaitza eta ulergaitza izatea (denok izan dugu esperientziaren bat). “Pentsamendua-ren Klasikoak” irakurriko dituen irakurlea ohitua dago euskaraz irakurtzen, eta ez du arazo berezirik testu espezializatuak irakurtzeko. Gure irakurleak badaki klasikoen lan horiek nekosoak izan litezkeela eta gimnasia intelektuala egitea eskatuko diotela, eta prest dago gimnasia hori egiteko.

Testuaitasuna

Baina kontua da batzuetan hori baino gehiago eskatzen diogula irakurleari; alegia, eskatzen diogu ez bakarrik irakurtzeak berez eskatzen dituen eragiketak egitea, baizik eta, horretaz aparte, erdarara itzultzea, zenbait korapilo askatu eta mezua ulertzeko. Testu bat nekez irakurtzen bada, testuan bertan bilatu behar da eragozpena, eta ez irakurlearen. Eta ulergarritasun hori zertan datzan

azaltzeko, adituek testualtasunaz eta testuaren baldintzez hitz egiten dute:

Testuaren baldintzak:

Zuzentasuna
Koherentzia
Kohesioa
Egokitasuna

Testu bati heltzen diogunean argi dago zuzentasunaz haratago dagoen zerbait behar dugula testuaz jabetzeko, eta horixe espero dugu aurkitzea testuan. Ni ez naiz teoriarria; nik urte batzuetako lan-eskarmetua dut, eta irakurle-sena. Eta nik uste dut klasikoen irakurleak euskal itzulpenari eskatzen diola beste edozein erdal itzulpen espezializaturik eskatzen diona: testuaren irakurgarritasuna bermatuko duten elementuak eskaintzea, beste itzulpen beharrik gabe: mintzagaia argi azaltzea, informazioa ondo antolatua eta lotua egotea, loturak gauzatzeko baliabideak (sintaxia, puntuazioa, erreferentzia-sistema...) mezuaren neurrikoak izatea, etab.

Itzultzeak, dudarik ez, lan handia eskatzen du, batez ere hizkuntzek joskera ezberdinak badituzte; izan ere, hitzak eta esaldiak ez ezik, koherentzia- eta kohesio-baliabideak ere itzuli, moldatu eta egokitu egin behar dira, itzulpen-testua jatorrizkoa bezain koherentea izateko, hura bezain irakurgarria (ez zertan irakurgarriagoa). Eta alderdi horretatik, irakurgarritasunari jartzen zaion traba bat da, zer esanik ez, bi hizkuntzen arteko **interferentzia** gertatzea eta bi gramatika erabili behar izatea (eta "itzultzten" ibili behar izatea) testua irakurri eta esanahiaz jabetzeko (gogora datorkit harako esaldi hura, Jesus Zabaletari entzun eta iltzatuta geratu zitzaidana: "Triste da/litzateke?, gero, euskaraz elkar ulertzea erdaraz dakigulako"). Eta horixe da,

hain zuzen ere, zenbait itzulpen-testuri gertatzen zaiona.

Atxagak esandako hitz batzuk ekarriko ditut, testuan aurrera egiten lagunduko didatenak:

Nik esango nuke, nolabait, oinarrizko ideologian dagoen adjektiboa, gehien gustatzen zaidana, "kristalinoa" da; hots, ez da ikusi behar, hitzak transparente izan behar du. Barthesek erabiltzen zuen irudi bat, beste gai batez ari zelarrik: autoaren kristalaren atzean zaude, eta zuk begiratu ahal diozu kristalari, kristala ikusiz, beti baitaude orbainak eta, edo begiratu ahal diozu kristalaren beste aldean dagoenari, paisajeari. Hau da, testua ikus dezakezu, eta aldi berean, haren atzean dagoen mundu hori. Eta horrek, nire ustez eskatzen du alde batetik lan formalak (adjektiboak, subordinatuak non kokatu...), eta gero, beste aldetik, eskatzen du kristalaren beste aldean dagoen hori benetan oso-oso paisaje bete izatea (...). (B. Atxagarekin solasean; "Administrazioa Euskaraz", 44. zenb.)

Barthesen irudi hori baliatuta, nik esango nuke zuzentzailearen lana dela testua hartu (kristala/paisaia) eta paisaia ikusten galarratzen duten kontu horiek identifikatzea eta kristala garbitzeko proposamenak egitea; beste era batera esanda, zuzentzaileak testuaren irakurgarritasuna bermatzen ahalegindu behar du; irakurleak ahalik eta oztopo gutxien aurkitu ditzan testuan barrena irakurtzeko. Eta horixe da, hain zuzen, itzultzaileari proposatzen dioguna:

Itzulpena, nire ustez, oso ona da. Horrekin esan nahi dut testura hurbiltzen den edozein irakurle interesatuk aurkituko duela ez bakarrik gaiari dagokion diskurtso landu eta jasoa, baizik eta, horrekin batera, diskurtso argia, non sintaxia-, joskera- eta bestelako testu-baliabideak egoki aukeratuak izan diren ideiak eta mezua ulertzeko.

Dena den, testuak badu zer zuzendu eta zer hobetu. Batetik, badira zuzentasunarekin lotutako kontu batzuk —erratu mekanografiko eta tipografikoak, edo hitzen morfologia, esate baterako—. Besterik, badira koherentziarekin eta kohesioarekin zerikusia dutenak —puntuazioa, kasu—. Azkenik, bada pasarterik argitasunaren aldetik adierazpidea aldatzea eskatzen duena.

Ildo horretatik, txostentxo honetan, hainbat ohar eta proposamen aurkituko duzu testuak behar duen azken orrazketa egiteko, irakurlearen ikuspuntutik begiratura lagungarriak izan litezkeelakoan, eta, azken batean, zeuk helburu izan duzun konplexutasun argi horren aldekoak direlakoan.

Ikusten denez, kristal-garbitze horrek hiru esparru hartzen ditu:

- akats mekanografikoak
- hizkuntzaren zuzentasuna (euskararen gramatikaren arabera; arauen arabera)
- testuaren koherentzia eta kohesioa (irakurgarritasuna)

Testuaren koherentzia eta kohesioa gauzatzen da kontuan hartuz eta zainduz testuaren egitura, esaldien arteko loturak eta esaldi barneko ordena eta loturak. Eta itzulpenen koherentzia-eza erdararen interferentziak eragiten du neurri handi batean. Maita guztietan gertatzen da interferentzia hori: bai adierazpidea aukeratzekoan (lexikoa, aditza, egitura sintaktikoa, hitz-ordena...), bai koherentzia- eta kohesio-baliabideak aukeratzekoan (puntuazioa, erreferentzia-sistema, loturak...). Testuaren irakurgarritasuna tratatzen edo galarazten duen interferentziaren aurrean, irakurleak testua “itzuli” egiten du, eta behar diren “zuzenketak” egiten ditu.

Zenbait testu aztergai

Hurrengo lerroetan adibide batzuk ekarriko ditut erakusteko zein diren nire ustez, kohesio-baliabideei dagokienez, “zuzenketak” egiten diren hiru esparru esanguratsu:

- Adierazpidea bera
- Puntuazioa
- Erreferentzia-sistema (anaforak eta kataforak)

Adierazpidea esatean, auzia ez da itzulzaileak zer aukera estilistiko egin duen: hori estiloan sartzen da, eta nork bere estiloa du. Adierazpideari dagokionez, koherentzia galarazten duen arazotako bat izaten da batzuetan ez datozela bat adierazlea eta adierazia:

«(...) konturatzen naiz (...) nire pentsamen-
duan agertzen zaidala (...) edozein motatako
perfekzioetik erabat urrunduta **dagoenaren
ideia.**»

Esaldi hori zuzena da eta ulertzen da. Baina “moldatu” egin behar dugu; izan ere, adierazpidea ez dator bat adierazi nahi denarekin. Hor ez da *noren ideia agertu*, baizik eta *zer/zein ideia agertu*: “edozein motatako perfekzioetik erabat urrunduta **dagoelako ideia**”. Interferentzia baten eragina dugu hor. Beste horrenbeste gertatzen da hemen ere:

«(...) grabitatea cragozpenen aurrean orkatu egiten **den bitartean**, besteak indar eta kemen handiagoa hartzen du oztupoak areagotu ahala.»

Esaldi horretan, *-(e)n bitartean* menderagailuak gauzatzen du perpausen arteko lotura, eta, beraz, denborazko harremana ezartzen du haien artean. Baina harremana ez da denborazkoa, adbersatiboa baizik, eta, beraz, honela izan behar luke:

“(...) grabitatea eragozpenen aurrean orekatu egiten da; besteak, berriz (ordea, aldiz...), indar eta kemen handiagoa hartzen du oztopoak arcagotu ahala.”

Puntuazioa da beste alor bat asko zaindu beharrekoa eta zuzenketa-proposamen ugari eragiten duena. Proposamen horiek agintzen dituzten irizpideak sintaxiaren eta semantikaren baitakoak dira: puntuazioak esaldiosagaien berri eman behar du, esaldi osagaien funtzioak bereiztu, balizko adiera-anbiguotasunak ezabatu... Baina irizpide guztien gaineratik dago jakitea irakurleak askotan “jarri” edo “aldatu” egin behar izaten dituela puntuazio-zeinuak, testuaren esanahiaz jabetzeko. Beraz, irakurleari lan hori kentzea da proposamen horien helburua. Esate baterako:

“Emozioa arimaren dardara afektiboa da, baina gauza bat da azaleko asaldura eta besterik sakoneko astinaldia. Lehen kasuan, efektua barreiatu egiten da eta bigarrenean banatu gabe gelditzen da. Batean, atalen oszilazio bat da osoaren desplazamendurik gabe; bestean, osoa aurrerantz bultzatua da.”

Zuzenketa-proposamena:

“Emozioa arimaren dardara afektiboa da; baina gauza bat da azaleko asaldura, eta besterik, sakoneko astinaldia. Lehen kasuan, efektua barreiatu egiten da, eta bigarrenean, banatu gabe gelditzen da. Batean, atalen oszilazio bat da osoaren desplazamendurik gabe; bestean, osoa aurrerantz bultzatua da.”

Testu bat ondo puntuatuta dagoela konprobatzeko, bidea da testuaren esanahia aztertzea, eta ahots gora irakurtzea (intonazioa ematea): denok ondo puntuatzen dugu ahozkoan!

“Azkenik, bazter uhin-hauslean eskegitako jantziak hezatu egiten dira, eguzkitan zabaldurik, ordea, lehortu.”

Testuaren esanahia ulertzeko ezinbestekoa da unitateak zehaztea, ondo markatuta egotea. Irakurri ahala, irakurleak jakin behar du zein unitatetan dagoen. Aurrekoa bezalako testuetan argi gelditzen da komak ez duela balio esaldia markatzeko:

“Azkenik, bazter uhin-hauslean eskegitako jantziak hezatu egiten dira; eguzkitan zabaldurik, ordea, lehortu.”

Kohesio-baliabide ahaltzua da, halaber, erreferentzia-sistema egoki erabiltzea. *Bere/haren* oposizioari dagokionez, egia da zenbaitetan oposizio hori ez baliatzeak ez diola minik egiten testuari (eta, beraz, irakurlearen jardunari):

“(...) zuen aitak edo anaiak, krimenen baten errudun izan gabe, bere burua hiltzen badu, (...) bere testamentuak balio dezala...”

Esaldi horretan, *bere testamentuak* jarri edo *haren testamentuak* jarri, irakurleak mezu bera jasoko du, bi *bere* horiek elementu berari egiten baitiote erreferentzia. Baina begiratu zer gertatzen den beste testu honetan:

“Legeari buruz ari delarik, bere 6. Artikuluan: hiritar orok du, pertsonalki edo bere ordezkarien bitartez, bere sorkuntzan parte hartzeko eskubidea.”

Txiste errazak alde batera utzita (“hiritar orok du bere sorkuntzan parte hartzeko eskubidea”), itzulpen horretan argi gelditzen da kalte handia ekar liezaiokeela gaztelaniaren interferentziak euskal testuari, eta zuzenketak, azken finean, irakurleak egiten dituen aldaketak islatzen dituela:

“Legeari buruz ari delarik, 6. Artikuluan (hauxe/zera dio): hiritar orok du, pertsonalki (bera zuzenean) edo bere ordezkarien bitartez, haren (legearen) sorkuntzan parte hartzeko eskubidea.”

Bestalde, erakusleen erabilera anaforikoari dagokionez (lehendik aipatutako elementuren bati erreferentzia egitea), maiz ikusten da ez dagoela batasun-irizpiderik, eta bai lehen gradua, bai bigarrena, biak erabiltzen direla:


“Hizkuntzalariek, oro har, gramatika ego-kien oinarrian dauden funtsezko barne-ezaugarriak zehazteko xedearekin jardun behar dute. **Ikerkuntza honen** emaitza nagusiak hizkuntz egituraren teoria orokorra izan behar du, **teoria horrek** gramatika naturaletan erabiltzen diren lanabesak abstraktuki aurkeztu eta aztertzen dituelarik, hizkuntzon aipamenik egin gabe. **Teoria honen** betebeharrak bat hizkuntza bakoitzeko gramatika bana aukeratzeko metodo orokor bat eskaintzea da, hizkuntzotako per-paus-corpus bat hartuta.”

Batasun-irizpiderik ez izatea iluntasuna ekar liezaioke testuari (Zein ikerkuntzari erreferentzia egiten dio *Ikerkuntza honen* horrek?; *teoria horrek* / *teoria honen* horiek teoria berari egiten badiote erreferentzia, zergatik alde horiek?)

Bukatzeko

Sarreran esaten nuenez, zuzentzailearen lana da irakurlearen lana erraztea. Eta oso li-tekeena da Klasikoan irakurleak irakurraldi bat baino gehiago egin behar izatea testuari edo testuaren pasarteren batzuei. Baina baldin eta irakurraldi horietakoren bat ekiditea baldin badago, horrexetan ahalegindu behar du zuzentzaileak: irakurleak zuzentzen dituen akatsak zuzendu (kristala garbitu) eta mezuaz jabetzeko irakurleak egiten dituen eragiketa horiek islatu.

Idaztea eta itzultzea erabaki askoren emaitza da. Egia da ezinezkoa dela irakurleari horren guztiaren berri ematea; baina egia da, halaber, irizpide batzuei eusteak (eta behar-bada irakurleari jakinaraztea itzultzailearen oharretan-edo) testuari ematen dion barnekoherentzia dela irakurlea testuan barrena gidatzeko modurik efikazenetako bat.



Zuzenketa lana eguneroko prentsan: azken 13 urteotako esperientzia

IRENE ARRARATS

1. Sarrera

1990eko abenduaren 6an *Euskaldunon Egunkaria* argitaratu zenetik hona, eguneroko prentsan etengabe lan egin da testu zuzenketa. Hamahiru urte ez da ezer hizkuntza baten bizialdian, baina, bistan denez, hizkuntzak aldatuz doaz etengabe, bi indarren arteko lehian: bere hartan segitzeko indarraren eta aldatzeko indarraren arteko lehian. Dema horretan zuzentzaileok erdibidetik jo behar dugulakoan gaude; aldatu bai, baina tradizioetik ahal den gutxiena eta behar den guztia bereiziz. Aldaketarik handienak lexikoari lotuak izaten dira, noski, tresna, kontzeptu eta zer berri guztiak izendatu beharrak hartaturik, baina joskeran izaniko aldaketa gehien gehienak gure auzo hizkuntzen indar ikaragarriak ekarri dizkigu. Dena dela, gure egoera soziolinguistikoa onduz, ez da harritzekoa hain urte gutxian hainbeste gorabehera gertatu izana, hainbeste atzera eta aurrera, hainbeste bideitsu eta hainbeste garabide... Horiek guztiak gorabehera, gure zaharrekin ulertzeko moduko hizkuntza eta gatz-

teen mundua adierazteko moduko hizkuntza erabiltzea izan dugu helburu.

Euskarazko egunkariak, *Euskaldunon Egunkaria* lehen eta *Berria* orain, euskararen egoeraren on-gaitzen erakusgarrietako bat izan dira eta dira. Hizkuntzaren kezka handia izan dugu hala batean nola bestean. Beti saiatu izan gara ahal den eredurik egokiena lortzen, gure eraginaren jakitun. Esan gabe doa kazetarien hizkuntz ereduak ikaragarriko eragina duela hiztunen mintzoan. Kazetariak nola, halaxe hiztun askok, batez ere lagunarteko erregistroa baztertu eta dotore antzean mintzatu edo idatzi nahi dutenean. Halaxe gertatzen da, gutxi-asko, hizkuntza guztietan, baina euskara hizkuntza gutxitua denez, gurean oraindik ondorio latzagoak ditu edozerkeriak. Guztiok dakigu euskal testuak zer-nolako bide bihurri itsuetara eramantzen dituen ahozko hizkera naturaletik idatzirainoko pausoa eman beharrak. Izan ere, gutxi lortzen dute *normal* idaztea, eta asko tematzen dira *normaltasunez* idazten...

Egunkarietan, gainera, aitzakia ederra aurkituko du testu okerrak eta testuetako oke-

rrak zuritu nahian dabilenak: presa. Badakizue: azkar eta ondo, usoak hegan... "Eta kazetariak eta zuzentzaileak lanean", gehitu beharko genuke *Berria*-ko euskara taldekook, horrela jokatu behar baitugu gure lana beteko badugu. Baina, jakina, egunkarietan mundua eta mundu guztiak agertzen dira: kultur mundua eta kirol mundua, politika eta gizartea, Txetxenia eta Txina, euskal herriak eta berbere herria...; gai bakoitzak, gai bakoitzaren alderdi bakoitzak lehendik eman gabeko terminoak, kontzeptuak, leku izenak dakartza; eta sekula bukatzen ez den soka horretan, lehenbailehen eman behar dira konponbideak eta ordainak, eta lehenbailehen txukundu lehenbailehen idatziriko testuak...

Ikus dezagun, bada, presakako mundu horretan, zer bilakaera izan dugun urteotan, zer arazo izan ditugun, irizpideak nola finkatu ditugun... azken batean, nola lan egin dugun.

2. Abiapuntua eta lan tresnak

Nondik abiatu ginen azaltzeko —edo, behintzat, hasierako urte haietan (1990-91) gu nola ibili ginen azaltzeko—, bidelagun ezin hobea aukeratu dudalakoan nago: aita Villasante. Gogora ekarri nahi dut *Euskaldunon Egunkaria* argitaratu baino hiru urte lehenago, 1988an, aita Villasantek zer zioen, euskal prosaz eta, *Euskararen auziaz* liburuan:

«Euskarak behar du prosa egiteko moldea ongi finkatua eta trenpatua izan. Hau da, segur aski, euskarak duen premia gogorrenetako bat. Hori duen egunean euskara bere bizkar-hezurraz horniturik izanen da. Eta hori ez duen bitartean, tresna alferra izango da, gai ez dena, zeregin askotarako balio ez duena.

Euskara bizia izan dadila: horra gure mintzairaren premietan lehenbizikoa; baina horren hurrengo, prosa egiteko tresna moldaturik edukitzea da, ene ustez, bigarrena.»

Beraz, aita Villasanteren ustez, euskal prosa ondo finkatu gabe zegoen *Euskaldunon Egunkaria* sortu zen garai hartan. Ustedut aipua adierazgarria dela eta ondo erakusten duela nolako zailtasunak izan genituen hasieratik bertatik.

Gainera, aurreneko urte haietan, hasiberrien hutsa egin genuen: Funes burutsuak dena oroitzen zuen bezala ibiltzen ginen gu ere den-dena zuzendu nahian, eta, jakina, ezin; eskarmentuak erakutsi zigun, zuzentzeko genuen denbora gutxian, lehenbaitasunak zehaztu beharra geneukala eta haien arabera aukeratu zer zuzendu, testua goitik behera orrazteko denborarik ez genuenean behintzat. Esaterako, horregatik erabaki genuen orria hartu eta lehen-lehenik titulu, azpititulu, argazki oin eta leiho guztiak zuzenduko genituela eta gero, denbora izanez gero, testuen gainerakoa. Ez da lan egiteko modu ortodoxoa, jakina, baina prentsa nola irakurtzen den oso kontuan hartzekoa da *lan larrialdietan*...

Atzera begiratu, eta nabarmena da gaur egun, hutsuneak hutsune, askoz ere tresna gehiago, askoz ere tresna hobekak ditugula eskura, bai kazetariak, bai zuzentzaile-itzultzaileok, hizkuntzari dagokionez. Alde horretatik, kontuan izatekoa da *Euskaldunon Egunkaria* argitaratzen hasi zenean, esate baterako hiztegi aldetik-eta, urri samar genbiltzala: UZEIren gaikako hiztegiak, Ibon Sarasolaren *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia* (baina ale batzuk bakarrik, osatu gabe baitzegoen), Plazido Mujikaren hiztegiak, Xabier Kintanaren *2000 Hiztegia*, Adorez tal-

dearen hiztegiak... Askoz gehiago ez zegoen, eta horrek nora jo ez genuela uzten gintuen askotan.

Urte gutxian tresna berri asko sortu dira, guztion aberasgarri, eta horrek izugarri zela-laitu du zuzenketa lana: hor ditugu *Euskal-term* datu basea, Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua*, entziklopediak... Azken batean, orotariko hiztegiak sortu dira eta *Orotariko Euskal Hiztegia* osatuz joan, eta euskal hitzei buruzko gogoeta sakona ekarri zigun Ibon Sarasolak *Euskara batuaren ajeak* liburuan (1997). Eta hiztegegintzari ez ezik, joskerari ere heldu dio batek baino gehiagok, sakon baino sakonago: Pello Esnal eta Joxe Ramon Zubimendiren *Idazkera-liburua*, Juan Garziaren *Joskera lantegi*... Hasierako umezurtz sentipena izugarri arindu zuten lan horiek guztiek eta beste hainbatek: gaur egun, askoz errazagoa da zuzenketa lana, arestian aipaturiko lan horiei guztiei esker. Ezinbesteko lan tresnak dira zuzentzaileontzat, idaztankeran bide samurragoak eta erosoagoak seinalatu eta zabaldu baitituzte.

Kazetari estiloa lantzeko bidean, *Euskaldunon Egunkaria*-k pauso handia eman zuen 1992. urtean: lehenbiziko *Estilo Liburua* argitaratu zuen urte hartan. Hari esker, oinarri sendoa eskuratu genuen eguneroko lanean aritzeko, oinarri xumea nahi baduzue, baina ezinbestekoa eta oso sendoa, abiapuntua izateko. *Estilo Liburua*-ren bigarren bertsioa, bertsio hobetua eta osatua, handik hiru urtera kaleratu zen, 1995. urtean, eta azkeneko bertsioa, osatuena, 2001. urtean. Esan gabe doa *Estilo Liburua*, lehenik eta behin, etxe barrura begira eginiko lana zela, kazetarietara eta zuzentzaileok bete beharrekoa, irizpide batasuna segurtatzeko. Hasiera-hasieratik, garbi izan genuen premiazkoa zela iriz-

pide sendoetan oinarriturik konpontzea gure testuen makurrak. Arazo nagusiak aztertzea zen aurreneko lana, jakina. Eman diezaiegun begiratu bat arazo nagusiei, gaingiroki bada ere.

3. Prentsa testuen arazo nagusiak

3.1. Prosa egiteko modua, ongi finkatu gabe

Gure testugintzari erasaten dion gaitzik latzena lehen ere aipatu dugu, aita Villasanteren laguntzaz: prosa egiteko moldea ongi finkatu gabe egotea. Horren ondorioz, gaur egun ere konta-modu berezkoak aurkitu ezin dabilta oraindik kazetariak. Jar dezagun adibide xume baina nabarmen bat, esan nahi dugunaren erakusgarri: Ertzaintzaren (erdarazko) parteei eta teletipoei jarraitzen diete —batzuek, behintzat— auto istripuen gorabeherak emateko orduan, gordin-gordinean, eta honelakoak ikusten dira gero:

Goizaldean jazo zen ezbeharra, auto bat bitetik ateratzen zenean

Ondorioz, atzetik zetorren autoak talka egin zuten iraulitako ibilgailuaren kontra

“Eta gure tradizioa, zer?”, pentsatuko du batek baino gehiagok. “Ez ote dugu, bada, batez ere Iparraldean, tradizio ederrik eta idazle gogoangarririk?”. Badugu, jakina, eta nik neuk, behintzat, ez daukat ahazteko, baina alferrik ezkutatuko dugu tradizioan izaniko eten latza, bai ahozkoan eta bai idatzian. Tradizioa ez ezagutze horrek beti hutsetik hasten garelako irudipen etsigarria eragiten digu, gainera. Unibertsitateetik lanera etortzen diren bekadun gehienek huts berberak egiten dituzte urtero-urtero. Barkatuko didazue ironia, baina iduri luke atzo goizeko

kalko gordin horiek tradizio handiagoa dutela gaur egungo euskal unibertsitarioen artean, gure literatura guztiak eta ahozko transmisio naturalak baino. Hona hemen Villasantek *Euskararen auziaz* idatzi eta hamalau urte geroago Anjel Lertxundik zer esan zuen *Pedro Páramo*-ren euskarazko itzulpena aurkezteko egindako hitzaldian:

“(...) Euskal idazleok, gauza egunerokoentan eta arruntenetan behintzat, gure ordeztasutako lukeen hizkuntza bat nahi genuke. Horren premian gaude. Gehiegi pentsatu gabe, senez eta berez aterako litzaizkigukeen makulu estilistiko eginak behar ditugu esalditik esaldira. Ia dena gurekin hasten dela izaten dugun sentsazio hori baztertu behar genuke.

Ekonomia pixka bat ekarri beharrean gauden geure fraseologiaraz; anbiguotasun ez bilatuari egin beharreko borrokan; gaztelaniarazko herdoil burokratikoaren emaitza erreentetan inspiratu den euskal herdoil burokratikoari eraso! egiteko trantzean; ditugun baliabideei —puntuazioari, adibidez— etekin gehiago ateratzeko obligazioan.”

Gure ustez, helburuan azkona hala Villasantek nola Lertxundik: prosa guztiz osatu gabe dugu, baita eguneroko gauzarik arruntenak kontatzeko ere. Eta euskal prentsan askotan oztopatu gara harri horretan. Lertxundiri hala gertatzen bazaio, zer ez ote zaie gertatuko kazetaritza fakultatetik atera berri diren neska-mutilei!

Juan Garziak dioen bezala, “Hizkuntza bakoitza da, oso-osorik, esapide berezi bat”. Gurea, esapidea den aldetik, ahul dabil, batez ere gure auzo hizkuntzen aldean. Ezin ahaztu dugu euskal kazetariaren iturri gehien-gehienak erdarazkoak direla. Horra hor gure miseria askoren sorburuak: tradizioa erdi etnik daukagularik, zeri erreparatuko, zein hartuko jarraibidetzat, eta bi latin hizkun-

tza, gureaz guztiz bestelakoak. Erdarak imitatze horretan, bazter uzten dira egiazko jarraibideak: alde batetik, ahozko euskara, euskara bizia eta naturala, eta, bestetik, euskal idazle eredugarriak —eta idazle esaten dugunean, itzultzaileez ere ari gara, noski—.

Beraz, joskera eta fraseologia zaintzea eta lantzea dugu egitekorik behinena. Ortografian eta horrelako kontu xeheetan ezin dugu denbora alferrik galtzen segitu: ezinbestekoak izanagatik, munta gutxiko zertzeladak dira. Hitz ezinago ederrez adierazi zuen Joxerra Garziak *Egonean doazen geziak* liburuan:

«ORTOGRAFIA

Urliak ez zekien ortografiarik. Horregatik ez zen ausartzen idaztera.

Sandiak, berriz, lasai asko —lasai eta asko— idazten zuen, ortografia besterik ez bazekien ere.»

Ondo idaztea ez da gramatika arauak betetzea bakarrik; ez da ortografia zaintzea bakarrik, ezinbestekoa izanagatik. Euskara zuzena egitea ez da nahikoa; euskara ona egitea ere ez: biak batuz lortuko dugu euskara egokia, euskal irakurleak gozatzeko modukoa. Hoztu egingo duela adierazteko “eguraldiaren ezaugarri nagusietako bat hozberoaren jaitsiera” izango dela esaka bagabiltza, alferrik saiatuko gara irakurle gaixoa gureganatzen.

3.2. Kazetaritzako euskara, mugako hizkera

Mugako hizkera izaten da kazetaritzakoa: literatur kutsua, administrazioko hizkera eta ahozkoa nahasten dira kazetarien jardunean. Euskal prentsan, ordea, harroxko dabil politikarien sasi-hizkera hutsal handiustea —baita politika baino kontu *xehagoak* darabiltzagunean ere—, erdal administratziotik

datorren estilo gordin aberats ustekoa. Eta ahaztuxe dugu ahozko tradizioaren dotoretasuna —ez bedi nahas, arren, arrunkeriarekin eta txokokeriarekin—. Bistan dira horren ondorio ezinago kaltegarriak: nominalizatorako joera, esaldi puztuak, alfer-alferrik luzatuak, kalkoak, mezu ilunduak eta erdaraz jakin ezean ezin ulertu diren erreto-likak.

Gurea hizkuntza gutxitua denez, bere muga barrenetan ditu beste bi hizkuntza, zein baino zein indartsuagoa. Esan dugu lehen ere nolako kaltea egiten duen informazio iturri asko eta asko erdarazkoak izateak: informazioa biltzearekin konformatu ez, eta erdarazko estilo eta esamoldeak ekarri ditugu euskarara. Testuak ondo orraztea garrantzitsua da, jakina, baina joera hori iraultzea dugu zuzentzaileon egiteko printzipalena. Teletipoa itzultzea ezin da izan kazetariaren lana: teletipoan eta beste iturrietan informazioa bildurik, bere baitatik sortu behar du testua, beregain izanik, handik eta hemendik iritsi eta testuak itsusten dituzten interferentziak saihestuz.

3.3. Hiztegi kontuak

Ibon Sarasolak erabilitako hitza erabilia, esan dezakegu hitza *aje* sentitu dugula batzuetan. Zergatik? Bada, lehenik eta behin, lexiko aldetik-eta, euskararen batasuna eta txukuntasuna zaindu nahi izan ditugulako. Horregatik, beti saiatu izan gara hiztun gutzientzat, euskaldun gutzientzat balioko zuen bidea aukeratzen, Hegoaldeko izan zein Iparraldeko izan, auzo erdarek euskararen duten eraginaren gaintik. Beste biderik ez dagoelakoan gaude, euskarak bat bakarria iraungo badu.

Hori batzuetan ez da bide eroso, eta forma bitasunak ezin saihestuko ditugu beti-beti (*gasolina-ezantza* eta abar); gainera, bide artifizialtzat ere joko dute batzuek, garbizalekeriatzat beharbada. Atzera begiratu behar-ko genuke pittin bat: Gaur egun nork esango luke *irratia* idaztea ez zaiola naturala iruditzen? Noiz zabaldu zen, ordea, hitz hori *radioa* esaten zutenen artean? Ez aspaldi, bistan da. Garbizalekeriaren eta etengabe mailleguak hartzearen artean badago erdibide bat. Jar dezagun adibide bat. Orain dela gutxi istripu larria izan zuen kamioi batek Lizarran: *zisterna kamioi* horietakoa zen, edo *tanga kamioi*, edo *eduki-ontzi kamioi*. . . Azkenean, *erregaitarako kamioi* erabili genuen, gure us-tez edozein euskaldunek erraz ulertzeko moduko ordain naturala eta erdarazko ordainen menpeko ez dena.

Prentsan beste inon baino gehiago, ihes egin behar dugu sasi-kultismoetatik eta klixetopikoetatik: pedanteria kenduz gero, zer du *problematika*-k *arazo*-k ez duenik? Asper-tzeraino luza dezakegu horrelakoen zerrenda: *protagonistak*, *ekimenak* —zernahitarako erabiltzearen poderioz, esanahiz gabetua da hitz hori—, *kolektiboak*, *eszenatokiak*, *prozesuak*, *merkurioak gora egingo du bihar*. . . Eta zer esan eufemismoei buruz? Badakizue: *Halako fabrikak doitu egingo ditu giza baliabideak*. . . hau da, *hainbeste langile kaleratuko ditu*. . . Eta gero eta pobregoak diren herriei, *garapen bidean diren herri* deitzen diegu. . .

Eta lexiko kontuez ari garela, nahi gabe ere esapideen arloari heldu behar diogu. Izan ere, adibide bat jarrita, nola esango dugu euskaraz politikarien eta besteren berbajearen oraintsu arte hain modako ibili den *seguidismo* zorionekoa? Bada, euskarazko omen den hitz bakar batean adierazten tematzen baga-

ra, nahiko lan: *jarraizaletasun/keria* edo horrelako beste izugarrikeriaren bat? Mailegua bere gordinean hartuta, bestela? Belarriari eta euskara naturalari kasu handiagoa egitea da gure lana, erdaren morroi ibili gabe. Izan ere, *Urliak zer egin, huraxe egiten du Sandiak* ere idazten badugu, askoz ere samurragoa izango zaio irakurleari berri hori irakurtzea, inondik ere. Hau adibide xume bat besterik ez da, baina makina bat horrelako ageri da egunero egunkarietan.

Nahi gabe ere, hitzen eta lexikoaren hariari segika joskera eta fraseologiaren ehuna dugu berriro hizpide, eta ez da harriztekoa, hori baita testuetan gako nagusia.

4. Zuzentzeko irizpide nagusia

Zuzentzailea, beste ezeren gainetik, egunkariaren lehen irakurlea da; nolabait esateko, testuen probalekua. Alde horretatik, zuzentzaileak irakurlea izan behar dugu go-goan ororen gainetik, eta batez besteko irakurlearen larruan jarri behar du, bere lana beteko badu. *Batez besteko irakurlea* esan dugu, baina, jakina, ez dago egiaz horrelakorik; izan ere, euskal prentsaren irakurleek oso talde heterogeneoa osatzen dute: euskaldun osoak dira, eta alfabetatugabeak, eta euskara ikasten ari direnak, eta euskalki guztietakoak... Denentzako moduko egunkaria egitea ez da samurra, baina irizpide guztiak horren zerbitzuan jarri behar dira.

Irakurleena bezain heterogeneoa da egunkari batean idazten dutenen multzoa: kazetariak, iritzi artikulua idazten dituztenak, idazleak, gutunak idazten dituzten irakurleak... Alde horretatik, iritzi artikulua, esate baterako, askoz ere modu malguagoan zuzentzen dira etxe barruan sortu-

riko testuak baino: egilearen aukera estilistikoak errespetatu beharra baitago, nahiz eta bat ez etorri *Berria*-k bere buruari ezarririkokin.

Oro har, testuen alderdi guztiei erreparatzen diegu: ortografiari, ortotipografiari, gramatikari, joskerari (esaldi antolamendua, izen estiloa/aditz estiloa), koherentziari, kohesioari, fraseologiari, testutasunari... Baina hori guztia, bizkor-bizkor: batez beste, 15-20 bat minutu orriko. Eta askotan, hori ere ez. Horrek esan nahi du lehentasunak jarri beharra dagoela. Behin baino gehiagotan leporatu izan zaio euskal prentsari asko saiatzen dela xuxena izaten; esaterako, *partida* erabili bai, baina kalko gordina den esaldi batean txertaturik. Bat gatoz kritika horrekin, eta autokritika ere bada, gu jabetuak baikara arazo horretaz. Testu bat zuzentzeko denbora gutxi duzunean, arrisku larria da hori. Lanaren antolamendua aldatu beste biderik ez dago.

5. Lanaren antolamendua

Zuzentzaile taldearen helburuetako bat testu guztiak goitik behera gainbegiratzea da, produktuaren txukuntasuna segurtatzeko, baina *Berria*-k gero eta orrialde gehiago ditu, eta bestelako produktuak ere etengabe ugartzen ari dira: gehigarriak, urtekariak, gida komertziala... Horregatik, gutxitan bete ahal izan dugu helburu hori. Lehenik, ezinezkoa da orrialdeak gehitzen diren heinean berean handitzea zuzentzaile taldea; bigarrenik, munduko zuzentzaile guztiak orrien zain edukiagatik, ezinezkoa da orri guztiak zuzentzea, batzuetan ez dagoelako denborarik batera —halaxe gertatzen da, esate baterako, Osasunak partida gaueko bederatzietan ha-

sita jokatu badu—; eta, hirugarrenik, eskarmentuak erakutsi digu horrek ezer gutxitarako balio duela: gehienez ere, ezinak nola edo hala moztortzen ditu, eta ez da gutxi, irakurleari produktu duina emateko balio duen heinean, baina sekula ez dakar egiazko aurrerapenik, hau da, beti-beti huts berberak zuzentzera kondentatzen gaitu.

Gurpil zoro horretatik onik aterako bagara, premiazkoa da, testuak orrazteaz gain, kazetariekin zuzenean lan egitea, trebatzeko eta idazkuntzaren alderdi guztiak lantzeko. Beraz, esan dezakegu bi zuzenketa modu egiten dituela gaur egun *Berria*-ko euskara taldeak: batetik, testu zuzenketa normala —hau da, kazetariak albistea idatzi, eta zuzentzaileen esku uzten du, orraztu dezaten—; eta, bestetik, idatzi aurreko zuzenketa —zoritxarrez boladan dabilen moldean esateko, *zuzenketa prebentiboa: gerratik* ere badu, eta ez gutxi-gutxi ere, ez baita batere samurra kazetarietako harturiko aje mota guztietakoak bazterraraztea, eta *zehar kalteak* ere badakartza, argitaratu aurreko kontrola ahuldu egiten baita—.

Bi zuzenketa modu horiek batean erabiltuta, luzera begira emaitza hobekak lortzen dira: *zuzenketa prebentiboari* esker, kazetarietako txukunago idazteko bidea jartzen da eta, beraz, testu zuzenketa ohikoa arindu egiten da. Gainera, estutu egiten da kazetarien eta zuzentzaileen arteko elkarlana, eta horrek modua ematen digu zuzentzaileoi hizkuntz aholkulari jarduteko, askoz ere modu abe-


rasgarriagoan. Luzera begirako lana da, ondo planifikaturik egin beharrekoa, baina fruitu sendoagoak ematen ditu.

Paperezko prentsari buruz aritu gara orain arte, baina ezin ahaztu digu kazetaritza digitala, Interneteko prentsa. Komunikazio euskarri bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta lantzeko dugu Interneterako hizkera eta tes-tugintza; bide horretan ari gara, *Berria* digitala internauten nahietara egokitzeko.

Alor guztietan segituko dugu lanean, irakurleak lanik hartu gabe euskal prentsa irakur dezan. Hutsuneak eta arazoak aipatu ditugu orain arte, baina, horiek guztiak gorabehera, urte gutxian sekulako bidea egin dugulakoan gaude. Bukatzeko, barkatuko didazue *Euskaldunon Egunkaria*-ri omenaldi txiki bat egiten badiot, Ibon Sarasolak *Egunkaria Endavant*-en idatzirikoa gogora ekarriz:

“(…) EGUNKARIA no era un mitjà de comunicació més. I no em refereixo pas al fet que era l'únic diari en llengua basca. Em refereixo al model de llengua que ha potenciat. Entre nosaltres no hi ha hagut cap més mitjà que fes una reflexió tan explícita sobre la importància del model de llengua que cal fer servir en un mitjà de comunicació.

(…) EUSKALDUNON EGUNKARIA des d'un bon començament va fer una aposta per un model de llengua coherent, digne, que no acceptava perquè sí un calc servil del castellà. I aquesta aposta va ser tan teòrica —el seu magnífic *Llibre d'estil*— com pràctica —l'exemple quotidià de la utilització d'aquest model de llengua.”



Zuzenketa literarioaz

XABIER MENDIGUREN ELIZEGI

1. Testuen kalitatea argitaletxe batean

Argitaletxe baten egitekoa testuak plazaratzea da, eta testu horien kalitateak epaitzen du argitaletxearen lana. Beraz, testua zaintzea eta behar bezala aurkeztea, gure kasuan, ez da apaingarri huts edo borondate oneko keinu: testuaren kalitatea gure bisita-txartela da, gure mailaren bermea, baita gure harrotasuna eta izateko funtsa ere.

Testu-kalitate horretan, esan beharrik ere ez dago, ezinbesteko urratsa da zuzenketa. Zehatzago esanda, azken pausoa da; azkena den aldetik, beharbada ez inportanteena, askoz probetxuzkoagoa izango baita testu-sortzaile itxurazkoak izatea munduko zuzentzaile onena baino; alabaina, hortxe dugu gauzak txukuntzeko azken aukera, hortik aurrera alferrik izango da damua, eta horregatik da berealdikoa zuzenketa garrantzia.

Argitaletxeetan badira etxe barruan egiten diren lanak eta kanpora ateratzen direnak, eta ez dago alde aurretik esaterik zein non egin behar den. Administrazioa, fotokonposizioa, ilustrazioa, zuzenketa... Enpresa edo talde bakoitzaren erabakia da

barruko antolamendua, norik bere neurriaren, gaitasunen eta zaletasunen arabera, baina guri hemen dagokigun arloaz esan nahi nuke oso kontuz ibili behar dela zuzenketa-rekin, ezin dela nolana eta noranahi atera.

Gurean, salbuespenak salbuespen, zuzenketa gehienak etxean bertan egiten saiatzen gara, etxekook hartzen dugu ardura hori geure gain eta geu bihurtzen gara, horrenbestez, testu horien kalitatearen erantzule eta bermatzaile.

2. Testuen jatorria: enkarguzkoak eta berez iritsitakoak

Argitaletxeetan testuak plazaratu eta argitaratu bai, baina gehienetan ez ditugu geuk sortzen. Neurri handi batean, kaleratzen dugun masa idatzia argitaletxetik kanpo sortu ohi da, eta jatorriaren aldetik bitan sailka ditzakegu testu horiek: enkarguz datozenak, eta eskatu gabe iristen direnak. Enkarguzkoak izan ohi dira, adibidez, ikasliburuak (nekez bururatuko zaio inori laugarren mailako matematikako liburu bat bere kasa asmatzea), baita itzulpenik gehienak ere. Berez iritsiak

izan ohi dira, berriz, literatur sorkuntzazko lanak: ipuin-bilduma nahiz eleberriak, poesia zein saiakerak.

Berez iritsitako lan horiekin, argitaletxeak aukera dauka beti onartzeko edo atzera botatzeko. Erabaki horretan mila faktore nahastu dira: lanaren interesa, originaltasuna, nortasuna, haria, hizkuntzaren ederra, zuzena, grazia... dena dela, gaurko jardunetik kanpo geratzen da gai hori. Gauza batean loturik doaz hala ere: hizkuntza kaxkarra duten lanak atzera bota ohi dira sarritan, akats horregatixe; bestelako kontuengatik onartuz gero, berriz, hamaika lan izaten dira gero, berez herren etorri dena zuzentzen.

Enkarguzkoak, normalean, atera egin behar izaten ditu argitaletxeak, horretarako konpromisoa hartzen baitu lan bat inori eskatzean. Berez ez luke hala behar baina maiz gertatzen da ustez txukun etorri behar zuen lana kaxkar samarra izatea; burua makurtu eta hurrengorako kontuak atera beste erremediorik ez du izaten halakoetan argitaletxeak, non eta delako testua ez den zeharo eta guztiz aldrebesa, halakoak ere izaten baitira aldian behin.

3. Editorearen lana

Argitaletxeaz ari naiz etengabe. Dena dela, beharbada ez da lekuz kanpo egongo terminologiazko bereizketa bat egitea. Ingelesez *publisher / editor* hitz pareta argi bereizten dute. *Publisher* litzateke negozioaren ardura-duna, nolabait esanda, eta *editor*, berriz, lan zehatz bat txukuntzeko ardura hartzen duena. Gure artean nahasian erabili ohi dira editore eta argitaratzaile nahiz argitaldари hitzak. Hala ere, artikulua honetan editore

berba erabiliko dut aurrerantzean, honen lanaz jardungo baitut hemendik aurrera.

Zer egiten du editoreak? Testu bat —dela aurrez eskatua, dela berez etorria— onartuz gero, testu berori hobetzen saiatu beharko du. Labaina izan liteke hobetze kontu hori, hobe beharrez makina bat lardaskeria egin liteke eta, baina printzipioz pentsa dezagun bada-kigula zertan ari garen eta ondo samar egiten dugula geure lana.

Testuaren hobetze hori maila askotan egin daiteke, mugagabeak baitira bai testuak sor ditzakeen arazo-motak bai editorearen esku luzeak ukitzen ahal dituen alorrak: edukia, haria, ulergarritasuna, egokitasuna, estiloa, jatorritasuna, gramatika, ortografia, ortotipografia... Azken hirurak (beharbada azken laurak) dira espresuki zuzenketaren egitekotzat jo ohi direnak, baina etenik gabeko *continuum* bat dago, nire ustez, idazlanaren marmitik hasi eta komen ondoko espazioraino.

Editoreak, zuzenketa-lanak antolatzean, dena bere gain har dezake, edo bi maila bereizi eta pertsona diferenteen esku utzi: batetik hartuko ditu testuaren eduki eta funtsari dagozkionak (editore deitu ohi zaionak, eskuarki), eta besteak hizkuntzarekin lotuak.

Lanen banaketa hori egiten denean ez da arraroa zuzentze linguistikoa haur enpresatik kanpora ateratzea. Baina, kanpora aterata ere, azken orraztu bat argitaletxean bertan egitea komeni da, nik uste. Gure produktu diren liburuen kalitatea zaindu eta ziurtatu nahi badugu, geuk kontrolatu beharko dugu ahal den estuen, bestela hitz hutsala bihurtzen da kalitate-kontrola.

Gainera, ezin dugu ahaztu azpikontratazioaren arriskua. Orain arte esandako guztiarekin argi geratuko zen zein inportantea

eta kontuz ibiltzekoa den zuzenketa-lana. Pertsona fidagarri bat behar izaten da horretarako. Eta pertsona diot, ez enpresa. Lagun batek ederki egiten duena ondoan dagoenak erdipurdi egingo baitu, teorian biek kalifikazio bera izan arren. Gaurko egunean, berriz, denok dakigu lana txukun egiten duenak gainezka izaten dituela maiz eskariak, eta pilaketa horregatik normala ere bada lanaren zati bat beste baten esku uztea.

4. Ikasliburuen berezitasun batzuk

Ikasliburuen berezitasun handienetakoa da edukiak guztiz baldintzaturik daudela: legezko irizpideak daude, pedagogikoak eta bestelakoak. Kontu gehienak aldez aurretik eztabaidatuak eta erabakiak daude eta, beraz, editoreak ezin du mamian muturra sartu.

Editoretza normalaz gainera, material hauen beste ezaugarri bat irudien ugaria da: argazki, marrazki, mapa, grafiko eta abar sartu behar izaten da, eta horrek sarritan testua aldatu beharra dakar, ezinbestean: laburregi geratu delako, edo luzeegi, edo irudiarekin desegoki.

Eskolako liburugintzaren bereizgarrietan, eta zuzenketaz ari garen neurrian, ezin aipatu gabe utzi EIMA (jardunaldi hauetan hitzaldi oso bat eskaini zaionez ez dut azalduko zer den eta nola jarduten duen). EIMAREN zuzentze-lanak ez du ordezkatu behar argitaletxearena, honek liburuak txukun aurkezteko erantzukizuna baitu. Hala ere, gure kasuan bederen, egia da aldi behin, presaren presaz gabiltzala-eta, azken orrazketa egin aurretik bidali izan ditugula testuak EIMAREN kontrolera, eta EIMAK berea egiten zuen

bitartean egin dugula guk geurea. EIMAKO hizkuntz teknikarien lanarekin eta irizpideekin, berriz, pozik gaude, zorrotasun-beharrak baitago arlo honetan, nahiz eta egia izan, halaber, moda kontuek ere eragin handitxoa daukatela.

5. Literatur testu baten zuzenketa

(Adibide praktikoa izenik gabeko bat landu zen hitzaldian, baina ez da oso gisakoa idazle baten lanaren zuzenketa jendaurrean erakutsi eta inprimaturik uztea. Aski bedi ondorio nagusia ateratzea: zuzentasun gramatikaren eta edukiaren artean eremu luze eta jori bat zabaltzen da: estiloarena, eta ez da batere erraza egin beharreko zuzenketak zedarritzea edo sistematizatzea, literatur testuaren mila ñabardura hartu behar baitira aintzat).

6. Egile/editore harremana

Literatur obrari dagokionez, egilearen lagun onena bihurtu behar du editoreak. Hau da: eztabaidatu egin dezakete askotan, kontra egingo dio batzuetan, errieta ere bai inoiz, baina editorearen interesik handiena testua ahalik eta onena izatea da, eta, alde horretatik, egilearen aliatu minena da. Testua argitaratu aurreko zuzenketen eta aldatuen historia, berriz, aitortzako sekretu antzeko bat da, bien artean geratzen dena. Egileak xehetasunik kontatu nahi badu, libre du; editoreak ez.

Esan beharrik ez dago, bestalde, editoreak egiten dituen aldaketetan idazlearen adostasuna behar duela; hala ere, horrek ez du esan nahi koma bat jartzen duen aldiko galdetu

behar dionik. Zehatzago esanda: idazleen arabera, batzuek milimetroraino kontrolatu nahi izaten dute testua, eta beste batzuek konfiantza zabala eskaintzen diote editoreari, bere ustez aldatu beharrekoa lasai alda dezan. Batzuekin eta besteekin desberdin jokatu behar da: itsuskeria litzateke lehenengo motakoei ezer esan gabe zerbait ukitzea, eta gogaikarria litzateke bigarren motakoei zirtzilkeria bakoitzaz galdezka joatea.

Beraz, tipologia zabal hori kontuan hartuta, batzuek eginda adieraziko dut zer kontsultatzen den eta zer ez. Lehen azaldu dudana *continuum* hura hona ekarrita, zenbat eta edukiari lotuago egon kontu bat, orduan eta beharrezkoagoa da egilearekin hitz egitea. Ezin da inoiz aldatu mamiari, egiturari, pertsonaiei edo mezuari dagokien ezer idazlearen baimenik gabe; beste muturrean, ortotipografiako kontuak bete beharreko kontentziaz jotzen ditugu eta ez ditugu inoiz kontsultatzen. Tartean geratzen dira estiloa, jatortasuna, gramatika eta ortografia. Horietan idazlearen ezaugarrien eta zuzenketarako daukan gogoaren arabera erabakiko dugu zer kontsultatu eta zer ez, kontuan har-

turik betiere azken hitza idazlearena dela, eta hark eman behar diola oniritzia inprimategira bidaliko den testuari.

Literaturazko testu inportanteak aldatzeko modua du beraz editoreak. Horrek ahaltzu sentiaraz dezake, beharbada, baina apal jokatu beharra dauka, beti. Irizpide propioak eta nortasuna behar ditu, idazle onenari ere aholku emateko, baina gogoan izanik sortzailea dela protagonista bakarra, eta editoreak itzalean geratu behar duela. Bere lanak harrotasuna sortzen badio, barrurako gorde dezala, eta ez dezala inoiz harrokeria bihur.

Horrenbestez, nire ikuspegian bederen, eginkizun artistikoa ez dakit baina artisauarena behintzat bada editorearena; alde horretatik, oso zaila automatizatzeke, eta ezinezkoa makinek ordezkatzeko. Hala ere, horrek ez du esan nahi ikasi ezin denik. Aitzitik, jakintza sozializatzea komeni dela uste dut nik, eta testuen hobekuntza auzolanean ari garela lortzen, hainbat jenderen lanari esker: tresna informatikoak garatzen dabil-tzanak, hiztegiak, bestelako foroetan dihardutenak... Izan daitezela jardunaldi hauek ere auzolan horretan lagun.

EHUko zuzenketak: mailak eta motak

IÑAKI UGARTEBURU GASTAÑARES

Sarrera

Zuzenketa-lana ez da gaurko zeregin edo ardura berria; aitzitik, aspalditik ageri da idazte-lanari lotua, baina are gehiago, argitalpenari eta itzulpenari.

“El carro Phebeo despues de auer dado mill y quinientas bueltas en rueda: ambos entonces los hijos de Leda a Phebo en su casa tienen posentado: quando este muy dulce: y breue tratado despues de reuisto y bien corregido con gran vigilancia: puntado y leydo fue en Toledo impresso & acabado”.

“Alonso de Proaza: corrector dela impresion al lector” [La Celestina]

Hiztun arruntaren intuizioak harrigarri deritzo maiz zuzenketa-lanari. Izan ere, edonork pentsatuko du aski dela ongi idaztea, zuzendu beharrik ez izateko. Baina idazte-lana bere osotasunean ezagutzen duenak ongi daki ezinbestekoa dela zuzenketa-lana ere, zenbait egoera eta eragile gogoan hartuta. Alde baterik, ez da harrigarria idazleak era askotako hutsak egitea (ortografian, konbenzio grafikoetan edo usadio eta erabilera es-

tandarretan), baita jardutezko hutsak egitea ere (tekleatze orduan gertatuak, adibidez). Horiek guztiak zuzentzeko baziren lehen ere katalogo edo eredu-zerrenda. Baina huts eta errakuntzez gain, idazleak sortu duena moldatu egin behar izaten da, irakurlearen beharretara egokitzeko (ikertzaile baten zabal-kunde lana, esate baterako, adin edo berezitasun jakin batzuk dituen irakurleari zuzendua egotea komeni da), lan horren edo esparru bateko argitalpenen koherentzia eta estilo bateratasuna gordetzeko, eta abar.

Gainera, euskarazko lanetan arreta handia jarri behar da zuzenketa-lanetan beste zenbait arrazoiengatik. Argitaratze lanetan maiz izango ditugu batere euskararik ez dakiten arduradun eta langileak (lerro-jauzien arteko silaba-banaketa bera ere zaila da kontrolatzen, maiz eta sarri) eta, ondorioz, azken muturreraino eraman beharko dugu gainbegiratze lana. Bestalde, euskarazko argitalpenen merkatuaren berezitasunak ere kontuan hartu behar ditugu; izan ere, arlo batzuetan (oinarrizko irakaskuntza, unibertsitatea, administrazioa) ohi baino ugariagoa

da itzulpena eta, jakina, halakoetan ugari dira hutsak eta errakuntzak, testuen berezitasunagatik, itzulpen lanak dakarren hizkuntza kodetze eta deskodetze prozesuen konplexutasunagatik, eta abar; hau da, idazle onak ez ezik, itzultzaile onak eta itzulpenak zuzentzeko prestatuak egongo diren zuzentzaile trebeak beharko ditugu egoera horretan. Kontu hori ere, ez da euskarari bakarrik dagokion arazoa, egoera horretan dauden hizkuntza eta egoera soziolinguistiko guztiena baidzik.

“...procure que estos tratadicos Españoles, se imprimiessen con nuestros nuevos caracteres. Pero siendo la primera prucua que hazemos en esta lengua, no nos fue possible vsar de tanta diligencia, que el author no hallasse muchas faltas, asi en la orthografia, conjunction de letras, y separation de partes: como en la permutation de vocales. En los quales yerros suelen facilmente caer los que componen y corrigen libros en lenguas que no les son tan familiares, como la suya materna.


Reglas gramaticales. Antonio del Corro (1586)

Baina, agian, euskararen egoera bera dugu arazorik larriena. Izan ere, egilea edo itzultzailea ez ezik, irakurlea hartu behar dugu etengabe gogoan: euskararen egoera diglosiakoan inoiz eta inon baino premia handiagokoa gertatzen da testu egokia osatzea. Hau da, testu zuzena behar dugu, baina baita testu ulergarria ere, edo, beste era batera esanda, euskal hiztun edo erabiltzaile estandarren intuizio linguistikoarekin bat datorren testua osatu behar dugu. Eta, ziur aski, testu egokien beharra orduan eta handiagoa izango da, zenbat eta gaia edo gaia jorratzeko modua ezohikoagoa izan, edo erregistro neutro arruntetik urrunagokoa. Testu tekniko espe-

zializatuak edo euskarri informatiko eta ikus-entzunezkoetara egokituak dira maiz lan handiena emango digutenak.

Hizkuntzaren inguruko arauak

Zuzentzailearen lehen zeregina hutsak zuzentzea da. Nahiz eta zuzentzaileak huts formalak eta hizkuntzaz kanpokoak ere zuzendu behar dituen, hizkuntzari dagokionaz arduratuko gara hemen batez ere. Baina, zer zuzendu behar du delako zuzentzaile horrek? Zuzentzeak epaitzea dakar lehenbizi, zer den zuzena eta zer den okerra bereiztea, edo zer den egokia eta zer den desegokia bereiztea, alegia. Eta horretarako neurketa moduko bat egingo dugu, testuaren kalitatea neurtuko dugu: beti egongo dira hutsak, baina onargarritasun maila jakin bat jarriko dugu, hutsen zenbatekoaren eta nolakotasunaren arabera. Zuzentze lanari ez ezik, itzulpenari, itzulpen automatikoaren errentagarritasunari edo testu batzuetan erabili beharreko zuzenketa modu edo prozedurari ere badagokio onargarritasunaren kontzeptua. Nekez onartuko dugu itzulpen automatikoa, baldin eta sortu den testua zuzentzeak dakarren kostua (gastua, azken batean) itzulpen lanaren kostura hurbiltzen bada; eta nekez onartuko dugu zuzenketa-lana zuzentzaile bakar baten esku uztea, urrats horren ondoren, beste zuzenketa bati ekin beharrean baldin bagaude. Hori dela eta, bat baino gehiagok pentsa dezake Xuxen eta haren antzeko zuzentzaile ortografikoekin konpon daitekeela arazoa, zuzenketaren lanik astunena zuzenketa formal grafiko eta ortografikoa delakoan (gaur egun beti dugu halako lanak automatizatzeke joera, kostuak murriztu eta denbora irabazteke). Eta alde batetik aitortu beharra dago



maria

orain arte baino diziplina handiagoa lortu behar harko genukela, idazle eta testu sortzaileek zuzenketa ortografikoaren alderdirik oinarrikoena zuzentzaile ortografikoaren bidez beti egin dezaten (dena den, ezinbestekoa litza-teke horretarako orain arte behar bezala bideratu ez den prestakuntza lana, hezkuntza sisteman bertan hasita: zuzentzaile ortografikoa zer den, nola erabili behar den, zertarako balio duen eta zertarako ez duen balio, zalantzazko kasuetan nola jokatu behar den edo tresnaren fidagarritasuna zenbaterainokoa den). Baina bestetik, argi adierazi behar dugu ez dela zuzenketa grafiko formala gaurko euskarazko testuetan lanik handiena ematen diguna. Izan ere, duela urte batzuk baino askoz zabalagoa den euskarazko testuen merkatuan ezin esan daiteke testu sortzaile guztien hizkuntza-gaitasuna (erabilerarik egokiena ezagutzeko eta hautatzeko gaitasuna) behar bezalakoa denik: maiz ditugu zalantzak, zuzentasunaren nahiz egokitasunaren ingurukoak eta ez da beti erraz esaten zein den testu zuzenaren edo testu egokiaren erudia.

Aipatu berri dugun onargarritasuna arauri lotua dago lehenbizi, baina ikuspuntu praktikoa batetik ongi bereiztea komeni da hiru arau edo esparru: arau akademikoa, ereduak eta hizkuntza araua. Hiru arau horien artean akademikoa da errazena aplikatzen edo zuzentzen: ortografia, euskara estandarri dagozkion aditz edo deklinabide paradigmatak formak, euskara baturako egin den euskalkien arteko hautua, eta abar. Gaur egun ez da hori guztia lan handia, zuzentzaile ortografiko eta antzeko tresnez gain (hiztegi aplikatuak, itzulpen memoriak), estandarri dagozkion azken arauak ere eguneroko azter eta irakur baitaitezke Interneti es-

ker. Baina, jakina, euskara dagoen egoeran maiz hartu behar dira erabakiak, arautu gabe dauden egitura eta erabileren inguruan (Hiztegi Batuak oraindik erabaki ez dituen hitzak hiztegi orokorreko, esate baterako, hiztegi espezializatuak hitz edo esapideak, baita beste erabaki arbitrario batzuk ere: ortotipografia, eta abar). Eta erabaki horiek hartzeko orduan ezinbestekoa da ereduren bat gogoan hartzea; horretarako, beste hizkuntza arauekin jokatu den bezala jokatzeko komeni da: nagusiki, erabilerari begiratu behar zaio, nahiz eta badakigun ereduak erabilerari non den zehazteko orduan, nahitaezkoa dela erabilerari horren deskribapen egokia.

Edonola ere, euskaraz idazteaz ari garela, ezinbestekoa dugu hizkuntza araua kontuan hartzea. Hau da, euskararen eta, batez ere, euskaldunen egoera soziolinguistikoaren ondorioz, maiz izan ohi du idazleak edo zuzentzaileak zalantza. Egoera idealean bat datoz hizkuntza araua, erabilerari eta hizkuntza egokien deskribapena (gramatikaren formalizazioa), baina hiztun komunitatea halako edo bestelako gaitasuna duten hiztunek osatzen dutenean, eta hiztun horietako askok inguruko hizkuntza batean dutenean hizkuntza gaitasunik sendoena, ez da harritzekoa maiz zalantza eta eztabaida sortzea idazle, itzul-tzaile edo zuzentzaileen artean.

La pérdida de la conciencia, por parte de los más puristas, del carácter de incorrección que aqueja a un giro sintáctico o una palabra, es un factor que contribuye a que se tomen por correctos usos que, desde el purismo estricto, se considerarían como incorrectos.

Emilio Lorenzo.
"El español en la encrucijada" (Espasa, 1999)

Baina araua eta erabilera ez daude kontrajarriak, bat datoz eta sistema osatzen dute. Izan ere, araua bera konbentzio soziala da eta hizkuntza gaitasunean (intuizio linguistikoan) du oinarri. Hizkuntza gertaeren deskribapen eta azalpenerako, erabilera deskribatu behar da, bai lexikoarena (hiztegia) bai morfosintaxiarena (gramatika). Eta deskribapen horren aplikazioetako bat izango da erabilera zuzena eta okerra bereiztea. Horretarako, erabilera onargarriak eta ez-onargarriak bereizteko, zenbait irizpide erabili ohi ditugu:

- a) irizpide linguistikoak
 - kontzeptuarekiko egokitasuna (tasun semantikoak)
 - egokitasun fonetiko eta ortotipografikoak (tasun formalak)
 - egokitasun morfosintaktikoa (tasun morfosintaktikoak)
 - beste batzuk (etimologia, eufonia, ekonomia...)
- b) irizpide ez-linguistikoak
 - maiztasuna (edo erabilera)
 - beharra (neologia)
 - erabilgarritasuna eta ezargarritasuna
 - beste batzuk (ohitura, gizarte egoera eta ikusmoldea, prestigioa)

Hau da, zuzen eta egokiak izango dira kontzeptura egokitzen diren erabilerak, idazkera egokia dutenak (euskara estandarrenak, esate baterako, testua euskara estandarrean idazten ari bagara, edo testu horren jasotzaile eta inguruari idazkera estandarra egokitzen zaiola uste badugu), eta abar. Aldi berean, onargarriagoak izango dira ohiko erabilerara egokitzen diren formak, behar jakin bati erantzuten diotenak edo erabilgarri gertatzen direnak (forma berriez ari bagara).

Gaur egun, hiztun eta idazle gehienek onartzen dugun akademiaren araua ere konbentzioa da, baina beste era batekoa: konbentzio arbitrarioa da, erabakiak hartzeko eskumena onartzen zaion giza talde batek erabakia. Arau hori hitzarmenean oinarritua dago eta ez da, nahitaez, linguistikoki motibatua. Baina, bestalde, ez da nahierara ezarria, aitzitik oinarri sendoa du, hizkuntza egitasmo zabal baten barruan.

Erraz aurki daitezke aipatu berri ditugun kontu horiek aztertzeo adibideak ohiko testuetan. Gaur egun, intuizioak intuizio eta erabilerak erabilera, Euskaltzaindiak arautua du "merezi" aditzaren erregimena eta erraz ekingo dio zuzentzaileak *"Merezi zuen biltzar hartara joateak" eta antzeko esaldiak zuzentzeari (arauak hala agintzen duelako, nahiz eta, berez, hizkuntza araua den zuzenketa-aren oinarria, ez erabilera estandarreko akademi arau arbitrarioa). Beste horrenbeste gertatzen da erdal kutsuzko kalko nabarmenekin (Hiztegi Batuak halakoen aipamen espliziturik egin ez arren): *"*Gai desberdinak* ikasiko ditugu ikastaro honetan", *"*Arazoa* ongi *ikastea* komeni da, erabakia hartu aurretik". Baina beste batzuetan zailago gertatzen da aldaketa diakronikoaren eraginpeko formen artean bereizi eta mugak jartzea ("Eskolak erakusten / Eskolak ematen / *Klaseak ematen"), erabilera dialektal eta estandarren onargarritasun mugak zehazten ("Ez dakit etorriko bada"), aski aztertu gabeko formen erabilera-mugak ongi zehazten ("Mendira bihar joango gara, eguzkia egitekotan"), eta abar.

Horrela, ez dirudi honako esaldi hauek egokiak direnik:

"Ikaskuntzaren testuinguru berria ezaugarritu eta bereizten duen zerbait ..."

[Ikaskuntza-testuinguru berriaren ezaugarri eta bereizgarri...]

“Sare gizartearen ikaskuntza testuinguru berri honetan...”

[Sare-gizartearen ikaskuntza-testuinguru berri honetan...]

Gainera, zail da testuinguru berezietako erabilerak ongi aztertzen eta erabakitzen: esate baterako, egiteko dago oraindik *behar [du]* aditza ergatiborik gabe erabili ohi den testuinguruen deskribapen zehatza.

“Gatazka gaintitzea izan behar du bigarren trantsizioaren helburua”. (Berria egunkaria, 2004-03-31, 9. or.)

“Gauzak izendatzea oso garrantzitsua da, baina izen horien oinarriak agertzea ere ezinbestekoa dela jakitun, Azpeitikoak Urrestillari lilura kentzen saiatu ziren, eta hortik sortua izan behar du izenaren beste argibidea: herriaren erdian bi erreka batzen direla ikusirik, Urrestilla ur-istila adierazten duen izena dela”. (*Urregilearen orduak*; Pako Aristi; Erein, 1998).

“Errito bat izan behar du hilgaiari tabakoa eskaintzea. (*Nik ere germinal egin gura nuen aldarri*; Koldo Izagirre; Elkar, 1998)”.

“—Tira, Miss Flynn, nolana ere kontsolamendu handia izan behar du zuentzat ahalegin guztiak egin dizkiozuela jakitea”. (*Dublandarrak*; J. Joyce; Irene Aldasoro itz.; Alberdania, 1999).

“Gogorra izan behar du gero Vesubioren magalean bizitzea, jakinik luraren erraiak noiznahi den kolera daitezkeela eta lehert...” (*Lur bat haratago*; Joan Mari Irigoien; Elkar, 2000).

Eta zail gertatuko zaio zuzentzaileari, besteak beste, akademiak erabaki gabeko alderdi formalen inguruko erabakiak hartzea eta haietan koherente agertzea. Nola idatz daiteke, esate baterako, “diru(-)laguntza” hitz elkartua? Pentsa daiteke, Euskaltzaindiaren gomendio eta erabakien arabera, banatuta edo

marrarekin idatzi behar dugula, baina lexicizatutzat hartuz gero, lotuta ere idatz genezake. Hain zuzen ere, erabileraz aztertu besterik ez dugu, erabiltzaileek zalantza egiten dutela ikusteko (idazle batek berak bi edo hiru eratarata ere idatzi ohi du):

ITXARO BORDA [dirulaguntza, diru-laguntza]; XABIER MENDIGUREN ELIZEGI [dirulaguntza]; PELLO SALABURU [dirulaguntza, diru laguntza]; IBAN ZALDUA [dirulaguntza]; XABIER MONTOIA [dirulaguntza]; JON ALONSO [dirulaguntza]; JAVI CILLERO [dirulaguntza]; JOSE MORALES [diru-laguntza]; JOXEMARI URTEAGA [diru-laguntza]; ANITON OLANO [dirulaguntza]; JON ARRETXE [dirulaguntza]; GOTZON GARATE [diru laguntza]; UNAI ELORRIAGA [diru-laguntza, diru laguntza]; JANBATTITT DIRASSAR [diru-laguntza]; PAKO ARISTI [diru laguntza]; JOXE AUSTIN ARRIETA [diru-laguntza]; erakundeak INTERNETen (Euskadi.net, Bizkaia.net, Alava.net, Hezkuntza.net, Gipuzkoa.net, Eusko Ikaskuntza...) [diru laguntza, diru-laguntza, dirulaguntza]; egunkari-astekariak (Berria, Argia) [dirulaguntza, diru laguntza, diru-laguntza].

Lexikoari dagokionez, bi dira arazo-iturri nagusiak. Alde batetik euskara batu estandarren finkatzea eta estandarizatzea. Neurririk handienez Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuak betetzen du esparru hori, baina badirudi euskal letren merkatua hiztegi estandarra baino arinago doala eta nekez aurki daitezkeela Hiztegi Batuan (bigarren itzulia ia hasi berri den honetan) egunetik egunera sortzen diren zalantzei erantzuteko moduko argibideak. Edonola ere, aitortu behar dugu Hiztegi Batuak primeran erantzuten diola merkatuari, metodologiari, helburuari eta produktuaren ekoizpenari dagokionez; izan ere, Hiztegi Batuaren ezaugarri nagusien ze-

rrenda laburra osatzen badugu, erraz ikusiko dugu euskararen inguruko hizkuntzen hiztegi akademikoek ez bezalako eredia aurkezten duela. Hona ezaugarri horiek:

- Akademiaren hiztegia da. Hau da, gizarteak, oro har, onartzen duen eskumena baliatuz akademiak eredutzat sortzen duen hiztegia; ondorioz esango dugu, salbuespenak salbuespen, hiztunek gogo onez onartzen dutela hiztegi horren epaia.
- Hitzen forma batuak erabakitzen eta biltzen dituen hiztegia da. Hain zuzen ere hori izan da urte askoan euskara estandarra erabili nahi zuten idazle, itzultzaile eta zuzentzailek behar zuten tresna edo eredia. Arazoa, jakina, bestelakoa dugu: erabaki beharra dago noiz eta non erabili behar den euskara estandarra eta noiz eta non aldaerak, erabaki beharra dago (literaturan, esate baterako) noiz eta nola hautsi daitezkeen arauak era koherentean, hizkuntza eralda eta eredu berri adierazkorak sortzeko, eta abar.
- Hiztegi Batua arau-emailea da, eta izaera horren ondorioz erabili ohi diren markek (*b.*, *e.*) buruhauste ugari sortuko diote zuzentzaileari, marka horien balioa (testuinguruaren arabera) eztabaidagai gertatzen baita maiz.
- Hiztegi Batua oinarritzakoa da, eta orain biltzen dituen 20.000 hitz inguru horretatik 40.000ra iritsita ere, laburra izango da idazle edo zuzentzailearentzat. Hain zuzen ere, zuzentzaileak arakatu beharko du hiztegia eta inplizituki adierazten diren irizpide orokorak formalizatu eta aplikatu.
- Oro har, hitzen ezaugarri formalak biltzen ditu Hiztegi Batuak. Baina, nahiz eta batzuetan bestelako tasun edo ezaugarriak ere adierazten dituen, beste horiek dira (semantikoak eta sintaktikoak) euskarazko testuetan erabakitzen zailenak.
- Hiztegi estandarrek ez du definiziorik ematen: taxonomiako izen zientifikoak dira landare edo animalien izaera zehatzaren berri ematen diguten elementu metalinguistiko bakarrak (*Quercus coccifera*)
- Maiz erabiltzen dira euskalki eta soziolekto markak (Heg), baita erabilera markak ere (g.g.er.), informazio didaktikoa (* markak) edo beste jakingarri batzuk (Sin., etc.)

Hori guztia dela eta, erraz esan daiteke Hiztegi Batua, besteak beste, hiztegi didaktikoa dela eta aplikazio ezin zuzenagoa duela zuzentze-lanetan, baldin eta haren inguruan hartuko diren erabakiak era koherentean hartzen badira.

Baina testu askotan bestelako hitzak izan ohi dira arazo-iturri, espezializatuak, Hiztegi Batak jaso eta erabaki ohi ez dituenak, alegia. Hain zuzen ere, azken urteetako euskalgintzan beste esparru batzuek izan dute lehentasuna eta azken urteetan baino ez da gutxieneko adostasuna lortu hiztegi espezializatua erabakitzen hasteko (baita testu espezializatuetakoa arazo diskurtsibo, komunikatibo eta morfosintaktikoak ere). Gogora dezagun beste lan batzuk direla testu berezien estandarizazio-lanetarako oinarri, besteak beste, corpusgintza eta gramatika deskribatzailea osatzea. Beste era batera esanda, hiztegi deskribatzaileak (OEhk) eta cor-

pusetan oinarri hartuta osatu den hiztegi estandarrek lexikoaren zuzenketa erraztu badute ere, lexiko espezializatua ez da oraindik integratu gaurko argitalpen estandarren sisteman eta noraezean ibili dira maiz zuzentzaileak, halako arazo lexikoen aurrean.

Arazoa, jakina, lexikografoena izan da, zuzentzaileena baino lehenago eta arazoaren oinarrian egoera soziolinguistiko berezia dugu. Aspaldi azaldu zuen arazoa K. Mitxelena euskalgintza aztoratu zuten adierazpen ezagun haietan.

Hay que atenderla [demanda de traducción al euskera] pero tenemos el derecho a esperar y el deber de exigir, que respuestas improvisadas no causen estragos en la lengua. La actual corriente de traducción del castellano (que es, creo, la lengua fuente en el 95% de los casos) al euskera es la prueba de la más obyecta dependencia lingüística.

...

Porque no son solamente los léxicos especializados los que están en relación unos con otros, sino que es la totalidad del léxico, incluida su parte esencial, las palabras de uso general y común, la que está interrelacionada. Va a resultar que el lenguaje menos cultivado, el de la matemática, el de la física, etc., va a dictar la ley allí donde la lengua está mejor trabajada.

K. Mitxelena, 1981

Gerora, Miren Azkaratek labor eta argi azaldu zituen lexikografia espezializatuaren oinarritzko irizpideak, hitzak hautatzeko orduan kontuan hartu beharrekoak:

- Hiztegi estandarrean erabili direnen antzekoak
- Kasu egin behar zaie maileguci:
 - Baldintza: gaztelaniaz eta frantsesez erabiliak
 - Nazioarteko erabilera aztertu

- Nazioarteko arau eta estandarizazio mailak aztertu
 - Gaztelania, frantsesa, ingelesa
 - Europako beste hizkuntza batzuk

(*Terminologia lanerako irizpideak*
AZKARATE 1997: 249-272)

Zuzenketa-lana

Hitz gutxitan esan daiteke zertan den zuzentzailearen lana: testu jakin bat eredu jakin baten arabera egokitzea, halako edo beselako inguru batean. Hiru alderdi horiek aztertu beharko ditugu, beraz: zuzentzaileak jasotzen duen testuaren nolakotasuna, zuzenketa garaian gogoan dugun eredu eta lan-inguru.

1. Zuzentzailearen lana

Egia esan, ez da erraza zuzenketa-lanaz bere osotasunean hitz egitea, oso era desberdineko jardunak biltzen direlako zuzenketa deritzogun horren barruan. Horrela, ez da gauza bera jatorrizko lanak edo itzulpenak zuzentzea; literatura testuak, administrazio-koak edo teknikoak; euskarri edo itxura baten edo beste-koak zuzentzea (liburuak, aldizkariak, eskuliburuak, gutunak, txostenak, iragarkiak...).

Bestalde, zuzentzaileak maiz bete behar ditu era askotako lanak: hizkuntza-zuzenketa, estilo-zuzenketa, argitaratze-zuzenketa eta, beraz, idazkera eta estiloa ez ezik, beste erabaki eta lan batzuk ere hartu behar ditu bere gain (ortografia arazoaren bateratzea, aurkibide tematikoak osatzea, inprenta probak zuzentzea...).

Horretarako, helburu bakoitzaren araberrako neurriak hartuko ditu gogoan zuzentzaile-

leak: akademiaren araua betetzen den aztertzea, ortotipografia arautegia erabakitzea, argitalpenaren edo eremuaren arabera estilo liburua osatzea, testuaren irakurgarritasuna aztertzea... Hona hemen, adibidez, Cordial frantses hizkuntzako zuzentzaileak testuen irakurgarritasun indizea kalkulatzeko kontuan hartzen dituen irizpideak:

- testuan ageri diren hitz ezezagunen (ezohiko) ugaritasuna
- hiztegietan ageri ez diren hitzen ugaritasuna testuan
- esaldiaren batez besteko luzera
- oinarrizko hiztegietako hitzen kopurua (Cordial zuzentzaileak 3.500 hitz dituen G. Gougenheim-en "Dictionnaire fondamental" aipatzen du oinarritzotzat)
- juntagailuen ugaritasuna
- aposizioen ugaritasuna
- partizipiozkoen ugaritasuna
- esaldi-egituraren konplexutasuna (mendekoen proportzioa, eta abar)
- izen abstraktuen ugaritasuna (izen konkretuen, giza izenen eta animalia-izenen aldean)
- hitz polisemikoen ugaritasuna (monosemikoen aldean)

2. Zuzenketa motak

- Zuzenketa pragmatikoa. Testua irizpide jakin batzuen arabera zuzentzen du eta ez dago egilearen eta zuzentzailearen arteko harremanik. Testuinguruak berak agintzen du eta testuaren azken orrazketa egiten da halakoan, argitaratu aurretik. Ezinbestean, halako zuzenketa egin behar zuten da batzuetan baina egile edo itzultzailearekin batera harremanik ez izateak zenbait arazo eta oztopo jartzen ditu, batez ere hitz, esapide, egitura edo pasarte batzuk interpretatzen asmatu beharra.
- Zuzenketa didaktikoa. Halakoetan, zuzenketak (betiko zuzentzaileak testuan gorri markatu ohi dituen egiturak) eta proposamenak bereizten dira. Azken erabakia idazle edo itzultzailearen esku, edo zuzentzaile eta argitaratzailearen esku egon daiteke, bien artean erabaki dutenaren arabera. Oro har, badira erabaki batzuk egileak hartuko dituenak eta beste batzuk zuzentzaileak ezarriko dituenak. Egoera horretan, zuzentzaileak zuzenketa arrazoiak azalduko ditu (gramatika, hiztegia, erabilera estandarra...) eta, zenbaitetan, egilearekin negoziatuko du azken erabakia. Jarduera horrek egile nahiz zuzentzailearen jarrera konstruktiboa eskatzen du, bereziki, agramatikaltasunetik aparteko zuzenketak egitean, testuaren irakurgarritasuna eta egokitasun estilistikoa bilatzeko.
- Zuzenketa automatikoa. Euskaraz dugun Xuxen zuzentzaile ortografikoa erabiltzea ia ezinbestekoa da testu-zuzenketa, baina beti ere bi kontu ahaztu gabe. Alde batetik, hutsa da Xuxenekin egingo dugun lana, benetan egin behar dugun lan osoaren aldean, eta ez dago pentsatzerik zuzentzaile ortografikoa erabili delako testua ongi dagoenik. Bestetik, ezin dugu ahaztu Xuxenek iradokizunak baino ez dizkigula eskaintzen gehienetan eta gure esku dagoela erabakia, batez ere, zuzentzaileak ezagutzen ez dituen hitzen inguruan. Bestalde, testu tekniko eta espezializatu batzuetan hitz asko izan daitezke zuzentzaileak ezagutuko ez dituenak eta, alde aurretik, tresnaren errentagarritasuna aztertu beharko dugu, lan horri ekin baino lehen. Bi unetan gertatzen da bereziki gomendagarria zuzentzaile auto-

matikoa: hasieran, idazle edo itzultzailearen auto-zuzenketarako, nahiz zuzentzailearen lehen orrazketa formal egiteko, eta amaieran, argitaratu aurretik, azken orduko hutsak ikusarazteko eta zuzentzeko.

3. Zuzenketa-lanaren atalak

Editore lana egiten duenak antolatuko ditu edizioaren atal hauek ere (nahiz eta ez den hori editorearen lan bakarra), besteak beste zuzenketa, begiraltza eta proben zuzenketa. Baliteke hiru atal horiek pertsona bakar baten esku uztea eta aldi berean-edo egitea baina bitan behintzat komeni da bantzea

- a) Zuzentzea (correcting). Zuzenketa-lanaren oinarria irakurketa kritikoa da. Irakurtze lan horretan hiru kezka hauek izango ditugu gogoan:
 - Ea testuak esan nahi duena esaten duen, hau da, ezer ez ote den faltan edo soberan.
 - Ea testuak benetan esaten duen egi-leak adierazi nahi duena (itzulpentetan gertatzen da arazo hori nabarmenen)
 - Ea irakurleak benetan testuak adierazi nahi duena ulertuko duen.
- b) Begiratzea eta probak zuzentzea (proof-reading). Nahiz eta maiz zuzenketa eta begiraltza nahasten ditugun, ez dira gauza bera. Bietan berrirakurriko dugu testua arreta handiz, baina ez era berean. Honako honetan, testutik urrundu eta testua bere osotasunean irakurriko dugu, testuan dauden koherentzia arazoak, paragrafoen anto-

lamenduen gorabeherak, kohesio hutsak eta abar. Lan hori gaiari nahiz moldeari dagokionez egingo dugu.

Edonola ere, maiz egiten dira batera zuzenketa eta begiraltza lanak. Hona hemen EBko Estilo Liburuak dioena:

(Work of the proof-readers) The Office's proof-readers initially read and prepare manuscripts with a view to checking the consistency of annotations, grammar and typography throughout the text. They detect any errors, inconsistencies and unclear meanings in order to make the manuscript clear and comprehensible. However, proof-readers are not editors. They are independent regarding the views of the author, who retains control of the substance of the text.

(Preparation of manuscripts) The aim of the proof-readers is to facilitate composition and to eliminate unnecessary extra costs by checking the consistency of notations, grammar and typography throughout the text. They make a thorough and detailed examination of the text and ensure that the house rules have been applied as described throughout this vade-mecum.

Interinstitutional style guide (EB)
<http://publications.eu.int/code/en/en-cover.htm>

Idazketa (edo itzulpena), zuzenketa eta begiraltza bereizteak baditu bere alde onak. Esate baterako, idazte edo itzultze orduan ez dago exonimo baten idazkeraren gorabeherarengatik edo zalantzazko neologismo bantengatik gehiegi kezkatu eta lana eten beharrik. Baina, bestalde, ez dago testua zuzendu gabe begiraleari ematerik ere, testuaren lehen idazketa eta idazketa landua nahasiz.

4. Deontologia arazoak

Berez, zuzenketa-lanak ez dakar —ez luke halakorik ekarri behar— testua berridaztea.

Hutsak zuzenduko dira, esaldi bat edo beste berrantolatu, kohesioa hobetu, testuan dauden koherentzia arazoak konpondu. Baina zuzenketa-lanaz ari garenean ez gara lehen zirriborroaren gainean ezinbestean egin behar den berrirakurketa eta berridazketaz ari; aitzitik, lan hori idazle edo itzultzaileari berari dagokio. Horregatik, zuzendu behar duzun lana berridatzi egin beharko litzatekeela aurkitzea izan ohi da zuzentzailearen arazorik handienetako bat, besteak beste lan handiagoa izan ohi delako zuzenketa bera, berridaztea edo berriz hutsetik itzultzea baino —ordaina, berriz, askoz txikiagoa, gainera—.

Maiz ikusten dira era honetako testuak (itzulpenak):

Irteera kamioiak (*Salida camiones*)

Hurrengo eraikuntza (*Próxima construcción*)

Horrela itzuli duenak ez du oinarri-oinarizko irakurketa egin eta ez du gaztelaniazko testua deskodifikatu ere. Alegia, ez ditu ulertu “salida (de) camiones” sintagma edo aditzizenez osatutako esaldi osoa (“a construir próximamente” / “próximamente se construirán”) eta itzulpen mimetiko hutsa egin du, beste era batera behar bazuen ere (“Kamioien irteera”; “Laster eraikitzeoa”). Halakotan errentagarritasunak aginduko du, testuaren zuzenketaren aurrean erabaki bat hartzeko, baina, edonola ere, egileari jakinaraztea komeni da ez dela haren testua zuzendu, berridatzi baizik.

Izan ere, zuzentze lanak badu epaiketa kutsua: zuzentzaileak testua eredu jakin batekin erkatu eta hura epaitu egiten du —inplizituki bada ere—. Eta idazle edo itzultzaileak estimatu egin behar du epai hori, egiten duen lanaren kalitatea hobetzeko neurri ezin eragin-korragoa delako. Epaiketa- eta lankidetzaz-

jardueren artean oreka lortu beharra dago, hutsak eta iradokizunak ongi bereiziz, koherentzia bilatuko duen jarrera konstruktiboa erakutsiz eta izan litezkeen ergonomia eta errentagarritasun arazoak eta mugakizun pragmatikoak ahaztu gabe. Hona adibide pare bat:

The patriot filmaren itzulpena kritikatzeko zuen Javier Mariasek (“*Harán de mí un criminal*”, J. Mariás 2003, Alfaguara) hala ziotelako: “*En nombre del Padre, y del Hijo y del Santo Fantasma [sic: Holy Ghost]*”. Eta arrazoi du, jakina. Baina zuzenketa ez dagokio esaldi horri (ezta, ziur aski, itzultzailearen kultura jakintza eskasari), filmaren hasierako erabakiei baizik; izan ere, *el fantasma* erabaki zen Mel Gibson aktoreak antzezten duen *the ghost* goitzeneko pertsonaiari, eta erabaki harekiko koherente agertu behar izan du itzultzaileak harako esapide hartan: aski litzateke filmaren hasieratik *el espíritu* hautatzea pertsonaiaren goitizentzat, baldin eta horretarako aukera balego eta itzulpen kaskar bat presaka ateratu nahi izan ez balitz.

Edonola ere, ezinbestekoa da zuzentzailearen eta itzultzailearen arteko harremana, itzultzaileak eginiko hutsen azalpena aztertzeko; eta ezinbestekoa da zuzentzailearen eta egilearen arteko harremana, egileak nolabait osatutako testua interpretatzen, deskodifikatzen eta jatorrizko bertsiotan ere txukuntzen elkarri laguntzeko.

Esta empresa fabrica un buen producto pero tiene un servicio de ventas que las hunde totalmente.

*Enpresa horrek produktu ona ekoizten du baina erabat alferrik galtzen dituen salmentaz erbitzua.

(?)*Figuras que ascienden al equipo a la división de honor*

Jokalari hauei esker igo da taldea ohorezko mailara

4. Zuzenketa EHUko Euskara Zerbitzuan

1. Hizkuntza zerbitzuaren antolamendua

EHUko Euskara Zerbitzuak zenbait zeregin ditu, hemen zehaztuko ez ditugunak: eredu-gintza, testu-gintza, prestakuntza, zuzenketa, aholkularitza eta abar. Eta, oro har, hizkuntza zerbitzuen integrazioa bilatzen du; izan ere, lotura estua dago zeregin eta jardura esparru horien artean eta batean egiten dena bestean ere baliagarri izan daiteke: zuzenketa-lana prestakuntzarako, aholkularitza lana zuzenketetarako, eta abar. Unibertsitateko hizkuntza zerbitzuen lehen bezeroa irakaslea da, hura delako irakaskuntza eta ikerkuntza lanen oinarri eta erantzule, baita argitaratze lanen sustatzaile ere. Irakasleei eskainitako zerbitzuak, gainera, eragin biderkatzailea izango du, ikasleenganaino iritsiko delako, eta lan horietan, prestakuntzaz gain, argitalpen lanek dute garrantzirik handiena.

Baina unibertsitateko testu-gintza era askotakoa da —baita beste erakunde batzuetakoa ere—. Unibertsitatean ikerketa lanak argitaratzen dira irakasle eta ikertzaileentzat, zabalkunde lanak ere argitaratzen dira jakintza zabaltzeko asmotan, ikasleentzako materialak prestatzen dira (ahikor eta aldi baterakoak: apunteak, praktiketako gidak...), administrazio testuak prestatzen eta itzultzen dira. Hori dela eta, ez dago jardura, eremu eta egoera horiei guztiei era berean erantzuterik.

2. Testu-zuzenketa EHU: helburuak

Aurreko ataletan esandakoaren arabera, zuzenketak berak dituen helburuak zerbitzuaren beste helburuetan txertatzen dira. Egi-

leek eta itzultzaileek (unibertsitateko irakasleek nahiz bestek) lehen zuzenketa egitea izango da helburuetako bat, besteak beste, zuzentzaile ortografikoa erabiliz; horretarako, prestakuntza ikastaroetan eskainiko dira Xuxen erabiltzen denean agertzen diren arazoei aurre egiteko irizpideak eta bestelako jakin-garriak. Edonola ere, testuaren barne koherentzia bilatuko dugu eta, horretarako, egileek estrategia egokiak erabiltzea jarriko dugu helburu. Koherentziak, bestalde, testukoak, egilearena eta jakintza arlo edo esparrukoak ere behar du izan, lexikoari, sintaxiari nahiz beste atalei dagokienez.

Zuzenketaren bidez bultzatuko dugun ereduak orekatua izan behar du, testu teknikoek duten zailtasun bereziari erantzuteko orduan arazoak aztertuko ditugu eta irtenbiderik egokiena bilatu, ez usadio partikular eta erroto gabeetara ezta hiperzuzenketa eta garbizalekeriara jo gabe. Aldi berean, testu teknikoaren arazo ortotipografikoak (irudiak, formulak, eskemak...) aztertu eta erabakiko dira, ahalik eta era koherenteenean.

Zuzenketak datu-base batean bilduko dira, prestakuntza lanetan erabili ahal izateko eta zerbitzuaren beste jarduerekin erkatu eta integrazteko.

3. Testu-zuzenketaren antolamendua: eskuliburuak

Hasiera-hasieratik ekin behar zaio zuzenketen planifikazioari. Horregatik, ez dago banatzerik zuzenketa-lana eta sortze-itzultze nahiz editatze-argitaratze lana. Edozein irakasle edo egilek proposa diezaioke Argitalpen Zerbitzuari lanen bat argitaratzea baina euskarazko liburugintzan eta testu-gintzan planifikatua da lanik handiena. Eta planifi-

kazio horrek aukera ematen du erabakiak lehen urratsetik hartzeko.

Alde batera utziko ditugu honako lerro hauetan unibertsitatean eskaintzen diren zenbait aukera (ikasmaterialen zuzenketa eta abar) eta ereduzkotzat hartu nahi ditugun itzulpenak hartuko ditugu aztergai. Euskara Batzordeak erabakia da urtero zenbait liburu itzultzea, eskuliburu tankerakoak edo. Asmoa da goi-mailako jakintzaren esparruan kalitate erakutsi duten eta urtetan erabili ohi diren liburu klasikoak itzuli eta irakasle nahiz ikasleen eskura jartzea.

Horretarako, erabaki beharra dago nor den itzultzaile, liburu hauek zailtasun tekniko ugari baitute (arloko terminologia, gai eta arazoen kontzeptualizazio egitura konplexuak, konbentzio eta ortotipografia erabaki arbitrario ugari, eremukako usadio partikular finkatu samarrak eta abar). Baina ez dirudi zailtasun tekniko horiei itzultzeko orduan aurre egiteko gaitasun espezifikoa duenik espezialistak. Aitzitik, espezialista oso itzultzaile ona —arloko itzultzaile onena, egia esateko— izan daiteke, baldin eta hizkuntza gaitasun handia badu eta itzultzen ongi ikasia eta trebatua bada. Baina ez da hori maiz gertatzen eta horregatik gertatzen da egokiena espezialista nahiz espezialista ez diren artean aukera egitea lehiaketaren bidez. Lehiaketan, besteak beste —edo batez ere— lagin baten itzulpenaren azterketa egiten du Euskara Zerbitzuak eta testu hori itzultzeko gaitasun handiena erakusten duena hartzen da itzultzaile. Orain arteko esperientzian ikusi dugu, oro har, itzultzaileak direla lan horretan trebeenak, testua aztertu (nahiz eta gaiaren kontzeptualizazioari dagozkion arazoak eta interpretatzeko zailtasunak izan), deskodifikatu, berregin eta euskaraz

emateko trebeenak, alegia. Baina aldez aurretik badakigu gaiari dagozkion gorabehera semantikoei-eta nolabait erantzun beharko zaiela. Horregatik izango du itzulpen proiektu bakoitzak bi begirale, itzultzaileak lehen lana egin ondoren jardungo direnak. Gogora dezagun, baina, itzultzailearen lehen lana ez dela lehen idazketa deritzona, lehen idazketa edo itzulpena ez ezik, zuzenketa ere hari dagokio, edo —hori da, jakina, egoerarik onena— itzultzailearekin elkarlanean ari den beste kide edo lankide bat. Beraz, lehen mailako zuzenketa (neurri batean, auto-zuzenketa) egile edo itzultzailearen esku dago (irakasle, egile, enpresa, itzultzaile).

Begirale teknikoak hartuko du orduan testua, atalka, aldez aurretik adostu den egutegiaren arabera. Begirale teknikoa espezialista izango da, gehienetan, gai hori euskaraz irakasten ari dena eta eremu horretako euskarazko testuetan dauden zailtasun eta arazoen jabe dena. Baina begirale teknikoaren lana ez da hizkuntza begiraletza edo zuzenketa. Espezialistak testua irakurri behar du eta ezagutu ea itzultzaileak zertan ez duen asmatu jatorrizkoak zioena jasotzen. Honako izen honetan, esate baterako, bi dira euskarazko aukerak eta espezialistak esan beharko du zein den adiera.

Ciencias y Técnicas de la Navegación, Máquinas y Construcciones Navales

(a) Itsasketa Zientzia eta Teknikak, Itsasontzi Makinak eta Itsasontzigintza

(b) Itsasketa, Makina eta Itsasontzigintza Zientzia eta Teknikak

Lan horrekin batera, lexiko espezializatua ere aztertuko du begirale teknikoak baina espezializazioko testuetan ez da lexiko unitateen alderdi formala arazo-iturririk handiena

(nahiz eta maiz eztabaidatzen diren kalko edo maileguen egokitzapen bihurriak), kontzeptuak azaltzeko hizkuntza bat edo bestek dituen baliabide sintaktiko eta estilistikoaren erabilera egokia baizik.

Hizkuntza begiralearen lana da, bestalde, testua bere osotasunean hartu eta aztertzea, ea ulergarria den, ea argia den, ea zuzena eta araukoa den, ea egokia den, ea tradizio eta usadioa urratzen duen edo ez. Begirale teknikoaren oharrak jaso eta aztertuko ditu: ondoren, ulergarritasuna eta zehaztasuna lortzeko estrategiarik egokienak proposatuko dizkio egile edo itzultzaileari. Hizkuntza begiralea izango da testuaren zuzenketa-lanen azken erantzulea.

Itzultzaileak begiralearen oharrak jaso eta azken zuzenketak egingo ditu. Nahiz eta lanaren erantzulea egile edo itzultzailea den, gogoan hartu behar du argitalpenen (bildumaren, jakintza eremuaren...) koherentzia lortzeko erabakiak bere egin behar dituela. Aldi berean, zuzentzailearen iradokizun eta proposamenak aztertu eta zuzentzailearekin batera erabakiak hartuko ditu.

4. Testu-zuzenketak, testu motaren arabera

Testu guztietan bilatuko da gutxienez testuaren zuzentasuna eta ulergarritasuna. Testu motaren eta testugintza mailaren arabera erabakiko da hortik aurrerakoa, hau da, maila gorenekoetan egingo da azterketarik sakonena eta testu teknikoaren edo itzulpenen arazo bereziei eman dakiekeen erantzuna edo arlo horietarako gomenda litekeen erabilera erabakiko da.

Honako maila hauek bereizi dira EHUko Euskara Zerbitzuaren testugintza-itzulpen-gintzan:

- a) Testugintza eta itzulpen-gintza arloko goi mailako testuak: zientziaren zabal-kunderakoak eta unibertsitateko eskuliburuak. “Zientzia Irakurle Ororentzat (ZIO)” testu-bilduman eta unibertsitate-mailako eskuliburuaren itzulpenetan unibertsitateko egokia era eraginkorra izango den euskara-eredua bilatu eta proposatu nahi da. Horretarako, aurreko atalean aipatu dugun begiralea sistema bikoitza erabiliko dugu. Testu hauen bidez maila horretarako euskara-eredua lortu nahi da eta hutsen zuzenketa gain, estilo aldetiko moldaketa ere egingo da, testuaren antolamendu osoari, fraseologiari, sintaxiari eta lexikoari begira. Bestalde, zuzenketak datu-base batean bilduko dira, itzultzaile, egile edo zuzentzaileen eskura jartzeko.
- b) Ikasmaterialak. Unibertsitateko irakasleentzako materialak zuzentzeko orduan zuzenketa didaktikoa dugu gogoan. Hau da, testua zuzentzeaz gain, egileak zuzenketaren berri izatea dugu helburu eta trebatzaile baten bidez zuzenketaren arrazoiaz jabetzea eta testugintza horren kalitatea hobetzea.
- c) Irakasleen “apunteak”: “Testu-orraketa” zerbitzuak testu-zuzenketa arin eta praktikoa du helburu. Halakoetan, gutxienezko zuzentasuna eta ulergarritasuna bilatuko da. Horretarako, aldeztu aurretik adostuko dira ohiko huts eta hizkuntza arazoaren aurreko zuzenketa-lanak eta zeregin horretaz arduratzen denak, zuzentzeaz gain, txostena helaraziko dio egileari eginiko zuzenketa eta proposamenen zerrendarekin. Zuzen-

keta-lan horren asmoa didaktikoa da, txukuntze lana egiteaz gain.

Zuzenketa-lan horietan lau kontu izango dira beti gogoan:

- Zuzenketak hizkuntza araua edo sistema bera gogoan hartuta egin behar dira (zuzentasuna eta adierazkortasuna lortzeko egitura egokienak).
- Zuzenketak testuaren eta egituren egokitasuna bilatu behar du (testuak bete nahi duen funtzioari ongien egokitzen den eredia)
- Zuzenketa egiteko orduan erabilerari kasu egin behar zaio: euskararen ohiko ereduari egingo zaio jaramon, beharrik gabeko berrikuntzak alde batera utzirik eta erabilera estandar zabalen eta errotuenetik aldentzen diren erabilera partikularregiak ere alde batera utzirik. Tresna egokia da horretarako Ereduzko Prosa Gaur testu-bilduma (<http://www.ehu.es/euskara-orria/ereduzkoa>).
- Zuzenketa-lana ahalik eta integratuen izan behar du.

5. Testu-zuzenketa integratua

Testu-zuzenketak koherentea eta errentagarria behar du izan. Horretarako, ezin egoikiagoa gertatzen da testu-zuzenketak beste hizkuntza jardunekin batera integratzea. Besteak beste, testu-zuzenketak aholkularitza zerbitzuko galdera-erantzunekin batera biltzen dira. Era berean, zuzenketekin batera biltzen dira zerbitzura iristen diren testu eta liburuen gainean emandako irizpenak, hiztegitintza eta testugintza lan-talde eta mintegietan sortzen diren hizkuntza zalantzei emandako

erantzunak, EHUko izendegia normalizatzeko lanetan hartutako hizkuntza erabakiak. Bestalde, hizkuntza lanak hiru tresnatan biltzen dira: EHUko terminologiaren datu-bankua, itzulpenen corpus eleaniztuna eta testu-zuzenketen datu-basea.



Testu-zuzenketen datu-basea orain arte aipatu ditugun iturrietatik elikatzen da (ZIO, itzulpenak, ikasmaterialak, apunteak) eta EHULKU aholkularitza zerbitzuko hizkuntza fitxekin batera aztertzen da. Aholkularitza zerbitzuan biltzen diren zuzenketa eta galdera-erantzunak zenbait iturrietatik datoz: EHULKU zerbitzua, administrazioko lan eta itzulpenak, ikastaroetako materialak, edo beste batzuk. Horrela osaturiko datu base bikoitza integratzeko atal berezi bat osatu da mapa kontzeptualean aztergaiak biltzeko. Aztergai horiek dira zerbitzuak aztertuko dituenak, proposamen jakinen bat egiteko. Datu-basea zenbait esparrutan erabiliko da: era askotako testu eta itzulpenetako zuzenketa-lanetarako edo Intranet nahiz Internet bidez zabalduko diren gomendio edo erabilera-arauak. Hau da, estilo-liburu moduko bat osatu nahi du datu-baseak, trebakuntza lanetan eta zuzenketa-lanetan erabiltzeko, baina liburu horren ezaugarri nagusia dinamikotasuna da. Datu-basea egunero elikatzen

da datu berriekin: horretarako fitxa erabil-tzen da, datuak sartu, bildu eta elkarrekin er-lazioan jartzeko. Fitxa bakoitzak kodea du eta hiru eratako datuak:

- a) Zuzenketa datuak: zuzendu behar den testa, testu zuzendua (edo proposatzen dena), testuingurua (zuzenketa mota-ren arabera erabakia, ez baita testuin-guru bera behar hiztegi, morfologia, sintaxia edo bestelako zuzenketetan), dokumentazioa (zuzenketa-erabakiaren oinarri, hala behar izanez gero) eta ohar-rak. Eremu horiekin batera, zuzenketa-mota ere adieraziko da; hain zuzen ere, honako aukera hauek dira aurreikusten direnak (ezinbestekoenetik hasita):

- hizkuntza araua
- Euskaltzaindiaren araua
- Euskaltzaindiaren gomendioa
- Terminologia Batzordearen gomen-dioa (Euskararen Aholku Batzordea)
- EHULKU zerbitzuaren aholkua (EHUko aholkularitza zerbitzuaren aholkua)
- norbaiten iritzia edo proposamena

- b) Zuzenketaren identifikazio teknikorako datuak: iturria, zuzentzailea, eguna...

- c) Zuzenketaren ezaugarriak: izenburua, gako-hitzak, sailkapena. Azken atal hori ezinbestekoa gertatzen da zuzenketen kudeaketarako, hau da, zuzenketak era antolatu eta arautuan sailkatzeko eta testugintzan lagungarri gertatuko den bilduma ahalik eta osatuena presta-tzeko. Izenburuak, esate baterako, era honetakoak dira: anafora: bertan; ana-fora: erakusleak; anafora: halako; anto-laketa eskasa, antolatzaileak; antolatzai-

Compuco	Leioa	Kolera	IT
Izenburua	IDAZKUNTZA, ESTILOA ETA EGUNEZKO ERABAKIAK, IDAZKUNTZA-IRIZPIDE		
Izenburu berria	"Alegia" partitula: puntuazioa		
Gako hitzak	alegia		
Sailkapena	1.1.2.4 Puntuazioa		
Zuzenketa mota	"proposamena"		
Iturria	"riktektura Alfasa, EHU, 1 or. (Itzultzailea: 399S)		
Zuzentzailea	1) (...) horrela bere kabuz surki ditzen alegia nahi dituen garai eta herrialde zehatzetako arkitektura eta historia. 2) (...) gizarie eta morai noble bateranzko aitzinamenduaren ideia harrotu eta hazialu zuteleko alegia.		
Zuzentzaia	1) (...) horrela bere kabuz aurki ditzen, alegia, nahi dituen garai eta herrialde zehatzetako arkitektura eta historia. 2) (...) gizarie eta morai noble bateranzko aitzinamenduaren ideia harrotu eta hazialu zuteleko, alegia.		
Trebatzailea	1) Hori bai, iburua nola sistematu den erakusten digu irakurleari, horrela bere kabuz aurki ditzan alegia, nahi dituen garai eta herrialde zehatzetako arkitektura eta historia. 2) Frantses ilustrazioaren ideiekin bakarrak izan zuten antzinatasun munduko obra klasikoak garai bakoitzeko zirenean eragin zuten illura irakurleari. 3) Frantses ilustrazioaren ideiekin bakarrak izan zuten antzinatasun munduko obra klasikoak garai bakoitzeko zirenean eragin zuten illura irakurleari.		
Dokumentazioa	EGLU. EEL: komaren erabilerari dagokionez, antolatzailea ozkorraldean jartze-denean komen arlean joan ohi da (4). Antolatzailea eskunaldian jartzen denean, berriz, maiz gertatzen da komarik ez agertzea (309.or.).		
Oharak			
Zuzentzaia	(2012-V-23)	Zerbitzua	
Garatzaia	befun batkaga	Zuzentzaia	151

leak: besteak, beste batzuetan; antola-tzaileak testuan aurrera egitekoak, -(r)i dagokionez; antolatzaileak: aldetik; an-tolatzaileak: testuan aurrera egitekoak, amaitzekoak edo laburbiltzekoak; fra-seologia: definizioa nola eman; fraseo-logia: desberdin; fraseologia: destina-tioa iritzia emateko; fraseologia: eduki-era x-koa izan, edukiera x izan; eta abar. Baina zuzenketen izenburu edo defini-zio antzeko horiek sailkapen oso batean txertatzen dira: Idazkuntza, estiloa eta egunezko erabakiak (Idazkuntza-iriz-pide orokorrak (Koherezia: informa-zioaren egitura (Edukien egitura / Gai-aren garapena) / Kohesioa (Osagaien or-dena eta esaldiaren antolamendua / Anaforak, kataforak / Lokailuak, testu-antolatzaileak / Puntuazioa) / Egoera-rekiko egokitasuna (hizkuntza maila, igorlea, hartzailea...), eta abar. Zuzen-keten emaitza antolatu eta sailkatu ho-rrek emango digu aukera modurik aha-

lik eta koherenteenean jokatzeko eta erabakiak hartzeko.

- d) Zuzenketaren estatusa. Estatusari dago-kionez, berdin jokatu dugu zuzenketan nahiz aholkularitza zerbitzuan. Eredu horretan darabiltzagun markak honako hauek dira: ezabatzekoa (behin eta berriz agertzen diren zuzenketek datu-basea puztu egiten baitute eta errepikapenez bete), behin behinekoa (aztertutako beharrekoa eta ontzat eman beharrekoa), behin betikoa (zerbitzuak ontzat emandako zuzenketak, hizkuntza arau orokorreki edo akademi arau dagozkielako, nahiz zerbitzuaren ardurapeko testuak estandarizatzeko hartutako erabakiei dagozkielako).

6. Zuzenketen kudeaketa

Modu horretan antolatutako zuzenketak maila eta esparruaren arabera erabiliko dira. Oro har, Intranet edo Internet bidez eskaintzen den kontsultagunean eskainiko dira, ongi bereiziz gutxieneko zuzenketa jaso duten ikasmaterialak (sareko argitalpenak, PDF formatuan ikasleentzat), ohiko argitalpenak eta eredutzat hartzen direnak nahiz EHU-n erabiltzeko forma estandartzat erabaki direnak. Azken horiek zenbait bidetatik eskainiko dira: izendegia, EHULKU aholkularitza zerbitzuko datu-basea, testu-zuzenketen datu-basea, EHUko terminologia datu-bankua, itzulpenen corpus elebidun parekatua, eta abar. Horiekin batera, beste lan batzuk biltzen dituzten corpus ereduak ere eskainiko dira (Ereduzko Prosa Gaur) eta EHU-tik kanpoko kontsultaguneetarako sarrera (Jagonet, Duda-muda, Elhuyar, Euskalterm eta abar).

Zuzenketen datu-baseko behin betiko zuzenketa fitxak 2004an eskainiko dira Interneten bidez, EHUko Euskara Errektoreordetzaren orrian (Euskara Zerbitzuaren kontsultagunean).

7. Adibide batzuk

- (1) Zelularen makina-moduko eta kodetze-funtzioak.
[Zelularen makina-moduko funtzioa eta kodetze-funtzioa].
- (2) Zelulak prokariotikoak ala eukariotikoak diren, egiturari erreparatuta ondoriozta badaiteke ere, egokia ote da egitura ahaidetasun ebolutiboa (filogenetiko) antzemateko?
[Egiturari erreparatuta, zelulak prokariotikoak ala eukariotikoak diren ondoriozta badaiteke ere, egokia ote da egiturari erreparatzea ahaidetasun ebolutiboa (filogenetiko) antzemateko?]
- (3) x eta y x eta y -r en gehikuntzak dira.
[x eta y balioak x eta y -r en gehikuntzak dira].
- (4) Geometria analitikoaren arabera, $z = f(x,y)$ ekuazioa betetzen duten $P(x,y,z)$ puntuen adierazpen grafikoa hiru dimentsioko espazioan gainazal bat dela dakigu.
[Geometria analitikoaren arabera, badakigu $z = f(x,y)$ ekuazioa betetzen duten $P(x,y,z)$ puntuen adierazpen grafikoa gainazal bat dela hiru dimentsioko espazioan].
- (6) Ikaskuntzaz ari gara. Eta oinarrizko elkar eraginaz. Lehendarra —haurra eta amarena— non erritmoak zeregin azpimarratua du.
[Ikaskuntzaz ari gara. Eta oinarrizko elkareraginaz. Lehena haurra eta amarena da, non erritmoak zeregin nabarmena duen].
- (7) Zein ondorio izango ditu aste beterako zure herriko argi edo elektrizitate indarra kentzen badute?
[Zer gertatuko da astebeterako zure herriko argi edo elektrizitate indarra kentzen badute?]

- (8) Modernoa, objektiboki adierazi beharreko garaiko espirituaren aktualitateari laguntzen diona da.

[Modernoa da objektiboki adierazi beharreko garaiko espirituaren aktualitateari laguntzen diona].


- (9) Berarekin hasten baita garai berriaren dualismoa, alde batetik, klasikorantz begirako arte batekin eta, bestetik, natur zientzietan eta emantzipaziobideetan oinarritutako teknika berri batekin.

[Izan ere, berarekin hasten da garai berriaren dualismoa: alde batetik, klasikorantz begirako arte batekin, eta, bestetik, natur zientzietan eta

emantzipazio-bideetan oinarritutako teknika berri batekin].

- (10) Petrolioaren prezioaren ererikoa, kasu batean, eta zorraren krisia, bestean, dira, lehen analisian, bi eskualde hauek zergatik geratu diren nazioarteko merkataritza- eta finantza-fluxuetatik zokoraturik agertzen duten eragile nagusiak.

[Bi eragile nagusik —petrolioaren ererikoak, kasu batean, eta zorraren krisiak, bestean— esplikatzan dute zergatik geratu diren bi eskualde hauek nazioarteko merkataritza- eta finantza-fluxuetatik zokoraturik].



Aldizkari zientifiko baten zuzentzailea: ergatibotik ortotipografiara, zientziaren bideetatik

GIDOR BILBAO TELLETXEA

Euskarazko zuzentzaileen jardunaldietan leku bat merezi duela *Uztaro* aldizkariko zuzenketa-lanak erakusteko, galdera bati erantzun beharko diogu: zertan da desberdina aldizkari zientifiko bateko zuzentzailearen lana? Horretarako, *Uztaro* aldizkari zientifiko gisa autodefinitzen denez, komenigarri izango da aldizkari zientifikoaren ezaugarriak aurrez ezagutzera (zuzenketa-lanerako esanguratsu diren heinean), eta aldizkari zientifikoetan zein langile izaten diren jakitea. Hori argitu ondoren, *Uztaro* aldizkariaren historia eta zuzenketa-prozesua aztertu ahal izango ditugu.

Aldizkari zientifikoaren ezaugarriak

Lehenik eta behin, aldizkari zientifikoa aldizkakoa da eta erregularitasunez argitaratu ohi da. *Uztaro* aldizkariak, esaterako, urtean lau zenbaki argitaratu ohi ditu, guztira 500 orrialde.

Gure testuinguruan, arazo handi bat dator ezaugarri horri lotuta: orijinal onak eta txarrak onartzen dira azkenean, erredakzio-

an bertan zuzentzeko eta hobetzeko asmatan (hala edukiari dagokionean, nola hizkuntzari edo alde formalari dagokionean), derri gorrez hiru hiliarik behin 125 orrialde bete behar direlako. Eta horrekin, jakina, zuzentzailearen lana are zailagoa bihurtzen da.

Bigarren ezaugarria: aldizkari zientifikoan egile askok idazten dute.

Ondorioz, zenbaki berean artikulua bat erraz-erraza izan daiteke, eta beste bat zaila baino zailagoa. Zuzentzailearen ikuspegitik, ipuinaren eta nobelaren artean bezala, hemen ere gustuak daude: zuzentzaile batek nahiago izango du laburrean garbitu kontua, eta beste erronka bati ekin berehala (artikulu bakoitza sorpresaz beteriko erronka izaten baita), eta beste zuzentzaile batek nahiago izango du arnasaldi luzea erabiltzeko aukera ematen duen liburua (idazle bakar batek aspertu egingo du, ordea, lehengo zuzentzaile artikuluzalea).

Ustez, jende ikasia izan ohi da artikuluegile; gehienetan, unibertsitateetako irakasleak izaten dira, baina ez idazleak, edo idazten trebeak. Mundu guztian gertatzen da,

jakina (gogoratu, adibidez, badela “idazke-ta-zerbitzua” eskaintzen duen lanbidea ere: zientzialariak emandako ideiak idazten ditu idazleak, zientzialariaren zirriborroetatik abiatuta, ordainketaren truke), baina, gure munduan, beste munduetan baino larriagoa da, agian, arazoa.

Sarri etortzen dira euskaraz alfabetatu ga-beak direnek idatziriko artikulua. Gertakizun hori azpimarratu nahiak eman digu artikulua ez zuzentzat hautatu dugun izenburuaren giltzetako bat («ergatiboa»); hizkuntza-arazo gehienak hizkera arruntari dagozkionak izaten dira, ez hizkera zientifikoari dagozkionak: ergatiboa falta da, perpausa berregituratu behar da ulertzen ez delako, aditzaren komunztadura aldatu behar da...

Idea horrekin lotuta, bada beste gertakizun aipagarri bat ere: sarri etortzen dira “gaztelaniaz edo frantsesez irakurri” behar diren artikulua. Esan nahi baita, idazleak auto-itzulpena egiten duela. Gaztelaniaz edo frantsesez pentsaturikoa euskarara itzultzen du, jatorrizkoari hertsiki lotuta, ez baita itzulzaile trebea. Halakoetan, zuzentzailearentzat ez da lan zaila izaten (baina bai neketsua) atzerako bidea egitea: gaztelaniazko edo frantsesezko jatorrizkoa asmatu eta itzulpen egokia eman.

Aldizkari zientifikoaren hirugarren ezaugarria: aldizkari zientifikoak jakintza-alor jakin batzuetakoak izan ohi dira, ez orotarikoak.

Ondorioz, irakurlea ere jakintza-alor horretan edo horietan aditua izaten da. Idazlea

baldarra bada ere (eta larregitan izaten da baldarra), irakurlea zorrotza izango dela pentsatu behar du zuzentzaileak; eta ez du ahaztu behar artikulua kalitatea ez dela soilik idazlearen ardurapekoa, aldizkariak ere idazleak bezainbesteko ardura duela produktu ona eskaintzeko: edukia, hizkuntza (ortografia eta gramatika), estiloa eta aurkezpen-era.

Zuzentzaileak ez du ezinbestean jakintza-alor horretan aditua izan behar (aditua baldin bada, hobe), baina gutxienez ulertzeko eta dokumentazio-lana egiteko gaitasuna izan behar du (itzulzaileak bezala). Dokumentazio-lana, modurik zabalenean ulertu behar da, baina, funtsean, terminologia bilatzeko gaitasuna izan behar du zuzentzaileak. *Uztaro*-ren kasuan, terminologia izaten da hizkera arruntetik “gora” geratu ohi den arazo bakarra¹.

Zuzenketa-lanerako garrantzitsuak diren ezaugarrien artean laugarrena aipatuko dugu, azkenik: aldizkari zientifikoek aurkezpen-arau zehatzak izan ohi dituzte.

Batzuetan nazioarteko arauak onartzen edo egokitzen dira (Vancouver arauak medikuntzan, APA-ren arauak psikologian, edo ISO arauak bibliografia emateko, adibidez) baina askotan aldizkariak bere arautegia eta are estilo-liburua argitaratu ohi dituzte.

Gaur egun, “UEUren liburuek eta UZ-TAROKo artikuluek bete behar dituzten arauak” (2001ean onartua) da *Uztaro*-k erabiltzen duen aurkezpen-arautegia². “Egileen-

¹ Ikus, aldizkariaren “Egileentzako informazioa eta arauak” atalean, zein diren *Uztaro*-ren jakintza-alorrak: «Argitaratuko dituen lanak batik bat ondoko arloetakoak izango dira: ekonomia, zuzenbidea, psikologia, pedagogia, filosofia, kazetaritza, soziologia, soziolinguistika, linguistika, glotodidaktika, literatura, itzulpeningintza, ikasketa klasikoak, artea, musika, historia eta geografia».

² Ikus, eranskinean, testu osoa.

tzako informazioa eta arauak” izenburuarekin argitaratzen dira *Uztaro*-n, zenbaki guztietan, eta egileak berak bidali beharko luke artikulua hartara egokituta, baina *Uztaro*-n lan egin dudana bederatzi urteetan uste dut idazle garau batek ere ez dituela oso-osoan bete (eta gehienek ezta urrunetik ere).

Zer arautu ohi da halakoetan? *Uztaro*-rean, esaterako, besteak beste, ondokoak zehazten dira: izenburuetan, atalburuetan, azpiatalen buruetan... erabili beharreko letrakera-mota; aipamenak emateko modua (sangratuak, aipu-markak eta kakotxak...); kakotx-mota bakoitza noiz eta zelan erabili; taulak eta irudiak nola adierazi; bibliografia antolatzeke modua, kasu ohikoenak zehaztuta; bibliografia-aipua aurkezteko modua...

Aldizkari zientifikoko langileak

Esan dugu artikulua kalitatea ez dela soilik idazlearen ardurapekoa, aldizkariak ere idazleak bezainbesteko ardura duela produktu ona eskaintzeko: edukia, hizkuntza (ortografia eta gramatika), estiloa eta aurkezpena. Baina, nor egiten du lan hori guztia aldizkari zientifikoan?

Uztaro-ko langileak ondokoak dira: zuzendaria, erredakzio-kontseilua, maketatzaila (eta administrazio-kontuen arduraduna), eta hizkuntz-orraketaren arduraduna.

Jokin Apalategi da zuzendaria, aldizkaria 1990ean sortu zenetik. Erredakzio-kontseiluan lau, bost, sei, zazpi... lagun izan dira, aldien arabera, aldizkariaren jakintza-alortakoak; askotan lotura izan dute UEUko sailekin, baina kontseilukideak ez dira ezinbestean sailburuak (bai UEUkideak). Mari Karmen Menika (hasieran) eta Nekane Intxaur-

tza (1994tik hona) izan dira maketatzaila eta administrazio-kontuen arduradun gisa denbora gehien jardun dutenak. Hizkuntz-orraketari dagokiona gero ikusiko dugu, *Uztaro*-ren historia aztertzean, eta orduan aipatuko ditugu izenak eta lanaren eboluzioa.

Edukiaren ardura nagusia erredakzio-kontseiluak dauka; askotan artikuluari dagokion alorreko UEUko sailburuari eskatzen zaio iritzia. Hizkuntza, zalantzarik gabe, hizkuntza-zuzentzaileari dagokio. Estiloa? Baita.

Eta aurkezpen-arauak? Berez, egileari dagokio lan hori, baina ez du egiten; erredakzio-kontseiluko kideari dagokio egilea behartzea, baina gehienetan ezin izaten du (eta, jakina, berak ez du egiten). Maketatzailak hartzen du zati handi baten ardura (erabat automatikoak diren kontuak: atalak, azpiatalak, taulak, bibliografiaren lehenengo garbiketa, taulen lehenengo garbiketa, aipuen lehenengo garbiketa...), baina ez dauka gauza asko zertan jakin (funtsean, maketatzailak berdina egin beharko luke lana ezagutzen ez duen hikuntzan idatziriko artikuluekin ere, ezer ulertu gabe). Beste aldizkari batzuetan editorea izaten da horren ardura hartzen duena, baina *Uztaro*-k ez dauka editore izenkorik. Ezinbestean, zuzentzaileak egin behar izaten du, azkenean, lan hori ere. Hortik hartu dugu, beraz, izenburuko bigarren giltza: «ergatibotik ortotipografiara».

Zertan da desberdina aldizkari zientifiko bateko zuzentzailearen lana?

Hortaz, orain arte ikusitakoarekin, prest gaude galdera nagusiari erantzuteko: zertan da desberdina aldizkari zientifiko bateko zuzentzailearen lana?

Hizkuntza-zuzentzaile guztiek bezala, hizkuntza zuzendu behar du: ortografia, gramatika, sintaxia, ulergarritasuna...

Estiloa ere zuzendu behar du: aldizkariak zehazturik dituen kontuetan zalantzarik gabe, baina baita idazkera zientifikoari orohar dagozkion guztietan ere. Adibide bat jarriko dugu, erraz-erraza, sarri zuzendu behar izaten dena: «lantxo honetan...». Zuzentzaileak gogoratu behar du gure aldizkari zientifiko goi-mailako hanpatuan ez direla “lantxoak” argitaratzen, «artikulu zientifikoak» baino (are maiuskulaz ere, gehiago hanpatu nahi izanez gero).

Aldizkariaren jakintza-alorra ezin da izan zuzentzailearentzat erabat arrotza. Ez, behintzat, testua ez ulertzeko beste. Edozelan ere, dokumentazio-lana egiteko gaitasuna izan behar du.

Azkenik, aurkezpen-arauak aplikatzen jakin behar du, eta zehatza izan horretan. Eta ez da erraza.

Lan-aniztasun horren ondorioz, ezinbestekoa izaten da, ia beti, bi, hiru edo lau bider zuzentzea artikulu bakoitza, maketatzailearekin elkarlanean: zuzendu-garbitu-zuzendugarbitu-zuzendu-garbitu... behar den beste bider. Baina gero ikusiko dugu, zehatzago, zuzenketa-prozesua.

Uztaro aldizkariaren historia

Lau data hautatu ditugu *Uztaro* aldizkariaren historian (1990, 1995, 2001 eta 2004), zuzentzaile-lanak Euskal Herrian izan duen bilakabidea nolabait islatzen duelakoan.

1990ean sortu zuen UEUk *Uztaro*. «UZTARO. giza eta gizarte-zientzien» aldizkaria deitu zaio hasiera-hasieratik. 0 zenbakiko idazleentzako informazioan dakar, funtsean

(gero zertxobait aldatu den arren), aldizkaria zer den:

UZTARO aldizkariaren helburua giza eta gizarte-zientziei buruzko artikulak argitaratzea da. Tratatuko dituen gaiak hauek izango dira besteak beste: ekonomia, psikologia, soziologia, kazetaritza, linguistika, glotodidaktika, zuzenbidea, pedagogia, historia eta geografia.

Orduan, argi zegoen hizkuntzari arreta berezia eman behar zitzaiola, eta zuzentzailearen lana ezinbestekoa zela. 1990eko idazleentzako informaziotik hartu dugu beste hau ere:

Originalak euskara batuaz idatzirik etorriko dira eta Euskaltzaindiak emandako arauetara moldatu beharko dute. Hizkuntz zuzentzaileak artikularen hizkuntz zuzentasuna ziurtatzeko beharrezko aldaketak egiteko eskubidea izango du. Egileari jakin eraziko zaio.

Alfontso Mujika izan zen lehenengo zenbakietan (eta gero ere urte askotan, 2002ra arte, beste batzuekin batera) «Hizkuntz orrazketa»-ren ardura hartu zuena. Aipagarria da, argitaletxeetan orduan gertatu ohi zenaren isla delako, Alfontso Mujika ez zuela *Uztaro*-k zuzentzaile gisa kontratatu, UEU-k kudeaketa-lanetarako baino; eta beste lan askoren artean sartzen zen, hasieran, hizkuntza-zuzenketa.

1995eko data ere horregatik da, besteak beste, aipagarria. Iزارo Gurrutxaga kontratatu zuen orduan UEUk administrazio-lanetarako, eta zuzentzaile gisa esperientziarik izan ez arren, eta hartarako ikasketa egokirik izan ez arren (enpresa-ikasketak zituen), hautaketan euskara-maila eta ingeles-maila aztertutako ziren, eta lanpostuaren eginkizunetan

argi zegoen zuzentzaile-lana egin beharko zuela (eta artikuluen ingelesezko laburpena ere berak egin zuen urte haietan).

Urte horretan sartu zen Nekane Intxaurtza aldizkariaren erredakzio-kontseiluan, eta orduz geroztik bera izan da maketazioaren arduradun bakarra.

Orduan sartu nintzen ni ere, hala erredakzio-kontseiluan nola zuzentzaile-lanetan. Ikasketaz filologoa naiz, eta *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, *International Journal of Basque Linguistics and Philology* aldizkarian izan dut nire lehenengo zuzentzaile-esperientzia; han ikasi dut, hala euskarazko nola gaztelaniazko artikulua (besteak beste Manuel Agud eta Antonio Tovarren *Diccionario etimológico vasco*-ren atal ugari) zuzenduaz, dakidanaren zati handi bat. Han jabetu nintzen, besteak beste, ortotipografiaren garrantziaz.

Orain, berrirakurtzen ditudanean, ez zait iruditzen testu txar-txarrak argitaratzen genituenik, baina ez dakit nola lortzen genuen, hiru zuzentzaileen zuzenketak sartzen baitzuten maketatzailak, hartu ahala, hiruen arteko inolako lotura eta sekuentziarik gabe.

Beste kontu batengatik ere bada aipagarria 1995a *Uztaro*-ren historian: urte horretan argitaraturiko 14. zenbakian, goitik behera aldatu zen «Idazleentzako informazioa». Euskarazko aldizkari batek inoiz izan duen aurkezpen-arauegirik zehatzena izango da, ziurrenik, orduan argitaratua, baina aitortu behar da zor handia zuela *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*. *International Journal of Basque Linguistics and Philology* aldizkariko «Egilearentzako oharrak» atalarekin.

Besteak beste, jakintza-alor gehiago hartzeko aldatu zen arautegia, betiere UEUko

sailekin lotuta (filosofia, soziolinguistika, literatura, itzulpengintza, ikasketa klasikoak, artea eta musika erantsi ziren). Zuzenketa-lanaren funtzio pedagogikoa ere islatzen du nolabait arautegi horrek, idazleari zuzenketak erakustean, egilearekiko begirunea agertzeaz gain, aholkulari- edo trebatzaile-lana egitea ere beti izan baitu gogoan UEUk:

Hizkuntz zuzentasuna ziurtatzeko edo aldizkariaren aurkezpen arautetara egokitzeko, onarturiko artikulua aldaketaren bat behar izanez gero, astebeteko epea izango du egileak, Kontseilu Batzordearen erantzuna hartzen duenetik, testu zuzendua bidaltzeko idazkaritzara.

Argitaratu baino lehen gutxienez behin hartuko du egileak bere artikulua testu maketatu, originalarekin batera, eta astebeteko epea izango du...

Beste aldaketa batzuk ere etorri ziren hurrengo urteetan. Esaterako, 1996az geroztik urtero 4 zenbaki argitaratu ziren (Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzen deialdiak behartuta), ordura arteko 3 zenbakiei laugarren bat erantsita. Edo 1998ko 24. zenbakian erabili zen lehenengo aldiz zutabe bakarra maketazioan (liburu-aipamenetan kenduta). Aldaketa horrek badu zerikusia aldizkari-ereduarekin, itxura arinagoa emateko hautatu baitzen hasieran bi zutabetan argitaratzea; baina horrek arazo larregi sortzen zuen lerro-aldaketekin (gidoi larregi sortzen baitzen) eta taula, adibide... eta estilo berrian proposaturiko aurkezpen-arauekin (koxkak batik bat).

2001. urteak ere esangura berezia du *Uztaro*-ren historian. Urte horretako 38. zenbakian hasi zen Arantza Bilbao zuzentzaile-lanetan (2000.ean utzi zuen Izaro Gurrutxagak lan hori). Arantza Bilbao ere ikasketaz

filologoa da, baina badu ezaugarri berezi bat, testuinguru honetan oso esanguratsua: UEUn Jose Ramon Etxebarriak antolaturiko zuzentzaile-ikastaroko ikaslea izana da.

2000. urtetik ari zen Jose Ramon Etxebarria UEUren liburuak zuzentzen, hasieran soldatarik gabe, gero (musutruk lan asko egin eta gero) orrialdeka kobratuta; hasieran merke-merke, gero merke. UEUn gero eta ardu-ra handiagoa zegoen zuzentzaile-taldea osatu beharraz, eta Jose Ramon Etxebarriari eskatu zion zuzentzaileak prestatzeko ikastaroa antolatzeko. Horietako baten emaitza da Arantza Bilbao *Uztaro*-ko zuzentzaile-taldean sartzea.

Zuzentzaileen talde-lana ere, berez, orduan hasi zen, eta orduan ezarri genuen lehenengoz funtzio-banaketa argia: Arantzak lehenengo bi edo hiru zuzenketa egiten zituen, funtsean hizkuntzari begiratura, eta nik, gero, beste bi edo hiru zuzenketa-aldi, hizkuntzari gutxiago eta gehiago ortotipografiari eta aurkezpen-arauei begiratura. Azken zuzenketa neuk egiten nuen beti, maketatzailearekin batera.

Azkenik, 2001. urte horretan, UEUren liburuen-aurkezpenarako arauak idatzi genituen Etxebarriak eta biok, funtsean *Uztaro*-ren idazleendako oharretan oinarrituta (ikus eranskina).

Azken urratsa 2004an eman du *Uztaro*-k, 48. zenbakian. Zuzentzaile-lanpostua sortu du UEUk liburugintzarako (egitasmo horretan sartzen da *Uztaro*), lehenengoz soldata osoarekin, eta Ander Altunak irabazi du, lehiaketan. Ikasketaz filologoa da, eta aurretik ere itzultzaile eta zuzentzaile lanetan aritua, argitaletxe batean. Profesionalizatorako urratsa izan da, beste erakunde batzuetan eman denaren antzekoa.

Zuzenketa-prozesua *Uztaro* aldizkarian

Jakintza eta eduki kontuak bermatu ondoren, maketatu egiten da testua.

Hor egiten du maketatzaileak aurkezpen-arauetako lehenengo garbiketa.

Zuzentzaileak hartzen duenean, gerta liteke idazleari berriro itzultzea, ohar txukun batekin batera: «oso ona da edukiari dagokionean, baina... emazioz zuzentzaile bati eta ekarri berriro, hizkuntza zuzenduta».

Bestela, zuzentzaileak lehenengo garbiketa egiten du (eskuz), hizkuntzari begira gehien bat, eta aurkezpen-arauetako gauzarik larrienei. Zuzenketa sartzen dira, maketazioan. Gero, zuzentzaileak berriro irakurtzen du, lehenengo zuzenketei begiratu gabe, berriro ere hizkuntzari begiratura, baina aurkezpen-arauetan gehiago zehaztuta.

Era guztietako kontuei adi egon behar du zuzentzaileak: kontuz ibili behar du, adibidez, aipu bibliografikoekin, ez baitira beti, gero, bibliografian agertzen; kontuz koadroekin, portzentajeen batuketa ez baita beti 100 izaten; urteak idaztean, esaterako, sarri nahasten dira 1696 eta 1969; taulak errepikatzea oso ohikoa da; modan dago oharren zenbaketaren dantza; maketatzaileari ihes egiten diote hitzek koadroetatik; lerro guztiak eta zuriune guztiak izan behar dira sumagarriak zuzentzailearentzat; eta sumagarrienak aurkibidea, izenburuak eta laburpenak.


Behar den beste bider errepikatuko da urrats hori. Azkenean, egun oso bat eman ohi du zuzentzaileak maketatzailearekin: dena berrirakurri (ez osorik), azkenengo zuzenketa ea ondo sartu dituen ikusi...

Orduan, egileari bidaltzen zaizkio orjinala eta testu zuzendua (eta testu markatuak).

Bi xede ditugu: egilearekiko errespetua eta pedagogia (egileari bere akatsak erakusteko), biak garrantzitsuak UEUrentzat. Baina al-daketa-proposamen gutxi etortzen dira urrats horretan. Harrigarriena da, hain zuzen, gutxitan kexatzen direla idazleak egin zaizkien zuzenketez.

Ondorioak

1. Zuzentzailea ezinbestekoa da.
2. Aldizkari zientifikoetan, hizkuntza baino gehiago da zuzentzaileak zuzendu beharrekoa (eta horretarako formazio berezia behar da).
3. UEUk eskuzabaltasuna erakutsi du urteotan: dohainik zuzendu ditu unibertsitate-irakasle askoren lanak, eta irakasten edo trebatzen ahalegindu da.
4. *Uztaro* aitzindaria izan da ortotipografiaren eta aurkezpen-arauen garrantzia ikusten (1995).



Eranskina:**UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA.****LIBURUGINTZA****1. Liburuek eta Uztaroko artikuluek bete behar dituzten arauak**

- Originalak diskete informatikoan aurkeztu behar dira. Word programa erabiliko da (PC edo Macintosh formatuetan), eta Times letra-mota.
- Lanaren bi kopia bidali behar dira UEUra, DIN A4 formatuan.
- Irudiak, grafikoak, taulak, etab. euskarri informatikoan aurkeztuko dira. Irudien kasuan, irudi bakoitzaren PostScript-a bidaltzen saiatu behar da.
- Argazki-material guztiak ondoz ondoko zenbakiak izan behar dituzte, sail bakar batean eta aurretik "irudia" hitza dutela, dagokien oinarekin eta testuan non kokatzen diren adierazten dela.
- Egileak bere argazkia, bere datuak (lerro pare bat, solapan ipintzeko) eta liburuaren azalpena (7-10 lerrokoa, atzeko azalean idazteko) bidaliko ditu liburuarekin batera.
- Kapitulu, atal eta azpiatalen egitura eta tamainak:
 - Liburuetako kapituluaren izenburuak letra larri lodiz idatziko dira (tamaina: times 18, helvetica 14).
 - Atalburuak, letra xehe lodiz jarriko dira, baina erdian lerrokatuta (tamaina: times 14, helvetica 12).
 - Azpiatalen buruak ere letra xehe lodia izango dute, baina ezkerrean lerrokatuta egongo dira (tamaina: times 12, helvetica 11).
 - Azpiatalen barruko zatien buruak, letra xehe lodi etzanez idatziko dira (tamaina: times 12, helvetica 11).
 - Hurrengo mailako azpiatalak letra xehe etzanez emango dira (tamaina: times 12, helvetica 11).
 - Zatiak bereziki ugari direnean zenbaki arabiarrekin joka daiteke buruaren aurrean (adibidez 1. / 1.1. / 1.2.1. / 1.2.1.2. / 1.2.1.2.1.)
 - *Times* letra-mota erabiltzen denean, 11 puntukoa hautatuko da testu nagusirako, 10 puntukoa aipuetarako eta 9koa oinoharretarako.
 - *Helvetica* letra-mota erabiltzen denean, 10 puntukoa hautatuko da testu nagusirako, 9 puntukoa aipuetarako eta 8koa oinoharretarako.
 - Aipuek 10 mm.ko koska eramango dute ezkerretara eta paragrafoetako lehen lerroek 5 mm.koa.
 - 1,5 lerroko tartea utziko da paragrafotik paragrafoa bitartean, eta 2 lerro edo gehiago atal berria hasten denean.
- Letrakera etzana eta lodia
 - Gainerakoetan, ahal den gutxien erabiliko da letrakera lodia.
 - Letrakera etzana (eta ez lodia edo larria) erabiliko da zerbait bereziki nabarmendu nahi denean edo, aipua osatu gabe, beste hizkuntza batzuetako hitzak sartzen direnean euskarazko testuan.

• Aipuak

- Gainerakoetan, ahal den gutxien erabiliko da letrakera lodia.
- Beste nonbaitetik harturiko aipamenak, luzeak direnean (hiru lerro edo gehiago), lerrokada berezian emango dira, letra zuzenez, ahal bada tipo txikiagoan, ezkerreko alboan koska aterata.
- Hiru lerro edo gehiagoko aipu hori itzulpena denean, jatorrizkoa eskaini nahi duenak orripeko oharrean eman dezake alboko kakotx bikoitzen artean («...»). Edo nahiago bada, alderantziz.
- Aipamen laburrak direnean (bi lerro edo gutxiago), lerrokada berezi gabe emango dira, letra zuzenez, alboko kakotx bikoitzen artean («...»).
- Aipu laburra jatorriz euskarazkoa ez denean, jatorrizkoa eta euskal itzulpena eman nahi badira, alboko kakotx bikoitzen artean joango da lehena («...») eta, barraz (/) banatuta, inprimategiko kakotx bikoitzen artean bigarrena («...»).
- Laburrak zein luzeak izanik ere, aipuak ohar barruan eskaini nahi direnean, lerrokada berezi gabe emango dira, letra zuzenez, alboko kakotx bikoitzen artean («...»).
- Hitz solteen edo sintagma laburren itzulpenak emateko inprimategiko kakotx bakunak erabiliko dira ('...'), baita esanahia edo adiera azaldu nahi dutenak biltzeko ere. Euskara ez beste hizkuntzetako hitz solteak edo sintagma laburrak, ordea, letra etzanez aurkeztuko dira. Orobat erabilera metalinguistikoak.
- Testu barruko aipamenak erraztearren, taulak edo irudiak ematen direnean, zenbatuta joango dira, taularen edo irudiaren azpian: 1. taula, 2. taula, 1. irudia, 2. irudia...
- Adibideak eta formulak ere, ugari direnean, zenbatu egingo dira, orrialdearen eskuineko alboan: (1), (2), (3a), (3b). Atalka ere zenba daitezke: (1-3a).

• Bibliografia

- Artikuluak honela agertuko dira bibliografian, letra zuzenak eta etzanak, xeheak eta larriak, parentesiak, komak eta puntuak hemen erakusten den moduan jarritz:
 - Egilearen deitura, Egilearen izenaren lehen letra. (urtea): "Artikuluaren izenburua", Aldizkariaren izena, zenbakia, orrialdea-orrialdea.
- Liburuak honela:
 - Egilearen deitura, Egilearen izenaren lehen letra. (argitalpen urtea): *Liburuaren izena*, Argitaletxea, Ediziotokia.
- Bilduma batean, kongresu bateko agiri-liburuan, edo halakoetan agertzen diren artikuluekin honela jokatuko da bibliografian:
 - Egilearen deitura, Egilearen izenaren lehen letra. (urtea): "Artikuluaren izenburua", in Editorearen izenaren lehen letra. Editorearen deitura (arg. / koor. / zuz.), *Bildumaren izena*, Argitaletxea, Edizio-tokia, liburukia-zenbakia, orrialdea-orrialdea.
- Liburu edo artikuluari buruzko oharrik eskaini behar denean, kako zuzenen artean emango da [...], adibidez faksimila dela argitzeko, berrargitalpen bat dagoela esateko, argitaratzeak dela zehazteko, itzulpena denean jatorrizkoaren izena emateko...
- Aipaturiko dokumentua modu elektronikoan ere eskuragarri denean angelu artean zehaztuko da helbide elektronikoa, gainerako informazio guztiaren ondoren: <http://...>.
- Dokumentua soilik modu elektronikoan eskura daitekeenean, honela aurkeztuko da:
 - Egilearen deitura, Egilearen izenaren lehen letra. (argitalpen urtea): Dokumentuaren izena, <helbide elektronikoa> [Kontsulta: urtea-hilabetea erromatarrez].
- Hurrenkera alfabetikoan eskainiko da bibliografia, egileen deituren arabera, sarrera bakoitzeko lehenengoan izan ezik gainerako lerro guztietan 5 mm.ko ezkerreko sangratuarekin.

- Egile baten lan bat baino gehiago agertzen denean, aurrenekoan idatziko dira izen-deiturak eta hurrengoetan marra luze bat emango da horien lekuan, eta komaren ondoren urtea. Egile beraren lanak hurrenkera kronologikoan eskainiko dira, zaharrentik hasita; urte batean lan bat baino gehiago baldin baditu (urtea) izango da lehena, (urteab) bigarrena, (urteac) hirugarrena...
- Egile biren artean idatzitako lanak honela aurkeztuko dira:
 - Egilearen deitura, Egilearen izenaren lehen letra. eta Egilearen deitura, Egilearen izenaren lehen letra. (urtea):
- Hiruren artean idatzitakoak honela:
 - Egilearen deitura, Egilearen izenaren lehen letra.; Egilearen deitura, Egilearen izenaren lehen letra. eta Egilearen deitura, Egilearen izenaren lehen letra. (urtea):
- Hiru egile baino gehiagoren artean idatzitakoak lau era hauetako batean aurkeztuko dira:
 - Egile baten deitura, Egilearen izenaren lehen letra. eta beste (urtea):
 - Egile -baten deitura, Egilearen izenaren lehen letra. *et al.* (urtea):
 - Zenbaiten artean, (urtea):
 - *Varii*, (urtea):
- Orripeko oharretan ez da fitxa bibliografikorik eskainiko. Bibliografian sartu nahi ez den zerbait aipatzeko noizbait horrela egin nahi bada, lehenengoz agertzen denean aipatuko da osorik aipatu beharrekoa, eta hurrengoetan bibliografian balego bezala jokatuko da, edo *op. cit.*, *ibidem*... eta halakoez baliatuz.
- Ekidin daitekeen ohar-gehiagikeria saihestearren, egin behar diren bibliografia aipamenak ahal dela testu nagusian sartuko dira, parentesi artean, egilearen deitura (behar denean), argitalpen-urtea eta bi puntuen ondoren orrialdeak zehaztuz.
- Inolako gaztigurik gabe erabil daitezke arlo bakoitzean ohikoak diren bibliografia-laburdurak. Bestelakorik erabili behar denean lehenengoz erabiltzen denean jakinaraziko da bakoitzaren esanahia; asko direnean liburuaren bukaerako zerrenda batean bil daitezke.

Hizkuntzalariak telebistagintzan

ASIER LARRINAGA

Zer garen

Ezer baino lehen, eskerrak eman nahi dizkiot EIZI Eri, zuekin batera gogoeta egiteko aukera hau eskaini digulako.

Euskal Telebistaren barruan sail txikienetako bat da Euskara Saila, eta, hala ere, ez diote inori ematen Euskara Saileko kideoi baino izen gehiago: zuzentzaileak, Euskaltzaindia, euskaratzaileak, komisario linguistiko-politikoak, euskalariak. Berez, Euskal Telebistako kategorien zerrendaren arabera, hizkuntza-kalitatearen kontrolerako teknikariak gara, eta gure artean *zuzentzaile* erabiltzen dugu. Baten batek gainerako izenetako bat erabiliz gero, orduan ere erantzuten dugu, asmo oso gaitzesgarriarekin erabili arren, esate baterako, *komisario linguistiko-politiko* esaten digutenean.

Azken batean, izen-ugaritasuna zerbaiten seinale da: gure lana ez dela isila, ez dela oharkabekoa, ez garea ilunpetako zereginetan ari, eta, batez ere, gure bezeroentzat gure zebitzua ez dela hutsala, egungo kudeaketa-estandarretako hizkeran esanda. Batzuei arrotz egingo zaizue berba egiteko modu hori,

baina zuen baimenarekin hala egiten jarraituko dut une batez, oso baliagarria baitzait gure lana zertan datzan azaltzeko.

Pentsa dezagun Euskal Telebista fabrika bat dela, eta haren produktua bideo-zinta bat dela, egun osoko programazioa grabatuta daukana. Zintako programazioa osatzeko ETB fabrian hainbat jarduera bete behar dira, bakoitza lan-unitate batean. Zuzendaritza deritzon unitateak eskaintzaren diseinua egiten du: zer saio sartuko diren, zelan, zer ordutan. Albistegi unitateak informazioarekin loturiko saioak egiten ditu. Programahornidurako unitateak kanpoan egindako saioak crosten ditu, eta ETBn emateko prestatzen ditu. Programagintza unitateak fabriketan bertan egiten ditu saioak, era guztietakoak: lehiaketak, telesailak, magazinak... Banaketa unitateak programa guztiak hartu eta bideo-zintan jartzen ditu, behar den hurrenkeran eta behar diren tarteeekin. Hedakuntza unitateak, azkenik, zinta hartu eta ikuslearen etxeraino eramaten du.

Eskema horretan –konturatuko zineten– behin ere ez dut aipatu Euskara Saila. Izan

ere, Euskal Telebistako hizkuntzalariok esandako lan-unitateetan dihardugu, eta bakoitzaren lana unitateko produktura zuzenduta dago, alegia, parte bat gara produktu horren fabrikazioan, unitateko beste profesionalak bezala. Geure parte, geure ardur, hizkuntzaren kalitatea zaintzea da, baina garbi gera bedi parte edo ardur esaten dudanean ez dudala erantzukizuna esan nahi, ezta kezka ere. Izan ere, produktuaren gaineko erantzukizuna, bai eta kezka ere, unitateko profesional guztiok dugu alderdi guztietan. Hala, bada, albistegietako kazetariak, adibidez, testuak zuzentzea baino gehiago eskatzen digute hizkuntzalarioi; euren lanabesa –hizkuntza– behar bezain zorrotza edukitzeko jotzen dute guregana. Telesailetan, aktoreak esan beharreko testua bere egiten laguntzeko eskatzen digu, eta platoon, grabatzeko unean, hizkuntzalari funtsezko elementu bilakutzen da denentzat: zuzendariarentzat, hartualdia ontzat emateko erreferentzia garrantzitsua da; aktoreentzat, entonazioa egiaztatzeke, esanezinak arintzeko eta sinesgarritasuna kontrastatzeko pertsona da; eta produktoreentzat, kalitate-bermea.

Adibideak ematen hasi naiz, eta ia esanda utzi dut Euskal Telebistako hizkuntzalariok zein unitateetan dihardugun. Hirutan: programa-horniduran, albistegietan, eta programagintzan. Unitate bakoitzean fabrikatzen den produktua hain berezia izanda, gu ere espezializatuta gaude, nolabait esatearren.

Zer egiten dugun

Euskal Telebistako hizkuntzalari bakoitzak bere lan-unitatean diharduen arren, Euskara Sail bat badago, guztiz beharrezkoa baitzaigu koordinazioa, irizpide-baterakuntza,

eta gaien azterketa eta ikerketa. Izan ere, telebistan zuzentzaile garenontzat gutxienekoa testuak zuzentzea da. Zuzentzen hasterako, fabrikatzen dugun produktuak zelako testua behar duen jakin behar dugu.

Guretzat ez dago adigai garrantzitsuagorik *hizkuntza-aldaera* baino. Hizkuntza-aldaerak –hizkerak, bestela esanda– azpikodeak dira, hizkuntza-kode osoaren barruko multzoak dira, komunikazio-egoera bakoitzak ezarritako eskakizunen arabera bereziak. Komunikazioa arrakastaz gerta dadin, egoeraren eskakizunei behar bezala erantzuten dien hizkuntza-aldaera aukeratu behar da. Arrakastarik ezak, kasurik txarreanean, komunikazioa etetea dakar, eta ikusleak galtzea, telebistako saioei buruz ari bagara.

Ikuspegi horretatik, guretzat ez da erabilgarria *euskara ona / euskara zuzena / euskara egokia* bereizketa, bere horretan. Albistegi batean «gizonak egin dute» esatea txarto aritzea da, baina ez euskara txarra delako, edo euskara okerra delako, beste arrazoi bategatik baizik: albistegietan erabili beharreko hizkera euskara batu neutro eta erdiko mailakoa delako. Garbi dago «gizonak egin dute» esaldia ez dagoela euskara batuan, eta, beraz, ez lukeela tokirik izan behar Euskal Telebistako albistegietan.

Egokitasuna neurtzeko, era berean, ezin da irakurraldien proba erabili. Niri hamarka esaldi datozkit gogora, hizkuntza guztietan, den-denak egokiak baina ulertzeko bost eta sei aldiz irakurri behar izan ditudanak. Bartzuk, ez ditut urteetan ulertu: «cogito, ergo sum», «la excepción confirma la regla», «ez du zentzurik gertatua gertatzeko probabilitatea kalkulatzek», eta abar. Egokitasunaren ikuspegitik esaldiok ez dute aitzakiarik, ulertzeko ahalegin handia eskatzen diguten arren.

Telebistan ez dute tokirik, esaldioi dagokien hizkera nekez erabiltzen baita telebistako programetan, eta, hain zuzen, hor dago egokitasunaren gakoa. Egokitasuna da aukeratutako hizkeraren eta komunikazio-egoeraren batortzea. Testuak –*testu* hitza adierarik zabalenean hartuta– epaitzeko ez genuke beste irizpiderik erabili behar, alde batera utzita *ona / zuzena / egokia* sailkapen hirukoitza edo beste zernahi.

Euskal Telebistako hizkuntzalarion lanaren ardatza hizkerak dira: zein diren, zein dagokion edo zein dagokien fabrikatzen dugun produktu bakoitzari, eta, azkenik, zer hizkuntza-eragari duen bakoitzak. Horiek hiru puntuak aztertuta, lan-unitateko lankideei ematen diegu gure azterketen berri, haien ikuspegiekin aberasten ditugu gure emaitzak, lankideei produktuaren hizkera-baldintzetarako trebatzen laguntzen diegu, eta, oso zeregin garrantzitsua: euskararen hizkerak bildu, landu, osatu eta sortu egiten ditugu, gure produktuetan dauzkagun premien arabera.

Hizkuntzalariak programagintzan

Batzuek pentsatuko dizue apologia egiten ari naizela. Ez. Ez dut deskribatu munduko beste hedabide batzuetan egiten ez denik, eta Euskal Telebistako hizkuntzalariok ez dugu aurkitu munduko beste gidoilari, elkarrizketalari eta erredaktore batzuek ez dakitenik. Funtsezko ideia oso erraza da: idazten hasi aurretik jakin behar dugu zer nahi dugun.

Telesail bat sortzen denean, esate baterako, ez da nahikoa pertsonaiak diseinatzea eta argumentuaren hariak asmatzea. Beste gauza asko ere pentsatu behar dira: xede-audientzia, emititzeko eguna eta ordua, atal-

kopurua, atal itxiak ala irekiak, eta abar. Hori dena programa-proiektu deritzon dokumentuan biltzen da. Telebistako argotean, telesailen programa-proiektuari “biblia” esaten zaio. Funtsezkoa da bibliaren ataletako bat hizkuntzarekin lotuta egotea, dela jatorrizko ideian azalduta, dela berariazko kapitulu batean, dela pertsonaien deskribapenean. Euskal Telebistaren hiru produkzio nabarmen aipatzearren, *Goenkale*-n eta *Hasiberriak*-en, jatorrizko ideian landu zen hizkuntza-eredua, eta *Ertzainak* polizi telesailaren kasuan, bai jatorrizko ideian, bai pertsonaien deskribapenean.

Ertzainak Tentazioa ekoizpen-etxeak egin zuen ETBrentzat 1999. urtean. Telesailak bide berri bat urratu zuen Euskal Herriko telebistagintzan. Alde batetik, generoa –polizi generoa– inoiz erabili gabea zen euskaraz. Beste aldetik, sortzaileek gertalekutzat Bergara aukeratu zuten, bizkaieraren eta gipuzkeraren arteko mugan, hizkuntza-esparrua zabala izan zedin. Izan ere, oso asmo zehatza zeukaten hizkuntzaren erabilerarako, *Ertzainak*-en biblian jasota geratu denez: «Telesailaren estilo-nahiari begiraturaz, errealitatetik gertu dabilela ohartzen gara, eta horrek hizkuntzaren tratamenduan sinesgarritasunari lehentasuna ematea eskatzen du». Pertsonaietako batzuk honela deskribatu zituzten. Mikel Arruti (Joseba Apaolaza): «Samuel baino hamar urte gazteagoa da. Urretxuarra. Familia jeltxide batekoa [...]». Sara Muñozguren (Mireia Gabilondo): «Bergarakoa. Hogeita hamabost urte. Ezkondua dago. Bi seme-alaba ditu [...]». Alicia Gonzalez (Maiken Beitia): «Hogeita hamar urte. Gasteizkoa. Euskaldunberria. “Seguridad Ciudadana”ko agentea, uniformeduna. Mikelen andregaia [...]». Marisol Zarate (Ane

Aseginolaza): «Berrogeita bat urte. “Patakon” tabernako jabea. Bere senarra duela hamabi urte joan zen [...]».

Pertsonaia batzuen hizkuntza-ezaugarriak bat zetozen haragiztatu behar zituzten akto-reekin, baina beste batzuenak ez. Ane Aseginolazak, idiazabaldarra izanik, bergarar tabernariarena egin behar izan zuen. Telesailean aritu zen hizkuntzalaria –Arantzazu Loidi bergarar familia baten alaba– galduta ibiliko zen, hizkuntza-tratamendua eta pertsonaiei zegozkien hizkerak ondo azalduta aurkitu izan ez balitu.

Oro har, programagintzan lan egiten duten hizkuntzalarientzat funtsezkoa da sartzailcek alde aurretik pentsatzea hizkuntzarekin loturiko alderdiak. Asmo jakinik ez badago, nekez aberats daiteke beste ikuspegi batzuekin, nekez presta daiteke trebakuntzarik, eta nekez egin daiteke aurrelanik hizkerak lantzen eta osatzen.

Programa-proiektua

Orain arte, Euskal Telebistako hizkuntzalarion lanaren ikuspegi orokorra eman dut, eta adibiderako programagintzan zelan aritzen garen azaldu dut, oso azaletik. Nahita aukeratu dut adibidea, eta nahita eraman dut azalpena programa-proiektua deritzon dokumentura, nire hitzaldia hurrengo hitzaldi biekkin lotu nahi dut eta: Beatriz Zabalondok elkarlanean zuzenketaren gainean egin behar duenarekin, eta Ritxi Lizartzak euskara dramatikoaren gainean egin behar duenarekin. Hirurek batera hizkuntzalariorik telesailetan egiten dugun lanaren ikuspegi osoa emango dizuete.

Gidoi batek hizkuntzaren aldetik huts egiten duenean, arrazoi programa-proiektuari

lotuta egoten da gehienetan, edo asmoak ez direlako behar bezala azaldu –esplizituki zein implizituki–, edo programako profesionalen batzuek ez dituztelako aintzat hartu proiektuan azaldutako asmoak.

Programa-proiektuaren oinarria jatorrizko ideia da. Hobeto esanda, telebistako saio baten oinarria jatorrizko ideia da. Jatorrizko ideiak hitz gutxitan ematen du programaren berri, ezaugarri behinenak aipatuz. Ezaugarri batzuk, baina, jakintzat ematen dira, eta horregatik esan dut lehenago asmo batzuk implizituki azaltzen direla. Horrelako asmo implizitu bat Euskal Telebistak ETB-1erako agintzen dituen telesail guzti-guztiei dagokie: programaren ingurune semiotikoa euskal hitzunen komunitatea da. Horrek esan nahi du telesailerako erreferentziak euskaldun-komunitateak ematen dituela.

Zenbait gidoitan ez da kontuan hartzen zein den erreferentzia-emailea, eta hizkuntzalariorik hainbat ohar egin behar izaten ditugu horrekin lotuta. Halako oharren adibide batzuk emanez, errazago ulertuko da zer esan nahi duen ingurune semiotikoak.

Lehenengo eta behin, pertsonaiak bataiatzeko, euskaldunok erabiltzen ditugun izenak erabili beharko liriateke: Jose Mari, Arantza, Ainhoa, Iker, Belen... Baztertzekotzat joko nuke «Iciar», eta horregatik gidoi batean aurkitu nuenean aldatzeko eskatu nuen, eta haren ordez «Itziar» edo «Ixar» jartzeko. Beste gidoi batean, pertsonaia nagusien izenak bildu eta zerrenda hau atera zitzaidan: Silvia, Ana, Pablo, Bruno, Laura, Marina, Sergio, Carlos, Rosita eta Alvaro. Ez da oso sinesgarria halako koadrila bil daitekeenik euskal giroan.

Gidoi berean, toki hauek aurkitu nituen aipatuta: Malagara ezkontzea, oporretan joa-

teko Paris, Erroma edo Karibe aldea aukeratu beharra... Beharbada, gehiegi esatea da, baina ematen du munduari Madriletik begiratzen zaiola, eta ez Bilbotik edo Iruñetik.

Ingurune semiotikoarekin lotutako beste arazo bat kultur ezagutzei dagokie. Euskaldun-komunitatearentzat egiten den serie batean kultur ezagutzak komunitate horren hizkuntzan aipatu beharko lirateke, alegia, euskaraz.

Amona.- "Derecho romano": hau ez al da Xabier Arzalluzek erakusten zizuena?

Eli.- Gauzak ez daude hain gaizki ere. Edo "comida basura" zakarrontzia bilatu beharreko janaria dela sinistu duzu?

Adibide bi baino ez dira, niretzat oso larriak, biek baitute euskal ordain arrunta: «erromatar zuzenbidea» eta «zabor jana». Hain gauza errazak euskaraz ematea lortzen ez badugu, nekezago lortuko dugu hain arruntak, edo hain finkatuak, edo hain errazak ez diren ezagutzak euskaraz ematea, eta gurpil zoro batean sartuko gara, halakoak entzunaren entzunez eta erabiliaren erabiliz bakarrik bihur baitaitezke arrunt. Ez genituzke indarrak sakabanatu behar, behin «Hook kapitaina», behin «Kako kapitaina», behin «Garfio kapitaina» erabiliz. Hala jokatzu gero, euskaraz galdutzat jo dezakegu kultur ezagutza hori. Badakigu ondorio tamalgarria zein den: euskaraz txiste bat edo hitz-joko bat sortu nahi denean, edo gauza barregarriren bat esan nahi denean, gaztelaniara jotzea.

Xxxxx.- Haietako bolada batean liburuak erostegatik eman zidan. Eta lehenengo erosi nuen liburua izan zan *Cómo comprar en las rebajas y no perder la cabeza*. [...] Eta denetako liburuak dau-

de. Eta liburuak denetarako. Begira. Esate baterako, jenio txarra daukazula? Orduan erosi *Cómo superar el mal genio*. Ederra liburua. Edo txikia sentitzen zerala, tapoi bat? Ba, badago liburu bat oso ona: *Cómo crecer 15 cm de manera absolutamente natural*.

Ahoskera eta ahoskera-arazoak ere erreferentzia-emailearekin zuzenki lotuta daude. Euskaldun baten ahotan ez da sinesgarria «txat» esateko arazoa izatea, euskaldunok neke barik ahoskatzen baititugu «bat», «bart», «dit» eta «blaust». «Txas» gaztelaniaren ohitura fonetikoak baizik bereganatu ez dituen hitzunik esango luke. Hortaz, euskarazko gidoi batean lekuz kanpo dago honelako elkarriketa bat:

Biloba.- Bai, txat esaten zaie.

Amona.- Hori da, "txasak".

Ingurune semiotikoa zer den eta zer garrantzi duen argitu dudalakoan, beste adibide bat baino ez. Telesail bateko fikziozko munduan pertsonaien hizkuntza euskara izanda, ez du zentzurik pertsonaietako bat euskaldunberria izateak, ez, behintzat, programa-proiektuan berariaz esaten ez bada Euskal Herriaren errealitatea islatu nahi dela, *Ertzainak* seriean bezala. Bestetik, telesailiko fikziozko munduan hizkuntzaren normalizazioa arazoa ez bada, artifizio hutsa da pertsonaiek aparteko kezka edo arreta agertzea hizkuntzaren gainean, Euskal Herri honetan bizi garenok egiten dugun bezala.

Mikel.- Eta hau udaletxea da, beno, hemen herriko etxea esaten da. Eta politikariak egoten dira. Gure alkatea Iñaki Lekuona da. Oso-oso euskalduna, oso-oso jatorra. Eta beti-beti lanean egoten da.

Gehiago zehaztu behar da

Gidoi batek bete beharko lituzteen ezau-garri asko atera ditugu inplizituki esanda dagoenetik, baina hori ez da nahikoa telesail baten hizkuntza-tratamendua zehaztuzat emateko. Hizkerak esplizituki aipatu behar dira.

Lehenago *Ertzainen* adibidea eman dut. Hizkerak pertsonaien deskribapenetan zehaztu ziren batik bat. *Hasiberrien* biblian, ostera, sericaren jatorrizko ideian aztertu zen hizkeren arazoa, esanez *Goenkaleren* kimu honen giro berria –hiri handi bat, Donostia– eta pertsonaia nagusi berriak –unibertsitatean ari diren gazteak– ekarriko zituela, eta horrek hizkeran ere ukitu berriren bat ekarri behar zuela –kaleko hizkera gaztea–.

Euskal Telebistari aurkeztu zaizkion proiektuetan beti ez da kontuan izan alderdi garrantzitsu hau. Gogoan dut pantailara heldu ez zen gidoi bat, hizkeren aldetik korapilatsu samarra zena, eta, hala ere, berariazko azterketa egina ez zuena. Gidoi hartan medikuntzako hizkera, ospitalcetako argota, eta sendabelarren munduko berbakera azaltzen ziren. Jakina, programa-proiektuan ezin da hizkera bakoitzak nolakoa izan behar duen deskribatu, baina halako hizkera bereziak erabili behar direla zehazten bada, elkarrizketak idazten hasi aurreko lana egin dezake hizkuntzalariak, esamoldeak, hitzak, egiturak bilduz, euskarazko ordainak emanaz, eta abar. Gidoi hartan igartzen zen alde horretatik elkarrizketalariari ez zitzaiola batera lagundu, eta haren esku utzi zela den-dena asma-tzea idatzi ahala.

Gidoiak idazten hasi aurretik, beraz, funtsezkoa da, lehenengo, sortzaileek oso garbi jakitea zelako hizkuntza-tratamendua nahi

duten, eta hori idatziz azaltzea, eta, bigarrenek, erabili nahi diren hizkerak alde zuretik lantzea. Horrez gainera, bada beste gauza bat, oso funtsezkoa: berdin ulertzea denok zer den hizkuntza-aldaera, eta berdin ulertzea denok zelakoak izan behar duten telesailan erabiliko diren aldaerek.

Demagun telesail batean kutsu kolokiala eman nahi zaiola hizkerari. Hizkuntzalari baten laguntzarekin, esamolde batzuk, hitz batzuk eta egitura batzuk prestatu dira elkarrizketalariarentzat. Honaino ondo. Gauzak ez lirateke hain ondo joango, baina, halako batean elkarrizketalariak honelako gauza bat idatziko balu.

Esti.- Hala ere, Txema onartu beharra daukat, zu zoragarri zaudela, beti bezala. (*Bi muxu emango dizkio TXE-MARI*) Aio, politte.

Zergatik «aio, politte»? Hizkera kolokiala delako? Garbi dago hori idatzi duenak eta nik ez dugula berdin ulertzen zer den “kolokiala”. Batetik, hizkera kolokiala erabiltzeak ez du esan nahi batuan egin behar ez denik, ezta ahoskera zaindua erabili ezin denik ere. Telebistarako eta zinemarako produkzioen kontsumitzaile bazarete, konturatuta egongo zarete askotan hizkera kolokialaren eta neutroaren arteko aldea hiztegian eta sintaxian baino ez dagoela, hots, hizkera kolokialaren kolorea emateko, nahikoa izaten dela hitz eta esamolde jakin batzuk erabiltzea, eta esaldi bakunago eta arinagoetara jotzea. Izan ere, ikus-entzunezko hizkuntzak ez du zertan izan bizitza errealeko hizkuntzaren ispilu. Bestetik, elkarrizketalariak oso gogoan izan behar du bere eskuetatik irteten den gidoia ez dela inoiz behin-betik bertsoia izaten, beste esku batzuek ere hartzen baitute parte;

eta oraingo honetan ez naiz zuzentzaileaz ari, aktoreez baizik.

Baliteke balizko serie hau asmatzean ahoskera lasaiagoa nahi zela pentsatzea, hizkerari kutsu kolokiala ematen laguntzeko. Horretarako, Euskaltzaindiaren Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua deritzon arauan begiratu besterik ez dago, maila zaindutik beherakoa zer den jakiteko, harmonia bokalikoak egitea, adibidez: *etxea* (zaindua) > *etxia* (beheragokoa). *Martin* telesailean horrelako zerbait egin nahi izan zen. Ez gara hipotesi hutsetan ari, beraz.


Halako kasuetan zelan jokatu behar du elkarrizketalariak? Testua normal idatzi behar du, jakina, bitxikerietan jausi barik. Ez du zentzurik gidoian «politte» anekdotiko eta asistematikoko bat jartzeak. Testuari ahoskera lasaiagoa ematea beste une batean landu behar da: gidoia aktorearen eskuetara heltzen denean. Izan ere, egokiena da aktore bakoitzak bere ohitura fonetikoaren arabera molda dezala testua, hizkuntzalariaren laguntzarekin. *Martin*-en, esaterako, gidoiak modu estandarrean idatzita egonda, oso ondo asmatu da aktore bakoitzak zelan eman bere ukitua, ahoskera zaindutik gehiegi urrundu barik.

Amaitzeko, euskarazko gidoien gainean ari garenez, ezin dut aipatu barik utzi beste

alderdi garrantzitsu bat, programa-proiektuan zehaztu beharko litzatekeena: tratamenduak.

Gidoi askotan nahaste handiak aurkitu ditugu, elkarrizketalarien esku utzi delako tratamenduak finkatzea. Hori alde aurretik finkatu behar da, eta, ahal dela, pertsonaien mapa baten bidez. Grafiko eskematiko batean pertsonaia guztiak eta pertsonaien arteko harremanak irudikatuz gero, askoz errazagoa da hika ala zuka egin behar duten zehaztea, eta, gainera, modu kongruenteagoan zehatz daiteke. Behin zehaztuta, grafikoa bertan adieraz daiteke zein kasutan erabiliko den hitanoa, elkarrizketalariak begien aurrean izan dezan idazten ari den bitartean.

Laburbilduta. Telesail baten elkarrizketak paperean ipintzen hasi baino lehen, ondo pentsatu behar dira hizkuntzari buruzko xehetasunak, batik bat zein hizkuntza-aldaera erabiliko diren. Ikus-entzunezko hizkerak ez dira ahozko hizkeren berdinak ezaugarri guztietan, testuaren sorkuntzan jartzen den ardura eta arretaren ondorioz, eta testu horrek bete behar duen zeregina- ren ondorioz. Testuak, gainera, ez du sortzaile bakarra, besteak beste, aktoreen eta zuzendariaren premiei erantzuten diela ziurtatu behar da eta.



Zuzenketa elkarlanean

BEATRIZ ZABALONDO

Sarrera

ETB1eko barne-produkzioko telesail batzuetan zuzentzaile gisa lan egin dudalako nago ni gaur hemen. Zuen aurrean jartzera nator lan horretan batutako bizipenak, ikasgaiak eta gogoeta-bide batzuk.

Hauexek izan dira nik parte hartutako telesailak: *Hasiberriak* (2000-2001), *Kilker Dema II* (2001), *Teilatupean* (2002) eta *Martin* (2003). Esan beharrik ez dago oso desberdinak izan direla helburuetan, lan egiteko moduetan, eta, dudarik gabe, emaitzetan eta arrakastan ere bai. Banan-banan horiek alerzea ez da nire xedea; hau ez da lan sistematiko batetik ondorioztatutako deskribapena ere. Ideia pare bat-edo mahai gainean utzi, eta, hurrengo topaketetan maila bat aurrerago abiatuko garela pentsatuta, konforme naiz: bidea eginez egiten dela sinetsita, aurrekoek ezarritako oinarrietatik abiatuta, eta urratsez urrats, beti aurrera begira. Hutsuneak eta akatsak izango dira, behar bada, baina osatu eta zuzentzeko bidea izango da hurrengoan.

Jardunaldiotako antolatzaileek nire berbaldiaren izenburua eskatu zidatenean, ez nuen berehala erantzun. Kosta egin zitzaidan erabakitzea, egia esan. Halako batean, argitxo hau piztu zitzaidan: "Telesailtako makineria erraldoian, zuzentzailea pieza apal bat besterik ez da. Lanbide horren muinean zer dagoen jaso behar du nire izenburuak". Eta euskararen herri honetan geure-geurea dugun *elkarlana* begitandu zitzaidan termino egokiena. Zergatik? Bada, lan honetan, eta taldeak gorabehera, beti funtzionatu izan dudalako azken produktuari begira, lantalde osoaren emaitzari begira.

Beraz, saiatuko naiz azaltzen zertan den zuzentzaile baten lana telesailetan, eta zertan den elkarlan hori.

Zuzentzailearen lana zertan den

1. Grabazioaren aurretik

Telesailak barne-produkzioaren zati garrantzitsua dira edozein hedabidetan; berdin ETBn ere: mugitzen duten bitarteko eta jendetzagatik aurrekontuak ere halakoxeak dira,

eta gainera, emaitza onuragarria izateko produktua dira. Audientziak neurtzen du hori.

Paperean ideia hutsa denetik, eta pantailan botatzeko prestatzen den bideoa eduki arteko lanaldian, parte-hartzaile guztien artean, produktu horren katebegi fimiño bat besterik ez da euskara arduraduna. Esango nuke, ez inon eta ez inoren aurrean nabarmen geratu barik, ahalegina egin behar duela lanbidea txukun ateratzeko aurrera, bi ideioi presente dituela: batetik, azken produktua, ikusleak etxean telebista aurrean ikusiko duena, duina eta "zaratarik" gabea izatea lortu behar dela, eta bestetik, telesailan lankide izango dituenekin unean-unean "negoziatzen" saiatu beharko duela, inork igarri gabe, irizpide txukun samarrekin bideratzeko eguneroko zeregina.

Telebistan botako duten produktu hori aktoreak "utzitako"/grabatutako lanarekin epaitzen dugu: azken-azkenean hura besterik ez baita ageri pantailan. Osteko/Ezkituko lana da zuzentzailearena: ondo samar eramanez gero, igarriko ez dena; baina filmari "zaratak" antzematen hasiz gero, lehenago ez bada geroxeago, ez da urruti ibiliko euskara arduraduna kritikatu duena.

Euskarazko telesailak fabrikatzeko prozesuan, gorabeherak gorabehera, hauxe gertatzen da: gidoia gaztelaniaz pentsatzen da oraindik gaur egun, eta sarri-sarri, idatzi ere gaztelaniaz idazten da. Gero euskaratzen da: batzuetan, itzultzaile profesionalek; beste batzuetan, gidoilariaren kide batek; noiz edo noiz, telesailan ariko den zuzentzaileari ere eskaintzen zaio...

Behin gidoia euskaratura, lehen zuzenketarako prest dago: ETBn, etxean, bulegoan..., beti ere "zuzentzaileak" tresnak eskura dituela (denbora pixka bat, hiztegiak,

konsultarako baliabideak, etab.). Itzultitako gidoiaren egokitzea/doitzea da zuzenketa: orrazketa morfosintaktiko eta semantikoez gain, aktoreek erraz barneratuko dituzten esapideetara doitzea, produkzio-egoerara moldatzea (grabazio set-era, gidoiaren harian egindako aldaketetara —egin direnean—...).

Orduan, aktoreak bere papera lantzeko hartzen du gidoia, eta beharbada berak ere ukituko du testua etxean ikasten hasitakoan: aldaketa horiek ere begiratu eta zuzendu/molatu behar dira.

Eta azkenik, grabazio aurreko entseguak hasten dira. Horietan, prosodiari erreparatuko dio zuzentzaileak batik bat: garbi ahoskatzea; doinua zaintzea; etenaldiak bere lekuan egitea (sintagmak hautsi gabe); azentua; pertsonaiari dagokion abiaduran hitz egitea (ez azkarregi eta ez mantsoegi ebaki barik); naturaltasunez botatzea testua...

Honetara etorrira, egoera ideala orain, euskarazko gidoia —ahal bada— entseguetan finkatuta uztea da, eta, grabazio egunean, aktoreak testua bere eginda eramatea platora.

Telesaileko hizkera eta erregistroen osotasun eta koherentziari ere erreparatu behar dio zuzentzaileak. Ez hori bakarrik, baita pertsonaia bakoitzaren ahotsari ere; izan ere, gidoilari eta itzultzaile bat baino gehiago izan ohi da elkarrizketak idazteko lanketan, eta atal batetik bestera inkongruentziak aurkitzea ez da arraroa. Pertsonaien mapa eta haien tratamenduarena ere zaindu beharko du zuzentzaileak.

2. Grabazioa

Ondo bidean, beraz, grabazio egunean, alderdi linguistiko-estilistikoak erabakita behar du. Grabatzea beste lanik ez da izango.

Platora iritsitakoan aldaketak eta doitzeak egin beharrean bagabiltza, ez da seinale ona: *Malo*, esango luke Gutik, Goenkaleko pertsonaiak. Eta zoritxarrez, nahi baino gehiagotan ibili izan gara: denborarik ez, eta unean-unean gidoigintzan, eta aktoreak testu berriaren arrastoan sartzen.

Grabazio bat ontzat emateko, hainbat faktore hartzen dira kontuan, eta, gutxi-gehiago, ordena honetan erabakitzen da:

1. Alderdi teknikitik begiratuta zuzena izatea hartualdia: soinua eta irudia ongi grabatuak —itzalik ez agertzea, platoko zaratatxo bat ez entzutea mikroan, kamera guztien grabazioa ona izatea...—.
2. Antzezpena eta prosodia sinesgarri samarrak izatea.
3. Aktorearen mintzaldia: testua ondo ikasita dakarren eta benetan bere egina duen ala hizkera ortopedikoa ateratzen zaion.
4. Testuaren egokitasuna.
5. Aktoreak inprobisatu badu, esan duena “zuzena” den erabakitzea.

Errealizatzaileak bere lana ontzat eman ondoren galdetu ohi dio iritzia platoko zuzendariari lehenengo eta gero zuzentzaileari: “Euskara, zer moduz?”. Di-da batean erantzun behar da, eta lehenetasunak eta irizpideak aurrez garbi edukitzea komeni da.

Denbora diru asko da platoan, eta segunduan hartu behar dira erabakiak. Neurri guztiak hartuta ere, nahi gabe erratzen gara batzuetan. Beste askotan, baina, amore eman behar izaten dugu, hizkuntzaren kaltean dela jakin-jakinean. Halaxe dira kontuak.

Asier Larrinagari entzun diozue aurreko saioan:

“ETBko hizkuntzalarien ardura hizkuntzaren kalitatea zaintzea da; produktuaren gaineko erantzukizuna eta kezka, baina, produktu horretan parte hartzen duten profesionalekin partekatuta dago”.

Esan nahi baita, lanketa honetan euskara arduradunak harreman estua daukala alor askotako jende askorekin: aktore, zuzendari, errealizatzaile, inoiz baita gidoigilearekin berekin ere. Lehentxoago ikusi dugu hori.

Zorroztasun estuena eta zabarkeriaren artean, Euskaltzaindiaren azken araua betearztearen edo txokokeriekin testua “jator” janztearen artean, esparru nahiko zabala dauka zuzentzaileak oraindik. Hor planteatu eta hitzartu behar du hizkera eta erregistro maila txukun bat; hor moldatu beharko du, bide batetik edo bestetik, aktorearen arteak eta esanezinak; hor landu beharko du zuzendari eta errealizatzailearekin harremana, gero platoan, denborak gehiegi estutzen ez duenetan behintzat, aukera izan dezan hartualdia hobetzea eskatzeko; eta azken batean, produktua bat eta bakarra izango denez, guztien konplizitatea biltzeko azpilana ere egin beharko da.

Telesaiotako kontsumitzaileak gozatzeko eta denbora pasatzeko produktu bat nahi du. Ikusle arruntak badaki onari eta txarrari antzematen; badaki zerk funtzionatzen duen eta zerk ez. Konturatzen bada aktoreak “irrist” egiten duela han edo hemen, desilusia hartuko du. Behin gertatuagatik, ez du gogoan hartuko. Baina etengabe gertatzen badira horrelakoak, aktorearen lana da hor azkenean geratzen dena: Hark esandakoekin testua “krikra” ari bazaio belarri ostean, ikusleak ez du gauza onik pentsatuko zuzentzaileaz, noski; baina ez aktoreaz, ezta gidoilariaz ere.

Beraz, denok nahi dugu produkturik onena izatea. Ikusleak etxean goza dezan, eta zergatik ez esan, gehiago eska dezan.

Orain arteko eskarmentutik ikasi dudana nagatik esango dut, onean-onean hitzartutako irizpide eta berbaldiek askoz emaitza hobek eman dutela, pantaila aurrean ikusteko ere.

Ahozketasunaren ezaugarriak

Hainbat autorek nabarmendu dituzte hizketaren eta idazketaren egoera komunikatiboaren ezaugarriak baita haien arteko aldeak azaldu ere. Cassany, Tusón, Luque eta Alcobak, besteak beste, luze idatzi dute horretaz. Hizkuntza mintzatuari buruzko haien ideiak gogora ekarriko ditut:

— Hizketan, komunikazioa berehalakoa da eta hiztunak ezin du planifikatu diskurtsoa; komunikazio trukea gertatu ahala gertatzen da hori.

1. Hala, sintaxia soila da, eta hiztunak eta entzuleak erraz prozesatzen dute informazioa entzun ahala.
2. Berehalakotasunak aldaketak eragiten ditu diskurtsoaren antolaketa linguistikoan eta horregatik sortzen dira diskordantziak, anakolutoak eta elipsiak.
3. Ez hori bakarrik, betelanak ere egin behar izaten dira (*alegia, orduan, ezta?, ba, zera, etab.*) hiztunak denbora behar baitu pentsatzeko.

— Hizketan, komunikazioaren berehalakotasunak gauzak errepikatzen edo parafraseatzen bultzatzen du hiztuna, entzuleak ezin baitu diskurtsoa nahi duenean errepikatu; eta hori badaki hiztunak.

— Ahozko hizkuntzan erabiltzen den lexikoa ere arruntagoa izaten da, entzuleak erraz ulertzeko modukoa.

— Hizketan maiz erabiltzen dira deiktikoak ere (*ni, zu, hura, etab.*) solaskideak adierazpenen denbora eta espazio berean dardelako. Gure kasuan, hotsak ez ezik irudiak ere informazioaren parte handi bat betetzen du, eta kontuan hartu beharrekoa da.

— Elementu prosodikoek (azentua, doinua eta etenaldiak) diskurtsoaren antolatzaile lana egiten dute ahozko hizkuntzan, eta horregatik ez da erabiltzen lotailu zehatzik adierazpenak semantikoki lotu eta zentzua emateko.

— Garrantzitsua, bai hizketan eta bai idazketan, erregistroaren erabilera da, komunikazio bakoitzari dagokion ezaugarri linguistikoaren hautaketa, izan ere arriskua baitaukatete hitz egiten duenak nahiz idazten duenak lexiko eta egitura egokiak erabili ez eta beste ongi ez ulertzekoa. Ahozkoan nahiz idatzizkoan oso-oso kontuan eduki behar da zein erregistro hautatzen den.

Irizpideak eta lehentasunak

Gogora dezagun berriro: fikzioa egiten ari gara, hizkera kolokiala da nagusi; eta hori ahozkoari dagokio. Ahozkoari dagokiona batbatekoa izan ohi da. Baina fikzioa aurrez pentsatutako testu bat den heinean, batbatekotasuna desagertua da. Ahozko hizkuntza errearen aldean, nekez emango dira digresioak eta erredundantziak, esaterako. Egia esan, inoiz gertatzen badira, aktoreak testuarekin trabatuta direlako izaten da; orduan, sekuentzia errepikatzen jotzen da, aktoreek

eurek ere ez dute-eta gogoko beren burua totelka ikustea telebistan.

Oinarria hizkera estandarra da; eta ahozkoa den neurrian, bizia. Lanbide honetan kontuan hartzen ditugu, gainera, komunikagarritasuna, sinesgarritasuna, naturaltasuna (garbizalekeriatik urrun), egokitasuna, zuzentasuna...

Nik uste dut **zuzena** izan behar duela beti. Ahalegina egin behar da behintzat. Faktore eta aukera askotxo daude-ta, labaintzeko. Gutxieneko batzuk, esate baterako, ergatiboak dira, edo *bainal/baino* ongi bereiztea... Gipuzkoako alde batzuetan ez dira bereizten, baina bizkaierazko herrietan bai, ondo gainera. Euskal Telebistako produktuak euskal hiztun guztientzat dira, euskalki guztietakoentzat.

Honekin lotuta, aditzaren kontua dator: **adizkiak** ere batukoak erabiltzea hobesten da eta ondo ebakitzea. Adibide sinple-sinple bat jar dezagun: *Badakit*. Aktore profesional batetik, martxa hartzen duenean bere berbaldian, pertsonaian oso sartuta badago eta ondo-ondo ikasi badu, tentazioa izan dezake *baakit* esateko, "jatorragotzat" daukalako, kasu baterako. Edo: *bakit*. Edo esaldi batean bat, eta hurrengoan bestea.

Ikus dezagun hitanoko formekin:

Bazakiat > bazekiat > batzekit : Ikusten dugunez, adizki baten aldaerak agertzen hasten zaizkigu. Belarriko minik egiten digu? Beharbada ez.

Baina jar dezagun aktore bizkaitar baten ahotan gauza bera:

Bajakixat > baxakixat > bajaixat... Forma hauek beharbada gehitxoago harritzen gaituzte, ezta?

Gauzak segituan konplikatzen dira:

Nola ebaki *Ze(r) moduz ari zara lan berrian?* > *Ze(r) mouz ai zera lan berrian?* > *Ze mouz ai zera lan berrin?* Bizkaieradunek, esate baterako, ez dute berea "ari" hori; galdera da: zein eredu eman behar dugu ETBtik?

Beste kasu bat: *Ondo lo egin.* > *Ondo lo ein* > *Ondo loin*.

Deklinabide markak: *aitatxorekin joango naiz* > *aitatxokin jungo na(i)z*.

Edo: *aitatxogaz* > *aitatxoaz*

Beti oso kontuan hartu behar da, zein erregistrotan diharduen pertsonaiak, jakina. Eta horrek hainbat kasu justifikatzen du, berez. Baina hala eta guztiz ere, ez zaigu ahaztu behar aldaera-dantza hori.

Edozein modutan, adizkiak eta deklinabide kasuak batukoak eta osorik ebakitzeko irizpidea da nagusi.

Euskalkien eta euskara batuaren erabilez, Euskaltzaindiak 2004ko martxoaren 26an argitaratuko adierazpenean honela dio: "Hedadura orokorreko komunikabideek euskara batua erabiliko dute".

Testuetatik garbitu behar ditugun beste gorabehera batzuk dira: *eske, segun, depende, no?*... Kalean barra-barra entzuten ditugun arren, ez dezagun lana hartu horiek TBtik nahita zabaltzeko.

Bizia izan behar duela ere esan dut. Esate baterako:

Testuingurua: *Martin* telesaila. Irratira doaz aitona-amonak, Inaxio apaizarekin hitz egitera, eta sarreran, Martinekin egin dute topo (Martin irratiko langilea da; Inaxio, zuzendaria):

ANTXON: Kaixo, Martin. (Totelka)

(MARTINEN BEGIRATUA, AMORRATUTA)

KORO: Inaxiorekin hitz egitera etorri gara, berak ezkondu behar gaitu-ta.

MARTIN: Shhh!!! Mundu guztia enteratuko da, ama! Banketera zer eraman behar duzu, herriko banda?

Adibidez kasu honetan, honela planteatu zitzaion aktoreari: "Ezagutzen duzu *bandoa jo* esapidea?" Nahikoa izan zen. Berak egin zuen zuzenketa, eta hauxe esan zuen:

MARTIN: *Ixo!! Zer, bandoa jo behar duzu, ala?*

Oker zegoen gidioan zetorrena? Ez, noski, baina grabatutakoa askoz biziagoa dena ezin ukatu. Arinagoa, zuzenagoa...

Beste adibide bat:

Ba lehenago esatea zenuen! (txukuna) > *Esan ba lehenago!*

Fraseologiak ere lagunduko digu behar bezala erabiliz gero:

Izugarrizko kolpeak eman zizkidaten > *Go-riak ikusi nituen*

Bizitasuna eta euskal kutsua **onomatopieik** ere ezartzen dute. Eta hau ere erreku-peratu behar dugun arlo bat da: Aise topatzen dira idatzita gidioietan honelakoak:

Zas! Labana sartu zion > *Dzast sartu zion labana!*

edo

Bum! Atea itxita aldegin zuen > *Danba! Atea itxi eta aldegin zuen.*

Inrain eta biraoak ere kontuz erabiltzekoak dira. Denak ez du zertan "akojonantea" izan: *sekulakoa, egundokoa, kristona, kristolakoxea...*

Edo baliabide faltagatik, ez daukagu betiko espresio-makulu superhigatueta jo be-

harrik: "No te jode!" > *Bai! Zaude hortan!* (Testuinguru jakinetan, noski)

Fikzioa egin arren, **euskal unibertsoa** islatu behar dugu:

Testuingurua: *Martin* telesaila. Irratiko zuzendari Inaxio kanpora bidali behar dute, eta enpresa modernizatze eta optimizatze aldera zuzendari berria bidaliko dute: emakumea, gaztea, ederra, sofistikatua, bizkaieraz hitz egiten zuen lagunartean... Baina petrala, distantea langileekin, "trepa" samarra...

MARTIN (erredakziokideei): Ogroa ikusi duzue? > *Zer, Anbotoko señoia ikusi duzue?* (> Anbotoko dama)

Zuzendari berriaren papera Anne Igartiburuk egin zuen. Berari galdetu zitzaion ea axola zion "Anbotoko señoia" (edo "Anbotoko dama") deitzea irratiko langileek. Izan ere, erregistro formaletik kanpo bizkaiera-duna agertzen baitzen. Oniritzia eman zigun "Anbotoko señoia" deitzeko sekuentzia hartan.

Itzulpenak gidioietan uzten dituen **ma-muak** ere ez dira gutxi. Pare bat adibide, besterik ez luze hitz egin da honetaz eta:

Niri grazioso iruditzen zaidalako esaten dut. > *Niri grazia egiten didalako (esan dut).*

Han denek janzten dute horrela > *Han horrela (hola) janzten dira.*

Komunikabideetako ajeetako bat denbora da, denbora eza. Lehen aipatu dut azkar erabaki behar izaten direla kontuak. Ba esate baterako, ari ginen grabatzen sekuentza bat eta pertsonaia batek esaten zuen, alaba "Heldutasun pertsonaleko" ikastaro batera zihoala. Inork ez zeukan zalantzarik, baina ni bueltaka nenbilen. Neure barrurako esaten nuen: "Nola demontre esan da euska-

raz, inoiz esan bada, Cursillo de Crecimiento personal? Esango zen, bai, noski; baina ez nuen arrastorik bilatu inon (zapatu iluntzea zen...). Lehenengo hartualdia egin zen, aktoreari entzun eta ez nengoen konforme, baina neuk ere ez jakin nola buelta eman, eta etsia jota nengoen. Halako batean, takal "Garatze pertsonala" etorri zitzaidan. Halaxe grabatu zen.

Beste batzuetan, lehen aipatutako ergatibo horietako batengatik sekuentzia erreplikatzea merezi duen ala ez neurtu behar da. Bada, ez da beti beste saio bat egiten. Askotan, ezta burutik pasatu ere.

Kontu xelebreak ere gertatzen dira. Zuk uste duzunean gauzarik arruntena planteatzera zoazela, ez zuzentasuna kontuan edukita bakarrik, baita forma erraza dela, egokia, txukuna, bizia, NORMALA... Bada, sorpresak hartzen dituzu. Horrelako bat gertatu zitzaidan egun batean; inozokeria bat da, baina konturatzeko:

Testuan hauxe zetorren: "autoa plazotan erosi". Eta normal-normal joan nintzen aktoreari esatera, "Beno, hori, *epetan erosi* esango dugu, ezta?" Eta erantzuna ezetz, normalagoa zela *plazotan* esatea. Harrituta geratu nintzen eta pentsatu nuen ez zidala ulertu; baina ez.

Plazotan erosi grabatu zen.

Baina den-dena ez da zuzenketa, **gauza polit askoak** ere ekartzen dituzte aktoreek euren, eta testuetan idatzita ere etortzen dira:

Martin telesailaren atal batean, hiru pertsonaia Txirri, Mirri eta Txiribitonekin identifikatzen dira; pailazokeriatan ibili direla deritzote. Elkarrizketagileek oso ondo lotu zuten ataleko giroa, pailazoan kanta ("Zapi zuria aurrera, zapi zuria atzera, zapi zuriarekin, jolasten gara") eta pertsonaien umorea. Ho-

nela idatzi zuten kanta: "Txarten gorria aurrera, txartel horia atzera, txartel pare hauekin jolasten gara". Benetan diotsuet, ez da konturik errazena **abestiak** egokitzea.

Bistan denez, telebistako saioetako eskua ez dago pertsona bakarraren esku; alderrik izango da munduko zuzentzailerik onena, zuzendari euskaldun jatorrena edo errealizatzailek "enroilatuena". Lan talde osoaren emaitza da telebistatik ikusiko duguna; guztien arteko konfiantza eta elkarlanetik irtingo da produkturik onena. Bidea ez da halako edo bestelako telesail batekin hasi eta amaitzen; honetan ere, bidea eginez egingo dugu.

Zer bide egin den

Luzea da aurrean daukagun bidea, baina hutsetik goragoko mailetan gaudela esateak ere ez du lotsarik eman behar.

1. Esate baterako, **ebakera** kontuan:

Finkatuta eta erabat normalizatu dira **hotsen loturak**:

EZ + ADIZKIA

Ez naiz > *enaiz*

Ez da > *ezta*

Ez luke > *eluke*

Ez gara > *ezkara*, etab.

ADITZ NAGUSIA + LAGUNTZAILEA

Joan zen > *joantzen*

Utziezadazu > *utzidazu*

Isilzaitetze > *isiltzaitetze*, etab.

ANTZEKOAK

Hor zen > *hortzen*

Zu al zinen? > *zu al zinen?*

HITZ ELKARTUAK

Bihotz-taupadak > *bihoztaupadak*Ipur zikina > *ipurtzikina*

ETA / TA

Ehun eta hamazortzi > *ehunda hamazortzi*Txarra da eta! > *txarra da-ta!*

BADA, BA

Bai, ba! ; Ezpa!

DEIKIAK edo BOKATIBOAK

Kaixo, amona! > *Kaixo, amóna. > *Kaixo, amoná!*

Hau diodalarik, hona saihestu beharreko beste tentazio txar pare bat ere:

Kaixo > *Kaizo*Botila > *Botiyya*2. *Hitanoa*

Jende askok ez du berea hitanoa, ezta euskaldun zahar askok ere. Askok telebistaren bidez ezagutu dute, edo ikasi dute. Forma estandarra, nahi baduzue, bai, baina lehenago sekula entzun gabea zuten.

3. *Hizkuntzaren estandarizazioa*

Hizkera estandar neutroa ikasteko eta entzuteko ez ezik, esapideak-eta kontestuan emateko aukerakoa da; lexikoa zabaltzeko zer esanik ez, eta baita hainbat uste oker zuzentzeko ere. Pentsa zer eragin izan dezakeen telesail batek astebeteko ataletan hauteskundeak gora eta behera jardunda, kalean, eskolan, unibertsitatean, oro har gizarte osoan daukagun nahaste-borraste hau argitzeko: *bozka/boto/boz*. Baita polikariek ere ikasiko lukete, behingoz, nola esan! Uste dut umoristak falta ditugula holakoei punta aterat-

tzeko. Nolanahi ere, pedagogia lana ezin zaio ukatu telebistari, eta ez zaigu ahaztu behar.

Aurrera begirako estrategiak

Lurdes Otaégik telebistarako fikzioa idazteko ohar batzuk egin zituen HASIBERRIAK telesailaren gidoi batzuk aztertu ondoren. Hona bere txostenetik hitzez hitz hartutako hainbat gomendio:

1. Gidoia bukatutakoan XUXEN zuzentzailea erabili, hiztegi batuarekiko egokitzapena *nahitaezkoa* baita.
2. Tratamenduekin nahasterik ez izateko, PERTSONAIEN MAPA osatu. Mapa antolatu eta betearaztearen ardura gidolarien koordinatzaileak hartu beharko luke eta gero elkarrizketalariei banatu.
3. Pertsonaia bakoitzak erabiltzen dituen lo-kuzioak, esapideak, biraoak eta hitz adierazgarriak ZERRENDETAN batu, pertsonaia bakoitzaren hizketaren karakterizazioa osatzen joateko. Ardura hori ere gidolarien koordinatzaileak hartu beharko luke.
4. Elkarrizketa bat idatzitakoan, ANTZEZ-TEA komeni da, idatzitakoa entzun eta testuak behar dituen esklamazio, hots betegarri eta halakoen beharraz edo gehiegikeriaz konturatzeko.
Neuk behintzat, gidoigileek jartzen dituztenak baino esklamazio edo "hots betegarri" gehiago eranstea komeni dela uste dut: esaldien tonua indartzeko "Ba", "ala", "pentsa", "behintzat" bezalakoak uste dut hizketan gidoietan baino usuago erabiltzen direla.
5. Aktoreak profesional trebatuak ez badira, EZ DA KOMENI ESZENA LUZEAK ERA-

TZEA, bi orri aski izaten omen da. Aktore bakoitzaren gaitasunaren arabera testuak eratu behar dira, edo pertsonaia bakoitzaren karakterizazioaren arabera hitz-jarioratasuna eta jarduna (zakarra, ironikoa, xaxatzaila, gozoa, xaloa, irekia, betizua, maleziatsua...)

6. *Ahozko hizkeraren espresibitatea areagotzeko zenbait modu ezagun :*

1.- Adjektibo errepikatuak erabiltzea:

“Teresa oso triste zegoen bere etxeko andrea piperra baino zakarragoa delako” >

Triste-triste zegoen

esan zezakeen, edo

piperra baino piperrago da

edo

zakarra baino zakarrago da

2.- Esaldi ordenaren espresibitateaz balitatzea ere oso garrantzitsua da. Esaldiaren elementurik garrantzitsuenak aurreratu egin behar dira esaldian eta aditzaren aurreko tokiaren edo galdegaiaren espresibitateak hain zuzen ere ahoko mintzairan du indarra, inon izatekotan:

Adibidez: “gauzak asko aldatu dira” esatea baino adierazkorragoa da:

asko aldatu dira gauzak!

orain ez dira lehengo kontuak!

Gauza bera gertatzen da beste zenbait pasartetan ere, baina beti izan behar da gogoan, haserrezko egoeretan entonazioa altuagoa dela hasieran bukareran baino, eta errazagoa dela hala esatea ere:

Adibidez:

“Zerbait leporatu nahi badidak, jarri potroak eta aurpegira bota!”

Hemen “esatea” zen axola zuena,

“Zertaz ari haiz? Zerbait leporatu nahi badidak, esaidak aurrez aurre, potrorik baduk!”

3.- Espresio ugaritasunaz eta ahoko espresabide arrunten aberastasunaz baliatu behar da testuan. Jakina, idazleak berak neurtu behar du zein egoeratan komeni den tonu bat ala bestea, pertsonaiari ba al dagokion “ariera” edo hizketa taxu hori ala ez. Baina gidoiei gatza eta piperra erantsi, mintzatzeko molde neutroegia izan ez dadin.

Adibidez

JULEN.- Zer, ez zara ni ezagutzeko gai, ala?

TERESA.- (*harriturik*) Julen?

JULEN.- Baietz uste dut.

TERESA.- Ez zaitut ezagutu (*musu ematen dio*)

JULEN.- Zer, ez nago ezagutzeko moduan, ala?

TERESA.- (*harriturik*) Julen?

JULEN.- Baietz uste dut.

TERESA.- Ez dizut antzik ere eman!

Elkarrizketalarientzako ohar hauek oinarritzekoak direla uste dugu, beti kontuan hartzekoak. Abiapuntu horretatik aurrera bidea luzea da, eta lan handia dago egiteko. Nire ustez, puntu hauei erreparatzen hasteko ordua dugu:

- 1.- Hizkera kolokiala zertan den eta zernolakoa izan behar duen fikziozko euskara kolokialak
- 2.- Erregistroak lantzen segitu beharra dago.
- 3.- Tradizioan izan ditugun idazle, bertsolariak... zer baliabide eta nola erabili dituzten ikertu beharra dago. Seguru, asko daukagula ikasteko.
- 4.- Idatzitik ahozkoa jauzia eman eta ahozko hizkera definitzen eta finkatzen joan behar dugu.
- 5.- Irizpideak bateratzen.
- 6.- Behin eskatzen hasita, produkzio gehiago eskatuko nuke: Eginez baino ez baitugu ikasiko.

Hizkuntzaren zuzenketa zertarako

Laburbilduz: Ikus-entzunezkoetan, ahozko kanala erabiltzen da komunikatzeko, eta ez idatzizkoa; horrek ondorio linguistiko jakin batzuk ditu. Baina edozein egoera komunikatibo osatzen duten gainerako faktoreek ere zehazten dute hizkuntzaren erabilera medio horietan, hala nola gaiak, solaskideek nahiz komunikazioaren asmoak eta helburuak. Gaiak askotarikoak izaten dira (albietegiak, futbola, politika, entretenitzekoak, etab.), eta asmoak ere denetarikoak (informazioa, heziketa, salmenta...), eta, gero eta gehiago: espazio bakoitzean zein hartzailleklase komeni den, harentzat egokitzen da. Hartzailleklase hori potentziala da, ez erreala.

Nahiz eta egiten dugun programa egiten dugula ere ikusle-klase zehatz bat aukeratu,

ez da ahaztu behar medioak iristen direla inguru geografiko guztietara, belaunaldi guztiengana eta komunitate soziolinguistiko eta kultural guztietara. Horrek esan nahi du igortzen diren mezuek ahalik eta hartzaille gehienek ulertzeko modukoak izan behar dutela. Horregatik, medio horientzat hizkuntzarik egokiena zabalduena da, ezagunena, komunitate linguistikoko hiztun gehienek onartutakoa, dialekto marka oso nabarmenik gabea eta txokokeriarik gabea. Hitz batean esateko, hizkuntza estandarra.

Ikus-entzunezkoetan erregistro-maila asko erabiltzen badira ere, hala eskatzen dutelako gaiak, solaskideek eta asmoek ere, horrek ez du justifikatzen hizkuntzaren erabilera linguistiko txar bat. Ez dira nahastu behar hizkuntza maila ez oso formala edo etxekoa eta akats linguistikoak.

Zalantzarik ez dago: hedabideetako hizkuntza da hiztun arruntaren hizkeran eraginik handiena duen hizkuntza eredu. Hedabideek erabilera ohiturak sortu eta zabaltzen dituzte. Beraz, hedabide guzti-guztieki, eta zehazki ikus-entzunezkoek, jende gehiagorengana iristen direlako, hizkuntza ongi erabiltzeko erantzukizuna daukate, hiztun guzti-entzat baliagarria izan dadin ulermenean eta ez nahasmenean.

Bukatzeko, Zuazo hizkuntzalariaren aipamentxo bat irakurriko dizuet:

“Sortzea da, hain zuzen, hizkuntza batek eten gabe egin behar duena, baina kontua da hizkuntza barruko aldakuntzak ezin direla ez goizetik gauera ez goitik behera gauzatu. Pixkanaka egin behar dira, eta Euskaltzaindiaren agiriak zioenez (1959koak), ‘hizkuntzaren joerak gordeaz’. Beste era batera esanda, senez eta zentzuz jokatzea komeni da”. (217. or.)

Zuzenketen Kudeaketa eta Hizkuntz Zerbitzuak

ANTTON GURRUTXAGA, SAROI JAUREGI, ALFONTSO MUJICA

Euskararen kalitatearen inguruko kezka eta eztabaida bizi-bizirik dagoen garai honetan, hizkuntz zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa, erakunde eta profesionalek erantzukizun handia dute. Kalitatea zaintzeko eginkizun behinenetakoa da zuzenketa, eta zer, zergatik eta nola zuzentzen den albait ongien hausnarturik eta antolaturik edukitzea eskatzen du, ardura horri behar bezala erantzungo bazaio. Artikulu honetan, Elhuyar Hizkuntz Zerbitzuek zuzenketen kudeaketan duten esperientzia eta ikuspegia azaltzea da gure helburua.

Elhuyarren zer egiten dugun, zer zerbitzu ematen eta eskaintzen ditugun azaldu nahi dugu aurrena, eta, zerbitzu horien kalitatearen barnean, erakutsiko dugu zerbitzu horien atal garrantzitsu bat dela hizkuntz kalitatea; garrantzitsua, baina ez bakarra.

Zer da, baina, hizkuntz kalitatea? Denok berdin ulertzen ote dugu? Horren inguruko gogoeta labur bat egin dugu, horri buruz han-hemen dauden definizioak ikusi, ulertzen saiatu eta ondorioak atera ahal izateko.

Elhuyarrek ematen dituen zerbitzuen kalitatea bermatzeko eta ziurtatzeko egiten dugu testu-zuzenketa. Eta hori nola egiten dugun eta nola kudeatzen dugun azalduko dugu azkenik. Horretarako, lan-fluxuaren azterketatik abiataturik, langintza hori nola antolatu dugun eta zuzenketa bideratzeko eta kudeatzeko zer prozedura eta mekanismo ditugun adieraziko dugu, baita jardun horretan zer arazo ditugun ere.

1 Hizkuntz zerbitzuak Elhuyarren

Elhuyar Fundazioaren Hizkuntz Zerbitzuen Sailak bi bezero-mota nagusi ditu. Bateko, kanpo-bezeroak, hau da, Elhuyartik kanpo dauden pertsona eta erakundeak. Haientzat egiten dira kanpo-zerbitzuak. Besteko, barne-bezeroak, hau da, Elhuyar barneko beste sailak. Haientzat egiten dira barne-zerbitzuak.

1.1 Kanpo-zerbitzuak

1.1.1 Itzulpengintza

Kanpo-zerbitzuen arloan, itzulpengintza da, kuantitatiboki, nagusia. Elhuyarren itzulpengintzak oso esparru zabala hartzen du, bai gaien aldetik, bai tamainen aldetik, bai dokumentu-formatuen aldetik, bai itzultzeko epeen aldetik ere.

- Gaia: zientzia eta teknologiako gaiak (Lanbide Heziketarako materialak, unibertsitate-rako liburuak, industria-enpresak eta zentro teknologikoak, museoak, software-lokalizazioak...), administrazio- eta marketin-gaiak (finantza-erakundeak, zerbitzu-enpresak) eta orotariko gaiak
- Tamaina: termino tekniko batetik edo perpaus huts batetik milioika karakterez osatutako itzulpenetarako
- Formatua: testu-prozesadore arruntetan idatzitako testuak, maketa-programetan txertatutako testuak, PowerPoint-eko aurkezpenak, web guneak, software-lokalizazioetarako formatu bereziak...
- Epea: era guztietakoak; minututan itzuli beharrekoak, ordu batzuetan itzuli beharrekoak, egun batzuetan itzuli beharrekoak, hilabetetako lanak (lokalizazioak, liburuak) eta urtebete baino gehiagoko itzulpen-lanak (unibertsitate-liburuak)

1.1.2 Zuzentze-zerbitzua

Itzulpengintzatik sortua baina dagoeneko berezia dagoen zuzentze-zerbitzu espezifikoak: Elhuyartik kanpo itzulitako testuak orraztea zein jatorriz euskaraz idatzitako testuak zuzentzea da zerbitzu horren egitekoa. Hainbat zuzenketa-zerbitzu eskaintzen dira, bezeroak eskatutakoaren arabera: orrazte hutsa, zuzenketa sakona, zuzenketa didaktizatua, egilearekin batera egindako zuzenketa...

1.1.3 Hizkuntz kontsultak

Elhuyar Fundazioaren www.zientzia.net atariko *Euskara Teknikoa: zure galdera bidali* atalean, eta www.elhuyar.org web guneko *Hizkuntz kontsultak* atalean, irakasleek, ikasleek, enpresetako teknikariek edo nahi duenak egindako galderari erantzuten zaie. Horrekin batera, beste maila batean, Itzulist-eko kide aktiboa da Elhuyar (Itzulist-en, jakina, ez du Elhuyarrek erantzuten, Elhuyariko kideek baizik, baina Elhuyarren erantzun 'ofiziosoak' dira, Elhuyarrek onartua baitu Itzulist-en egiten diren galderari erantzutea, ahal duen heinean behintzat).

1.1.4 Hiztegi-kontsulta eta bestelako lan puntual espezifikoak

Euskara-Gaztelania/Castellano-Vasco Elhuyar Hiztegia (www.euskadi.net) eta *Zientzia eta Teknologiarene Hiztegia* (www.zientzia.net) hiztegiak Interneten kontsultagai jarri ditu Elhuyarrek. Eta lan puntual batzuk ere egiten ditugu: irakasleentzako ikastaro bereziak, azterlan espezifikoak...

1.1.5 Produktuak

Enkarguz egindako hiztegi teknikoak, beste erakunde batek argitaratzekoak (*Ingurugiro Hiztegi Entziklopedikoa*, *Energiaren Hiztegi Entziklopedikoa*, *Gizarte-laneko Hiztegia*, *Telekomunikazio Hiztegia*, *Enpresa Kudeaketa Aurreratuko Hiztegia*).

Elhuyarrek berak argitaratutako hiztegiak: euskara-hiztegiak (*Euskal Hiztegi Modernoa*, *Ikaslearen Hiztegia*, *Sinonimoen Kutxa*), hiztegi elebidunak (*Euskara-Gaztelania/ Castellano-Vasco Elhuyar Hiztegia*, *Elhuyar Hiztegi Txikia*, *Dictionnaire Elhuyar hiztegia...*), hiztegi teknikoak (*Geologia Hiztegi Entziklopedikoa*, *Munduko ugaztunen izendegia*, *Munduko hegaztien izendegia*).

1.2 Barne-zerbitzuak

1.2.1 Zuzentze-zerbitzua

Barne-zerbitzuetan, zuzentze-zerbitzua da nagusi. Elhuyarrek kanporatzen dituen testu ia-ia guztiak pasatzen dira zuzentze-zerbitzutik. Elhuyarren Zientzia Komunikazioaren Sailean (*Elhuyar* aldizkaria, *Zientzia.net*, *Zernola.net* eta *BasqueResearch.org* atariak; *Teknopolis* telebista-programa; kanpo-aldizkarietarako kolaborazioak) eta Argitalpenen Sailean (liburuak, CD-ROMak, jokoak) sortzen diren testu guztiak zuzentzen dira eta zuzenketak idazleari jakinarazten zaizkio, hau da, zuzenketa didaktizatua egiten da. Bestalde, kanpo-zerbitzuetako itzulpengintza (ikus 1.1.1 Itzulpengintza) atalean itzultzen diren testuak ere zuzendu egiten dira.

1.2.2 Hizkuntz kalitateko irizpideak

Testuak zuzentzeaz gainera, lan bat egiten da arazoak detektatu, gaiak landu eta irtenbideak bilatzeko, hizkuntz estiloa landuz joateko eta, gero, estilo eta jarraibideak Elhuyarko zuzentzaile, itzultzaile eta testu-idazle guztiei jakinarazteko.

1.2.3 I+G unitatea: hizkuntz-teknologiak

Atal berria da. Ikerketa aplikatua eta garapena egiten da, baliabideen zein tresnen alorrean: corpusak, corpusgintza-tresnak, corpusetatik edo testuetatik informazioa erauzteko tresnak (terminologia-erazketa, corpus elebidunen ustiapena...), hiztegi-gintzako datu-baseak... EHUko IXA taldearekin lankidetzan dihardugu, eta, Hizking21 proiektuan, beste zenbait erakunde eta talderekin (EHUko Aholab taldea, Vicomtech, Robotiker).

1.3 Zenbait datu

18 itzultzaile, 4 hiztegi-gile eta 6 zuzentzaile ari gara Elhuyar Hizkuntz Zerbitzuetan lanean. I+G unitatean, 5 lagun ari dira egun osoz, eta 3 egun-erdiz.

Zuzentzaileok, betez beste, 55.815.815 karaktere zuzentzen ditugu urtean:

- Kanpokoa bezeroek eskatutako itzulpenak: 42.923.976 karaktere

- Kanpoko bezeroek eskatutako zuzenketak: 5.036.126 karaktere
- Elhuyarren argitalpenak: 7.855.713 karaktere

2 Hizkuntz kalitatea

Elhuyar Hizkuntz Zerbitzuen Sailean askotariko produktuak eta zerbitzuak daude, aurreko atalean ikusi den bezala. Zerbitzu horietan kalitatea lortzea da gure helburua, eta zerbitzuen kalitatearen esparru horretan kokatu behar da hizkuntz kalitatea.

Bezeroari begira antolatutako estrategia darabilen erakunde batean, zerbitzua kalitatekoa izatea 'bezeroa gogobetetzea' da, hau da, bezeroak zerbitzua ona eta kalitatekoa dela hautematea, zerbitzu horrengatik zenbat ordaindu duen kontuan hartuta.

Kalitatearen definizio horrek arazoak sor ditzake, gaur egun Euskal Herrian bezero batzuek euskararen kalitatea hautemateko dituzten irizpideak edo irizpide falta kontuan hartuta. Horrek esan nahi du zenbaitetan Elhuyarrek berak epaitu behar duela bere zerbitzuaren kalitatea, bezero batzuek ez baitute beren produktuetoako euskararen kalitatea zuzenean neurtzen, eta Elhuyarrera jotzen baitute Elhuyarrek zerbitzuaren kalitatea bermatuko duelakoan. Horrek guztiak behartzen gaitu geure lana etengabe epaitzera, baita bezeroak hori kontrolatzen ez duenean ere.

Zerbitzuaren ontasun edo kalitate hori deskribatu edo definitzeko orduan, kalitatearen bi osagaiak agertzen dira: 'teknikoa' eta 'funtzionala'. Kalitate teknikoa da, hizkuntz zerbitzuen alorrean, hizkuntza kalitatekoa izatea. Bestetik, kalitate funtzionala ere ezinbestekoa da, hau da, ez da nahikoa kalitateko hizkuntza izatea bezeroa gogobetetzeko. Zerbitzu osoa hartu behar da kontuan, eta, hortaz, inguruko faktore osagarriek ere garrantzia dute.

Zerbitzuaren kalitatea nolabait parametrizatzeko, xehatu ahal izateko, eta, ahal izanez gero, neurtzeko, adierazleak daude. Zerbitzuaren kalitate teknikoa esatea, gure kasuan, hizkuntz kalitatea esatea da, neurri batean subjektiboa izango dena. Kalitate funtzionalaren adierazleak, berriz, hainbat dira, objektiboagoak: salneurriak, epeak betetzea, bezeroaren formatuak (papa, dokumentu elektronikoa, web gunea, ahozko testua), saldu osteko zerbitzua...

Kalitate funtzionala alde batera utziko dugu, ez baitu zerikusirik zuzenketekin. Kalitate teknikoan, hau da, hizkuntz kalitatean, jarri behar da arreta, eta hura definitzen saiatu, ondoren, hura lortzeko baliabideak eta prozedurak antolatu ahal izateko.

Hizkuntz kalitatearen orotariko ikuspegi edo definizioa behar da, jakina, baina ez da ahaztu behar, hizkuntz zerbitzuak eskaintzen dituen erakunde batean hizkuntz kalitatearen bezeroaren araberako ikuspegia ere badagoela; alegia, bezeroak bere hizkuntz irizpideak betetzea eska dezake, eta irizpide horiek aldatu egin daitezke bezerotik bezerora (gehienetan, lexiko-aukerak izaten dira)¹.

¹ Hona hemen bezeroen hizkuntz irizpideen adibide batzuk:

- Irizpide lexiko-terminologikoak: *servicio de atención al cliente* terminoa *bezeroarentzako arreta-zerbitzu* edo *bezeroaren arreta-zerbitzu* euskaratu behar dugu, bezeroa zein den. Beste adibide bat: Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuak* honela dio: "fondo h. funts". Hala ere, gure bezeroetako batentzako itzulpenetan, *funts* ezin dugu erabili, *fondo* erabili behar dugu.

.../...

Hizkuntz kalitatearen inguruko kezka, euskararen kalitatearen kezka, ez da berria, eta hainbatetan plazaratu dira hari buruzko iritziak (Mendiguren, Sarasola, Amunarriz, Garzia, Larringan...). Gehienetan, Larriganek dioenez, 'diskurtso katastrofista' nabari ohi da (Larringan, 66. or.).² Baina hizkuntzaren kalitateari buruzko kezka, baita antzeko ikuspegia izatea ere, ez da euskararen ezaugarria. Oso ezagunak dira, adibidez, duela gutxi zendu zen Fernando Lázaro Carreter akademikoak gaztelaniaren kalitatearen galerari buruz idatzitakoak (*El Dardo en la Palabra*). Hona hemen beste hizkuntza bateko ale bat, L. Meney irakasleak Quebec-en erabiltzen den frantsesaren kalitateari buruz duen iritzia eta kezka:

"La situation est-elle pour autant satisfaisante? Malheureusement non. Dans les principaux secteurs de la société, la situation est moins bonne que dans les autres pays francophones. À l'école, la qualité du français du personnel administratif et du corps professoral est insatisfaisante. L'enseignement de la grammaire est vu comme un pensum plutôt qu'un moyen de développer les compétences en analyse. Le goût de la lecture n'est pas assez développé ; l'étude du vocabulaire, trop négligée ; celle de textes mal écrits, trop répandue ; la part de la littérature française, trop réduite ; la correction de la langue dans les cours autres que le français, trop négligée. Les médias collectionnent fautes de syntaxe, anglicismes grossiers, erreurs de niveaux de langue, maladdresses de style. La télévision donne la part belle aux téléromans dont la langue, par nature familière, est bourrée de fautes."

Lionel Meney, Université Laval (Québec), *Le Droit*, 2004-01-26

Gaur egungo euskararen kalitateaz jardutean, euskaltzale askok sinatuko lituzke, seguru asko, horrelako baieztapenak. *Askoren mina txoroen atsegina*, dio esaerak, eta auzo-erdara handiek ere arazoak izatea ez da inola ere kontsolagarria. Euskararen kalitateaz kezkatu ahal izateko, ordea, kalitate hori zer den ondo definitu eta zehaztu behar da. Ez hori bakarrik. Nola neurtu ere jakin beharko genuke, nola ebaluatu eta nola zehaztu kalitate-adierazleak. Eta, azkenik, nola lortu.

2.1 Kalitateko euskara definitzen

Hizkuntzaren kalitatea zer den aztertzerakoan, aditu gehienek aipatzen dute, lehenik eta behin, kontzeptua labaina dela, eta zehazten zaila. Horren isla da hurbilketa bat baino gehiago izatea:

.../...

- Irizpide onomastikoak: *Pamplona* hiria, Elhuyarren, *Iruñea* euskaratzen da, Euskaltzaindiak eman bezala alegia. Hala ere, bezero jakin batzuentzako itzulpenetan, *Iruña* idatzi behar da.
- Irizpide morfosintaktikoak: galdera-izenordain erlatiboak erabiltzen direnean (*zein, non*), menderagailua *bait-* edo *-(e)n* izan daiteke, biak daude ondo. Baina bitasun horren aurrean, bezero batek hautatu egin du, eta harentzako itzulpenetan *bait-* menderagailua erabili behar dugu beti.
- Irizpide ortotipografikoak: izenburu batean letra guzti-guztiak maiuskulaz idazten direnean, Elhuyarren orain arteko hautua da marratxoa ere idaztea. Adibidez, *LASARTE-ORIAKO TREN-GELTOKIA*. Baina testuak Eusko Jaurlaritzaren onspena lortuko badu, honela idaztera behartuta gaude: *LASARTE-ORIAKO TREN GELTOKIA*.

² "Iritzia da euskara degeneratu bar sortzen ari gara: ez aditzik, ez joskerarik, ez azenturik, ez lexikorik; miraritzar jo beharko genuke —esaten da— esaldi minimoki luze eta konplexuak zuzen amaitzea; oro har, euskara maxkala, interferentzia ikusteazinez josia."

“Comment alors aborder objectivement la qualité de la langue? La qualité de la langue est en effet une notion fluide, difficile à saisir. ... Définir la qualité n'est pas tâche facile. ... Comment en effet parler de la qualité sans porter de jugement, sans faire acte de prescription? La qualité est affaire de perception, mais elle repose tout de même sur des bases linguistiques. Tout locuteur d'une langue porte des jugements sur sa langue. ... Mais ces jugements sont-ils fondés linguistiquement?”. (Meney)

“Asko hitz egin eta idatzi da kalitateaz, baina nago, oso ikuspegi desberdinak ditugula kalitatearen inguruan. Zalantzarik gabe hauxe da argitu beharreko lehen puntua: zeri esaten diogu kalitatezko hizkuntza?” (Amunarriz)

“Kalitate nozioa, ..., nahiko korapilotsu eta konplexua da. ... Izan ere, guztiak ez datoz bat kalitatearen iturriak seinálázerakoan. Batzuen ardurak linguistikoak izaki, gramatika zuzentasunaren arabera erabakiko dute kalitatea; beste batzuek, alderdi estilistikoei egingo die arreta (idazkuntzari, idatz tankerari, erabilitako adierazpideei...); beste batzuek, estandarizazioari begira epaituko dute kalitatea.” (Larrigan)

Nolanahi ere den, hizkuntzaren kalitateaz egin diren gogoeta zein ikerketak aztertuta, esan daiteke joera edo ikuspegi bat argi nabarmendu dela azken hamarkadetan: hizkuntz kalitatea ezin da hizkuntz ‘zuzentasunarekin’ parekatu, ezin da gramatika-arauden betetze hutsa izan; horrez gain, kalitateak hizkuntzaren erabilera errealekin erlazionatuta dauden alderdiak ere hartu behar ditu bere baitan. Alderdi horiek zein diren, eta elkarren artean nola erlazionatzen eta antolatzen diren, ikerkizun da gaur egun ere, eta hor ere ikuspegi bat baino gehiago dago. Gurean ere, ‘arau komunikatiboak’ (J. Garzia), ‘egokitasuna’ (Zubimendi, Sarasola...), ‘diskurtso-estrategia’ (Larrigan), ‘komunikazio egoera bakoitzak eskatzen dituen baldintza eta baliabide linguistikoak’ (Amunarriz) eta abar jaulki dira.

Kalitatea definitzeko egin diren saioetarik, Amunarrizek emana ekarri nahi genuke hona:

“Kalitatezko euskara da, mendez-mende hizkuntzaren egitura osatu duen senari jarraiki, eta usadioak, hiztunek eta hizkuntza erakundeek osatu duten hizkuntz ondare osoa aintzat harturik (euskara batua, euskalkiak, hizkera bereziak, historikoak...), hiztun-elkarteari egunez egun sortzen zaizkion komunikazio beharrei jarrera beregain, ireki eta malgu batetik erantzuten diena eta hiztun bakoitzak egoera komunikatibo bakoitzean dituen behar linguistikoak asetzen dituena.”

Argi dago definizio horrek gramatika edo ‘hizkuntzaren’ esparrua (‘sistematzat’ hartua) gainditu eta komunikatibotasunerantz egiten duela. Ikuspegi horretatik, hizkuntz kalitatea aztertzeko, hizkuntz sistema bera ez ezik, sistemaren erabilera ere hartu behar da kontuan (hau da, hiztunak zertarako darabilen hizkuntza, eta nola darabilen). Bitasun hori bat dator, gure ustez, ‘hizkuntz gaitasunaren’ (Chomsky, 1965)³ eta ‘komunikazio-gaitasunaren’ (Hymes, 1972) arteko bereizketarekin.⁴

³ “The ability both to construct and construe novel combinations of familiar words and phrases which serve to depict situations the like of which neither speaker nor listener need have encountered in their own case.”

⁴ Communicative competence is a concept introduced by Dell Hymes and discussed and redefined by many authors. Hymes' original idea was that speakers of a language have to have more than grammatical competence in order to be able communicate effectively in a language; they also need to know how language is used by members of a speech community to accomplish their purposes. <http://www.sil.org/lingualinks/LANGUAGELEARNING/OtherResources/GudlnsFrALnggAndCltrLrnngPrgrm/AspectsOfCommunicativeCompeten.htm>

Komunikazio-gaitasunaren kontzeptuak zenbait gaitasun hartzen ditu bere baitan, eta horietako bat da hizkuntz gaitasuna.⁵ Horrez gain, gaitasun pragmatiko/diskurtsiboa, gaitasun soziolinguistikoa eta psikolinguistikoa bereizi ohi dira.

Beste hainbat hizkuntzatan bezala, euskararen kasuan ere hizkuntz irakaskuntzan izan du komunikazio-gaitasunaren kontzeptuak eragin handia. Arazoa da, ordea, komunikazio-gaitasunaren osagaiak zehaztea eta sistematizatzea, edo, hizkuntz kalitatearen ikuspegitik adierazita, Amunarrizek ezartzen dituen kalitate-ezaugarriak noiz betetzen diren ebatzi ahal izatea: hiztunen komunikazio-beharrei erantzutea eta hizkuntz beharrak asetzea.

Horrek guztiak lotura du kalitateko euskara zer den zehazteko egin izan den euskara zuzen, on eta egokiaren arteko bereizketarekin. Ibon Sarasolaren hitzetan (1998), "Hizkuntza zuzena hizkuntzaren arauak betetzen dituen da." Zer dira, ordea, hizkuntzaren arauak? Sarasolak berak ohartarazten duenez, euskara zuzena "Euskaltzaindiaren hasierako arauekin nahasi da askotan". 'Nahasi' direla dio, gauza bera ez direla uste duen seinale. Euskara zuzen eta onaren artean ere nahasi egiten garela esatean, euskara zuzena estandararekin berdindurik ageri da:

"Bestalde, euskara zuzena eta euskara ona nahasi genituen, eta nahasten ditugu. *Gizonak egin dute* euskara ona da, literatura tradiziozko idazle bikain askok -bizkaitar eta gipuzkoar ia guztiak, gutxieneko kontuan- jostera hori erabili baitute; baina ez da euskara zuzena, estandarrak *gizonek egin dute* eskatzen duenez gero"

Beste adibide honetan, ordea, zuzentasuna sintaxiarekin dago lotua, eta 'ontasuna', lexiko-semantikarekin:

"*Bilbon finkatu zen bere familiarekin* esaldiak, aldiz, ez die arauci kontra egiten, baina euskara gaitzokoa da, hori euskaraz *Bilbon kokatu zen bere familiarekin* esaten delako. Hala ere, lehen esan dugunaren ildotik, gure zuzentzaileek lehena zuzentzen dute eta ez bigarrena"

Irudi luke, beraz, euskara zuzena estandarizazio-arauak betetzearekin eta zuzentasun 'gramatikal' hutsarekin dagoela lotuta. Zer litzateke, orduan, euskara 'ona'? Amunarrizek honela definitu du: "euskal senaren edo tradizioaren arabera." Kalitatea definitzeko eta neurtzeko helburua duen sistema batean, 'euskal sena' ez da agian oso lagungarria izango, sen hori zertan den zehatz deskribatzen ez den artean behintzat. Tradizioaren ideia, berriz, baliagarriagoa izan daiteke, datu-multzo bat dela onartzen badugu behinik behin. Horretara, tradizioa corpus orekatu eta adierazgarrietan bilduta dauden datu linguistikoen azterketaren bidez deskriba liteke. Azterketa horren lehen urratsa, jakina, deskribatzea da. Hori da Euskaltzaindiko Gramatika Batzordeak EGLU sailean egin duena. Oro har, gure iritzia da tradizioarekin bat datorren euskara 'zuzena' dela, estandarerako bestelako proposamenik ez dagoen artean bederen, eta orduan ere, estandarerakiko litzateke 'ez-zuzen' edo 'oker'. Horregatik, guk nahiago dugu esan zuzentasuna hizkuntzaren arauen arabera eta estandarizazio-arauen arabera epai daitekeela.

⁵ Maiz, hizkuntz gaitasuna, batez ere Chomsky-ek definitu zuen moduan, gramatika-gaitasunarekin identifikatu izan da, baina beste hiru osagai ere esleitu ohi zaizkio: lexikoa, ortografia eta fonologia.

Baina, gainera, 'araua' hizkuntzaren zein alderdiri dagokio? Arauaren ezartze-eremuak zehaztea, horra hor argitu beharreko puntua. Lehenik eta behin, gramatikari, morfosintaxiari, hitz batez, 'hizkuntz gaitasunari'. Alde horretatik, ortografia ez litzateke, *sensu stricto*, 'hizkuntz araua'; arau instituzional batek alda dezake ortografia, baina ezin du gramatika-araua aldatu (dena den, gramatika-araua argia ez denean edo bi gramatika-arau lehian daudenean, arau instituzionalak finkatu egin dezake erabilerak jakin bat estandarrerako).

Eta zer esan lexiko-arauaz? Zein da euskal hitza eta zein ez? Hein batean, instituzionala izan daiteke, baina, berez, lexikoa tradizioak eta erabilerak finkatzen dute. Euskaltzaindiak 'euskal hitza' zer den definitu du:

"Euskal hitzak dira euskara bizian sustraituak daudenak" (1959)

"Euskara bizian sustraituak ez daudenak ez dira euskal hitzak, sustraitzen ez diren bitartean bederen" (1991)

Hiru irizpide emen ditu Euskaltzaindiak hitz sustraituei igartzeko: "Hitzaren hedadura, hitzaren antzinatasuna eta hitzaren erabilera idazle zaharretan". Horren arabera, euskaldunok gaur egun euskaraz erabiltzen ditugun hitz asko ez dira 'euskal hitzak' (baina, asko eta askotan, ez dugu beste hitzik izaten haien ordeaz erabiltzeko; Euskaltzaindiak berak adierazi zuen hori, agerian bertan). Lexikoari bi ikuspegitik begira dakiok: ikuspegi deskriptibotik (*Orotariko Euskal Hiztegia*, adibidez), eta ikuspegi preskriptibo edo arau-mailatik (*Hiztegi Batua*, adibidez). Garbi dago Euskaltzaindiak euskal hitzaz emandako definizioak balio mugatua duela, eta errealitatea konplexuagoa dela. Adibidez, zer hitz jaso behar litzateke hiztegi batek? Euskaldunok erabiltzen ditugunak edo euskaldunok erabili 'beharko' genituzkeenak? Adibidez, atzerritarrentzat pentsatutako ingeles-euskara hiztegi 'erabilgarri' batek (ez batasunerako arau-maila batek) zein hitz jaso behar luke, *motxila* ala *bizkar-zorro*, *boligrafo* ala *bolaluma*? Zer egin behar luke maileguak onartzeko gutxieneko baldintza betetzen ez duten baina egunero erabiltzen diren hitzekin? Euskara ikasten ari denaren lexiko-gaitasunaren barnean ez lirateke kontuan hartu behar lexiko-maila horiek? (euskaldun 'ikasiek' ongitxo dakite zer erabili non edo noren aurrean, hau da, estandarrerako proposatua edo lagun artekoa). Arazo zaila, jakina. Hona hemen, horren harira, Bernardo Atxagaren iritzia:

"Nik ikusi dut aurren-aurrea, idazten ari nintzen bezala, erresistentzia proba honetan, Euskal Herrian hizkuntzaren inguruan aspalditik dabilen mamua: mamu hori da garbizalekeria edo beste modura esanda, purismoa. Izanez ere, desperatuta zaude proposatzen dizuten lexiko horrekin, neurri batean absurdoa dela konturatzen zara, ez daukala etorkizunik. Ondo lan egiten ez duen hizkuntza bat ez da ezertarako." (*Berria*, 2004-04-16).

Bestalde, egokitasuna da kalitateko euskarak izan behar omen duen beste ezaugarria. Iku-siko dugunez, aski kontzeptu lausoa da. Honela definitu da egokitasuna:

"Euskaldun ikasiak lehen irakurraldian ulertzen duena" (Sarasola).

"Hizkuntza egokia da lortu nahi duen helburua lortzeko 'egokia' dena" (Garzia).

Lehen definizioak 'ulergarritasunari' begiratzen dio. Zaila da hori neurtzen, baina lotua egon daiteke, adibidez, azken urteotan perpaus-barneko osagaien ordenaz egin diren lan eta gogoe- tekin, esaldiaren luzerarekin, izen-sintagma denominatiboen dentsitatearekin ('terminologitisa'); baina, baita ere, estandarerako proposatzen diren hitz berri 'ezezagunekin'. Tarte batez, irakur- leak ikasi arte behintzat, gerta daiteke euskara estandarra —estandar teorikoa— 'egokia' ez iza- tea, benetako estandar bihurtu arte ez baita beti ulertuko. Hori esanda, ez dugu adierazi nahi estandarra bultzatzeagatik 'zerga' hori ordaintzea merezi ez duenik, kontuan hartu behar litza- tekeela besterik ez.

Bigarren definizioa tautologikoa da, baina ideia bat iradokitzen du: zerbaitetarako da egoki, halako helburu bat lortzeko. Ikuspegi 'funtzional' hori, bistan da, lehen azaldu ditugun hizkun- tzaren erabilera-alderdiekin dago lotuta, eta hainbat autorek landu dute (hizkuntzaren filoso- fian, hizkuntz ikaskuntza/irakaskuntzan, hizkuntzalaritzan...).

Beraz, esan genezake egokitasunak zerikusia duela komunikazio-helburuarekin, testuingu- ruarekin, parte-hartzaileekin, hizkuntz mailarekin, testu-mota edo egiturarekin, eta, oro har, hizkuntzaren erabileraren azterketetan kontuan hartu behar diren alderdiekin. Alor honetan asko dago ikertzeko. Gai zehatsetara jota, egokitasunaren alorreko ikergaiak dira, esaterako, hizketa-egintzen esakune konbentzionalak⁶, diskurtsoaren antolamenduari dagozkionak⁷, fra- seologia (esapide idiomatikoak edo lokuzioak, kolokazioak⁸...). Nolanahi ere, azken urteetan zenbait alderdi landu dira, eta aipatzekoak dira, besteak beste, HAEEd administrazio-hizkera- ren alorrean argitaratutako materialak, J. Garziaren *Joskera Lantegi* liburua, edo UEUK argita- ratutako *Zientzia eta Teknikarako Euskara* liburua (M. Ensunza, J.R. Etxebarria, J. Iturbe), es- tilo-liburuak (Euskaldunon Egunkariarena, X. Alberdi eta I. Sarasolaren *Euskal Estilo Liburu- rantz...*) edo EHUKo I. Zabalaren eta J.C. Odriozolaren lanak.

Bestetik, bada egokitasunaren inguruko gai korapilatsu eta eztabaidagarri bat; izan ere, ego- kitasunarekin du zerikusia Bernardo Atxagak lexiko batu estandar ofiziala dela-eta agertu duen kezka, gorago aipatu dugunak. Eta, bestalde, gerta daiteke egoera jakin batean euskara egokia eta funtzionala dena, beharbada, lexiko-arauekiko 'zuzena' ez izatea. Adibidez, maiz goraipatu da ETB1eko *Goenkale* telesailan erabiltzen den euskara, bizia, ulergarria eta egokia omen baita.

⁶ Adibidez, *Zigarro bat ematen didazu?* Gramatikala da, zuzena alegia, baina, eskatzeko, ez-konbentzionala edo 'desegokia' da. Hori gabe, adibidez, *Zigarro bat emango didazu?* edo kideko bat erabili ohi da. Baina, beste egoera batean, esakune hori guztiz egokia izan liteke. Adibidez: *Zigarro bat ematen didazu? Badakizu erretzeuri utzi nahi diodala!* Beste adibide bat: *Lagun zaitza- ket/diezazuket?* Gramatikala da, baina desegokia, edo ohiz kanpokoa behintzat, laguntza eskaintzeko. Haren ordez, *Lagunduko dizut?*, *Laguntzarik behar (duzu)?*, *Laguntzerik nahi (duzu)?*... erabiltzen da normalan.

⁷ Adibidez, *Gure helburua agente hezitzaile bakoitzarengan erantzukizun pertsonalei dagokienez, jarrera eta portaera aldaketa susta- tzeko jarduera estrategikoak garatzea da esaldian, aditza aurreratuta lortzen da esaldi egokia, lehen irakurraldian ulertuko dena: Gure helburua da agente hezitzaile bakoitzarengan, erantzukizun pertsonalei dagokienez, jarrera eta portaera aldaketa sustatzeko jarduera estrategikoak garatzea.*

⁸ Euskaraz gutxien landu den alorretakoa dugu hori. Gaur egungo lexikografian, syntaxian eta semantikan, hitz anitzeko unita- teen eta, horien artean, kolokazioen azterketak interes handia piztu du, eta aplikazio-alor askotan du garrantzia (hiztegigintzan, itzulpengintzan, hizkuntz irakaskuntzan, hizkuntz teknologiantan...).

Hona hemen azken egunotan *Goenkaletik* jasotako hainbat hitz eta esamolde: *kaña sartu, aguantatu, tio, almazen, puenting, errifá, porkulo hartu, deakuerdo, traste puto hau*. Zalantzarik gabe, euskara bizia da, bizidunen euskara alegia, Hegoaldeko gazte gehienen, eta ez hain gazteen, ahotan guztiz arrunta. Telesailaren gidoigileek edo arduradunek jakinaren gainean sartuko edo onartuko zituzten horrelakoak, zegozkiekeen forma estandar edo 'zainduek' bestelako efektua sortuko zutelakoan agian.

Horrenbestez, kalitatea definitzeko egin diren saioei begiratu egin diegu, hizkuntz zerbitzuak eskaintzen dituen erakundea izaki, ezinbestekoa baitugu gure egitekoan hizkuntz kalitatearen definizio al bait argiena. Zein ondorio atera genezake?:

- Zuzentasuna eta egokitasuna dira, iritziak iritzi⁹, eta oraingoz bederen, kalitatea definitzeko, neurtzeko eta bermatzeko erabilgarri ditugun irizpideak.
- Euskara zuzena zer den zehazten ahaleginduz gero, ez dirudi adostasunera iristea zaila litzatekeenik. Zuzentasuna neurtzeko, badira erakusgarri 'objektiboak': hizkuntz arauak eta estandarizazio-arauak. Beraz, 'arau-haustek' defini daitezke, eta kalko gaitzesgarrien inbentario bat egin. Dena den, hurrengo atalean ikusiko dugunez, badira estandarizazio-arauen beharrea dauden gaiak.
- Egokitasuna zertan den zehaztea eta neurtzea, berriz, zailagoa da. Nola erabaki zer den 'egoki' eta zer ez? Ba ote dago 'arau' kontzeptua ezartzerik egokitasunean? Guk ezetz uste dugu (ez behintzat gramatikan deskriba daitezkeen arauen modukoak edo estandarizazioan ematen direnen modukoak). Bestetik, areagoko ikerketa behar da hizkuntzaren erabilerarekin zerikusia duten alderditan. Euskaraz pragmatikan eta diskurtsoaren analisia egin diren azterlanak ez dira oraingoz aski. Bada hor zer ikerturik.

3 Hizkuntz kalitatearen kudeaketa

Hizkuntz kalitatea bermatu ahal izateko, erakunde batek prozesu egituratu eta zehaztu bat ezarri behar du. Prozesu horretan, honako hauek hartu behar dira kontuan:

- Hizkuntz eredia
- Kalitatea bermatzeko prozesua zehaztea eta gauzatzea
- Pertsonak
- Tresnak eta baliabideak

3.1 Kalitate-parametroak: hizkuntz eredia

Hizkuntz kalitatea definitzeko arazoak gorabehera, garbi dago kalitatea bermatzeko, hau da, testu bat kalitate onekoa den ala ez jakiteko, zerekin alderatu izan behar dugula. Kalitatearen 'neurgailua' behar dugu, neurri-patroia alegia. Horri deritzo 'hizkuntz eredia'.

⁹ "Kalitatearen giltzarriak zuzentasuna eta egokitasuna direla esatea, arazoa luzatzea baino ez da." (Larringan, 2002)

Hizkuntz eredia bi oinarritan bermatzen da, arauetan eta irizpideetan. Ikusiko dugu, bate-tik, zer arau-mota dauden; bestetik, araua ez den gainerakoan, irizpideak beharko ditugula, eta irizpide horietan aztertu beharrekoa dela zeri ezarri irizpidea eta non dauden irizpideen mugak. Baitezpadakoa da, arauetz jarduteko, hasieratik bereiztea hizkuntzaren araua eta estandarizazio-araua.

3.1.1 Hizkuntzaren arauak

Hizkuntzaren beraren arauak dira, euskararen berezko gramatika-arauak. Arau horiek arau dira, Euskaltzaindiak horiei buruz esplizituki ezer erabaki ez badu ere. Adibidez, euskarak erga-tiboa du, eta, beraz, *Miren auto berria erosi du* esakuneak ez ditu hizkuntzaren arauak betetzen. Halaber, *Nik aitari ezetz esan dut* esakunea ere hizkuntzaren arauen kontrakoa da, *nori* sintag-mak islatuta egon behar baitu aditzean, hau da, datiboaren marka behar du aditzak.

Adibide horiek garbi-garbiak dira, baina, beste batzuetan, hizkuntzaren arauak ez dira hain eztabaidaezinak. Izan ere, zenbaitetan, arauok aldatu egiten dira euskaltitiki euskalkira, edo arau batzuek oso tradizio txikia eta murrizta dute espazioan edo denboran, eta mugatzeko arazoak sor daitezke, hau da, zalantza egin daiteke ea hizkuntzaren arau guztiak, noiznahikoak eta no-nahikoak, besterik gabe ontzat eman behar ditugun euskara estandarerako. Hizkuntzaren arau izate hutsak ez luke ekarri behar, nahitaez, gaur eta hemen onetsi beharra. Estandarizazioak, beraz, murriztapenak ezarri beharko ditu, batzuetan, hizkuntzaren berezko arauetan. Kontuz eta tentuz egin beharrekoa izango da, baina egin beharrekoa¹⁰. Adibide bat jartzearren, bizkai-erazko *Ez dakit jausiko banaz* (zehargalderetan *-(e)n* menderagailuaren ordez *ba-* aurrizkia era-biltzea) hizkuntzaren araua da, baina hizkuntz eredu estandarrean onartu behar dugu?

¹⁰ Hiztegi arau-emailea egiten ari den bezala, garbi dago gramatika arau-emailea ere beharko dela. Euskaltzaindiak, irizpide argi-zuhurrez, euskararen gramatika deskribatzeari ekin dio lehenik (EGLU). Baina hor deskribatzen den arau-sorta zabalaz zertxo-bait murriztu beharko da euskara batu estandarrean. Eta Euskaltzaindiak lan horri heldu bitartean, euskaraz idazten dutenek moldatu beharko dute, pixkanaka-pixkanaka, gero Euskaltzaindiak ofizialduko duen estandarra. Hainbat erabakigai daude. Hona hemen adibide xume batzuk:

- Izenordainen auzia: A eta haren B / A eta bere B / A eta beraren B / A eta horren B (Muntatze elektrikoak eta haien mantentze-lanak, Muntatze elektrikoak eta beraien mantentze-lanak edo Muntatze elektrikoak eta horien mantentze-lanak?)
- *-tik gora*: ontzat eman behar da joskera behartu berria (eta eroso?): *Ehun lagunetik gora* egitura, absolutibotik kanpo ere erabili ahal izateko, aldatu? *Ehundik gora lagun?* (*Ehundik gora lagunek esan dute...*). Beste hainbeste *inguru*-ekin (*ehun lagun inguru* -> *ehun inguru lagunek esan dute*). Gu ezezkoan gaude, baina gaur egun bada horrelakoak erabiltzen dituenik.
- Berrelkarketaren mugak non daude, edo non jartzea komeni da? Nitrogeno-molekularen egitura bai, eta Nitrogeno oxido molekularren egitura? Terminologiako datu-baseak ala terminologia datu-baseak?
- *nola... bait-/-(e)n...* kausazko perpausak (*nola gaur dugun lehen eguna...*): OEHN ez dira falta egitura horren adibideak, eta Sarasolaren *Euskal Hiztegi*an ere jaso da. Baina jakina da horrelako perpausak ez direla parte onekotzat jo. Zuzendu behar ditugu? *De facto*, euskara 'jasoan' horrelakoak baztertu dira, eta gaur egun nekez irakurtiko dugu horrelako bat. Baina estandarerako onar litezke, Euskaltzaindiak besterik esan arte, ala aurrez baztertuko dítugu?

3.1.2 Estandarizazio-arauak

Erakunde arau-emaileek emandakoak dira. Hor, lehen-lehenik, Euskaltzaindiak euskara baturako emandako arauak daude (hiztegia, aditza, deklinabidea, joskera), Euskal Herri osorako balio dutenak. Bestetik, beheragoko maila batean, gainerako erakundeek ematen dituzten gomendioak daude. Adibidez, Terminologia Batzorde sortu berriak eman ditzakeen gomendioak ere euskara batu estandarrean bete beharrekoak liriateke.

Euskaltzaindiaren maila berean, baina hizkuntzaren beste alderdi batzuetan, nazioarteko erakundeek (ISO, SI, CEI-IEC, IUPAC...) ezarritako arau eta hitzarmenak daude, hizkuntza guztietarako balio dutenak. Adibidez, ikur eta zeinu bidezko adierazpenak (matematikako ikurrak, zenbakiak...), unitate-sistema internazionala (SI), Kimikako nomenklatura (IUPAC) eta, oro har, adierazpen fisiko-matematikoak oro. Zientzian eta teknologian oso-oso garrantzitsuak dira, eta ezinbestekoak. Horiek, batez ere testu teknikoetan, Euskaltzaindiaren arauak bezain garrantzitsuak eta bete beharrekoak dira hizkuntz eredurako, euskara hizkuntza jasoa izango bada.

3.1.2.1 Arazoak estandarizazio-arauetan

Euskaltzaindiak emandako estandarizazio-arauetan, batzuetan, arazoak daude. Bi arrazoi-rengatik gerta daiteke hori:

- Araua ez delako argia, edo irismen mugatukoa delako
- Araua ez delako koherentea edo kontraesanak daudelako arauen artean, edo Euskaltzaindiaren arauak ez datozelako bat nazioarteko araeekin.

Arrazoa bata nahiz bestea izan, arauaren interpretazioa egin behar da, arauaren 'exegesia' egin behar da zalantzak eta kontraesanak argitzeko. Adibidez:

- *Hiztegi Batuan immunitate* hitza ageri da, *-mm-* kontsonante-taldea alegia. Zer ondorio atera behar dugu hortik, zer estrapolazio? Latinetiko aurrizki kultua *im-* dela, eta, beraz, antzeko kasuetan ere *im-* jarri behar dela, edo salbuespen bat dela, besterik gabe? Elhuyarren interpretatu dugu *im-* dela hobetsi beharrekoa, eta, horregatik, *immigrazio*, *immanentzia*, *immisio*... idazten dugu, eta, *kom-* berdin tratatu behar litzatekeelakoan, *kommutatu* (bestarik da *-mm-* kontsonante-taldea hitzaren barnean gertatzen denean, hau da, aurrizkia ez denean: *gramatika*). Baina badakigu bestelako interpretazioak egin direla.
- *Hiztegi Batuan xiita* hitza ageri da. Hortik atera litekeen ondorioa da arabiar jatorriko dinastia eta familien izenetan *-ita* amaiera dela hobetsi beharrekoa. Dena den, Euskaltzaindiaren estatuen izenen arauan *Jordaniako haxemi Erresuma* ageri da, hau da, *haxemi* eta ez *haxemita*. Elhuyarren interpretatu dugu *xiita* salbuespena dela (edo berriz aztertze-koa dela), eta, *-i* amaiera jatorrizko genitiboari dagokionez, bere horretan mailegatzea hobetsi dugu, *-ita* forma baztertuta. Beraz, Elhuyarren *haxemi*, *sunni*, *alawi*, *ismaili*, *fatimi*... idazten dugu.

- Euskaltzaindiak, 1986an, *Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak* lanean arau hau ezarri zuen: “Grekoak: S bukaera dutenek, letra hori galtzen dute, salbu *-itis* bukaeradunak eta silaba bateko eta bikoak direnak”. Hala ere, *Hiztegi Batuan tetanos* eta *diabetes* ageri dira. Zer ondorio atera behar dugu? Bi horiek salbuespen direla edo 1986ko araua indargabetuta dagoela? Guk, Euskaltzaindiak 1986an erabaki bezala, *eskafoide*, *basidiomizete*, *diadelfo*, *nistagmo*, *alantoide*... idazten ditugu, amaierako -s hori kenduta, eta *herpes* idazten dugu, bi silabakoa delako.
- *Hiztegi Batuan* “**ganbara** Heg. ‘teila tupeko solairua’”, “**ganbera** 1 Ipar. ‘logela’ 2 Admin.: ‘diputatuen ganbera’, ‘merkataritza ganbera’, ‘ganbera musika’” eta “**kamera**” hitzak ageri dira. Hori ikusita, nola eman behar dugu euskaraz *combustion chamber* terminoa, *errekuntza-ganbera* edo *errekuntza-kamera*? Elhuyarren interpretatu dugu *gela* adiera dagokiolako horri, eta *errekuntza-ganbera* euskaratzen dugu, eta *kamera*, berriz, irudiak edo argazkiak hartzeko tresna izendatzeko baino ez dugu erabiltzen. Baina badakigu beste nonbait bestelako interpretazioa egin dela.
- Euskaltzaindiak, oraindik orain, *garapen iraunkor* terminoa hobetsi du *sustainable development* terminoa euskaratzeko, *garapen jasangarri* eta *garapen eramangarri* bazterrerara utzirik. Baina ez du ezer esan termino horren zati den izenondoak, *sustainable* izenondoak, hartu duen autonomiaz, sortu dituen eratorriez eta sortu dituen bestelako terminoek. Izenondo horretatik, izena (*sustainability*) eta antonimoa (*non-sustainable*) sortu dira. Nola eman behar dira horiek euskaraz? *Iraunkortasun*, *iraunezin/iraungaitz/ezin iraunezko*? Eta *sustainable development* arrakastatsua ren arrimura sortu diren dozenaka *sustainable X* direlakoak nola euskaratu? Gure iritziz, *iraunkor* ez da beti irtenbide egokia.¹¹ Zer egin, ordea?

Beste batzuetan, oso-oso gutxitan zorionez, Euskaltzaindiaren arau bat ez da koherentea beste arau batzuekin edo kontraesanak daude arauen artean; gerta daiteke, gainera, araua bat ez etortzea nazioarteko hitzarmenekin edo Euskaltzaindiak hitzarmen horiei men ez egitea. Horrelakoetan, Euskaltzaindiaren araua ez betetzea da irtenbidea, baina, horrekin batera, argudioak aurkeztu behar dira eta zergatia ulertarazi. ‘Intsumisioa’ hitz gogorra da, baina behin-behineko goeratzat hartu behar da, eta beti izango da salbuespen-izaera duen zerbait. Bi adibide:

- *anpere* erabaki du Euskaltzaindiak *Hiztegi Batuan*. Hala ere, *volt* eta *watt* ere erabaki ditu, hau da, batean egokitzapen grafikoa erabaki du, eta beste bietan ez. Horren arabera, nola

¹¹ *Garraioa, kontsumoa, turismoa, ekoizpena, nekazaritza, hiria, mugikortasuna*... oro da *sustainable* orain. Egia da zenbaitetan perifrasi erabil daitekeela, baina, beste batzuetan, benetako arazoak daude euskaratzeko, euskaraz *iraunkor* eta *iraunkortasun* aski finkatuta baitaude lehendik. Adibidez, ondo ulertuko ote dira honelakoak?: *Nekazariak lurra modu iraunkorrean* ustiatu beharko lukete, *Enpresa iraunkor* bihurtzeko aldageta kudeatzea, *Nekazaritzak, iraungo* badu, *iraunkorra* behar du. Inguruko erdaretan inolako arazorik ematen ez duten esaldiak behin baino gehiagotan pentsatu behar dira euskaraz, ulertuko badira: *En la Comunidad Autónoma Vasca existe una preocupación por alcanzar un Desarrollo Sostenible justo y perdurable*. Eta hori guztia horietako batzuk termino zenbateraino diren argi ez dagoela kontruan hartu gabe (*presupuestos sostenibles, residuos sostenibles, por unas fiestas sostenibles*...), horietarako irtenbide egokia aurkituko baitu taxuzko itzultzaileak.

idatzi behar litzateke *coulomb* unitatea? *Coulomb*, *kulonb*? Nazioarteko hitzarmen edo arau adierazi gabeko bat hautsi du Euskaltzaindiak, jatorrian pertsona-izena duten unitateen izenen grafia ez baita aldatzen¹²: *volt*, *watt*, *joule*, *ampere*, *kelvin*, *coulomb*, *hertz*, *gauss*, *henry*... (jatorrian pertsona-izena ez dutenak, berriz, aldatu egiten dira hizkuntzatik hizkuntzara (*segundo*, *metro*, *gramo*...)). Nazioarteko arau-gomendioak eta Euskaltzaindiarenak ez datoz bat kasu honetan, eta Elhuyarren nazioarteko hitzarmenaren arabera idaztea erabaki dugu (Euskaltzaindiari arazoaren nondik norakoak xehe-xehe adierazi eta gero).

- Antzeko arazoa dago *Hiztegi Batuan* ageri diren *sulfidriko* eta *zianhidriko* hitzekin ere; batean kontsonantearen ondoko hatxea kenduta dago, eta bestean ez. Elhuyarren *-hidriko* atzizkia osorik idazten dugu guztietan: *sulfhidriko*, *zianhidriko*, *klorhidriko*, *fluorhidriko*...

3.1.3 Irizpideak

Zer gertatzen da estandarizazio-arauetan jasota ez dauden gaietan, estandarizazio-arauetan hainbat aukera onartu direnean edo hizkuntzaren arauen arabera aukera bat baino gehiago erabil daitezkeenean? Horrelakoetan, irizpideak baliatu behar. Irizpideen bidez erantzun behar diogu arautu gabekoari edo arauaren areagoko murriztu beharrari.

3.1.3.2 Arauak aukera bat baino gehiago onartu dituenean

Araua irekia denean, hau da, arauak hainbat aukera onartu dituenean, erakundeak zein bakoak erabaki lezake aukera horietako bat bakarra erabiltzea edo ez (irizpideak beharko dira, lehen-lehenik, erabakitzeko ea arauak aukeran uzten dituen bide guztiak erabil daitezkeen ala murriztu nahi diren, eta, murriztekotan, zein aukera hobetsi behar den).

3.1.3.2.1 Maila berean onartuak

Erakundeak estilo bateratua erabili behar lukeela uste duenean, aukera bat bakarrik onartu ohi du. Hori izaten da horretarako arrazoi nagusia. Hona hemen adibide batzuk:

- Marratxoa hitz-elkarteetan
 - Sintetikoetan (*kale-garbitzaile* / *kale garbitzaile*) eta *eguzki-lore* motakoetan (*lan-hitzarmen* / *lan hitzarmen*), marratxoa idaztea aukeran utzi du Euskaltzaindiak. Horrelakoetan, marratxoz idaztea da Elhuyarren irizpidea (*kale-garbitzaile*, *lan-hitzarmen*)
 - Hitz-elkarte baten lehen osagaiaren amaierako *-a*: *hizkuntza*, *kultura*, *eliza*, *natura*, *literatura*, *burdina* seikotean aukerakoa da amaierako *-a* kentzea edo ez kentzea: *natur*

¹² Baita gaztelaniaz ere. *amperio*, *voltio*, *vatio*... arruntak badira ere, Real Academia Española-ren hiztegian *ampere*, *volt*, *watt*... ere sarrearak dira, eta zer unitate erabili behar diren ezartzen duten Espainiako legezko arauetan *ampere* baino ez da ageri.

zientziak / natura-zientziak / natura zientziak. Horrelakoetan, amaierako *-a* kentzea eta, ondorioz, marratxorik gabe idaztea da Elhuyarren irizpidea (*natur zientziak*)

- Bahuvrihi elkarteak marratxoz nahiz loturik idaztea aukeran utzi du Euskaltzaindiak (*puntazorrotz / punta-zorrotz*). Horrelakoetan, loturik idaztea da Elhuyarren irizpidea (*abate mokozabal, sai burugorri*).
- Leku-denborazko kasuetan *-e* epenetikoa aukeran utzi du Euskaltzaindiak izen berezien deklinabidean: (*Gasteizeko / Gasteizko; Brasileko / Brasilgo*). Horrelakoetan, *-e* epenetikorik gabe idaztea da Elhuyarren irizpidea (*Gasteizko, Brasilgo*)

Hala ere, beste zenbaitetan, ez dugu hobesten Euskaltzaindiak maila berean onartu dituen aukeretakoa bat. Esaterako, *iritzi* aditzean, *deritzalderitzo* eta *deriztelderitze* aldaerak onartu ditu Euskaltzaindiak. Elhuyarren, orain arte, ez dugu hobespenik egin, eta biak ontzat ematen ditugu. Beste adibide bat mendeko perpausetako menderagailu-aukera dugu: *zeren, zein, hain* partikulekin batera *bait-* aurrizkia nahiz *-(e)n* atzizkia erabil daitezke. Euskaltzaindiak biak deskribatu ditu, baina ez du hobespenik egin. Elhuyarren irizpidea, oraingoz behintzat, biak ontzat ematea da. Izan ere, ez dugu uste horrelakoetan aukerak murrizteko beharrik dagoenik.

3.1.3.2.2 Arauak hobetsiak eta bigarren mailakotzat onartuak

Hiztegi Batuan ‘h.’ (hobe) markarekin ageri dira hainbat hitz. Zenbaiten ustez ‘h.’ duten horiek baztertzeko hitzak dira euskara batuan, edo, behintzat, zenbaiten jokabidean hori ikusten da (*de facto*, ‘h.’ → ‘e.’ egiten da). Kontuz aztertzeko gaia da; hain zuzen ere, *Hiztegi Batuan* dauden hitzak dira, eta, Euskaltzaindiak berak xehetasun argigarriagorik eman ezean, ez dira baztertzekoak. Adibidez, Gipuzkoarako publikitate-iragarki batean *tximu* hitza idaztea onargarria —eta egokia— da, gure ustez, eta ez da zergatik *tximino* idatzi, nahiz eta *Hiztegi Batuan* “*tximu* Gip. h. tximino” agertu. Elhuyarren irizpidea da ‘h.’ direlako horiek sistematikoki ez baztertzea eta kasuan-kasuan erabakitzea. Hona hemen muturreko bi adibide: *bolaluma* ez dugu idazten, nahiz eta Euskaltzaindiak hobetsitako hitza izan. Bestalde, uste dugu beste batzuetan *Hiztegi Batuak* berak baino estuago jokatu behar litzatekeela. Adibidez, *bakteria* hitza sistematikoki zuzentzen dugu, eta *bakterio* baino ez dugu onartzen (Euskaltzaindiak “*bakteria* h. *bakterio*” eman du). Adibide gehiago:

- “**memoria** 1 h. oroimen. 2 h. oroitzapen” (garbi dago adiera batzuetan ez dela hobesteko hitza, Informatikan adibidez: *itzulpen-oroiemenak?*)
- “**lengoaia** *Zab.* h. mintzaira, hizkuntza” (Informatikan *lengoaia* besterik ez da erabili)
- “**emozio** h. zirrara, etab.” (Psikologian?)
- “**erregelamendu** *Ipar.* h. araudi, arautegi” (Administrazioaren hizkeran nahitaez bereizi beharrekoak dira, kontzeptu desberdinak baitira)
- “**defendatu.** h. -en alde egin, aldeztu, babestu” (Zuzenbidean?)

- “**plubiometro** h. euri(-)neurgailu” (*manometro* hitza, adibidez, ez dago *Hiztegi Batuan*. Hortik zer ondorio ateratzen da? Hobe dela *presio-neurgailu* erabiltzea? *Termometro*, *voltmetro*, *wattmetro*, berriz, inolako oharrik gabe onartu dira. Zergatik da hobe *euri-neurgailu* erabiltzea euskara batuan *plubiometro* baino? Norbaitek pentsa lezake, logika onean, *plubiometria* erabiltzea baino hobe dela *euria neurtzea* esatea).

Adibideek garbi uzten dute ‘h.’ horren azpian askotariko kontuak daudela, eta irizpideak ezarri behar direla jokabide sinplista galgarriei bide ez emateko.

3.1.3.3 Arautu gabeko gaiak

Euskaltzaindiak erabaki ez dituen gainerakoetan, badira gehienon adostasunez hartutako erabakiak, jada euskara batuaren estandartzat har daitezkeenak. Adibidez, aginte-adizkietan aditz-oina erabiltzea, eta ez partizipioa: *har ezazu* idazten da euskara batuan, eta ez *hartu ezazu*, nahiz eta puntu horri buruz Euskaltzaindiak ez duen araurik eman. Nolanahi ere, oso gutxi dira horrelako adostasun ia erabatekoa duten gaiak. Beste asko eta askotan, estandarizazio-arauen edo ‘gomendioen’ beharra nabarmena da. Hona hemen adibide batzuk:

- % eta ‰ ikurren idazkera: ikurraren eta zenbakiaren artean zuriunea utzita edo zuriunerik gabe? % 10 edo %10? Elhuyarren irizpidea da, nazioarteko gomendioak gogoan, tartean zuriunea dagoela idaztea.
- Siglen idazkera eta deklinabidea: *NBEren egoitza*, *NBE-ren egoitza*, *N.B.E.ren egoitza* edo *N.B.E.-ren egoitza?*, marratxoaz edo loturik? Letrak puntuz bereizita edo loturik? Horrelakoetan, Elhuyarren irizpidea da punturik ez idaztea eta marratxorik gabe idaztea.
- *Arte* postposizioa, denborazko adieran. Haren ezkerrean dagoen izen-sintagmak zer kasu-marka hartu behar du? *Astelehen arte*, *astelehena arte* edo *astelehenera arte?* Elhuyarren ez dugu, orain arte, hobespenik egin.
- Zenbatzaileekin mugagabea erabili behar da, baina neurri-sintagmetan nola jokatu? *Hiru kilometrora* edo *hiru kilometrotara?*; *220 voltetik* edo *220 voltetatik?*; *169 °C-an* edo *169 °C-tan*. Elhuyarren irizpidea da inesiboan eta adlatiboetan mugatu singularra erabiltzea: *hiru kilometrora*, *220 voltetik*, *169 °C-an*.
- Espezieen latinezko nomenklatura binominala erabiltzen denean, nola deklinatu, izen berezi moduan edo izen arrunt moduan? “*Escherichia coli*-k eragindako gaixotasuna” edo “*Escherichia coli*-ak eragindako gaixotasuna”? Elhuyarren irizpidea da, oro har, izen berezi moduan deklinatzea (testuinguruak kontrakoa agintzen ez duenean behintzat): “*Homo erectus* izan zen *Homo habilisen* oinordekoa”
- Terminologia: euskara batuan, arau ‘ofizialetatik’ aparte dagoen arloa da terminologia, Euskaltzaindiak behin baino gehiagotan esan baitu terminologia ez duela berezko lan-eremu, eta zeharka baino ez baitio heldu. Sortu berria den Terminologia Batzordeak

zeresan handia izan behar luke langintza horretan.¹³ Nolanahi ere, terminoak egunero-egunero sortzen ari direnez, normala da zalantzak izatea. Ezinezkoa da terminologia oso-ari tamaina hartzea, baina gehien erabiltzen diren terminoetan behar-beharrezkoa da noraezean ez ibiltzea. Eta, horretarako ere, araurik ezean, irizpideak behar dira. Nahi adina adibide eman litezke, baina ez da hau horretarako tokia. Adibide pare bat:

- Azido nukleikoak (erribonukleikoak eta desoxirribonukleikoak) izendatzeko, zein sigla erabili? Ingelesarenak (*RNA, DNA*), euskararenak *AEN, ADN* edo gure bi auzo-erda-arenak (*ARN, ADM*)? Duela hiru urtetik hona, Elhuyarren irizpidea da ingelesezko siglak erabiltzea: *RNA* eta *DNA*.
- Telekomunikazioen teknologiak azken urteotan sortu duen tresnarik erabilienari zer izen eman? *Telefono mugikor, telefono mugigarri, telefono eramangarri, sakelako telefono, esku-telefono...*? Elhuyarren irizpidea da *telefono mugikor* erabiltzea eta *sakelako telefono* ere ontzat ematea (baina gailua bakarrik izendatzeko, hau da, ez hitz-familiarako: *telefonía mugikor* bai, baina **sakelako telefonía ez*)¹⁴.
- Perpaus elkartuak: arlo honetan oso arau gutxi dago, eta hainbat zalantza daude. Aukera guztiak zilegi izanda ere, testuak bateratzeko beharrak eska dezake irizpide murriztailea ezartzea. Adibide bat baino ez:
 - Perpaus erlatiboetan *zein* galdera-izenordaina erabiltzen denean, nola deklinatu? Mugagabea (*zein*) ala mugatua (*zeina*)? Eta mugatua erabiliz gero, pluraltasuna nola adierazi, *zeinak* edo *zeintzuk*? Eta aditz jokatuan *zein* menderagailu jarri, *bait-* aurritzia edo *-(e)n* atzitzia?

3.1.3.4 Egokitasunari dagozkion gaiak

Irizpideak behar dira, azkenik, egokitasunari dagozkion arloetan ere. Hor daude, ziur asko, irizpide garbiak ezartzeko zailtasunik handienak, berez oso eremu lausoa baita egokitasunarena.

¹³ Beste kontu bat da, noski, zer egin behar lukeen Euskaltzaindiak jakintza-alor espezializatu bateko kontsulta bat jasotzen duenean, eta lan hori Terminologia Batzordearen lanekin nolabait uztartu behar den.

¹⁴ *Mobile (telephone)* (edo maiz sinonimotzat jo ohi diren *cell phone* edo *cellular [tele]phone*) ingelesezko terminoaren euskal ordainearako, hainbat proposamen egin dira, hauts asko harrotu duen kontua da. Horregatik, uste dugu hobe dela Terminologia Batzordearen gomendioaren edo Euskaltzaindiaren erabakiaren zain egotea, eta, bitartean, erabilerari men egitea. Inolako zalantzarik gabe, termino hori euskaraz gehien erabili duena Euskaltel da, eta *telefono mugikor* eman zuen hasieratik. Bestetik, egin diren bestelako proposamenen artean, esango genuke *sakelako telefono* izan dela arrakastatsuen. Kontuan hartu behar da, dena den, alor espezializatuan *mugikor*-ek abantaila batzuk dituela *sakelako*-ren aldean. Izan ere, ez dirudi oso egokiak direnik *sakelako telefonía, sakelako sareak, sakelako konexio* eta kidekoak. Irizpide terminologiko hutsetik, *telefono eramangarri*-ren alde egingo genuke, *ordena-gailu eramangarri*-ren bidetik (frantsesez ere, *téléphone portable* eta *téléphone mobile* dabilta, baina lehena nagusitzen ari omen da). Baina: a) gauzak arago nahasten hasi aurretik, hobe lehen esandako erabakiaren zain egotea; b) *mugikor*-ren gaitza (hau da, telefonoa 'berez' ez dela mugitzen) beste hainbat erdaratan dagokion termino kideak egin behar izan duen zabalkuntza semantiko bera da; eta c) hainbat erdaratan *mobile*-ren bidetik sortuak ez diren hainbat adierazpide dabilta, baina *telefonía, sare, estazio* eta gainerakoekin ez dira ia erabiltzen. Frantsesez, adibidez, *téléphonie portable* askoz gutxiago ageri da Interneten *téléphonie mobile* baino. Azkenik, zain gauden erabaki hori dela eta, gauza bakarra eskatuko genuke: arazoaren kasu guztiak aztertzea, edo *telefono móvil* bakarrik ez aztertzea behintzat, *garapen iraunkor* erabakitzeak berekin ekarri dituen arazoak berriz ere izan ez ditzagun.

Hala ere, garbi dago hor ere irizpideak behar direla. Adibidez, testuaren edo diskurtsoaren antolamendua (perpausaren barneko osagaien ordena; esaldien luzera; puntuazioa; kohesioa; anafora- eta katafora-jokoak, lokailuak), fraseologia, kolokazioak, nominalizazioaren mugak... horra hor irizpidez jantzi beharreko arloak.

3.1.3.5 Irizpideak finkatzea

Irizpideen alorrean, erakunde, argitaletxe, idazle, itzultzaile edo zuzentzaile bakoitzak bere estilo-arauak ditu (edo izan behar lituzke, behinik behin). Estilo-arau horien balioa mugatua da, jakina, eta garbi dago batzuen estilo-arauek gehiago balio dutela, ondorio praktikoei begira, beste batzuenek baino. Adibidez, itzultzaile baten estilo-arauak itzultzaile horren lanetan baino ez dira islatuko. Elhuyarren estilo-arauak goragoko maila batean daude, Elhuyarren produktu eta zerbitzu guztietan islatuko baitira, baina ez dira gorago iritsiko. Euskal Herriko Unibertsitatearen estilo-arauak garrantzitsuagoak dira oraindik, unibertsitate-komunitate osoak bete behar harko baititu. Eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak ezarri dituen edo ezarriko dituen estilo-arauen eragina are handiagoa izango da, haien mende egongo baita hezkuntza-sare osoa eta hari lotutako argitalpen guztiak.

Elhuyarren, askotarikoa da irizpide eta estilo-arauen jatorria. Sarritan, Elhuyarretik kanpo hainbat pertsonak eta taldek egindako gogoetetatik ateratako puntuak geure egin ditugu (adibidez, zientzia eta teknikako euskararako Mikel Zalbidetik, Joxe Ramon Etxebarriak, Martxel Ensuntzak, Igone Zabalak, Juan Carlos Odriozolak edo beste askok proposatutako gomendio-etako asko erabiltzen ditugu, egokitzen jo ditugunean; edo UZEIren proposamen terminologiko asko; edo Ibon Sarasolaren hobespenetako asko; edo, joskerari dagokionez, hainbat adituk —Juan Garzia, Jose Ramon Zubimendi, Bittor Hidalgo, Xabier Alberdi...— proposatutako moldeak edo hobetsitako bideak). Beste askotan, Elhuyarren berariaz landu behar izan ditugu gai batzuk (bakarrik edo Elhuyarretik kanpoko adituen laguntzaz), eta ondorioak atera ditugu (marratxoaren erabilera hitz-elkarketan; komaren erabilera; letra larrien erabilera; lexiko arrunteko eta terminologiako hobespenak...). Horiekin guztiekin osatu ditugu —osatzen ari gara, amaierarik gabeko lana baita— Elhuyarren irizpideak eta estilo-arauak.

Irizpideetarako erabakiak hartzerakoan, hainbat alderdi aztertu behar dira. Lexikoaren edo terminologiaren alorrean, esate baterako, irizpide linguistikoak hartu behar dira kontuan, baina terminologikoak eta soziolinguistikoak ere bai. Berriz ere, hizkuntz erabilerarekin egiten dugu topo. Izan ere, gure iritzia da irizpideak finkatu aurretik erabilera aztertu behar dela, edo, bestela esanda, erabileraren datuak behar direla irizpideak erabaki ahal izateko (zer esanik ez, beste hainbeste esango genuke arauak erabakitzeari buruz). Bada, erabileraren 'datuak' direla eta, hainbat ohar egin nahi genituzke:

- Alor espezializatu batzuetako testu-produkzioa ez da behar bezain handia erabilera egonkor bat sortzeko (erabilera hori 'sortzen' ari gara)
- Jadanik jorratu diren eta nolabaiteko erabilera-eredu bat suma litekeen alorretan, erreferentziak eta datuak falta dira; corpusak behar dira, alegia.

- Azken urteotako testu-produkzioari buruzko jarrerak ez dira bat: mutur batean daude erabilera hori aintzat hartzekoa ez dela diotenak (kalitate eskaseko testuak direla, eta, beraz, hobe dela hutsetik abiatzea); beste muturrean, ostera, erabilera hori errespetatu egin behar dela diotenak.

Izan ere, sumatzen da jarrera kritikoak daudela jakintza-alor espezializatuetakoko testuen hizkuntz kalitatearekiko, zenbaitetan kontuan ez hartzeko materiala dela uste izateraino. Horrek arago gutxitzen du idazleak, itzultzaileak, hiztegiak zein zuzentzaileak erabil litzakeen erreferentzia 'fidagarrien' multzoa. Ez gaude ados azken urteotako testu-produkzio horren deskalkifikazio orokorrarekin eta baztertzeko joerarekin, ezta ezinbestean segitu beharreko eredia finkatu delako ustearekin ere; hau da, uste dugu jarrera 'kritikoa' izan behar dela.

Gure iritziz, testu zientifiko-teknikoak ez dira zientzia-komunitateko kideak elkarren artean komunikatzeko erabiltzen ez diren eta balio ez duten material 'testimonialak'. Euskaraz ikasten, irakasten, ikertzen, dibulgatzen eta komunikatzen da alor horietan. Hor erabiltzen den hizkera, eredia, edo dena delakoa ez da sakralizatzekoa eta ezin aldatuzkotzat jotzekoa, baina aintzat hartzekoa bada. Bestetik, eredia ez da besterik gabe alda daitekeen zerbait. Aldaketek kostua dute (arlotan, gainera), eta arrazoi sendoak behar dira erabilerarekin bat ez datorren zerbait bultzatzeko. Erabakiak ezin dira ikuspegi linguistiko hutsez hartu. Irizpide horiek behar dira, nahitaez, baina irizpide soziolinguistikoak eta pragmatikoak ere bai.

Horretarako, ordea, datuak behar dira; lehen esan bezala, erreferentziak eta datuak falta dira, hau da, corpusak behar dira jadanik jorratu diren eta nolabaiteko erabilera-eredu bat suma litekeen alorretan. Ikuspegi horretatik, kalitatearen apriorismoaren arazoa sortzen da 'ereduzko corpusak' egitean; corpus batean *a priori* kalitatekoak jotzen diren testuak soilik sartzen badira, aztertu behar den objektua murrizten ari gara, frogatu nahi ditugun ezaugarri batzuk soilik dituzten testuak corpuseratuz (*petitio principii*); testu horiek, gainera, 'autoritate-printzipioaren' arabera hautatzen dira, eta horren baitan lortzen dute fidagarritasun eta sinesgarritasuna. Jarrera 'mesianiko' horrek –nolabait deitzearren–, zoritxarrez, indar handitxoak du euskalgintzan, eta ez da, esan dezagun, oso zientifikoa. Gure iritzia da datuak, datu guztiak, hizkuntzalarien eta aztertzaileen eskura jarri behar direla, hizkuntz kalitatea neurtzeko onartuko lirakeen irizpideen arabera azter dezaten euskal testuen kalitatea; azterlan eta eztabaida horretatik ondoriozta liteke, agian, ereduzko prosatzat har litekeena. Ereduzko prosaren corpus bat egiteko, literatur testuak behar dira, jakina, baina ez literatur testuak bakarrik, non eta helburua ez den literaturaren ereduzko corpusa egitea, eta ez hizkuntza osoarena. Ez gaude ados "Hizkuntz arazo guztiak, azken buruan, arazo literarioak dira" dioenarekin. Corpusean literatur testuak baino sartzen ez badira, hortik atera dezakegun ondorioa da beste alorretan ez dagoela 'ereduzkotzat' jo litekeen testurik. Baina zer azterketa egin da hori ondorioztatu ahal izateko? Horren azpian badago askoren inkontzientean dagoen eta batzuen ahotan dabilen baieztapena: euskara ona euskal literaturan bilatu behar da, literatur idazleek sortzen dute tradizioa eta araua; gainerako testuak eta gainerako idazle eta testu-sortzaileak ez dira aintzat hartzekoak. Baieztapen hori, XXI. mendean eta informazioaren gizartean, *demodée* dago, soziolinguistikaren ekarpenei muzin egiten die, eta esango genuke gaur egun-

go euskal gizartearen errealitatek kanpo dagoela. Inork ez dezala pentsa ereduak corpusak eratzeari egokia eta onuragarria ez deritzogunik. Horien beharrea gaude gu ere, baina horrelakoak eratzeko eta adosteko prozesuak kezkatzen gaitu.

3.2 Kalitatea bermatzeko prozesua zehaztea eta gauzatzea

Lehenik eta behin, kalitatea bermatzeko prozesua deskribatu eta egituratu egin behar da. Horretarako lehen urratsa erakundearen barneko zein kanpoko lan-fluxua zehaztea da:

- Prozesuaren urratsak
- Urrats bakoitzaren sarrerak eta irteerak
- Urrats bakoitzean parte hartzen duten pertsonak, lantaldeak...
- Urrats bakoitzean erabiltzen diren tresnak eta baliabideak

Ondoren, prozesua gauzatu egin behar da, beharrezkoak diren pertsonak, tresnak eta baliabideak antolatuz. Azkenik, prozesua ebaluatu egin behar da, beharrezkoak irizten zaizkion egoitzapen eta aldaketak eginez.

Bi prozesu nagusi bereiz daitezke kalitatea bermatzeko:

- Zuzenketa: outputaren edo irteeraren kalitatea bermatzea
- Trebakuntza: zuzentze-prozesuaren inputa edo sarrera hobetzea

3.3 Pertsonak

Erakundeko pertsona guztiak dira, bakoitza bere maila, ardura eta eginkizunaren arabera, kalitatea bermatzeko prozesuaren partaide.

Hizkuntz ereduak finkatzeaz eta ezartzeaz arduratzen diren pertsonak 'Hizkuntz Kalitateko lantaldea' osatzen dute. HK lantaldearen eginkizunak:

- Hizkuntz ereduak: irizpideak
- Zuzentzaileen arteko kohesioa
 - Zuzentze-lanaren koherentzia
 - Bezeroaren arabera irizpideak erabiltzea
- Irizpideak erakunde barnean ezartzea
 - Komunikazioa
 - Trebakuntza

3.4 Tresnak eta baliabideak

Hizkuntz kalitatea bermatu ahal izateko, erakundeko partaideek, bakoitzak bere maila, ardura edo eginkizunaren arabera, hainbat tresna eta baliabide erabiltzen dituzte.




- Zuzentze-tresna automatikoak (Xuxen, XuxeNet)
- Itzulpen-memoriak
- Kontsulta-iturriak
 - Hiztegiak (lexikografikoak zein terminologikoak)
 - Datu-base terminologikoak
 - Corpusak
- Kontsultaguneak (Jagonet...)
- Eztabaidaguneak (Itzulist...)
- Aholkulari-sarea
- ...

Garrantzi berezia dute HK lantaldeak bere eginkizunak behar bezala bete ahal izateko erabili behar dituen tresnek. Testuinguru horretan, HK lantaldeak irizpideak finkatzean, testuak zuzentzean eta abarretan hartzen dituen erabakien kudeaketa prozesu giltzarria da. Prozesu horretan egiten den gogoeta- eta aztertze-lana, egiten den informazio- eta iritzi-trukea eta, azkenik, horren emaitza diren erabakiak berak erakundearen jakintzaren osagai garrantzitsua dira, eta tratamendu berezia behar dute prozesua kalitatekoa izan dadin, baita jakintza hori partekatu, eguneratu eta berrerabili ahal izan dadin ere.

Horretarako, Elhuyar Fundazioak 'Hizkuntz Kalitatea Kudeatzeko Sistema' edo HKS diseinatu eta inplementatu du. Esan gabe doa, sistemaren diseinuak erakundearen jardueraren eta lan-fluxuaren araberakoa behar du izan.¹⁵ Hurrengo atalean, sistemaren helburuak, egitura eta funtzionalitatea azalduko ditugu.

4 Lan-fluxua eta tresnak

Hona hemen Elhuyar Hizkuntz Zerbitzuen hizkuntz kalitatea bermatzeko prozesuaren lan-fluxua:



Zuzenketa-prozesuaren ohiko jarduna eta dagokion lan-fluxuaren dokumentazioa Itzulpendok izeneko sistema baten bidez antolatuta dago. Sistema horretan, itzulpengintzako lan-fluxua dago orain inplementatuta. Urrats bakoitzari dagokion dokumentua biltegitzen da:

- jasotako dokumentua: bezeroak bidalitakoa
- itzultzeko dokumentua (jasotako dokumentuaren formatu-bihurketa egin behar denean)
- itzultitako dokumentua

¹⁵ Adibidez, EHUko Euskara Zerbitzuarentzat prestatu dugun EHULKU aplikazioa Euskara Zerbitzuak eskaintzen duen zerbitzuaren helburuen eta ezaugarrien arabera dago disainatuta eta gauzatuta.

- zuzendutako dokumentua (aldaketak onartu gabe): zuzentzaileak zuzendu eta itzultzaileari bidaltzen diodokumentua, hark zuzenketak onar ditzan. Itzultzailea, egindako zuzenketaren batekin ados ez badago edo zalantzarik badu, hori zuzentzailearekin argitzen saiatuko da
- 'bak' dokumentua (onartutako zuzenketak eta jatorrizko/itzulitako segmentuak)
- bidalitako dokumentua (garbituta, bezeroari bidaltzen zaion moduan).

Zuzendutako dokumentua gordez, aukera dugu zuzentzaileen lana ebaluatzeko eta irizpi-deak bateratzeko, aldian behingo lagin-erazuketak eginez. Azkenik, sistemak aukera ematen du dokumentua biltegiratu ahala lana esleitzeko eta dagokionari jakinarazteko.

FITXA EGUNERATU

- Zerrendara - - EZABATU -

Dezeroa:

Itzultzailea:

Jatorrizko hizkuntza:

Helburu hizkuntza:

Jasotako dokumentua Data: 2004/02/10

- Dokumentua ikusi -

Itzultzeko dokumentua

- Dokumentua ikusi -

Itzulitako dokumentua

- Dokumentua ikusi -

Zuzendutako dokumentua

- Dokumentua ikusi -

Back dokumentua

- Dokumentua ikusi -

Bidaltzeko dokumentua

- Dokumentua ikusi -

Oharra:

http://hiztrados/itzulpendok/dokumentuak/Euskaltel/Zuz...

Archivo Edición Ver Insertar Formato Herramientas Tabla

Abraz Adelante Detener Actualizar

Dirección http://hiztrados/itzulpendok/dokumentuak/Eu Ir Vínculos

Arial 12

2 · 1 · 3 · 1 · 4 · 1 · 5 · 1 · 6 · 1 · 7 · 1 · 8

se: penencia: automáticamente de: un: as:
 gehiago ere izango dituzu; izan er
 automatikoki; tarifa merkeagoez gozatu
 desea: podrá seguir realizando sus l
 correspondiente.< } >Eta; nahi izanez
 haiei dagokien dagokien aurrez baki

Zuzendutako dokumentua

Bestetik, azaldutako lan-fluxuko urrats batzuk HKS sisteman integratuta daude (letra lodiz ageri dira). Hizkuntz eredia finkatzearekin, kontsultei erantzutearekin eta zuzenketetan harzen diren erabakiekin zerikusia duten urratsak dira.


4.1 HKS

4.1.1 Helburuak

- Hizkuntz kalitatea kudeatzearekin zerikusia duten alderdi guztiak datu-egitura eta lan-ingurune batean integratzea
- Hizkuntz kalitatearekin erlazioa duten jardueren araberako funtzionalitatea bultzatzea (moduluen eta sarbide-aukeren bidez)

4.1.2 Diseinua

Helburu horiek bete ahal izateko, honakoa da HKS sistemaren egitura orokorra:



HKSren egitura

‘Langaia’ entitatearen bidez, jarduera bakoitzetik eta erabaki berriak hartzeko prozesutik biltegitatzen den informazioa erlazonaturik dago, eta edozein ataletatik eskura daitezke ‘langai’ jakin batekin erlazonatuta dauden beste ataletako edukiak. ‘Langaia’ entitatea bi elementuren bidez definitzen da: ‘langaiaren azalpena’ eta ‘saila’ (sailkapena). Goiko ataletan egin beharreko lana egin ahal izateko erabaki berria hartu behar denean, ‘Aztergaia’ sortzen da, eta bertan lan-tzen dira irizpide bat finkatzeko beharrezkoak diren dokumentazioa, proposamenak, iritzi-trukea eta erabakia hartzea.

4.2 Inplementazioa

Sistema datu-base erlazonal batean inplementatuta dago, eta ASP bidezko web zerbitzari/bezero baten arkitektura du. Hona hemen adibide batzuk:

Irudi honetan, hitz-elkarketa/nominalizazioa langaiarekin erlazonatutako kontsulta bat, aztergai bat, bi zuzenketa eta hiztegi-gintzako arazo bat ditugu.

HKS - Elhuyar



Gai bereko edukirik

Hitz-elkarketa / Nominalizazioa

Kontsultak	
Data	Galdere
06/02/2009 11:24:56 AM	Nola eman "planta de reciclado de residuos orgánicos" <input checked="" type="checkbox"/>
Aztergaiak	
Noiz sortuta	Laburpena
2002/09/15	Karbonoaren gasifikazio-teknika ^{ak} eta karbono gasifikazeko teknika ^{ak} erako terminoen arteko lehia aztertu behar da; nominalizazioak ez dira, berez, okertatze behar, eta zenbaiten erabil, beharrekok dira dirudi, baina hobestekoak dira, gure ustez, aditz-izenaren bidezko egiturak <input checked="" type="checkbox"/>
Egutzi-zuzenketak	
Data	Zuzentzekoa
05/05/2004 06:17:45 PM	Burua, lepoa eta buztanaren araketa <input checked="" type="checkbox"/>
06/05/2004 11:18:48 AM	Endometriaren arrautzaren babesaz eta elikapez arduratzen da ezarritzen osteko egurketan. <input checked="" type="checkbox"/>
Hiztegigintza	
Noiz sortuta	Arazoa
04/01/2001 09:18:55 AM	Izen+aditz-izena vs izen-izen (deberbala) elkarketa (edo izen-izen izen deberbala) <input checked="" type="checkbox"/>

Langai batekin erlazionaturiko edukiak

Gerta liteke zuzenketetan nahiz hiztegigintzan sortutako arazo bati irtenbidea berehala bilatzea eta hori besterik gabe jasotzea, edota egindako kontsulta bati erraz erantzuteko moduan egotea. Baina gerta liteke, halaber, sortu zaigun arazoa edo egin diguten kontsulta berehala ebatzi ezin eta aztergai bat sortu behar izatea.

Hasiera

Aztergaiak ezabatu

[[]] --> letra etzana
<<> --> azpimarratua
() --> letra lodia

Lehentasun-maila:

Gako-hitzak: nominalizazio, aditz-izen, - Gako-hitzak sortu -

Gaia: Hitz-elkarketa/nominalizazioa
 Gai bereko edukiak

Iriztia

GEHITU

2002-09-15
Elkiz-bate
Erebeburua

Hiztegigintza zeren forma erabakitzerakoan, arazo hau maiz ezaten da. Egia da, adibidez, bestuan egokialdea dela, asko eta askotan, "energia berreskuratzea" erabiltzea "energia berreskurapena" baino. Baina hiztegisarreran bak eman behar gendukoele osto du; bestela, nominalizazioa gantzenen dela uleri liteke, eta hon ez da, segururik, asko hiztegiaren egokizuna. Forma, berez, ez basteztertzea, izentze eta behar denean erabiltzeko bazeu. Hiztegiak hizkuntz balabideak eskaini behar dizkie erabiltzailean.

Dokumentu erantsiak

GEHITU

2003-11-09
HAREE

HAREE_Nominalizazioa.doc

2002-09-15
Garaiz, Gurea

Garaiz_Nominalizazioa.doc

Laburpena:


[[]] --> letra etzana
<<> --> azpimarratua
() --> letra lodia

Karbonoaren gasifikazio-teknika^{ak} eta karbono gasifikazeko teknika^{ak} erako terminoen arteko lehia aztertu behar da; nominalizazioak ez dira, berez, okertatze behar, eta zenbaiten erabil, beharrekok dira dirudi, baina hobestekoak dira, gure ustez, aditz-izenaren bidezko egiturak

Aztergaia

Aztergaia Elhuyarren bertan lant dezakegu, edo kanpora aholkua eskatu. Kanpoan nahiz Elhuyarren bertan jasotako hainbat iritzi bil ditzakegu orri horretan, eta iritzi-emaitzek eman-dako dokumentuak nahiz guk geuk landu edota nonbait aurkitutakoak ere jasotzeko aukera ematen du. Horrez gain, horien laburpentxo bat ere sar dezakegu, zuzentzaileok ez baitugu beti astirik izaten dagoen dokumentazio guztia irakurtzeko. Azkenik, 'Proposamena(k)' atalean, arazo horri buruz hartutako erabakia edo ezarritako irizpidea gordetzen dugu.

Jasotzen ditugun kontsultak kudeatzeko ere balio digu sistema honek. Elhuyarko langileren batek egindako kontsultak nahiz kanpotik datozenak HKS aplikazioaren bidez iristen dira Hizkuntz Kalitateko lantaldera. Erantzutea egokitu zaionaren lehendabiziko lana da kontsulta sailkatu eta zein langairekin erlazionatuta dagoen ikustea. Sisteman horri buruz dagoen informazioa aztertu, eta, nahikoa informazio badago, kontsultari erantzungo dio. HKSn horri buruzko ezer aurkitu ez badu, eta kontua sakonago aztertu behar dela uste badu, lehen aipatu dena bezalako aztergai bat sortu eta gaia landu eta gero erantzungo dio kontsultari.



Nasiera

Aztergaia azaldu

[[]] --> letra etzana
<< >> --> azpimarratua
(()) --> letra lodia

Lehentasun-maila:

Gako-hitzak: **nominalizazio, aditz-izen,**
- Gako-hitza sortu -

Gaia:

- Gaia gehitu Hitz-elkarketa/Nominalizazioa
- Gal bereko edukiak

Iritzia

- GEHITU

2002-09-15
Elizabete Etxeberria

Hiztegiatiko zarreran forma erabakitzerakoan, arazo hau maiz izaten dugu. Egia da, adibidez, testuan egokiago dela, asko eta askotan, 'energia berreskuratzea' erabiltzea 'energia-berreskurapena' baino. Baina hitzgegi-zarreran baik eman behar genituzkeela uste dut; bestela, nominalizazioa gartzesten dela uler liteke, eta hon ez da, seguru aski, hiztegiaren eginkizuna, forma, berez, ez balta baztertzekoa, tentuz eta behar denean erabiltzeko bazik. Hiztegiak hizkuntz ballabideak eskaini bear dizkio erabiltzaileari.

Dokumentu erantsiak

- 2005-11-03 HAAE HAAE_Nominalizazioa.doc
- GEHITU
- 2002-09-15 Julio Garcia Garcia_Nominalizazioa.doc

Laburpena:


Karbonoaren gasifikazio-teknikak eta karbono gasifikatzeko teknikak erako terminoen arteko lehia aztertu behar da; nominalizazioak ez dira, berez, okertzat jo behar, eta zenbaitetan erabili beharrekoak direla dirudi, baina hobestekoak dira, gure ustez, aditz-izenaren bidazko egiturak.



Kanpo-kontsulta

Kasu honetan, kanpotik jasotako adibide bat dugu. *Teléfono móvil* terminoaren euskarazko ordainari buruzko galdera bat da. Kontsulta egin duenaren datuak, kontsulta bera eta erantzuna ere jasota daude.

BIBLIOGRAFIA

- AMUNARRIZ, K. 2004. "Hizkuntza kalitatea burujabetza linguistikoa da." <http://www.era-bili.com/zer_berri/muinetik/1073656018>
- CHOMSKY, N. 1965. *Aspects of the Theory of Syntax*. Cambridge, Mass.: M.I.T. Pres.
- EUSKALTZAINDIA. 1991. "Euskaltzaindiaren bigarren agiria euskal hitzei buruz." In: *EUSKERA*, 36, 445-446. Bilbo
- GARZIA, J. 1999. "Motiezaguerabilpena-ren penaz.". In: *Hik Hasi*.
- HYMES, D. 1972. "On communicative competence". In: J. B. Pride & J. Holmes (Eds.), *Sociolinguistics*. Harmondsworth, England: Penguin Books.
- LARRINGAN, L.M. 2000. "Hizkuntzaren kalitatea." In: *Ikastaria*, 11, 65-75.
- LARRINGAN, L.M. 2002. "Euskararen kalitatea mintzagai" In: *EuskoNews*. <<http://www.euskonews.com/0150zbk/frgaia.htm>>
- MENDIGUREN B., X. 1996. "Euskararen hizkuntz ereduaz eta kalitateaz zenbait gogoeta." In: *EUSKERA*, 41, 583-603. Bilbo
- MENEY, L. 2004. "La qualité de la langue et la norme" In: *Le Droit*. <<http://www.vigile.net/ds-actu/docs4/1-26.html#ldt1m>>
- SARASOLA, I. 1998. "Hizkuntzaren zuzentasuna eta egokitasuna herri aldizkarietan." In: *Herri komunikabideei buruzko III. Jardunaldiak*. Arrasate. <<http://susc00.su.ehu.es/euskonews/0020zbk/media2001eu.html>>
- TREMBLAY, L. 2001. "La qualité de la langue et les médias écrits". In *Terminogramme*, 97-98 zk. 13-20. Québec: Office de la langue française.





X-Flow:

Webgune eleanitz batean itzulpenak eta zuzenketak kudeatzeko *workflow* bat

LUISTXO FERNANDEZ, FERNANDO QUINTANA

Sarrera

DELI ikerketa taldearen eta CodeSyntax enpresaren artean egindako ikerketa + garapen proiektu baten emaitza da X-Flow.

DELI Deustuko Unibertsitateko ingeniari, hizkuntzalari eta informatikarien taldea da. Bilbon daude, ESIDE fakultatean, eta hizkuntzen teknologian lan egiten dute aspalditik. Taldeko idazkaria, Joseba Abaitua, bereziki, itzulpengintzako teknologietan lan asko egindakoa da.

CodeSyntax, berriz, 2000. urtean sortutako enpresa da. Eibarren dago kokatua, eta hiru ekintzailearen artean sortutako sozietate pribatua da. Interneterako softwarea egiten dago berezitua, sarerako aplikazioak, webguneak, komunikazio proiektuak, eduki kudeaketa, aholkularitza... Internetekin zerikusia duten hainbat alorretan egiten du lan.

Itzulpengintzarako teknologia

Hizkuntzarentzako teknologiak ere lantzen ditu CodeSyntax-ek: lokalizazioa eta internazionalizazioa, eta itzulpengintzarako laguntza tresnak.

Azken alor honetan, zenbait proiektu burutu ditugu: dokumentazio elebiduna kudeatzeko sistemak ezarri ditugu, besteak beste Deustuko Unibertsitatean (TEI formatu berezira egokitua, *Sare-Bi* izeneko tresna), eta Bizkaiko Foru Aldundian (Doc eta PDF formatuko dokumentuekin, IEB deritzo tresna honi). Bestalde, *Tumatxa* izeneko tresna garatu dugu.

Tumatxa, itzulpen memorien web bidezko kudeaketarako egokitutako tresna da. *Tumatxak* itzultzailearen lana erraztea du helburu. Gaur egun, piskanaka-piskanaka, itzulpen-memoriak eta memoria horiek sortzeko eta kudeatzeko programak hedatzen ari dira bai profesionalen artean eta baita erakundeetan ere. Baina memoria horiek lan talde zabal baten kide guztien eskura jartzeko aukerak mugatuak eta urriak dira. Hain zuzen ere, oztopo horiek gainditzeko

balio du *Tumatxak*, izan ere, talde-lanean memoriak, terminologia eta itzulpenak elkartrukatzeko modu oso eraginkorra eskaintzen baitu. Gainera, lan-taldean elkarlanean jardun behar duten itzultzaileei, programa espezifikorik izan gabe ere, itzulpen-memoriak kontsultatzeko modua ematen die eta baita terminologiari dagozkion bilaketak, behar ahala, online egiteko aukera ere.

Besteak beste, ondorengo aukerak eskaintzen ditu *Tumatxak*:

Itzulpen zerbitzuak bere bezeroekin

Itzulpen enpresa batek bezero bakoitzari egin dizkion itzulpenen memoria esku-eskura edukitzeko aukera eskain diezaioke *Tumatxaren* bidez. Honela, bezeroak itzulpen enpresarekin kontratatu eta ordaindu dituen itzulpen guztiak toki jakin batean gordeta izango ditu nahi duenean deskargatzeko edo bat-bateko kontsultak egiteko, www.translationcompany.com/private/customer1 bezalako helbide batean.

Itzulpen enpresa bat lana banatzen

Itzulpen enpresak eginkizun jakin batzuetarako kanpoko itzultzaileengana jo dezake. Denek oinarri berberaren gainean lan egin dezaten, terminologia berarekin, esate baterako, memoria bilduma pribatua ezarriko da, hala nola www.translationcompany.com/private/project2004_0012 eta bertatik jasoko dute materiala azpikontratatuak. Bakoitzak bere parte osatu ahala, bilduma hazi egingo da halaber. Kasu honetan, eta baita aurrekoan ere, sistema geure beharretara egokitu daiteke erabat, esate baterako, itzultzaileei memoriak deskargatzen ez uzteko, eta bai, ordea, kontsultak egin ahal izateko.

Itzulpen memoriaren banku publikoa

Herri-erakundeek, bereziki Euskal Herrian, memoria ugari sortzen dute dokumentazio ofiziala itzultzean. Itzultitako dokumentuak publikoak baldin badira, haien itzulpenak eta memoriak ere hala izan daitezke, izan ere, herritarrek zergen bidez ordaindu baitituzte. Banku edo bilduma publiko batek, gainera, beste erakunde batzuei ere laguntza handia eman diezaieke itzulpen-lanak errazago egiteko edo terminologia bateratzeko.

Software libreko proiektuak

Software libreko komunitateetan, itzulpen ekimenetan *Gettext* metodologia jarraitzen bada, sortutako *.po* fitxategiak bilduma batean elkar daitezke. Denak batera pilatu, eta fitxategi batean jaitsiz gero, *KBabel*-ekin lan egiteko memoria txukuna izango du eskura komunitateak. Era berean, bilduma online kontsulta daitekeen glosario erabilgarri bat bihurtzen da.

Memoriak intranet batean

Erakunde handi batean, itzultzaile zenbait aritu daiteke lanean, bulego desberdinetan. Kasu horietan, ez da erraza, lizentziengatik eta arazo teknikoengatik, itzulpen-memoriako programak sarean lan egiteko konfiguratzea. Baina *Tumatxa* intranetean instalatuz gero, itzultzaileek elkar-trukerako tresna egokia izango dute.

Itzulpen departamentuei egindako galderak

Erakunde elebidun edo eleaniztunetan, itzulpen arduradunek jasotzen dituzten eskabide gehientsuenak ez dira dokumentu zehatzak itzultzeko izaten, zalantza edo galdera jakin bat argitzeko baizik. *Tumatxa* instalatuz gero, bulegoan lan egiten duten langile guztiek itzulpen departamentuak egindako itzulpenak esku-eskura izango dituzte intranetean, eta bulegoko langile bakoitzak bere pantailatik zuzen-zuzenean sortzen zaizkion zalantza askoren erantzunak aurkituko ditu bere kasa. Lan antolaketa honek itzulpen sailari beste lan batzuetarako denbora gehiago emango dio.

Webgune bat dugu irekia, *Tumatxa.com*, eta bi demo ditugu han ikusgai.

Eleaniztasuna eta itzulpena webgintzan

Itzulpen munduarekin izandako harreman horrez gain, webgintzan ere lan egin dugu dexte. Eta webgune eleanitzak egiten, bereziki. Langintza horretatik ere, itzulpen beharren beste ikuspegi bat ezagutu dugu.

Webgintzan, Interneteko aplikazioen diseinuan, lan egiteko modu zehatz bat dugu markatua. Batetik Programazioa, Diseinua eta Edukia bereizturik daude gure produktuetan, behar duen bezala. Bestetik, erabilgarritasunari, estandarrak betetzeari garrantzia ematen diogu, eta uste dugu, esperientziak erakusten digun heinean, diseinu erakargarriarekin bateragarri dela. Tresna horiek, gainera, eduki kudeaketa errazterako prestatzen ditugu, bezeroaren esku egon dadin edukiaren kudeaketa hori.

Hori guztia, ingurune eleanitz batean, Euskal Herrian lan eginez, hemengo eragileen webgintza proiektuentzat, hauek ere eleanitz direlarik gehien-gehienetan.

Eleaniztasuna webgintzan, injinerutza konplexua da. CodeSyntax-ek software librearen munduko aportazio interesgarri batzuk darabilzki erronka horri aurre egiteko: *Zope* web aplikazioen zerbitzaria, eta haren barruan garatu den *Localizer* produktua. Horrez gain, software libreko munduko internazionalizazio metodologia estandarra darabilgu: GNU *Gettext* delakoa.

Oinarri horien gainean, egin daiteke webgune eleanitzek, tresna egokiekin hornitu aplikazioa. Adibidez:

Interfazeko mezuen katalogo bateratuak. Glosario automatizatu moduko batzuk dira horiek, aldagaiekin jokatzeko gauza direnak. Alegia, glosario batean, esaldi edo berba bakanak izaten dira, baina produktu informatiko batekin aldagaiak agertzen dira, eta horrek sintaxia

bihurritzera behartzen zaitu. Esate baterako, *Se han hallado %i resultados en la carpeta %A...* Aldagaiak eta berbak ordenez eta kokapenez aldatzeko modua egon behar du hori beste hizkuntza batean jartzeko, esate baterako euskaratzeko.

Logikaren kudeaketa ere kontuan hartu behar da, eta horretarako ere hornituak daude tresna hauek. Data formatuen egokitzapena da adibide bat, zifratan ematekotan guztiz alderantzizkoa baita estandarra gaztelaniaz eta euskaraz, dakigun bezala. Logika bereziaren beste adibide bat, bilaketetarako algoritmo desberdinen erabilpena da: euskarazko bilaketa batean, terminoa deklinabidea igarriko dion algoritmo batetik igarotzen da, baina ez gaztelerazko bilaketa batean. Hizkuntzaren logika, beraz, kasu batzuetan agerikoa zaio erabiltzaileari (data formatuak ikusi eta irakurri egingo ditu), eta beste batzuetan ez: bilaketa operazioan, lehiatila berbak idatzi, berdin egingo du gazteleraz eta euskaraz, baina erabiltzalek ez dakiela, azpian logika desberdina aplikatzen da.

Kontuan hartzeko beste detaile bat, **hizkuntza lehenespen eta hautespenarena** da. Lehen orrian zein hizkuntzarekin egingo du topo bisitariak? Orri jakin batean dabilela, aldatzeko aukera izango du eta eduki horixe bera aurkituko du beste hizkuntzan? Modu desberdinetan komeni daiteke detaile hauek doitzea, bezeroaren beharren arabera.

Horrekin guztiarekin, egin daitezke webgune eleanitz txukunak. Adibidez, e-administrazioarentzako gidaliburuek agintzen dituztenak bezalakoak. Jakina, beste nonbaiteko gidaliburuek, hemengo administrazioek ez baitute irizpiderik Interneteko komunikaziorako, are gutxiago komunikazio eleanitzarako.

Beste toki batzuetan azkarrago dabilta. Erresuma Batuko e-administrazioarentzako gidaliburua aipatzeko modukoa da.

Galesa, ingelesaren pare jartzen du. Eta Londresko administrazioaz ari gara, ez Galesko Asanbleaz. Gidaliburuan eskatzen diren detaileen artean daude, haiek gune elebidunentzat giltzarritzat jotzen dituzten hiru puntu:

- Domeinu bikoitzak, cymru.gov.uk / wales.gov.uk biak dira Galesko Asanblearen loturak.
- Eduki bera, batean eta bestean.
- Hizkuntza aldaketa, orri bakoitzean.

Eduki eleanitzaren kudeaketa (itzulpena, zuzenketa)

Hori egiteko koxka aurreko guztia da, eta bereziki: **eduki eleanitzaren kudeaketa**. Eta esparru horretan, garapen propioa darabil CodeSyntax-ek, *DonEdukia* izenekoak.

Donostiako Edukia da *DonEdukia*, objektu *karpetati* bat (*folderish*, Jose Luis Agotek itzuli bezala), eta Donostiako bezero batentzat sortu genuen arren, hainbat proiektutan eduki eleanitzeko webgunea kudeatzeko oso baliagarria suertatu da. EIZIE elkartearen eizie.org gunea ere, lau hizkuntzatan, *DonEdukietan* oinarritzen da hein handi batean.

DonEdukiaren ezaugarri nagusia da edukia paraleloan dagoela. 1. irudiak erakusten duen bezala, webguneko atal jakin batek duen izenburua lau hizkuntzatan toki berean editatzen ahal da. Irudi horretatik klik bat harantzago, edukia agertuko zen, hura ere lau alor editagarritan.

Ondoren, adibidez, web mapa ikusten ari garelarik, hartan hizkuntza aldatzen badugu, batean agertuko zaigu euskarazko alorrean dagoen titulua, 'EIZIE elkartea' eta bestean 'L'Association' frantsesez ikuskatzen badugu.

DonEdukia at /VHosts/EizieOrg/Elkartea

To add a new property enter its name, select its


Name	Type
<input type="text"/>	string <input type="button" value="Add"/>
Basque [eu]	EIZIE Elkartea
Spanish [es]	Asociación EIZIE
English [en]	The Association
French [fr]	L'Association

1. irudia

Eredu honek ez du itzulpen edo zuzenketa prozesuaren gaineko kontrolrik. EIZIEk izena aldatuko balu eta *Fundazio* bihurtuko balitz, webguneko atal horren editoreak *Fundazioa* jarriko luke euskarazko alorrean, baina frantsesez eta ingelesez zer egin? Hizkuntza horiek ezagutzen baditu (eta EIZIEn ez da falta jenderik, jakina) *Foundation* jarri ahal izango du, edo, ezin badu ordain zuzenik eman unean-unean, kontzientziako kargua geratuko zaio, itzultzailearen batengana jo eta ordaina aurkitu behar duela.

Prozesu hori, ordea, automatizatu nahi dugu. Editoreak dokumentuaren hizkuntza orijinalan aldatuta edo berrikuntza sartzen duenean (*EIZIE elkartea* → *EIZIE fundazioa* bihurtu, adibidez), abisua jaso dezala itzultzaile batek, frantsesezko ordaina eman behar duela esanez. Itzultzaileak, web bidez emango du ordain hori. Ondoren, beste abisu bat, zuzentzaile batek gainbegiratua edo zuzenketa egiteko. Ondoren, agian, beste abisu bat webmasterrari lana egina dagoela esanez, eta beste gainbegiratu batekin eduki berrikuntza sarean publiko egiteko... Prozesu hori, lanen katea, *workflow* bat da.

Honek hari enkargua, hark egin, eta beste batek ikusi, eta listo. Erraza dirudi, baina workflow honen atzean dagoen lan fluxua oso konplexua da. Ikus, adibide gisa, 2. irudian, lan hau egiteko burututako eskematariko baten zati bat.



2. irudia

Webguneko objektuek (alor eleanitzak dituzten dokumentuak) status edo egoera desberdin ugaritan egon daitezke, itzultzaile edo zuzentzaile edo editore bakoitzak eginkizun desberdinak izan ditzake (gerorako utzi, orain aldatu, abisua pasa), eta egoera eta eginkizun bakoitzaren ondorioz fluxuak hartzen duen bidea ere (abisua honi, hari, besteari, eta abisuarekin batera material hau edo bestea pasatu itzulpenarako...) konplikatu egiten da.

Itzulpenaren lan-fluxu edo workflow-a: X-Flow


Fluxu konplexu horri erantzuteko, beraz, *DonEdukia* objektuaren belaunaldi berria edo bertsio hobetua diseinatu dugu, eta *BilEdukia*, Bilboko Edukia, jarri diogu izena, hobekuntza nabarmen adierazgarri argia delakoan. Izatez, dena den, *BilEdukia* X-Flow proiektuaren barruan dagoen aplikazio edo dokumentu era jakin bat da. Proiektu osoari X-Flow deritzo.

BilEdukian, beraz, alor eleanitzak daude objektu-dokumentu bakoitzean, baina haietako edukia itzultzeko (edo zuzentzeko, edo ikuskatze editorialerako), funtzionalitate gehigarriak daude abisuak bidaltzeko (3. irudia).



3. irudia.

Era berean, itzulzaile jakin batek, abisu automatizatu bat jasotzen du, era edizio pantaila berezitu batzuetarako sarbidea lortzen du, non testu orijinala ezin duen ikutu, baina bai, ordea, berari editatzea-itzulzea dagokion atala (4. edukia). Horiez gain, bertsioen kontrolerako aukerak ere badaude.



4. irudia

Aukera horiek workflow batean integratuta daude, eta horrez gain, benetako *workflow* baten ezaugarri oinarrikoena betetzen du: nagusiak nahi duenean, tranpa egin, eta urrats guztien gainetik igaro.

Laburbilduz X-Flow izendatu dugun *workflow* eredu honek honako urrats tekniko-editorial nagusiak kontuan hartzen ditu:

1. Eduki orijinala gehitzen da / eraldatzen da BilEdukian eta editoreak aginduak programatzen ditu. Hau itzultzera, zuzentzera, editoreak berrikustera...
2. Eginkizun zerrenda batean, zuzentzaile-itzultzaileek egitekoak ikusten dituzte: klikatu eta egin.
3. Bertsioen kontrolerako interfazea
4. Kontrol editoriala, aldi berean

Tresnaren ezaugarri nagusia, bestalde, web bidez lan egiteko prest dagoela da, Intranet zein web zabaleko inguruenean. Eredu hori, webguneen egiturari eta web orrien testu aldakorriari dago egokitua batik bat. Adibide batekin ilustratzeagatik: Erlezaintza Sailaren eginkizunen dekretua, behin argitaratzen da; baina Erlezaintza Sailaren webguneko aurkezpena, "hau eta hau egiten dugu", hilabetero aldatzen da. Itzulpen lan jarraia eskatzen du webgintzak, eta bertsioen kontrol zorrotza, dokumentuak ez direlako hiltzen argitaratzen direnean, berregokitzapenetara irekitzen baitira une horretatik. Dokumentu orijinalen sorkuntza ez da sekula amaitzen, eta haien zuzenketa eta itzulpena ere etengabea (izango) da.

Ezaugarri horrek, itzulpenak egiteko modua ere aldatuko du, administrazioa e-administrazio bihurtzen den heinean. Beharbada gaur egun itzulpen zerbitzu ofizialetan itzulpenak egiteko lan mekanika partikularri baina, etorkizuneko mekanikari hobeto lotzen zaio *workflow* honen eredu.

Nolanahi ere, web-tresna izan arren, uste dugu X-Flowk balio duela ez bakarrik web-testuak editatzeko, baizik eta izaera aldakorra duten testuen itzulpenetarako ere balio dezake: web tresna bat erabiliz, beste jomuga bat duten testuak itzultzeko tresna gisa, azken oinarri fisikoa papera izan daitekeelarik ere.

Gainera, X-Flow eta BilEdukiak ez dira prozesu elebidun eta norabide bakarreoetara mugatzen. Garapen zehatz bat ezarririk, ez da zertan beti es > eu erako itzulpenetarako izango. Hizkuntza gehiago ere sartzen ahal dira, bi sartzen diren erraztasun berarekin, eta itzulpen, zuzenketa eta gainerako aginduak, hizkuntza horien artean nahi diren sorburu-xede pareak eginez bidera daitezke.

Nolanahi ere, ikerketa eta garapen proiektu bat da, eta produktu osoa izan arte falta zaizkio gauzak. Esate baterako:


- Baimenen araberrako ikuskatzeak / agindu bideratzeak. eu > en lantzen duen X itzultzaileak, bere zereginen berri daki, eta kitto.
- Abisu automatikoak e-postaz



- Bertsio pare onartuen gainean, alineazio automatikoa, eta memoria sorkuntza (aginduekin batera bidaltzeko modukoa)
- Berba kontaketa, aurrekontu kalkuluak
- Oro har, pantaila anitzen ugaritasun eta konplexutasuna sinpletu behar da, erabilgarriagoa izan dadin tresna.

Baina iritsi den puntura iritsira ere, I+G proiektu gisa argitaratua dago X-Flow. Libreki erabil daiteke. Software librea da, horrek dituen abantailekin. Nolanahi ere, falta zaizkionak eta test sakonagoak egiteko, prest gaude Deustuko Unibertsitatea eta CodeSyntax garapen esperimentalekin saiatzeko han edo hemen, itzulpenen lan-fluxua antolatu nahi duen euskal erakunderen batekin.

Erreferentziak:

- www.deli.deusto.es
- www.codesyntax.com
- www.codesyntax.com/services/productos/xflow
- www.deli.deusto.es/AboutUs/Projects/X-Flow/





Zuzenketa automatizatzea

KARLOS DEL OLMO

LEAD IN

Birmingham Sunday Mercury deritzon kazetan 2001.eko urtarrilaren 7an agertutako albiste baten arabera, argitaletxe bateko langileak eta arduradunak lankide pausatu baten ondoan egon ziren 5 egunean bestea hilda zegoela konturatu barik. Inor ez ei zitzaion urreratu. George Turklebaum jauna, 51 urtekoa, zuzentzaile egon zen argitaletxean 30 urtean. Bihotzekoak jota hil bide zen, beste 23 langilerekin batera zerabilen bulego ataldu gabe batean. Astelehenean hil zen, baina inor ez zen ohartu larunbat goiza arte, garbitzaile bat asteburuan ere halako goiz lan egin behar ote zuen galdetzera joan zitzaion arte. Ugazabak esan omen zuenez, George lehenengoa izaten zen lantokira joaten eta azkena etxeratzen. Langile eredugarria, omen. Isila eta porrokatua. Inorekin sesioan ez ziharduena. Inortxo ere ez zen, beraz, harritu, beti jarrera berean ikusita, ez ei zuelako ea inorekin berba egiten. Lanari guztiz emanda bizi omen zen, ia bestelako harremanik gabe. Medikuntzako testu bat zuzentzen ziharduen herio bila etorri zitzaionean.

Agian, kondaira urbano horietako baten aurrean gaude. Hala bada, betor ongi sarrera moduan. Halakorik ez bada, balia bekigu zuzentzailearen bakarkako lan eskergabe eta ikusezinaren adibide.

Testuak, edozein euskarritakoak (papera, digitala, ikus-entzunezkoak...) direla, kalitate eta batasun baldintza zein irizpide jakinen arabera onargarri uztea bide du helburutzat zuzenketa lanak. Euskarak egun heldu duen mailari begira, ezin ukatuzkoa da zuzenketak orain urte batzuk irudikatzen ezinak ziren esparruak dituela langai.

Zuzenketaz baino, zuzenketa motez edo mailaz berba egitea zuzenagoa izan daiteke, izan ere. Lehenengo maila bat, oinarrikoena, konparazioko zuzenketa litzateke, hau da, dokumentu beraren bi bertsioak bat ote datozen aztertzea. Alegia, egileak idatzitakoa eta inprimategirako prest dagoena bat datozen aztertzea. Gero eta gutxiagotan egiten da, batez ere euskarri elektronikokoak gorabidean doazelako.

Bigarren korrekzio mota batek aztertu beharko du ea idazleak bidalitako euskarri elektronikoa maketaziorako euskarrira pasatzerakoan aldaketarik izan ote den. Euskarri elektronikoei

dagokionez, ondo gogoan izan behar da erabilera orokorreko testu prozesadoreak eta maketazio programa profesionalak ez datozela bat eta, ondorioz, egileak beste inork ez duela jakingo nolako itxura gura duen testu maketaturako.

Hirugarren motaz den bezainbatean, zuzenketa klase horixe izaten dugu denon buruan zuzentzea gogora etorri orduko. Aurrera urretik, halere, argitu beharra dago ezen zuzentzea ez dela editatzea. Editoreak ere zuzentzen du, baina halako erakunde edo argitaletxe baten beharretara egokitzeko edo egilearen “gramatika txarra” edo inkonsistentziak onbidera ekartzeko.

Zuzentzaileak, ordea, lantegi izango ditu kalitate teknikoak, puntuazio oker eta iluna, gramatika ez-estandarra, erakundearen edo enpresaren estilo liburuarekin bat ez datozenak, desbideratzeak, desadostasunak (metafora nahastuak, idiotismo desagokiak...), aritmetika okerrak, huts faktualak (argiaren abiadura beti da bera, berdin dio egileak zer idatzi duen). Jakina, prestakuntza beharko du jakintza alor berezi batzuek eta hainbat eduki teknikoak eta, adituen arabera, baita “begi tipografikoa” eduki ere, hau da, tipografi huts eta gorabeheraz berehalakoan oharretzeko trebezia.

Informatika garatu ahala, beharizan berriak sortuz doaz (bestelako euskarriak, dokumentu mota bereziak...), baina, horrezaz batera, baliabide eta tresna lagungarriak ere ugartuz doaz. Testu beraren hainbat aldaki edo bertsio izan daitezke: paperezkoa, datu basea, digitala, web gunekoa, ikus-entzunezkoa... Bestalde, eraginkortasunak lagun eroan behar du arintasuna, zuzenketek denbora behar dutelako eta, jakina, denbora dirua da. Asko zuzendu behar izanez gero, lan ildo ohikoa oztopaturik geratuko da. Kontua litzateke, beraz, zuzentzaileari, erredaktoreari edo dena delako profesionalari lehendik adostutako irizpide batzuk beteko dituen testua helaraztea. Jakina, hizkuntza langai dela beti izango da eremu lauso eta erabaki beharreko halako bat, anbiguotasuna eta estandarizaziorik eza tartean direla. Euskarari dagokionez, ezin ahaztuzkoa da, bestalde, euskalki erabilera arautu bagako batzuek oztoporen bat edo beste ezar dezaketela.

Erakunde eta enpresa batzuk, eguneroko lana sinpletu eta merkatu ez ezik, gizartean edo merkatuan hizkuntzazko irudi koherentea aurkeztu beharrean egoten dira. Testuak argitaratzea, are errazena ere, jardunbide luze eta neketsua izan daiteke, baina egileek original argi eta forma aldetik zuzenak aurkeztuz gero, kostua eta epeak murriztea ez ezik, kalitatea hobetzea ere lortuko da, azken buruan, herritarra, hartzailea edo bezeroa onuradun gertatuko dela. Komunikazioa errazagoa izango da.

Zuzentzaileak azken kate begi noraezekoa izan behar luke testua jende aurrean agertu ordurako. Osagai linguistikoa (hizkuntza bakoitzaren ezaugarriak eta konbentzioak) eta teknikoak aztertu behar ditu. Erroreak, zehaztasunik ezak edo inkoherentziak topatu. Orraztaile ez diren neurrian, ordea, autorearen asmoari fideltasuna zor diote. Horra hor oreka topatu beharra: non hasten da akatsa eta non amaitzen egilearen estilo “urratzaile, bortxatzaile”?

Zuzenketa lana automatizatzeari begira, zein zeregin aurreztu diezaiokie itzultzaileak edo egileak zuzentzaileari? Edo, bestela, zuzenketaren zein alor landu litzake modu automatizatuan ordenadoreak? Automatiza ote daitezke testu koherentziaren azterketa, erabilera gramatikalen zuzentasuna, tipografi arazoak? Alderdi horietako zein arindu dakizkioke zuzentzaileari?

Eta kezkatxo bat ere hedatu ohi da automatizazioaz aritzen hasi orduko, geratuko ote da gizakia, zuzentzailea edo itzultzailea batere lanik gabe? Azken teknologi joerek aurkakoa erakusten dute. Itxuraz, itzulpen memoriei esker itzultzaileek gero eta gehiagotan jo beharko dute zuzentzaile edo orraztaile izatera. Eta zuzentzaileen ardura izango da makinek berez ebazterik ez dituzten guztiak argitzea: idazleei edo itzultzaileei itauntzea, zalantzak eta ustezko hutsak dokumentatzea...

Automatizazioaren aldetik, hainbat aldi eta mota bereiz genitzake, esan legez. Homogeneotasuna, orri zenbaketa, osagai formalen hutsak (ohar deiak eta orripekoak bat etortzea eta abar) aurretiko zuzenketa aldi baten osagai lirerateke, makina batek erraz antzean aurrera eroan lezakeen kontrola.

Zuzenketaren alor pragmatiko bat ez da begi bistatik galdu behar: fotokonposizio fasean dagoen lan batean aldaketarik txikiak ere gastu erreskada ikaragarria ekar dezakeela.

Orokorrean, dokumentu batek bi osagai izango ditu: edukia (egitura logiko bati lotua) eta aurkezpen itxura. Aurkezpenari dagozkionak etengabe bilakatuz doaz eta, alde edo moldez, errazen automatiza daitezkeenak genituzke.

Egungo baliabide informatikoen testuak formateatzeko aukera ugariak dakartzate, baina programen arteko konbertsioek kode edo elementu grafiko arrotzen sorrera eragiten dute. Pentsatzekoa da sarritan hobe dela errebisatu beharreko edo zuzenkizun den dokumentuan ahalik eta aurkezpen elementu formal gutxien jartzea, halako oker elektronikorik sor ez dadin. Baina nola ukatu idazleari edo itzultzaileari begi aurrean dokumentu ondo aurkeztua izateko aukera? Itzulpenei dagokienez, gainera, sarri ere sarri, azken formatuak erabat baldintza dezake testu itzulpenaren edukia bera. Konbertsioek eragin ditzaketen arazoak SGML edo antzeko marka sistema estandarren bat erabilita saihestu daitezke, testuaren agitura definitzeko etiketa edo mugariak ondo definituaz. Bestalde, gaur egun itzultzaileok tresna ezinago egokiak izaten dituzte itzulpen memoriak kudeatzeko programak, formatu ezaugarriak gorde izaten dituztelako, salbuespenak salbuespen (zenbat eta dokumentu osagai estandarizatu gabe edo grafiko gehiago, orduan eta okerbiderako bide handiagoa).

Informatikaren aurreramenak aurreramenak, gaur arte testua orrazteko edo estiloa zuzentzeko lagungarri informatikoak ez dira lar jorratu. Eta ez halabezar hutsez. Azalpena ekonomian bilatuz gero, pentsa liteke merkatuan zuzenketaren eta estiloaren kontuak ez duela behar besteko dirutzarik gora eta behera erabiltzen, bezeroen eskabide maila ez dela handia. Baina, izatez, ez da hala jazotzen. Zuzenketak gero eta diru ederragoak darabiltza. Azalpenak, beraz, beste adarren bat ere izan dezake: estiloa zuzentzeko tresnek hizkuntzaren alderdirik sakonenekin eta labanekin lehiatu beharra. Eta, jakina, oso kontu gizatiar bat: aukera, gustu edo apeta huts direnen artean hautu egin beharrean egotea, estiloa, berez, horixe baino ez delako, idazleari nortasun halako bat ematen dioten ezaugarrien sorta. Jokoan, hizkuntzaren alderdi antzemanezinenak, batzuk semantikaren alorrekoak.

Zuzenketak, zertan ukatu ez, zuzeneko harremanetan dago kalitate kontrolarekin. Kalitatearen Osoko Gestioa eta ISO egiaztagiriak tartean dira. Eta erakunde edo enpresa bakoitzaren usadio eta aukerabideak. Enpresa eta erakundeetan bezeroa gustura uzteko ikuspegia

gero eta zabalago dabil, bezeroa enpresa edo erakundea bera denean ere. Jakina, hizkuntz kalitatearen definizioa oso bestelakoa gerta daiteke ikuspegiaren arabera. Terminologiaren sendotasuna garrantziko-garrantzikoa izan daiteke idazki edo euskarri motza jakin batean, baina besteren batean, agian, hartzaileak eguneroko hizkeratik hurbilago dagoen eredia gurago luke. Antza denez, barren, ezinezkoa ei da kalitatearen alderdi bat nabarmentzea edo indartzea gainerako alorrak ahuldu barik. Ezin hari batetik tira egin ehundura osoa sare-sare eginda uzteke. Beste auzi-mauzi bat sortzen da berehala, ezin ukatuzkoa da, kalitate sistemak ezartzen, estandarizatzen eta automatizatzen ekinez gero, hasieran, diru eta denbora inbertsio handiak behar izaten direla, zenbateraino eta hainbat enpresak edo erakundek zeregin horietan hastea testu kalitate txikiagokoak plazaratzea garestiagotzat jotzeraino. Bestaldetik, hizkuntzari dagokionez, batzuen iritziz produktu akasgabea (0 akats) beste baten aburuz ez da hain onargarri gertatuko. Zuzenketa automatikoak, beraz, besteak beste, bi erakar gune edukiko ditu, bateko, adostasun handiko irizpideak kontuan hartzea eta, beste, erabiltzailearen arabera moldatu ahal izatea. Horrela baino ez da lortuko kalitate berme eramangarria.

Kalitatearen aldetik, ezin ahaztuzkoa da, buruan, azken produktu akastuna zuzendu baino, beti izango dela onuragarriagoa idatzi edo itzuli ahala testuari, hizkuntza produktuari alderdi akastunik ez eranstea, hau da, egiterakoan lagunduko duen sistema.

Norberaren beharrianetara egokituriko tresnak ezinbesteko osagai izango ditu elikatze lan eta denborak. Eta jakina, sarritan, idazlea edo itzultzailea, nagusiak edo bezeroak behartuta, ez da oso astitsu ibiltzen halako prestalanetarako.

Dakusagun beraz, zelako oztopoak izan ditzakeen zuzenketa automatikoak eta zein zuzenketa automatiza dezakegun egun merkatuan eskuarki topatu daitezkeen tresnak erabilirik.

Edukiak

Lehenik eta behin, dena delako aplikazio horrek ebatzi behar luke hartzailearen araberako iragazkiak jarri ahal izatea. Hau da, euskarari dagokionez, esaterako, Euskaltzaindiaren arauak jaso ez jaso erabakitzeke eskua. Onena, jakina, ordenadorearen ahalmena eta programaren eraginkortasuna astuntzen ez bada, arau denak sartzea litzateke, erabiltzaileari aukera hura noiz-nahi alagalan indargabeteke bidea emanda, baldin eta harako erabiltzaile hark arauok ezin hobeto dakizkielakoan egonda, makinak halako zereginetan denbora galtzen ibiltzerik nahi ez badu.

Bigarren maila batean, Euskaltzaindiak gomendio edo forma hobetsien moduan emanda-koak zein formatutan sartu erabaki beharrekoa litzateke. Jakina, programari adierazi behar litzaioke ea halakoak gomendio ala beharkizun diren erakunde edo enpresa horretan. Irizpideak finkatu beharko dira, ezbairik gabe, halakoak zelak gehitu erabakitzerakoan.

Beste eduki maila bat genuke autoritateen lan, artikulua eta liburuetatik, edo entziklopedia, monografia eta abarretik ateratako estilo irizpideak. Jakina, lehenengo hautua litzateke hala-koak gehitu beharrik dagoen ez dagoen ebaztea. Gero, hartarako irizpideak eta bakoitzaren

gomendio maila edo indar maila definitzea, hau da, makinak lagungarri ala beharkizun eskainiko dituen.

Hurrengo osagai multzo bat erakundearen edo enpresaren beraren estilo liburutik letorke. Gero eta sarriago dihardute erakundeek barne erabilerako estilo liburuak definitzen. Zertan esanik ez, estilo liburu hori automatizatzeak era izugarrian laburtuko luke lan jardun osoa.

Horri loturik, sail berean, beste erakundeen estilo liburu edo gomendioak letozke, zein bere autoritate kode edo maila erantsirik. Jakina, hobe zuzentzaileari, itzultzaileari edo idazleari eduki indarrean jarri edo kentzeko aukera eskaintzea.

Azken sail moduan, sistema automatikoari bestelako zuzentzaileak (ortografikoak, adibidez) erabiltzeko bidea ere erantsi behar litzaioke, baina, beti ere, aukera moduan.

Zuzenketa automatizatuaren mailak

Automatizazioak, berez, hainbat maila izan ditzake. Jakina, zuzenketa edo orrazketa automatikoak zelako eduki motak hartu gura dituen barne, aurreko atalean aipatu legez, segituan azalduko diren erarik errazena erabiltzeko ez du ganora handirik izango.

Oinarrizko mailan idazteko erabiltzen diren tresnarik ohikoenek eskaintzen dituzten baliabideak izango genituzke: autozuzenketa zerrendak, makro sailak, datu base edo kalkulu moduko zerrendak eta abar. Beharrianik errazena gestionatzeko bide merkea eskaintzen dute, erabiltzaile edo enpresa gehienek edukitzen dituzten programen baliabide guztiak ustiatzen datzalako. Sarritan ofimatika aplikazioak erabiltzaile arruntaren ikuspegitik baino ez dira erakusten, lanbide bakoitzaren beharrianak ahaztuta. Berez, testu tratamenduak, datu baseak eta kalkulu orriak ez daude zuzentzailearentzat edo itzultzailearentzat pentsatuta, baina berez dakartzaten aukeretako eta tresna batzuek zuzenketa automatizatzeko bidean jarriko dituzte halako profesionalak. Testu prozesadoreak berak autozuzenketa zerrendak eratzeko aukera eskaintzen du, alegia, hiztegi mailako zuzenketak egiteko bide erraza. Erabiltzaileak nahi dituen aukerak erantsi eta ordenadoreak berak aldatuko ditu, bestelako bagarik, tekletan sekuentzia galarazia idazten denean.

Horrekin batera, testu prozesadoreek erabiltzailearen hiztegiak sortzeko aukera eskaintzen dute. Hau da, berez dakartenaz gain, nork berea definitzeko bidea. Horrek, berez testu, erakunde, bezero eta enparauen araberako hiztegiak sortzea bideratuko du. Programari erabiltzailearen hiztegiak ere testu zuzenketarako erabiltzeko aginduz gero, testu prozesadoreak, datu baseak edo kalkulu orriak abiaraziko ditu. Hala, oinarrizko zuzenketa mailaz gain, beste bat ere antola liteke, zuzentzailearen beharren arabera. Testu prozesadoreek, berez, estilo zuzentzaile xume batzuk dakartzate, baina euskararako oraindik ez dago guztiz osaturik, nahiz eta gramatika aztertuko duen Xuxenen bertsioa aurreratu samar dagoen.

Antzeko bide bat dugu makroena. Makroak agindu kate automatizatuak dira. Haien bitartez deiak egin dakizkieke beste fitxategi batzuei (adibidez, zuzenketa zerrendei) edo idatzi ahala, hiztegian ez diren kateak aldatzeko. Jakina, erabiltzailearen aldetik halako prestakuntza

berezi bat eskatzen du bide mota horrek, edo, informatikan jantziago dagoen baten laguntza. Baina erabiltzen errazak izaten dira.

Haiei loturik daude datu baseak eta kalkulu orriak, eta halakoek zuzenkizunen zerrenda luzeagoak, ia mugagabeak jaso eta indexa ditzakete. Zertan esanik ez, makroen bitartez, beste aplikazioen batetik egin diezaike dei erabiltzaileak.

Maila honetatik jota, hurrengo maila aplikazio espezifikoa da, hots, hiztegiak, glosategiak eta abar sortzeko software berezia. Haietako batzuk hutsik datoz, erabiltzailea berbak gehituz joateko. Beste batzuk, ordea, oinarritzko hiztegi batez horniturik datoz, eta erabiltzaileari bereak emendatzeko abagunea eskaintzen diote. Beste alorretan bezala, *freeware* direnetatik diru ederrak kostatzen direneta doa sorta. Betiko legez, erabiltzaileak aukeratu beharko du beharren, inbertsioen eta etekinen arteko oreka zelan eratu.

Espezializazioranzko kate honetan, hurrengo maila itzulpen automatikorako programena da, halakoek erabiltzailearen hiztegiak sortzeko aplikazioa ekartzen dutenez gero. Halakoetan datuak eransteko edo inportatzeko modu gidatu edo behartua dago, bestela programa itzultzaileak hiztegi berria itzulpen automatikorako erabiltzerik izango ez duelako. Elikatzea gatzago gerta daiteke, baina, ordainez, zerbitzu hobea eskaintzen diote bezeroari. Normalean itzultzaile "profesionalek" ez dute halako aplikazioetara jo ohi, emaitza barregarrien sortzaile izan ohi direlako. Baina ez dira guztiz erabat alde batera uztekoak, espezialitate alorretarako hiztegiak prestatuz gero, oso "aurreitzulpen" baliagarriak eman ditzaketelako. Bestalde, ondo kontuan izan behar da horrelako itzultzaile automatikoak itzulpen memoriako programekin batera erabil daitezkeela eta, ondorioz, prozesuak asko arindu.

Espezializazioan gorago joanda, zuzenketaren hurrengo mailan itzulpen memoriatarako aplikazioak genituzke. Programa horietako batek, Wordfast-ek, hain suertez, berezko osagai du kalitatea kudeatzeko modulu bat. Aurrerago jardungo dugu halakoen gainean. Itzulpen memoriak, berez, itzultzeko prestatuturiko tresnak dira, baina, eskaintzen dituzten baliabideak bestela antolatuta, zuzentzaileentzako lanabes bihur daitezke, hala, zuzentzailearen lana errazteko bidea eman ahal izateko. Geroago azalduko dugu jardunbidea zehatz-mehatz.

Azkeneko maila, zertan esanik ez, zuzenketarako diseinaturiko softwarea litzakete. Artikulu hau erredaktatzeko orduan, zuzentzaileentzat gurata prestatuturiko programa komertzialik ia ez dago merkatuan, artikulu honetan bertan haietako bat, hizkuntza bakarrerakoa, aurkeztuko dugun arren.

Motak

Zuzenketa sistema definitzeko, prestatzeko edo aukeratzeko orduan, hainbat mota bereizteko modua izango dugu dena delako programaren erabilera bera irizpide erabilita. Agi denez, erabilera horrek programaren beraren ezaugarriak eta baliabideak baldintzatu ditzake. Dakusagun:

- a) Itzultzailearentzako berarentzako laguntza sistema
 - a.1.- Itzuli ahalakoa
 - a.2.- Itzuli ostekoa


- b) Zuzentzailearentzako laguntza sistemak
 - b.1.- Itzultzaileari *on line* laguntzeko sistema
 - b.2.- Itzulpena orraztekoa
- c) Elikatze edo mantentze motaren arabera (produktu itxia, noizean behin elikatzekoa, itzuli edo zuzendu ahala elikatzekoa).
- d) Erabilera unearen araberrakoa (etengabekoa, lana amaitu ostekoa, nahierarakoa...).

Zuzenketarako baliabide linguistikoak

Dena delako zuzentzaile automatiko ideal eta eruduzkoak ondoko edukiak jaso behar litzuke:

- 1.- Lexiko basea: lemak, morfemak, forma lexikalizatuak...
- 2.- Agerpen maiztasunen hiztegia: oso osagai garrantzizkoa, batez ere zuzenketaren aldetik, zuzenketa batzuen oinarria erabilera, maiztasuna izaten delako.
- 3.- Hiztegi tematikoak, gaien araberrakoa.
- 4.- Hiztegi pertsonalizatuak, erabiltzailearenak berarenak.
- 5.- Ohiko hutsen eta zuzenketa proposamenen hiztegia.
- 6.- Berba zapuztuen hiztegia, bestela esanda, sistemak erabiltzaileak bestela adierazi ezean, berez onartuko ez dituen berbak
- 7.- Morfologi aztertzailea.
Segur aski, hurrengo atalarekin batera, zertzen gaitzena.
- 8.- Aztertzaile semantikoa, osagai semantikoen gaineko argibideak.

Zertan esanik ez, den-denak barne hartzen dituen aplikazioa goreneko maila izanda, aurreko lehenengo pasartean zerrendaturiko laguntza sistemetakoa batzuek zenbait aukera baino ez dituzte hartuko, baina begi bistan samar dago soilik beren beregi diseinaturiko aplikazio batek har litzakeela horien denak barne.



Txertatutako irudian gaztelaniarako zuzentzaile automatiko (<http://www.stylewriter-usa.com/elc001.html>) baten interfazea ikusten da, itxuraz, erabiltzaileak nahierara elika dezakeena. Adibide moduan baino ez da aurkezten, tresna beregain mota bat zertan den aurkeztearren.

Testu zuzentzailearen xedeak

Beste alderdi batetik hartuta, dena delako zuzentzaile automatiko horrek, luze labur, honako eginkizun hauek hartu beharko ditu bere gain.

- 1.- Zuzenketa ortografikoa
 - 1.1 Alternatibak sortzea
 - 1.2 Alternatibak ordenatzea
- 2.- Gramatika aztertzea
 - 2.1 Komunztadura
 - 2.2 Sekuentzi hutsak
 - 2.3 Huts lexikoak
- 3.- Estiloa zuzentzea
 - 3.1.- Hizkera estandarraren sendotasuna
 - a) Lexikoa: berba, lokuzio eta kolokazio arrotzak...
 - b) Egiturak: kanonikoak, arrotzak, ezezagunak...
 - 3.2.- Eduki konbentzioen sendotasuna
 - a) Laburtzapenak
 - b) Siglak
 - c) Akronimoak
 - d) Ikurrak
 - e) Izen bereziak
 - 3.3.- Puntuazio okerrak
 - 3.4.- Oker semantikoak (segur aski, zereginik gaitzena)

Zuzenkizunen sailkapena

Aurreko atalean jasotako zerrendari begiratua botaz gero, lanaren latza beharbada ez da behar bezain argi geratuko. Baina kasuistika ia infinitu hori astiro aztertzen hastea nahikoa da berehala ohartzeko aplikazioak barne hartu beharreko aldakien zabalaz edo mugagabetasunaz. Automatizazioari begira, batzuk besteak baino errazagoak gertatuko dira, eta bihoa hura kontsolamendu!

- 1.- Ortografi hutsak
 - 1.1.- Letra larria oker

Izen berezia

- a) Larriaren ordezt, xehea
- b) Xehearen ordezt, larria

Izen berezidun konposatuak

- a) Larriaren ordezt, xehea
- b) Xehearen ordezt, larria

Izen berezietatik eratorriak

- a) Larriaren ordezt, xehea
- b) Xehearen ordezt, larria

Pertsonen tituluak

- a) Larriaren ordezt, xehea
- b) Xehearen ordezt, larria

Atzerriko izendapenak

- a) Larriaren ordezt, xehea
- b) Xehearen ordezt, larria

1.2.- Berba txarto eratuak

- Bikote (hirukote) elkartu plurala > singularra
- Bikote (hirukote) elkartu singularra > plurala
- Elkartuan marra falta
- Elkartuan marra beharrik ez
- Elkartuko letra larriak oker
- Berba itsatsiak
 - Lexikalizatuak
 - Lexikalizatu eta lexikalizatu gabea elkarrekin
 - Lexikalizatuan letra larriak txarto
 - Lexikalizatuan marra txarto
 - Izen berezi elkartuak
 - Marradun konposatua eta letra larria
 - Konposatuan zifrak edo bestelako osagai bereziak
- Berba kateak (itsatsien kontrakoa)
 - Bi edo hiru berba elkartu banaka eman behar
 - Berbak banatu behar eta, gainera, hutsen bat
 - Berbetako batek zifrak edo bestelako ikurrak
 - Atzerriko erbak banatu beharra
 - Marra beharrik gabe
 - Marra komaren ordezt

- Koordinazio hutsak
 - Marra kendu beharra
 - Marra gehitu beharra
 - Hutsunea kendu behar
 - Hutsunea mugitu behar
- Laburtuak
 - Txarto laburtutako berbak
- Bestelako eraketa arazoak

1.3.- Lerro amaierako marra

1.4.- Bestelako hutsak

Atalaren hasieran adierazi legez, aurreko guztiak erraz samar kudeatzeko moduko atazak dira egungo informatika baliabideak kontuan. Segituan doan zerrendan kasuistika ez dago aurrekoa bezain zehazturik, baina zertan aditua izanik ez dago arin ere arin kontuan jausteko azpiatal bakoitzak hainbat adar eta adarren adar eta adarren adarren adar eta... beharko lituzkeela, programari corpus moduan erantsi beharrekoak. Zerrendan Euskaltzaindiaren Lehen Urratsak bildumaren aurkibideak baino ez dira jaso, barruko edukiak emateke. Erraz ondoriozta daiteke nolako tamaina hartuko lukeen programari erantsi beharreko corpusa. Baina egungo baliabide informatikoen arabera, horrek, berez, ez du larregizko estropezurik sortzen.

2.- Gramatika arazoak

2.1.- Izena

2.2.- Izenordainak

- Pertsona izenordainak
- Zehaztugabeak
- Bihurkariak eta elkarkariak

2.3.- Determinatzaileak

- Mugatzaileak
- Zenbatzaileak
- Nolakotzaileak

2.4.- Adjektiboa

- Izenondoak
- Izenlagunak
- Aposizioa

2.5.- Deklinabidea

- Kasuak
- Posposizioak
- “-tzai” atzizkia

- 2.6.- Adberbioa
 - Aditzondoak
 - Aditz lagunak
- 2.7.- Interjekzioak
- 2.8.- Aditza
 - Jokatua
 - Ez jokatua
 - Alokutiboa
 - Perifrasiak
 - Aditz nominalizatuak
 - Beste osagaiak
- 2.8.- Lokailuak
 - Emendiozkoak
 - Hautakariak
 - Aurkaritzakoak
 - Ondoriozkoak
 - Kausazkoak
- 2.9.- Juntagailuak
 - Emendiozkoak
 - Hautakariak
 - Aurkaritzakoak
- 2.10.- M-endekeo esaldiak
- 3.- Estilo arazo batzuk (Euskaltzaindiaren arau edo aholku ez direnak)
 - 3.1.- Orden arazoak
 - Galdegaiak
 - Zerrendak: ordena eta deklinabidea
 - Perpaus osagarri jakin batzuen ordena
 - Eskuinera eramatearen mugak
 - Zehar estiloaren arazoak
 - Definizioen egitura
 - Indartzaileak eta foku bihurtzekoak
 - Ezeztapena
 - Erlatiboa (ordena)
 - Mendeko perpausaren barruko ordena
 - Pasiboa
 - Bestelako hurrenkera arazoak

- 3.2.- *Ere* eta sailekoak
- 3.3.- Datak, neurriak, ISO arauak
- 3.4.- *-ren* eta *-ko*
- 3.5.- Indartuak
- 3.6.- Birdeklinatze arazoak
- 3.7.- Komunztadura arazo jakin batzuk
- 3.8.- Izenondo erreferentzialak
- 3.9.- Perpaus osagarrietako arazoak
- 3.10.- Erlatibo arazoak
- 3.11.- Komunztadura mugak (“herriak du hitza eta erabakia”)
- 3.12.- Komunztadura eta aposizioak
- 3.13.- Atzizki erabilera zalantzazkoak
- 3.14.- Kalkoak
- 3.15.- Idiotismoak
- 3.16.- Euskalkien erabilera
- 3.17.- Marra aukerakoa denean
- 3.18.- Izen kolektiboak eta generikoak
- 3.19.- Hizkera ez baztertzaila
- 3.20.- Testu antolatzaileak
- 3.21.- Sintaxi bereziaren eta bortxatuaren arteko mugak

Lehen adierazi bezala, aurreko bi sailok barnean sintaxi arazo gehienak hartuko lituzkete. Jakina, tresna malgu eta elikagarri batek hasierako karga etengabe aberasteko bidea emango luke, beraz, erabakitzaileena sartzeari, kasu berriak txertatzeko modua genuke. Hurrengo multzoko batzuk zertzen eta kudeatzen errazago dira, beti ere kasu berriak agertu ahala datu baseari eranste bidea izanez gero.

4.- Puntuazio arazoak

- 4.1.- Esaldi amaierakoa
 - Marka galdua
 - Harridura edo galdera marka puntuaren orde
 - Puntua harridura edo galdera markaren orde
 - Puntua hiru puntuen partez
 - Hiru puntuak puntuaren partez

- Bi puntuak beste markaren baten ordezt
- Beste markaren bat bi puntuen aldezt
- Marra beste marken partez.
- Esaldi barruko aipuak eta parentesiak
- Aipu laburra
- Esaldi osoa aipua
- Parentesi laburra
- Parentesi luzea
- Parentesi barruko aipua
- Elkarrizketak
- Elkarrizketa barruko aipuak
- Benetan amaiera ez denean
- Bestelako amaiera arazoak.

4.2.- Letra larria eta esaldiaren hasiera

- Nahitaezt larriz
- Nahitaezt xehez
- Aipu zuzenaren hasiera larriz
- Aipu zuzenaren hasiera xehez
- Parentesi hasiera larriz
- Parentesi hasiera xehez

4.3.- Koma

- Koma nahitaeztkoa ez da agertzen
- Koma kendu beharrekoa (subjektuaren ostean, esaterako?)
- Zerrendak
- Txatal argigarriak
- Komak elementu sintaktikoren bat ordeztatzeko
- Beste puntuazio markaren bat komaren ordezt

4.4.- Marra

- Faltan
- Soberan
- Aukeran

4.5.- Bi puntuak

- Zerrendak
- Aipuak
- Amaiera esaldi moduan
- Esaldi amaiera ez direla

4.6.- Bestelako arazoak

- Punturik ez argazki oinetan...
- Zeinu grafiko bereziak (TM, R...)
- Zeharreko barra

5.- Arazo grafikoak

5.1.- Hutsunea

- Hutsunea faltan
- Hutsunea soberan
- Hutsune laburregia
- Hutsune luzeegia

5.2.- Lerro edo paragrafo berria

- Lerro berriaren hasiera kendu beharra
- Lerro haustura txarto
- Lerro hasiera txertatu behar

5.3.- Zuzeneko hizketa

- Marra galdua
- Okerreko marra mota
- Marra beharrik ez dagoela jartzea

5.4.- Esaldi barruko marratxoak

- Tarteak adieraztekoa
- Bikoteak adieraztekoak
- Gidoia eta marra motak okertzea

5.5.- Aipu markak

- Aipua aipuaren barruan
- Aipu marka bakarra bikoitzaren ordeztzea
- Aipu markak izen berezici txertatzea
- Markak galdurik
- Marketako bat galdurik
- Amaierako marka txarto jarrita
- Zuzeneko esanek marka beharrik ez
- Aipu barruko aipu marka oker (etzana, adibidez)

5.6.- Parentesiak

- Parentesi hasiera edo amaiera txarto
- Kendu beharreko parentesiak
- Parentesi barruko parentesia

5.7.- Huts tipografikoak

- Xehean aldez larriak
- Larrien ordez xheak
- Etzanaren erabilera okerrak
- Lodiaren erabilera okerrak
- Letra tamaina
- Marjinak

5.8.- Bestelako arazo grafikoak

- Agertu behar ez diren ikurrak
- Arautu gabeko erabilerak

6.- Estiloa, esangura eta erreferentzia

6.1.- Ortografia lehenetsia

6.2.- Noiz forma laburtua eta noiz osoa

6.3.- Zenbakiak

- Zenbakiak esaldi hasieran zifrez ez
- Esaldi barruan zifrez ala letrez
- DIN arauak
- Hamartarrak (neurriak, prezioak, denbora...)
- Kantitate handiak zifrez
- Gutxi gorabeherako kantitateak
- Ordinalak
- Datak
- Urtea esaldi hasieran
- Telefono zenbakiak eta enparauak
- Espazioak txarto zifren artean

6.4.- Hitz kategoria zuzen baina berba bera oker

- Huts semantikoak

6.5.- Berba eta esamolde aukera

6.6.- Zeinu aukera

- Aukerako erabilerak eta erabilera nahitaezkoak
- Zerrenda *buletak* eta zenbakiak

6.7.- Esaldi aukera

- Esaldi bat ala bi, aukera edo beharkizuna

6.8.- Sintaxi egituren aukera

- Okerreko egiturak

6.9.- Kotsintentzia

- Testu berean hitz edo kate bera hainbat modutan
- Euskalkiak, sinonimia
- *Edo*

6.10.- Erredundantzia

6.11.- Erreferentzi arazoak

- Erabilera sexistak, baztertzailak, zapaltzailak...
- Hartzailaren arabeko erabilerak
- Multzoa ala banakoa erreferentzia

6.12.- Kohesio arazoak

- Anafora, katafora...
- Perifrasiak
- Elipsiak

Azken sail batek kalitate estandarrak, bibliografia eta bibliografi aipua emateko jarraibideak, erakundearen estilo liburua, hainbat autoritate, egile eta ikerleren lanak, gomendioak eta enparauak jaso litzake. Beharkizun mailakoak ez direnak ere eman litzake sistemak, alegia, estilo gomendio moduko batzuk. Etiketa “adimentsuen” baliabidea (hainbat testu prozesadorek egun darabiltena) izan liteke gomendioak aurkezteko modu bat, halako berba edo esamolde aurretik markaturen bat agertuz gero.

Zuzenketa automatizatzeko bi proposamen

Honako atal honek berez itzulpenarako diren tresna bi zuzenketarako erabiltzeko proposamendua daroa. Izan ere, itzulpen memoriak kudeatzeko programen oinarria datza sorburu eta xede hezkuntzetako segmentuak datu base batean gordeta, halako antzekotasun maila batetik aurrera —normalean, %70 baino gehiago— itzultzaileari lehendik itzulitako zatia era automatikoan eskaintzean. Jakina, lagungarri croaten dituzte terminologia kudeatzeko osagaiak edo aplikazioak. Horrelakoez baliatzea da segituan doanaren muina.

Bi programok Trados Workbench eta Wordfast dira. Jakina, hauek biok Word testu prozesadorean txertatzen diren tresnak dira. Beste memoria-programa batzuk beregainak dira, hau da, testu prozesadorerik gabe dabilta, baina euskarazko zuzentzaile ortografikorik ez dutenez gero, ez ditugu aipatuko, nahiz eta gero azalduko dudan prozedurak, hau da, itzulpen memoriaren teknika zuzenketan erabiltzeak, berdin balio duen haietarako ere.

Atal honetan proposatuko dugun erabilera mota aldetik programa gehienak oso antzekoak diren arren, Wordfastek badu, berez, programaren aukeren artean, kalitatea kudeatzeko modulu bat. Beraz, itzultzaileak berak itzuli ahala zuzentzailearen eginkizunetako batzuk bereganatzeko bidea izango du. Edo, bestela, zuzentzaileak berak automatiza dezake, orrazketa egiterakoan. Programan kalitate kudeatzailea aukeratuz gero, hutsune bat baino gehiago ez egotea

zainduko du programak, baita espazio apurtezirik jarri behar den ez den, testu prozesadorearen zuzentzaile ortografikoa pasa behar duenentz, etiketak, markatzaileak eta itzuli behar ez diren zatiak berdinak ote diren ere, baina, seguru asko, aukerarik interesgarriena, glosategiak eta zerrenda beltza izeneko glosategi berezia ere erabiltzeko bidea izango da. Alegia, itzulpenean erabili nahi edo behar ez diren terminoak edo kateak agertzen direnean, programak oharra abiarazten du eta itzultzaileak edo zuzentzaileak hari jaramon egin eta aurrera jarraitu ala ez erabaki beharko du. Zerrenda beltza bera ez ezik, hiru glosategi ere gestiona ditzake programak, hau da, itzultzaileak edo zuzentzaileak testua orrazteko tresna sano interesgarria du, atentzioa eman behar duten terminoak edo kateak berehala topatzen dituelako. Horri gehitu behar diogu, hasierako ataletan azaldu legez, testu prozesadoreari erabiltzailearen hiztegiak gehitu ahal izatea, hala, zuzenketa ortografikoa estilo irizpide jakinetara ekartzeko.

Tradosek, bestalde, kalitatea kontrolatzeko modurik ez dakarren arren, on du Multiterm aplikazioa, alegia, termino zerrendak kudeatzeko aplikazioa. Zuzenketari begira, termino base berezia antolatu behar luke zuzentzaileak edo itzultzaileak, hau da, beti legez, bi hizkuntza ezberdin aukeratu beharrean, datu baseak sorburu eta xede hizkuntzak berberak lituzke, zuzenkizun den hizkuntza, izan ere. Berezia ere egitura aldetik jasoko lituzkeelako gaitzetsi edo ohar-tarazi beharreko hitza edo katea, zuzenketa proposamena eta azalpenen bar, testuinguruari buruzkoa. Hala, Multitermek orraztu beharreko testuan detekzio lana egingo luke, zuzentzailea edo itzultzailea jakitun jartzeko zein datu basean proposaturiko zuzenketa era automatikoan jaso ahal izateko.

Funtzionamendu aldetik, memoria-programa erabiltzeko orduan, zuzenketarako memoria berezia aukeratu edo berria eratuko luke erabiltzaileak: sorburu segmentuak testua zuzendu aurrekoak, xede segmentuak, zuzenduak, orraztuak. Jardunbidea halako programetan erabili ohi den berbera, alegia, zuzenkizun den testua "itzultzen", hau da, segmentatzen, zatitzen hastea. Jakina, memoriak nekez edukiko du jasota proposatzen zaion segmentua, baina programa bat zein bestea erabilita ere, lehendik definituriko zerrenda beltzean edo datu basean hasiko lirateke definiturikoen bila. Hala, topatzen dituen termino edo kateak markatuko ditu. Unitatea ontzat emanez gero, alegia, hurrengo unitatera jotzeko eskatuta, segmentuan eginiko aldaketak, testu orraztua, memoriara joango da, alegia, hasierako bertsioa eta bertsio zuzendua gordeko ditu. Hala, apurka-apurka, testu zuzenduen memoria eratuko da. Hurrengo testuak orrazteko orduan, memoria hura erabiliz gero, bidea izango du erabiltzaileak kontsultak egiteko, beraz, zuzentzaileak beti ere izango du zuzenketa irizpideen biltegi elektronikoa eratzeko aukera.

Azaldutako prozedura bera baliatuko litzateke Wordfasten, baina, lehen esan bezala, terminologiarako aplikazioa erabili beharrean, Quality Check modulua eta glosategi zein zerrenda beltzaren aukerak indarrean jarrita.

Zertan esanik ez dago, proposamen honek automatizazioaren goreneko maila ez du erdie-tisiko, baina aldeko ditu hainbat faktore biltzen ditu bere baitara, besteak beste, inbertsio berri-rik egin behar ez izatea, erabiltzen erraza izatea, memoriak esportatzeko estandarrak erabilita, erabiltzaileok zuzenketa memoriak elkarri pasa ahal izatea eta, jakina, erabili ahala etengabe elikatze aukera. Eta, jakina, Internet bidez zuzenketa memoria eta datu baseak *on line* parti-

tzekoa. Bestalde, ondo antolatuz gero, programok itzultzeko erabiltzen direnean bezala, aurretiko orrazketa automatikoa edozein langilek egin lezake, eta, hala, zuzentzaileari benetan ebatzi beharrekoak edo datu baseak jasorik ez dituenak erabakitzea geratuko litzaizkieke.

LEAD OUT


Kontua beraz, zuzentzailearen eta makinaren arteko elkarrengaitasun egokia topatzea da, egungo baliabide informatikoen erabilera bikaintzen eta fintzen jardun beharra dago. Tresna berriak diseinatzea ez da, besterik gabe alboratu behar, baina ikuspegi ekologiko batetik, egokia dirudi egun diren baliabideen aukera guztiak (eta asko ere asko dira, zertan esanik ez) behar bezala kudeatzea eta, denborazko inbertsioak merezi duen neurrian, egokitzea, eraginkortasuna muga dela. Alegia, informatika baliabideen garapen eta kudeaketa jasangarriak (iraunkor bihurtuko badira!).


Zuzenketa corpus eta irizpideak, erabilerarik zabalenean, estandarrenean izango dute lehentasuna, baina tokian tokiko usadioetara egokitzeko atea (euskarari dagokionez, euskalkiak) ahazteke. Erakunde publikoek erantzukizun handia dute, zuzenketa irizpideen kontsultategi eta truke leku birtualak eratzea mintzagai darabilgula. Hizkuntzaren batasuna eta estandarizazioan aurrera egiteko inoizko baldintzarik onenak jarri dizkigu eskura egungo teknologiak.


Baina ez da ahaztu behar herri eleanitzetan, azken buruan, zuzenketa irizpideak dokumentuak discinatzen, pentsatzen hasten direnetik bertatik izan behar direla kontuan, gerokoan alferlanik egin behar ez izateko. Estilo jarraibideak nahitaezkoak dituzte erakundeek eta enpresek, eta idazkuntzan diharduten guztiak horiek estu bete beharra. Testu prozesadoreetatik bertatik eskaini behar lituzkete erakundeek eta enpresek langile guztiei ahalik eta estilo laguntza gehienak (automatizatuak, jakina), zuzenketa aria behar bezala gauzatzeko: *on line* hiztegi, glosategi eta estilo liburuak, estilo eta ortografi zuzentzaile automatikoak, dokumentu ereduak datu baseak, itzulpen memoriak (kontsulta moduan baino ez bada ere)...


Ondo kontuan izan behar da, azken buruan, itzultzaileak eta zuzentzaileak —hizkuntz kalitatearen aditu diren profesionalak— gutxiengoa direla testugintzan, gainerako gehiengoak teknologia, kalitatea, estandarrek, estiloa eta are oinarritzko gramatika eta ortografi arauak oso alor arrotza dituela. Eta gainera, bost axola diola. Seguru asko, hala behar du, bestalde. Hizkuntz kalitateak dakarren gastu ikaragarriaz ohartu beharra dago sektore eta alor honen balio estrategikoak konturatzeke. Bestalde, teknologi kultura hedatzea ere noraezko helburu behar lukete erakunde-enpresok eta, zertan esanik ez, zuzentzaileek ere.

Barbaren erdia, azken buruan, esalearena, idazlearena edo zuzentzailearena da. Beste erdia, ordea, irakurlearena, entzulearena, jasotzailearena.









EIZIE

